

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparragirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006), 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientatibide erregistroen trateraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS i LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK, EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen berria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. 2010
12. JUJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz. 2010
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK, EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012



9 788495 438843

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itxaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian • Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord




I5


Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos

Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian

Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord




EUSKALTZAINDIA



Erramun Baxok Indart 1928an sortu zen Suhuskunen, Nafarroa Beherean. Filosofiako doktoregoa egin zuen pertsonalismoaz. 20 urtez Quebecen egon zen filosofia irakasle bai eta ere, 1976-1980 artean, gradu-ondoko ikertzaile Nazioarteko Elebitasun Zentroan, Laval Unibertsitatean. 12 urtez Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzalaritza aplikatua landu zuen. Ikas, pedagogia zentroan "Euskaraz Bizi" (6 luburuki), multi-media metodoa, antolatu zuen. 1990ean Euskal Kultur Erakundaren sortzaileetarik zen, gero 10 urtez buruzagi egon zen, inkesta askotan parte hartuz, euskararen egoeraz, euskal kulturagintzaz, gaztetxoek kizkuntza jokamoldeaz, Garaziko hizkuntza bilakaeraz... 1998an Jakin aldizkarian soziolinguistika kronika atxiki zuen, "Euskararen prospektibaz" adibidez. 2008an "Iparraldeko euskararen egoera" liburua argitaratu zuen Euskararen Erakunde Publikoaren izenean. Euskaltzain urgazle da 1995az geroztik eta Jagon sailan lan egiten du, hizkuntza eskubideaz besteak beste. 2010ean Ohorezko Euskaltzain izendatua izan da.

Erramun Baxok-Indart est né en 1928, à Suhescun (Basse-Navarre). Doctorat en philosophie sur le personalisme. Pendant 20 ans, il est professeur de philosophie au Québec et chercheur post-gradué au Centre international de bilinguisme de l'Université Laval de 1976 à 1980. 12 ans d'enseignement et de recherche en linguistique appliquée à l'Université du Pays Basque. Auteur de la méthode multi-média Euskaraz Bizi (6 modules) au Centre pédagogique Ikas. En 1990 il participe à la création de l'Institut culturel basque qu'il a présidé pendant 10 ans, tout en coopérant à plusieurs enquêtes sur la situation de la langue et de la culture basques, le comportement linguistique des adolescents, l'évolution de l'euskara en Garazi... En 1998 il a tenu la chronique sociolinguistique de la revue Jakin, notamment sur la prospective de la langue basque. En 2008, il a publié "La situation de la langue basque au Pays Basque Nord" sur commande de l'Office public de la langue basque. Nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue Basque Euskaltzaindia en 1996, il prend part aux travaux du département Jagon, notamment sur le droit linguistique. Il a été nommé Ohorezko Euskaltzain (académicien à titre honorifique) en 2010.



Jean-Baptiste Coyos Etxebarne 1952an sortu zen, Mauléon (Soule). 1974ean lehen mailako irakasle ikasketak burutu zituen eta geroztik irakaslea izan zen 2008 arte. 1991ean hizkuntzalaritza ikasketak hasi zituen René Descartes Unibertsitatean (Sorbonne Paris) eta 1998an hizkuntzalaritza orokorreko doktoregoa eskuratu, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité izeneko tesiarekin. 1996az geroztik kurtso ematen du unibertsitateetan. 1999tik 2003ra hizkuntza politikarako karguduna izan zen Pirinio Atlantikoko Kontseilu orokorrean eta ikerketa karguduna Baionako Iker zentroan 2004tik 2006ra. 2006an euskaltzain urgazle izendatu dute eta euskaltzain oso 2010ean. Zazpi liburua eta artikulu asko argitaratu ditu hizkuntzalaritza eta soziolinguistikako alorretan.

Jean-Baptiste Coyos Etxebarne est né en 1952 à Mauléon (Soule). Il a terminé ses études d'enseignement du premier degré en 1974 et a ensuite enseigné jusqu'en 2008. En 1991, il commence des études de linguistique à l'Université René Descartes (Sorbonne Paris) et en 1998 devient docteur en linguistique générale en soutenant la thèse, Description du parler basque souletin des Arbailles - Étude de l'ergativité. Depuis 1996 il est chargé de cours dans les universités. De 1999 à 2003 il a été chargé de politique linguistique au Conseil général des Pyrénées-Atlantiques et de 2004 à 2006 chargé de recherches au centre Iker de Bayonne. En 2006, il a été nommé membre correspondant (urgazle) de l'Académie de la langue basque et académicien titulaire en 2010. Il a publié sept livres et de nombreux articles dans les domaines de la linguistique et de la sociolinguistique.

ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA
IPAR EUSKAL HERRIAN

LES JEUNES, LES LOISIRS ET LA LANGUE BASQUE
EN PAYS BASQUE NORD

ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA
IPAR EUSKAL HERRIAN

LES JEUNES, LES LOISIRS ET
LA LANGUE BASQUE
EN PAYS BASQUE NORD



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO
2011

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.

Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-84-3

Lege-gordailua: BI-286-2012

ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS

GAZTEAK, AISIALDIA ETA
EUSKARA IPAR
EUSKAL HERRIAN

AURKIBIDEA

Aurkibidea	9
Laburdurak	11
Aitzinolasa: <i>Euskararen geroa: gazteak. Andres Urrutia, euskaltzainburua</i> .	13
Eskerrak	15
I. Problematika: Gazteak, aisialdia eta euskara	17
I.1. Ikerketaren testuingurua eta helburuak	17
I.2. Aisia, aisialdia: Definizioak	19
I.3. Eremu ezberdinak	20
I.4. Hiru ikuspuntu: Hezkuntza – Sorkuntza – Kontsumoa .	22
2. Corpusa eta metodologia	25
2.1. Datu-iturriak	25
2.2. Metodologia	28
2.3. Corpusaren eta metodologiaren mugak	30
3. Ipar Euskal Herriko gazteria	35
3.1. Gazteak inkesta honetan	35
3.2. Gazteak Ipar Euskal Herriko biztanlerian	36
3.3. Gazteen ingurumen soziokulturala	37
3.4. Hizkuntza-gaitasuna	38
3.5. Euskararen erabilera	41
3.6. Iritziak euskarari buruz	44
3.7. Nortasun sentimendua	46

3.8.	Gazteak eta euskal kultura	49
3.9.	Gazteak eta kirolak	52
3.10.	Gazteak elkarte bizitzan	53
3.11.	Ondorioa: Gaur egungo gazteen argazkia	58
4.	Aisialdien eremuak	61
4.1.	Bilguneak, egonaldiak eta ibilaldiak	63
4.2.	Komunikabideak	69
4.3.	Liburugintza	80
4.4.	Musika, kantua eta dantza	88
4.5.	Antzerkia eta bertsolaritza	96
4.6.	Arte plastikoak	104
4.7.	Kirola eta zirkua	107
4.8.	Festibalak eta bestak	114
4.9.	Zinema	121
4.10.	Ondarea	125
4.11.	Aisialdi zientifikoa eta ingurumena	129
4.12.	Berezko aisialdiak	134
5.	Politika publikoak	139
5.1.	Hizkuntza politikaren hastapena	139
5.2.	Euskararen Erakunde Publikoa	140
5.3.	Euskal Kultur Erakundea	147
5.4.	Tokiko kolektibitateak	153
6.	Ikerketaren ondorio nagusiak	159
6.1.	Indarguneak eta ahuleziak	160
6.2.	Proposamen eta gomendio bereziak	161
6.3.	Proposamen orokorrak	163
6.4.	Azken hitza	165
7.	Bibliografia	167
8.	Argazkiak	171
9.	Eranskinak	173
9.1.	Eragile batzuen erreferentziak	173
9.2.	EEP, 2006, Hizkuntza politika proiektua: 5. Aisialdia (40. or. eta 47.-53. or.)	175

LABURDURAK

Hona liburu honetan erabiliko ditugun laburdurak, bereziki erakundeak izendatzeko eta inkesta ezberdinei erreferentzia egiteko.

Azterketa 2009: Euskararen Erakunde Publikoak daraman ekintzaren behin-behineko azterketa, 2005-2009, 2009eko iraila. État des lieux provisoire de l'action menée par l'Office public de la langue basque, septembre 2009.

EEP: Euskararen Erakunde Publikoa.

EKE: Euskal Kultur Erakundea.

Euskara 2006: Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian, Erramun Bachoc.

Gaztetxoak 1999: Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara.

Hizkuntza politika 2006: Hizkuntza politika proiektua, 2006, EEP.

Inkesta 2006: IV. inkesta Soziolinguistikoa, 2006, Eusko Jaurlaritzak.

INSEE: Institut national de la statistique et des études économiques.

Jokabide 2016: 2011-2016 urteetako hizkuntza politikaren Jokabide Esparrua, 2010eko urria - Cadre opérationnel 2011-2016 pour la politique publique linguistique, octobre 2010.

Kultura 2006: Lurralde 2006, Pays Basque 2020, Etat des lieux sur la culture

Kultura 2007: Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008.

Kultura 2013: Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka – Culture basque 2007-2013 Devenir ensemble, 2006, EKE.

Nortasuna 2005: Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran, 2006.

SIADeco: Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario.

AITZINSOLASA

Euskararen geroa: gazteak

Euskararen geroaz kezkatzen den orok jakin badaki gero hori, hein handi batean bederen, belaunaldi gazteen eskuetan dagoela. Izan ere, hizkuntza batek gazteengan du etorkizuna, horien ezpain-mihietan ibili dabilen bitartean. *Zabar hitzak, zubur hitzak*, esan ohi da gure artean, arrazoi handirekin. Adinetan aurreraturik daudenek badute, haatik, euren esanetan entzunaren eta ikasiaren xarma.

Gazteak, aldiz, bat-batekotasunaren nagusiak dira. Dinamikoak, berriztatzaileak ... ikonoklastak arlo askotan, hizkuntza barne. Orobat, errazegi mol datzen dira munduan zehar ari diren moda eta boladako kontuetara.

Horra, bada, Erramun Baxok eta Battittu Coyos bikote euskaltzaleak eta euskaltzainak ondu digun liburuaren mamia. Funtsean, gazteei eurei hitza eman eta euren iritziak entzun, bildu, ikertu eta guri eskaini, besteok ere, euskararen kezka dugunok, jakin dezagun zertan den afera oraingo honetan.

Euskararen auzi gogorrenetan sartzan da belaunalditik belaunaldirako transmisioa. Galdua omen da euskara haien aho-mihietan. Esanak esan, inkestak esanguratsuak egin dira jada Euskal Herriko Iparraldean gazteei buruz eta batez ere, gazteek aisialdian euskara noraino, zertarako eta zein testuingurutan erabiltzen duten.

Halakoak egiteak eskatzen du, bistan da, berme eta oinarri sendoa. Besteak beste, Euskararen Erakunde Publikoak azken urteetan eman duena. Langintza horretan Euskaltzaindia du bidaide eta lagun eta hala delako frogaz ezin nabarmenagoa da liburu hau.

Meritua, alabaina, egileena da, beraiek izan baitira datu multzo hori iker-tu, sailkatu eta modu txukunean jarri dutenak, gazteen bizitzan osagai esanguratsua den aisialdia arakatu dutenean, euskararen ikuspegitik.

Mundu oso bat aurkituko du bertan irakurleak, mundu esanguratsua, gure hizkuntzaren nondik norakoak egoki ezagutzeko aukera eta parada ematen duena. Ondorioak ere, argi datoz, aisialdian euskararen erabilera areagotzeko irtenbideak azaltzen direla.

Bete-betean sartzen da hau Euskaltzaindiaren zereginetan eta JAGON sailaren Sustapen Batzordean. Hala ulertu zuen batzorde horrek eta lan honen lehen bertsioa ere aurkeztu zen 2010. urteko azaroan Bilbon egin ziren jardunaldietan “Gazteak, aisialdia eta euskara”. Orduan txostena zena gaur liburu mardula eta ohargarria dugu Euskaltzaindiaren JAGON bilduman.

Ez da bikote honen lehen liburua. Azkena ere ez dela izango ziur nago. Eginahalak egingo ditugu hurrengoan ere, Iparraldean zein Hegoaldean, Euskal Herri osoan, euren lanen berri emateko aukera izan dezaten Euskaltzaindiaren bitartez.

Horretarako tresnak euskara eta frantsesa aukeratu dituzte, bitasun horretan kausituz gizartearen ispilua eta miraila. Hartara, aberastu egin da bibliografia bi hizkuntzetan eta bide beretik, bildumaren esanahia eta pisua.

Goresmenak eta eskerrak egileentzat eta Euskararen Erakunde Publikoarentzat, lana argitaratzeko bidea erraztearren eta jarraitu dezagun bide beretik, oraindik zer jorratua ere badago eta.

Andres Urrutia
euskaltzainburua

ESKERRAK

Esker beroenak lagundu gaituzten ondoko hauei adierazi nahi dizkiegu:

Andres Iñigo Jagon sailburuari,

Maider Bergouignan eta Titto Aguerre Euskararen Erakunde Publikoko lan-
kideei.



Iparaldeko Bertsulari Xapelketa Gabadin 2010-10-23
(xilaba.net)

I. PROBLEMATIKA: GAZTEAK, AISIALDIA ETA EUSKARA

I.1. IKERKETAREN TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

Lan honetan Euskaltzaindiak 2010 urteko XV. Jagon Jardunaldien kariatara hautatu zuen “*Gazteak, Aisialdia eta Euskara*” aztergaia zehazten dugu, Ipar Euskal Herria lan eremutat hartuz. Ikerketa hau urte oroz Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) izenpetzen duten lankidetzahiztarmenean kokatzen da. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Sustapen Batzordearen baitan bideratua da.

Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotuak diren aisialdiak zein diren. Ikerketa hau lehenik eta behin deskriptiboa da, helburu teorikorik gabe. Gazteen, aisialdiaren eta hizkuntzaren arteko erlazioak dira aztergai, zinez gai konplexua. Jardueri bereziki interesatuko gatzazkie, zertan, norekin eta non gauzatzen diren.

Aisialdia denbora-tarte handia da gaur egungo gazte baten bizitzan. Batez beste, eskolako egunak 180 dira urtean, nahiz Frantzian (astean 24 ornekolan, 30tik 40era lizeoan), nahiz Espainian. Ondorioz, XXI. mendeko has-tapen honetan, euskararen egoerarentzat aisialdia denbora-tarte estrategikoa bilakatu da gazteengan. Gaur egun belaunaldi honen kasuan hurbileko harremanek, gizarte-sareek eta modako jarrerrek eragin handia dute hizkuntzaren erabileran, bai eta ere komunikabideen eta aisialdirako produktu eta zerbitzuen eskaintzak¹.

Gazteentzat euskarazko aisi-eskaintza zein den Ipar Euskal Herrian gaur egun aztertuko dugu. Hortarako egoera-azterketa zehatz eta zabala egin behar

¹ Ikus 2009ko *Gazteen bizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* (Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa, Topagunea).

da. Hau da eginen dena 4. atalean edo bederen saiatuko, osotasuna bilatu gabe. Eragile pribatuen eta publikoen jarduerak aurkeztuko dira aisialdi eremu ezberdinetan. Ildo honetan eskaintza kultural eta artistikoari ere interesatuko gatzaito, kultura aisi-eskaintzari lotua batzaito.

Beste helburua da euskararen aldeko politika publikoa aztertzea gazteen aisialdi alorrean. Hau eginen dugu 5. atalean. Euskararen erabilera indartzeko, eskolaren eragina mugatua dela badakigu. Ikasle gero eta gehiagok euskara ikasten dute, baina ikasi hizkuntza eskolan eta bereziki eskolatik kanpo erabiltzen ote dute? Inkesta soziolinguistikoen arabera ez hainbeste. Ondorioz eskolaz kanpoko jardueren eta bereziki aisialdiaren garrantzia agertzen da. Euskararen Erakunde Publikoak, adibidez, bere hizkuntza politika proiektuaren 5. erronka nagusia horrela definitu du: “*Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamina uztartzea*” (Hizkuntza politika 2006: 47. or.).

Beste erronka bat honi lotua dena da gazteei nola transmititu euskal kultura. Kulturak hizkuntzari adiera ematen dio. Euskara eta euskal kultura uztartu behar dira, euskara baliorik gabeko tresna egon ez dadin. Hau da, bistan da, eskolaren eginbeharretarik bat. Baina aisialdiek ere euskarari eta euskal kulturari leku handia eman behar diete aipatu arriskua saihesteko. Oro har, eskola eta aisialdia hezkuntzaren bi eragile dira familiaren osagarri.

Ildo honetan zein izan daitekeen epe laburreko eta luzerako euskararen aldeko politika gogoetatuko dugu, gazteei eskaintzen den aisialdi eremuan politika hori eraginkorrago izan dadin. Esperientzien eta entseguen irakaspenak baliatuz, proposamen eta gomendio batzuk egiten ausartuko gara 6. atalean. Era batez, beraz, ikerketa hau preskriptiboa ere izan daiteke edo bederen aholku-emale.

Aztertzen dugun alorrean egiten denaz gain, gazteen ingurumen soziologikoa, demografikoa eta linguistikoa kontuan hartu behar dira bai eta ere indarrean diren dinamikak, jakinez oraingo gizartea laster aldatzen dela. 3. atalean ingurumen hauek doi bat azalduko ditugu: Ipar Euskal Herriko gazteen nortasuna, euskaldunen proportzioa, beren kultura praktikak bai eta ere euskal ekoizpenaren kontsumoa. Ikergai honi buruz ikerketa berezi bat badugu, *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa 2007-2008ko* inkesta (Eusko Jaurlaritza, EKE). Lan honetan aztertzen diren 13-17 urteko eta 18-34 urteko adin-taldeekin jokabide kulturalak interesgarriak zaizkigu.

Gaztaroa belaunaldi garrantzitsua da euskararen geroarentzat, zeinahi hizkuntzarentzat bezala. Arrazoiak asko dira. Horien artean aipatuena biharko gurasoak izanen direla da eta hizkuntza bat edo bi beraien haurrei transmitituko dutela. Nola egin Euskal Herrian euskara lehen hizkuntza edo bi hizkuntzetarik bat izan dadin? Molde orokorragoan, gaztaroa garai erabakigarria da edozein hizkuntzarentzat, gaztea bere identitatea eraikitzen ari baita. Lehen hizkuntza bere identitatearen ezaugarri nagusia izanen da, dudarik gabe.

2006ko inkesta soziolinguistikoak Ipar Euskal Herrian euskara familian gero eta gutiago ikasten dela erakutsi du: “65 urte edo gehiagokoan artean frantsesa %62,5en lehen hizkuntza bada ere, 16 eta 24 urte artekoen %85,9 da” (Inkesta 2006: 96. or). Baina badakigu ere azken urte hauetan euskararen irakaskuntza aitzinatu dela Ipar Euskal Herrian eta IV. inkesta soziolinguistiko honek eskola-irakaskuntzaren ekarpena agertarazi du, azken adin taldea (16-24 urtekoa) zaharragoa baino euskaldunago dela azpimarratuz: «*Elebidun gutxi 25-34 urtekoen artean dago (%11,6) eta gehien aldiz 65 urte edo gehiagokoan artean (%32,4). Dena dela daturik azpimarragarriena, 16 eta 24 urtekoen artean elebidunen ebunekoa da, %16, lekoa baita. Horrek esan nahi du gazteen aldetik azken urteotako beherantzko joera apur-tu egin dela...*» (ibid.: 80. or.). Beraz eskola-irakaskuntzari esker euskararen eza-gutza berriz goratzen ari da adin talde gazteenetan, apala izanik ere. Baina ohargarri da ere hizkuntzaren ezagutza ez dela aski erabiltzeko, nahiz baldin-tza *sine qua non* den.

Erdal kultura nagusitzen da. Telebistan, musikan, liburuetan, prentsan, gaz-teen erreferente kasik guztiak erdaldunak dira, eta euskara eskola-hizkuntza bi-lakatu da, hizkuntza akademikoa. Garaipen bat da segur aski, baina ikastetxetik kanpoko erabilera ezinbestekoa da hizkuntza biziarazteko. Aisialdi jardueren antolaketak gero eta garrantzi gehiago hartzen du euskararen erabileran.

Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko politika publikoa eramaten duen erakundea, Euskararen Erakunde Publikoa horretaz ohartu da eta bere 2010-2016 proiektu berrian erraten du argiki: “2005etik 2009ra eraman izan den jar-dueraren egoera azterketak argian eman du EEPk bere abalegina hizkuntzaren transmisioan belaunaldi gazteengan eman duela nagusiki (...) Aukera hau, familia transmisioaren haustearen ondorioz, irakaskuntza hizkuntzaren transmisioaren eragile nagusia delako egiaztapenean oinarritu da. (...) EEPk erabileraren eremuan ere jarduera batzuk eraman ditu, bala nola edizioan, medietan edo oraino gizarte-bizitzan. Halere, engaiamendu hori nabikoa ez dela ohartu behar da. Alabaina Hizkuntza Politiko Proiektuaren oinarrian den analisi soziolinguistikoak biz-kuntza politika bat eraginkorra dela transmisioan eta erabileran eragiten baldin bada erakutsi du” (Jokabide 2016: 14. or.). Gazteen kasuan bereziki, aisialdia euskararen erabileraren eremu garrantzitsua da. 4. atalean Ipar Euskal Herriko egoeraren azterketa proposatzen dugu, panorama bat ahal bezain osoa.

I.2. AISIA, AISIALDIA: DEFINIZIOAK

Ikerketa honen zailtasunetarik bat aztergaia mugatzea eta definitzea izan da, aztertu den biztanleriaren aldetik, erran nahi baita gazteak nor diren, bai eta ere biztanleen jardueraren aldetik, erran nahi baita aisialdia zer den. Orok intuitioz aisialdia zer den badakigu. Arazoa da definizio zientifiko bat eskura-tzea, ikerlanarentzat egokia litzatekeena. Hona aisialdiaren bi definizio, beste

anitz aurki daitekeela jakinez eta ikerketa honen helburua ez dela eztabaida teorikoetan sartzea.

Lehen definizioa: “*Lanik edo zereginik gabeko tartea, nor bere gogora ematen duena*” (*Euskal biztegi modernoa*, 2000, Elhuyar: 21. or.). Definizio honen oinarria denbora hutsa da, aizina, eginbeharrez okupatua ez den denbora. Gazteentzat kontrolatzen duten denbora, denbora librea biziki garrantzitsua da autonomiaren bila, helduenganik bereizteko bai eta ere beren artean.

Aldiz, hona beste definizio bat denbora betea oinarritzat hartzen duena: “*Denbora librean eramaten diren jarduerak, jolasak, kirolak, irakurketa, Internet, telebista, erakusketak, zinema, pidaiaak, emankorra ez den lana*” (*Wikipedia*). Hemen ekintzak kontuan hartzen dira aisialdia definitzeko.

Gainera beste ezaugarri subjektibo bat azpimarra daiteke: “*Aisiaz hitz egiten dugu gizakiak autonomia osoz eta gozamina, dibertimendua, atsedena edo garapen pertsonalarekin lotuta dagoen jarrera subjektibo batekin, jarduera batzuk egitea erabakitzen duenean. Aisia da denbora librea gehi askatasun pertsonala*” (*Haur eta nerabeen aisialdi antolatua*, Martinez García et al., 2000: I I. or.). Ikerketa honetan azken ezaugarri hau ez dugu kontuan hartuko, aisialdi antolatuetan eta hezitzailetan maizenik askatasun pertsonal osorik ez baita. Halere baliagarria izanen da berezko aisialdiak aipatuko direlarik.

Definizio hauek onartuz aisialdiaren eremuak biziki hedatuak izan daitezke. Baratzearen lantzea, bideo-joko batekin jokatzeko edo denbora pasatzeko lagunartean mintzatzea, adibidez, honela definitu aisialdietan sar daitezke. Gazteen kasuan erranen dugu ikastetxetik kanpoko tartea dela, eguneroko premiak eta etxeko lanak kontuan hartu gabe, ez eta ere ikastetxerako garraioa. Hots aisialdia une librea litzateke, aukerako jarduerak eramateko.

Baina holako definizio zabala onartzen badugu, gazteen aisiak aztertzea zaila bilakatzen da. Daturik ez dugu behaketaren zailtasunarengatik, norbere jardueren kasuan bereziki, kuadro instituzionaletarik kanpokoak direlarik. Gazteek ohiko aisialdi egituratueterik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dute, helduen mundutik ezkapatzeko eta une horiek aztertzea zaila da, pribatuak baitira. Moda berriak sortzen dituzte, ezberdin izan nahi baitute. Beraz aisialdian ere neurri batean bereziak dira gazteak.

I.3. EREMU EZBERDINAK

Aisia eta aisialdia molde orokorrean definitu ondoren, aisialdiaren eremu ezberdinak finkatu eta sailkatu behar dira. Euskararen Erakunde Publikoak aisialdia bost azpieroetan zatitzen du bere *2010-2016 urteetako Jokabide Esparruan*: harrera-egiturak (egonaldiak eta ibilaldiak), kirol-hezkuntza, arte eta kultura-hezkuntza, zerbitzu kontsumoa (I7. or.). Sailkapen honetan irakaskuntza eta

kontsumoa kontuan hartuak dira, aldiz sorkuntza eta ekoizpena ez. Molde batez, agertzen den aisialdiaren definizio inplizitua eskola-hezkuntzari lotua da. Kirol praktikak eta praktika kulturalak sailkapenean sar daitezke, baina beste eremu batzuk ere falta dira. Non sar festibalak, bestak? Jarduera horiek aisialdian kokatu behar dira. Ala ote zerbitzu kontsumoan, adiera zabalean? Halere eta oro har sailkapen honek funtsezko oinarria ematen digu, pedagogia.

Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Hezkunde Ministeritzak 2004an izenpetu zuten hitzarmenaren 2010ko koordinaketa txostenean beste sailkapen bat badago. Ikastetxeei zuzendutako proiektu deialdiari erantzun dioten egitasmoak honelako moldean banatuak dira: ikuskizunak, egonaldiak, irakurketa eta idazketa, irratia, bideoak eta zinema, kirola, musika, arteak eta beste. Sailkapen honen irizpidea ez da eremuen banatzea lehenean bezala, baina aisi motak ezaugarri berezien bidez finkatzea.

4. atalean honelako eremu banaketaren arabera gazteen aisialdia aztertuko dugu, banaketa doi bat hedatuagoaren arabera: 1) Egonaldiak, ibilaldiak, 2) Hedabideak, informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) barne, 3) Argitalpena eta irakurketa, 4) Musika, dantza eta kantua, 5) Antzerkia eta bertso-laritza, 6) Arte plastikoak, 7) Kirolak eta zirkua 8) Bestak eta festibalak, 9) Zinema, 10) Ondarea, 11) Zientziak eta ingurumena, 12) Berezko guneak (gaztetxeak eta beste), bukatzeko. Beste azpiegiturak, liburutegiak, erakustokiak, zinema-gelak... dagozkien eremu berezian aurkeztuko dira.

Ikergaia finkatzeko nahian muga arazo batzuk topatu ditugu. Ikastetxean egiten diren ikastorduetarik kanpoko ekintzak aisialdian koka ditzakegu ala ez? 2008-2009 ikasturtean, EEPk ikastetxeen proiektu deialdia antolatu zuen helburu honekin: *“Ikastetxean edo ikasleen artean euskara sustatzeko, ikasleen motibazioa handitzeko eta euskararen irakaskuntzan, irakasle taldeen indarrak azkartzeko»*, (*Ikastetxeei zuzendutako gutuna*, 2009-06-03). Lehen deialdian, ikastorduetako eta ikastorduetarik kanpoko ekintzak ez dira bereziak. Halere ikastetxeetako jarduerak bereiz ditzakegu ezberdintasun hau baliatuz: alde batetik ikastetxeetako ekintzak ikastorduetarik kanpo eramaten direnak (*périscolaire*) eta bestetik ikastetxetarik kanpokoak (*extrascolaire*). Trukaketa bat Hegoaldeko ikastetxe batekin, adibidez, ikastorduetarik eta ikastetxetarik kanpo egiten da, gehienetan bederen, harrera familia batean eginez. Beraz bai, holako eskola egonaldiak aisialdian koka ditzakegu.

Zer egin kulturarekin? Hiru kategoriatan bana daiteke: hezkuntza, sorkuntza eta kontsumoa. Iduritzen zaigu, ikastetxetarik kanpo denean, kultura gozatzeko hiru molde hauek aisialdian sartzen direla.

Eta ondarea? Aisialdian sar ote daiteke? Ondare naturala badugu ere, animalia basatiak, flora, etab. Alor hau zientziei lot geniezaieke. Baina orduan aisialdian sartzen ote da? Gero eta gehiago zientzia-aisiak apaitzen dira. Zer erran parke zoologiko baten bisitaz? Bistan da isialdi eremu orokorrean sartzen dela.

Beste muga arazo bat daukagu aisialdi-eskaintzarekin. Batzutan ez da bakarrik gazteei zuzendua. Jarduera, ekitaldi, produktu aintz ez dira publiko eta adin-talde berezi batentzat eginak; xede-publikoa ahal bezain zabala izan daiteke. Kasu honetan, gure hautuaren abiapuntuko galdea zen eskaintza gazteei ere proposatua zenez bai ala ez. *Euskal Herria Zuzenean* festibala ez da gazteentzat bakarrik sortu, halere gazteria da publiko nagusia. Aldiz euskara hutszko *Herria* astekariak adineko euskaldun girstinoak lehen irakurlegotzat dauzka, gazteak hunki nahi baldin baditu ere. Astekari hau ez dugu baztertuko, baina bere irakurleko nagusia zein den kontuan hartuz, laguntza publikoak aztertzeke mementoan, EEPk *Herriari* ematen duen diru-laguntza ez dugu gazteen aisialdi laguntzetan kontatuko.

I.4. HIRU IKUSPUNTU: HEZKUNTZA, SORKUNTZA, KONTSUMO

Bereizi ditugun aisialdiaren eremu horiek hiru ikuspuntutik azter daitezke, hezkuntzaren, ekoizpenaren edo kontsumoaren ikuspuntutik. Kirolarekin, hiru ikuspegi horiek baditugu: kirol hezkuntza, kirol praktika (sorkuntza) eta kirol jarraitzaletasuna kontsumoan sar daiteke, errubi partida baterako sarra-txartelaren erosketara adibidez. Gainera kasu honetan kirola ikuskizun bilakatzen da eta gaur egun alde honek gero eta garrantzi gehiago hartzen du, ikus-entzunezko eskaintzan bereziki.

Bereizketa berdina egin dezakegu aisialdi kulturalen eremuan. Alde batetik kultura-hezkuntza badugu, bestetik talde edo norbanako praktikak, hots sorkuntza kulturala, eta azkenik kultura-kontsumoa, zerbitzu eta ondasun moldean. Ikuspuntu honek gero eta leku handiagoa dauka deitzen dugun oraingo “kontsumo gizartean”. Kontsumo-ondasunen industriak gero eta produktu kultural gehiago ekoizten ditu, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien alorrean. Oro har, gaur egun aisialdi eskaintza gero eta handiago da, nahiz hezkuntzan, nahiz sorkuntzan eta ekoizpenean, eta ondorioz kontsumoan.

IRAKASKUNTZA, HEZKUNTZA, PRAKTIKA

Gazteen oraingo aisialdiaren ezaugarri argi bat da, azken hamarkadetako bilakaera: “*Aisialdia, denbora libre, denbora huts izatetik landu eta garatu beharreko denbora izatera pasatzen da (...). Helburua ez da izango soilik ondo pasatzea eta aktibitate ludikoak egitea, baizik eta proiektu bezitzailea modu parte-hartzailean definitzea eta garatzea*” (Martinez 2000: 20. or.). Aisialdi antolatutak helburu hezitzailea ukan behar du, gurasoen ustean bederen. “*Aisialdia, antolatu beharreko denbora bixurtu da*” (*ibid.*: 26. or.). Ondorioz denbora librearen eta betebeharreko jardueren arteko banaketa

ez da hain nabari eskola adineko gazteen kasuan. Aisialdi antolatuak orduan bi funtzio ezberdin betetzen ditu, formazio funtzioa eta zaintza funtzioa.

Hezkuntza “sarbide” bat da geroko aisialdiarentzat. Hezkuntzari esker biharko euskarazko aisialdi eta kultura-kontsumatzaileak, entzun-ikusleak, te-leikusleak, irakurleak bai eta ere sortzaileak agertzen dira eta prestatzen.

Hezkuntza eta irakaskuntza adiera zabalean ikusten da, baina noski alor zabal horretan eskolaren papera biziki garrantzitsua da: *“Eskola bera ezinbesteko sarbidea da hezkuntza eta kulturen ezaqutzarentzat. Hemen, Euskal Herrian, garrantzitsua da haurrek eta gazteek beste bizkuntzekin batean eskara ikas dezaten, baina funtsezkoa da ere bizuntza horretan bizitzeko parada ukan dezaten, bai eskolan, bai eskolatik kanpo”* (Kultura 2013: 12. or.).

Ikastetxetik kanpoko denboran aisialdiak tarte handia hartzen du gazteen kasuan, lan egiten duten jende helduen kasuan baino gehiago anitzetan. Beraz hezkuntza eskaintza eraginkorra da, kirol edo kultura-eskaintza. Aisialdi hezitzailearen helburua, espezialitate batean trebatzea izan daiteke. Ildo honetan aisialdia aspergarria bilaka daiteke, emaitza hobeak eskuratzea atsegina izanikan ere. Aisialdi hezitzailearen beste helburuetarik bat da jarduera ezberdinetan etorkizuneko espezialistak aurkitzea eta trebatzea. Eta kasu honetan gurasoek eragin handia izan dezakete, beren haurrak bultzatuz futbolari edo dantzari ospetsu bilaka daitezten.

SORKUNTZA, EKOIZPENA

Praktikatik sorkuntzara ez da tarte handirik. Gazteen kasuan sorkuntza praktikari lotua zaio, maizenik praktika amateurra. Beste aldea da ondasun eta zerbitzu kulturalen eskaintza. Sorkuntzarik gabe eskaintzarik ez litzateke. Sorkuntzari begira, profesionalek eta amateurrek ez dituzte ondorio berdinak.

Gazteen jardueretan mugatuz, lehen ikuspegi batean gazteak erabiltzaile eta kontsumatzaile agertzen dira, eta hau da maiz azpimarratzen dena. Baina ohargarri da ere sortzaile direla. Moda berriak asmatzen dituzte nola kirole-tan hala kontsumoan. Estilo ezberdinak sortzen dituzte, helduetarik eta beste gazte-taldeetarik bereizteko, aparteko musika eta arropa, dagokion hizkera erabiliz: punkak, rap estilokoak, hip-hopakoak eta beste.

ZERBITZUEN ETA ONDASUNEN KONTSUMOA, HEDAPENA, KONKURRENTZIA

Aisialdia oraingo bizitzaren zati handia dela erran dugu. Etxean telebista ikustea, Interneten eta bideo-jokoen erabiltzea, irakurketa, musika entzutea, etab. norbanako aisialdian sartzen dira. Era orokorrean iduri luke aisialdi jarduera hauek gero eta pasiboagoak, gero eta indibidualistagoak direla eta kontsumo geldoan mugatzen direla.

Norbanako aisialdiak zerbitzu kontsumoan sar ditzakegu: telebista, Internet, irratia, liburutegiko liburu baten irakurketa; besteak ondasun kontsumoan: bideo-joko, liburu edota KD batzuren erosketa eta erabilera. Hemen ere muga ez da beti argia: erakusketa bat zerbitzua ote da ala ondasuna? Lehen itxuraz. Kontsumoa jarduera garrantzitsua da gazteentzat, beren identitatea eraikitzeko, norbait izateko. Beren itxura, estetika, jantziak identifikazio tresnak dira, nolazbait ezberdin izateko.

Joera hau kontuan hartzekoa da euskararen erabilera sustatzeko. Gazteen euskal kultur zerbitzuen eta ondasunen kontsumoa bultzatzeko, hedapena beharrezkoa da. Artisten, kultura elkarten eta erakundeen arteko partaidetzak sortu eta indartu behar dira, bai eta ere euskal kultura ekoizpenen banatzaile eta salerosleen artean. Alor honetan euskararentzat erronka nagusietarik bat da beste hizkuntzetako produktuen eta zerbitzuen konkurrentzia. Oraingo gizartean kontsumismoaren eragina gero eta handiago da. Komunikabide berriei esker, eskaintza biziki zabala da. Eremitan edozein hizkuntzako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dizkigute, lehenik frantsesez baina ere ingelesez edo gaztelaniaz. Euskarazko eskaintza bigarren mailara pasatzen da, ez baita besteak bezain erakargarria, edota ez baita ezaguna.



Euskal Herria Zuzenean festibala 2009 – Heleta
(www.ehz-festibala.com)

2. CORPUSA ETA METODOLOGIA

Gure aztergaia konplexua da, lotzen ditugun hiru gizarte-errealitateak korapilatsuak baitira definitzeko: gazteria gizarte-kategoria nahiko berria da soziologian, aisialdia biziki dibertsifikatua da oraingo munduan eta gazteen euskara gora doa baina aldakorra da. Gainera zailtasun batzuk badaude nozio hauek aztertzeko eta elkar uztartzeko. Hona nola eraman dugun ikerketa, zein izan diren gure corpusa osatzeko datu-iturriak, zein izan den metodologia, kontuan hartuz corpusaren mugak eta ikerbidearen ahuleziak.

2.1. DATU-ITURRIAK

Gure lehen urratsean aisialdiaren eragileak laguntzen dituzten erakunde publikoen dokumentuak ikertu ditugu. Dokumentu hauetan datu ainitz bildu ditugu, aisialdi antolatuari lotuak zirenak.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN DOKUMENTUAK

Ikerketarako iturri garrantzitsua izan da Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin batera urtero antolatzen duen Proiektu Deialdia. EEPren Hizkuntza Politikaren Proiektuaren kuadroan bi jarduera mota lagundu dira:

- euskararen alorrean diharduten Ipar Euskal Herriko eragile pribatuen hizkuntza jarduera proiektuak;
- ikastetxeen euskararen erabilpena bultzatzeko proiektuak, kurtsoetarik kanpokoak do ikastetxeko eremutik kanpokoak.

Eragile pribatuen kasuan azken lau urteetan banatu ziren laguntza-dozierak (2007 - 2010), lau urte horietako eragile bakoitzaren eskabide txostenak

eta ondotik EEPk egin dituen ebazpenak aztertu ditugu. Hauen artean gazteen aisialdiari lotuak izan daitezkeenak bereizi ditugu. Halaber ikastetxeei hiru ikasturtez banatu ziren laguntza-dozierak (2008 – 2011) aztertu ditugu, proiektu bakoitzari buruzko eskabide txostena eta EEPren ebazpenak.

Anitz dira lagundu diren eragile pribatuen eta ikastetxeen proiektuak. Adibidez 2010ean EEPk 41 eragile pribatu lagundu ditu 52 proiektu ezberdinetan. 52 proiektuetarik 42 aisialdiari lotuak ziren. Horietan noski denak ez ziren bereziki gazteei zuzenduak baina diru-laguntza eskaera dozierrari esker gure ikerketan sartzen zirenak atxiki ditugu. Gehitzekoak dira beste zortzi «eragile nagusi» hizkuntza jarduera proiektu deialdi berezian ez direnak sartzen, baina EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko finantza-fondoaren %70 eskuratzen dute.

Halaber 2009-2010 ikasturtean, EEPk ikastetxeko eremutik edo kursoetarik kanpoko 119 ikastetxe-proiektu lagundu ditu, 152 proiektu aurkeztu zirelarik. Eragileen eskaera-dozierak datu-iturri bezala biziki aberatsak ziren.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN DOKUMENTUAK

Euskal Kultur Erakundearen (EKE) bi dokumentu mota baliatu ditugu. Alde batetik 2006tik 2010 arteko *Ekintzen bilduma* txostenak. Bilduma hauetan EKEk bere ekintzak lau sailetan banatzen ditu: ondarea, sorkuntza, hedapena eta bitartekaritza. Era batez edo bestez aisialdiari lotuak eta gazteei zuzenduak zirenak bereizi ditugu.

Bestetik EKEk “Euskal Herria 2020” prospektibaren barnean argitaratu zuen proiektu orokorra baliatu dugu: *Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka*.

INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAK

Ipar Euskal Herrian eraman diren inkesta soziolinguistikoak beste datu-iturri batzuk izan dira. Ez dira baitezpada gazteen aisialdiei norabidetuak (salbu *Kultura kontsumoa 2007-2013*), halere bakoitzak datu zenbait ekarri dizkigu gazteak hobeki ezagutzeko eta azkenean Ipar Euskal Herriko gazteriaren argazki bat egiteko (ikus 3. atala).

Inkestak hauek dira ordena kronologikoan (ikus bibliografian):

- 2001, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*.
- 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*.
- 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006an*.
- 2008, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian 2006an*.
- 2008, *Kultura Obiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008*.

Aipatu ditugun bost inkesta hauetan Eusko Jaurlaritza izan zen protagonis-

ta nagusia ikerketa Euskal Herri osora zabaltzeko. Euskal Kultur Erakundea hartu zuen inkestaren eramateko Ipar Euskal Herrian, Insee erakunde publikoaren laguntzarekin lagina finkatzeko. Beste erakunde batzuk ere parte hartu zuten adibidez EHUKo gizarte zientzien fakultatea eta Eusko Ikaskuntza nortasunari buruzko inkestan, SIADECO... Hona inkesten fitxa teknikoak.

1. *Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*, 1999ko inkesta soziolinguistikoa (*Gaztetxoak 1999*). 3.146 inkesta egin ziren Euskal Herri osoan eta horietarik 528 Iparraldea abost urtetik goragoko 1.338 pertsoneri egin zaien inkesta. Sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna eta bizilekua prametrotzat hartu ziren. Jarduera kulturei buruzko interesa, biztanleen kultura-ohiturak, euskal produktuen kontsumoa, Interneten erabilera kulturari dagokionez, herritarren jarduera amateurrak aztertu ziren, besteak beste.

2. *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, 2004-2005eko inkesta (*Nortasuna 2005*). Euskal Herri osoan 4.000 pertsona (16 urtez goragokoak) galdezkatuak izan ziren, edo metodo kuantitatiboaren bidez (3.822) inkestatzaileak etxez-etxe ibili zirelarik galdesorta batekin, edo metodo kualitatiboaren bidez (200 inguru) eztabaida taldeetan, elkarrizketak eginez, bizitza historiak aztertuz. Ipar Euskal Herrian 1610 galde sorta bete ziren, 4 eztabaida talde antolatu, bi Baionaldean eta 2 barnealdean, bai eta ere 7 buruz buruko elkarrizketa egin euskalgintzaz arduratzen edo interesatzen ziren agintari batzuekin.

3. *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006 (Inkesta 2006)*. Siadeco enpresak landa-lana egin zuen telefonoz Ipar Euskal Herrian, 2006ko azaroa eta 2007ko urtarila bitartean bidez. Galdetegi egituratua eta itxia erabili du. 16 urte edo gehiagoko biztanleak hartu dira kontuan. Orotara 2.000 inkesta egin dira: 750 inkesta Baiona Angelu Biarritz lurraldean, 750 Lapurdiko barnealdean eta 500 inkesta Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Euskal Herri osoan 7.200 galde sorta bete ziren.

4. *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian (Hizkuntza 2006)*. IV. Inkesta Soziolinguistikokoaren komentario bat da, EEPk eskaturik egina eta udaletxeetan banatu zena. Familia bidezko euskararen transmisioa eta 16-24 urteko adinartearen hizkuntza gaitasuna aztertu dira molde berezian. Aurreikuspen ausartak agertzen dira euskararen etorkizuna asmatu nahiz demolinguistikaren bidez.

5. *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008 (Kultura 2008)*. Ipar Euskal Herriko hamabost urtetik goragoko 1.338 pertsoneri egin zaien inkesta. Sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna eta bizilekua parametrotzat hartu ziren. Jarduera kulturei buruzko interesa, biztanleen kultura-ohiturak, euskal produktuen kontsumoa, Interneten erabilera kulturari dagokionez, herritarren jarduera amateurrak aztertu ziren, besteak beste.

PRENTSA, ERAGILEEN WEBGUNEAK, PUBLIZITATE-DOKUMENTUAK...

Prentsaren irakurketa, euskarazko aisialdiko edo euskal kulturako eragileen webguneak, aisialdi eta kultura publizitate-dokumentuk argibide izan dira. Prentsan hauek dira bereziki erabili ditugun kazetak: *Berria* egunkaria, *Herria* astekaria, *Le Journal du Pays Basque – Euskal Herriko kazeta* egunkaria.

Euskarazko aisialdiko eta euskal kulturako eragileen webguneak zinez aberatsak dira, xehetasun ainitz ematen dituzte elkartei edo artistei buruz, bai eta ere haien jardueraz, ekitaldiez, proposatzen dituzten ikusgarriez. Eranski-nean bilduak dira eragile nagusien webguneen helbideak.

DOKUMENTAZIO TEORIKOAGOA, BIBLIOGRAFIA BEREZITUA

Ikergaiari buruzko dokumentu, artikulua eta liburu berezituak irakurri ditugu. Hego Euskal Herrian egin diren gazteei, aisialdiei eta euskarari buruzko ikerketak, esperientziak biziki baliagarri izan zaizkigu (ikus bibliografia). Ikergai honen garrantzia hemen baino lehen agertu zen, gazte anitz euskaldundu baitziren eta galdera gorri hau etortzen baitzen segidan: “Zergatik gazteek ez dute hitz egiten euskaraz?”. Gazteen aisialdi eremu zabal eta konplexuan ibiltzen lagundu gaituzte ikerlan eta dokumentu horiek. Batzuk aski teorikoak ziren, ikerketa honen helburua nagusiki deskriptiboa delarik. Preskriptiboa da ere baina neurri ttipiangoan, eremuka proposamen edo gomendio batzuk egiten baititugu.

BEHAKETA PERTSONALA

Azken datu-iturria gure behaketa propioa izan da, euskaltzale eta euskal kulturazale bezala. Noski, gazteak ez izanik ere, mundu horren ezagutza pertsonala badugu adibidez gure seme-alabekin eta heien lagunekin. Eta zerrendatu ditugun beste datu iturriek behaketa pertsonala osatzen dute.

2.2. METODOLOGIA

BEHAKETAZ

Ikerketa honetan behaketa zuzenik edo parte-hartuzkorik ez da izan, salbu aipatu dugun behaketa pertsonala. Gazteek sortzen dituzten esparru informalak, mundu birtualak, era batez hunki-ezinak zaizkigu. Ikerketaren oinarri nagusia idatzizkoa izan da, euskal aisialdietako eragileen dozierrak, erakunde publikoen txostenak, prentsa, bibliografia berezitua. Halere, euskal kulturazale izanez ere parte-hartzaile izan gara, molde anitzetan bertsolari txapelkete-

tan bertsozale bezala, bai eta ere pastoral ikusle, euskal komunikabideen erabiltzaile, euskal produktu edo zerbitzu kontsumitzaile bezala.

Baina partehartze hauek behaketa enpiriko bat ekarri dute soilik. Nahitaez ez gara gazte, kanpoko behatzaileak gara. Ez dugu landa-lan berezirik egin aisialdian gazteen euskararen erabilerari behatzeko, ez eta ere eztabaida talderik bildu edo elkarrizketa berezirik egin.

BILDU DEN DATU-MOTA ETA ANALISIA

Nagusiki beraz bildu ditugun datuak idatziak dira. Proiektuen emaitza kuantitatiboak bildu ditugu eta komentatu (ikus 4. atala). Proiektuen arrakasta neurtzeko, parte-hartzaileen kopurua, eragileena, aurrekontu osoak eta dirulaguntzak kontuan hartu ditugu. Gainera entzeatu gara neurtzen proiektuaren eragina euskararen erabileran, bai eta ere ekintzen eta helburuen arteko egokitzapena.

Aisialdi mota ezberdinak bereiziz, indarguneak eta ahuleziak agertu zaizkigu. Halaber politika publikoekin datu-bilketa bat egin dugu eta gero emaitzen ebaluaketa.

IKERTU DEN DENBORA-TARTEA: 2007-2010

Aztertu den denbora-tartea 2007eta 2010 artekoa da, lau urte hauetako EEPren eta EKEren dokumentuak eta eragileen diru-laguntza eskaerak aztertu baitira. 2001-2006 denbora-tartea molde arinagoan aztertu da, zehaztasunetan sartu gabe. Bi egitura ezberdinek euskararen aldeko politika publikoa eramaten zuten orduan: Obragintza Publikoak 2001etik 2004ra eta Euskararen Erakunde Publikoak 2005etik 2006ra. EEPren “Azterketa 2009” txostenean 2001-2004ko finantza-bilana badago (99. or.).

Ikerketa hau zabalagoa izanen zen 2001 eta 2006 arteko artxibak aztertu eta aisialdi egitura nagusiak galdezkatu bagenituen: Uda Leku, Bertsolarien Lagunak, Euskal Irratiak, Seaska... Baina ikerketa honen helburua ez zen gazteen aisialdien bilakaera historikoa egitea. Kontuan hartu den denbora-tartea, 2007tik 2010koa, aski zaigu ikuspegi sinkroniko bat emateko.

2.3. CORPUSAREN ETA METODOLOGIAREN MUGAK

Baliatu ditugun iturriek eta metodologiak beren mugak badituzte. Hona, gure ustez, eskasia nagusiak.

PUNTILLISMOAREN ARRISKUA

Azterketa orokor hau egin nahian, erran nahi baita gazteen, aisialdiaren eta euskararen arteko erlazioak Ipar Euskal Herrian, zailtasun bat agertzen zaigu. Nola ez eror puntillismoan? Nola ttipikeriak saihestu? Nola jardueren eragina neurtu, ikuspegi orokor eta orekatua emateko. Urrasbide arrisku hau saihesteko, jardueren arrakasta ebaluatzea izan da aterabidea. Zenbat gaztek parte hartzen zuten, zenbat oren edo egun iraun zuen jarduerak, aurrekontua zein zen, euskararen erabilera zein neurritan bultzatu zen, eta beste.

GAZTAROA IKERGAI ZAILA

Gazteria gizarte-talde gisa nozio berria da, mendebaldeko gizartean sortua. Gaztaroaren lehen ezaugarria da transizio garaia dela, gazteak eten gabe aldatzen direlak. Continuum horrek gazteak haurtzarotik heldutasunera eramaten ditu, etengabe eraldatuz. Hau litzateke behaketaren lehen zailtasuna.

Beste ezaugarria da gazteak gizarte-talde zinez heterogenoa osatzen dutela. Talde hau definitzeko aldagaiak dira, adina lehenik, aztertzen dugun adin-taldea 15-24 urtekoena da guti gorabehera (ikus 3.I. urrunago), sexua, gizarte-klasea, ikasketa maila, lanean ala ez, ezkondua ala ez, etab. Aldagai hauen arabera gazteak oso ezberdinak izan daitezke. Halere, gure ikerketa ez baita monografikoa, heterogeneotasuna onartu behar dugu.

GAZTEEN AISIALDIAZ

Lehen atalean erran dugu gazteek ohiko aisialdi egituratueterarik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dutela, helduenganik ezkapatzeko, beren identitate propioa eraikitzeko. Berezko gune errealak edo Interneteko komunitate birtualak sortzen dituzte. Denbora libreari esker, aisialdiak helduen mundutik ateratzeko aukera ematen die, berezko jarduerak antolatzeko eta beren izate-modua sortzeko, kezkak eta desirak adierazteko, nortasun kolektiboa egituratzeko lagun-taldean.

Halere, oinarrizko instituzioek gazteengan eragin handia dute, familiak, eskola hezkuntzak, komunikabideek, merkatuak eta kontsumoak... Beraz bi aurkako mugimendu indarrean daude gazteengan, kanpokoa eta barnekoa. Ondorioz jarduera-uneak eta guneak aztertzea zaila da. Denbora librean gazteek beraien artean dituzten harremanak, jarduerak eta antolatzen dituzten espazioak ezin dira zuzenean behatu.

Datu anitz bildu ditugu eta aztertu. Baina jarduera gehienak aisialdi antolatuetan sartzen dira, aisialdi hezitzaileak baitira. Era batez bestak eta festibalak ere antolatuak dira, parte-hartzaileek askatasun zerbait baldin badu ere.

Jone Hernándezekin gazteen kasuan lau aisialdi espazio mota ezberdin bereiziko ditugu (Hernández 2010: 9. or.):

- gune «*konpartituak*» (familia, ikastetxeetan eskolaz kanpoko jarduerak, kirol eta kultura azpiegiturak),
- gune «*kanalizatuak*» (kirol-taldeak, arte-klaseak, aisialdi hezitzaileak, aisialdi antolatuetak...),
- gune publikoak berek *berziklatuak* (parkeak, karrika, aterpeak, apartamentu pekoak...)
- *berezko guneak* (gaztetxeak, tabernak, diskotekak...)

Argi da azken bi gune mota hauetan ikerketa orokor eta sakon bat eramatea zaila zaigula. Familietan ere bai. Ez dugu gune hauetan azterketarik eraman.

Molde orokorragoan oraingo aisialdiak gero eta pribatuagoak dira, intimitate handiagoan gauzatzen dira. Teknologia berriei esker etxea, etxeko geletarik bat aisialdi eta kultura-gela bilakatzen da (*ibid.*: 15. or.). Gazteek bereziki beren aisialdia etxetik antolatzen dute eta eramaten Interneten, telefono mugikorraren, eta joko elektronikoen bidez. Etxean berean, “ziberkultura” eta “aisialdi-zibilizazioa” kokatzen dira. Pribatua izanez aisialdi mota honen behaketa ez da erraza, are gutiago gazteek sortzen dituzten berezko guneena.

Teknologia berriek aurkezten dituzten ahalbide guziak erabiltzeko gai dira gazteak, bai eta ere desbideratzeko. Eremu honetan ere azterketa ez da beti erraza, egoera berrietarako prest baitira, erabilera berriak eta aldaketak sortzen baitituzte.

Aurkako norabidean, gazteen aisialdia neurri handi batean lehen baino gehiago antolatua da. Aisialdi anitz helduen gidaritzapean antolatuetak dira, gidariak direlarik hezitzaileak, krol entrenatzaileak, arte irakasleak, begiratzaileak... Aisialdi hauetan animatzaile berezituak funtzionamendua finkatzen dute eta kontralatzen. Jone Hernándezek dio: “*Egun aukeran dauden ekintzak asko dira, baina funtsean berdin dio zein den azkenean aukeratzen den aisialdirako eskaintza, garrantzitsuena da aisialdi hori antolatzea, okupatzea*” (*ibid.*: 9. or.). Joera hau gurasoei aplikatzen zaie bereziki, haiek beren haurra okupatua izan dadin nahi baitute. Aisialdi okupatuen artean aisialdi antolatuek, aisialdi hezitzaileak leku handia hartzen dute. Hauek dira guk errazago azter ditzakegunak.

Beste zailtasuna da ebaluatzea aisialdi eskaintza zerbitzu ala produktu bat, gazteentzat den ala ez, maizenik ez baita gazteen munduan mugatzen.

GAZTEEN EUSKARAZ

Halaber gazteek erabiltzen duten euskara ez da sakonean ikertua, Ipar Euskal Herrian bederen. Ikerketa-alor honetan metodoak badira baina, mementoko, ez da ikerketa berezirik eraman Iparraldeko gazteen euskara aztertzeko, bere forma eta erabilera ezberdinetan.

“Gazteek helduengandik bereizteko estilo berezi bati lotutako bizkerak asmatzen eta garatzen dituzte. Aldi berean, gaztetxoek beraien arteko bereizketak zehazterakoan eta erakusterakoan, hizkuntza tresna baliagarritzat dute, generoa, klasea, etnia, bizimodu edo ikusmira ezberdinak islatzeko gai baita» (ibidem: 15. or.). Gazteak familiarik kanpo direnean adin berekoekin bizi dira nagusiki eta lagunartean komunikatzeko hizkuntza moldatzen dute beren erara. Adibide interesgarria da gazteekin prestatu hiztegi ttipia “SMS: Segapotoen Mezu Sekretuak”. SMSak idazteko euskarazko laburdurak ematen ditu (Amonarriz, 2003).

Halere, gazteen hizkuntza-gaitasuna, erabilera eta euskarari buruzko iriztiak ezagutzeko 2006ko inkesta soziolinguistikoa badugu, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa* eta *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian* txostenetan. Dokumentu hauetan interesatzen zaizkigun bi adin-talde ezberdin bereizi dira, 16-24 urtekoa eta 25-34 urtekoa. Ondoko atalean emaitzak emanen dira.

Jone Hernándezen ohar hauek Ipar Euskal Herriko gazteriarri ere aplika dakizkioke: “Gazteen artean euskara pisu gutxiko aldagaia da. Indar oso gutxi du egun euskarak gazteen unibertsoan sartzeko eta irmoki txertatzeko. Ikuspuntu horretatik eta aurreko hamarkadekin konparatzen badugu, euskarak egungo gazte kulturak osatzeko eta sendotzeko gaitasuna galdu ote duen aztertu beharreko gaia litzateke» (ibidem: 15. or.).

GAZTEEN, AISIALDIAREN ETA EUSKARAREN ARTEKO ERLAZIOAK

Aipatu ditugun eragozpen ezberdinen ondorioz, beste zailtasuna da hiru gizarte-errealitate hauen arteko erlazioak agertaraztea eta ikertzea. Gazteek ohiko euskal nortasunaren ezaugarriak gurutzatzen dituzte globalizazioak, komunikabideek, espazio birtualek ekarten dituzten beste kultura eta nortasun-ezaugarriekin. Bi munduetan partaide dira nahitaez eta bi munduak lotzen dituzte, jende helduek edo adinekoek baino hobeki; tokiko mundu tradizionala eta mugaz gaindikoa, hau musikaren, telebistaren, Interneten, teknologia berrien bidez ezagutzen duten neurrian bederen.

Mundu kultural ezberdinetako partaide izanez, hizkuntzen arteko mugak ere ahultzen dituzte. Harremanetan dira munduko beste tokiko gazteekin, nortasun eta kultura-ezaugarri batzuk partekatzen dituzte haiekin, komunitate berekoak direla asmatzen dute. Euskara ezaugarri kulturaletarik bat bai-zik ez da, beste batzuen artean. Euskara noiz hautazen duten eta noiz frantsesa, hau ere beste ikergai bat litzateke hemen landuko ez duguna.

Laburbilduz, aztertzen dugun errealitatea korapilatsua da, hots gazteen, aisialdiaren eta euskararen arteko erlazioak ulertzea. Erlazio hauek modu ordenatuan ematea zaila da. Behaketak, sailkapenak eta beren eskasiek, errealitate honi buruzko gure ikusmoldea alda dezakete. Sinplifikazioaren arriskua hor dago beti, puntillismoarena ere bai.



Hitzaditzarako kanpaina



Hitzaditza diktaketa 2009: afixa

3. IPAR EUSKAL HERRIKO GAZTERIA

Ipar Euskal Herriko gazteen aisialdiaz hitz egiterakoan egoki litzateke aztertzea zein diren oraingo gazteriaren ezaugarri nagusiak, adibidez hizkuntza gaitasuna, euskararen erabilera, herritasun sentimentua, euskarari buruzko iritziak, euskal kulturaren aldeko jarrerak, kirol praktikak eta beste. Hain zuzen azken hamar urte hauetan egin diren lau inkestak ez dira baitezpada gazteen aisialdiei norabidetuak baina informazio interesgarri baten iturburu izan daitezke gazteen gustuak eta joerak ulertzeko.

3.1. GAZTEAK IKERKETA HONETAN

Inkesta soziolinguistiko batetik bestera adin-taldeak aski desberdinak dira. Haurtzaindegiko haurrak ez ditugu kontuan hartzen. Ama-eskolatik abiatuz, 3 urte eta gehiagoko hurrekin eta gaztaroa arte, adin-aldeak hauek lirajteke: 3-6 urte (ama-eskola), 7-14 (lehen-mailako eskola eta kolegioa), 15-24 (lizeoa, unibertsitatea edo lan merkatua).

Lehen taldea baztertzen dugu. Bigarrena kontuan hartuko dugu, irakas-kuntza markoan bederen, kultura eta kirol hezkuntzak geroko gazteen ohi-turak moldatzen baititu. 7- 8 urteko haur bat gaztetxoak ez izanik ere, baina laster izanen da. Eskola-ibilbidean zehar heldutasun eta gizarteratze prozesuan dira denak, nola haurrak, hala gaztetxoak eta adineko nerabeak.

I.I. azpiatalean erran dugu 13-17 urteko eta 18-34 urteko adin-taldeak aztertuko ditugula. Multzo horiek biziki heterogeneoak dira oraingo munduan. Helduaroaren eta nerabezaroaren arteko muga mugikorra da eta azkenean norbanako bakoitzaren arabera da. Adin hauetan bizimoldeak ez dira batere berdinak. Gazteenak kolegioan dira oraino, gurasoen egoitzan bizi dira eta finantza-askatasunik ez dute. Zaharrenek ikasketak bururatu dituzte eta

lan-merkatuan daude. Lanean edo langabezian dira. Beste batzuk unibertsitatean jarraitzen dute. Edo ezkonduak dira eta haurrak badituzte. Ondorioz beren beharrak eta gustuak osoki ezberdinak izan daitezke.

Halere iruditu zaigu garrantzitsua zela ere I3-I7 urtekoak kontuan hartzea. Gazteak dira, haurtzarotik duela guti jalgirik, bainan laster helduaroan sartuko dira. Batzuetan gazteek jende helduen gustu batzuk badituzte eta hauei buruz eragina dute, aitzindari izanez kultura eta aisi kontsumoan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabileran.

Oro har gure xede-taldea I5-24 urteko gazteek osatzen dute. Gure kasuan 25 urte eta gehiagoko helduak baztertzan ditugu, lan-merkatuan baitira normalean.

3.2. GAZTEAK IPAR EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIAN

Hona adin taldeen banaketa 2006ko erroldaren arabera.

Adinarteak (A)	Jendetza (A)	A/J	Euskaldunak (E)	E/A
> = 65	63.000	%21,6	20.412	%32,4
50-64	61.000	%21,0	16.348	%26,8
35-49	64.000	%22,0	11.200	%17,5
25-34	32.000	%11,0	3.680	%11,5
16-24	31.000	%10,7	4.991	%16,1
0 -15	40.000	%13,7	---	---
OROTARA	291.000 (J)	%100	56.631	%22,5

Iturriak: 2006ko errolda eta IV. inkesta soziolinguistikoa

Inkesta soziolinguistikoetan I6 urte eta goragoko hiztunak kontuan hartuak dira. Azken erroldaren arabera I5 urterainokoak 40.000 dira. Eskolan eta kolegioan euskara ikasten dutenak 10.235 dira, ikasle guzien %25,6.

Azken 20 edo 30 urte hauetan, Ipar Euskal Herriaren demografiak aldaketa sakonak izan ditu. Gero eta kanpoko jende gehiago etortzen da hemen bizitzera. Ondorioz kultura aniztasuna indartzen da, frantsesa hizkuntza nagusia behar-beharrezkoa delarik. Baina Euskal Kultur Erakundearekin bada-kigu “eragin ezberdineko bi kultura harremanetan direlarik (akulturazioa), batek (nagusia)

bestea abuldu edo desagertu dezakeela“ (Kultura 2013: 5. or.). Halaber hizkuntzekin, bata ahultzen delarik, bestea oldartzen zaio. Desafio bat badago, euskara eta euskal kultura bizirik mantentzeko ingurumen aldakor honetan.

Hona datu batzuk 2006ko biztanleriaz: “*Duela 40 urte ez bezala, gaur egun beriotza gehiago bada sortze baino. Saldo naturala - 0,1%. (...) Biztanleen %31,7ak 30 urte baino gutxiago du. Biztanleria aski gaztea da Ipar Euskal Herrikoa, Euskal Herriko bataz bestekoarekin alderatuz (%24,9) baina Akitanian gazte gehiago zenbatzen da proportzioan (30 urte baino gutxiagokoak %34,1). (...) Zabartze tasa gorena (60 urte baino gehiagokoan portzentajea) kostalde eta barnekaldean dago. Aldiz, gaztetasun tasa gorena bitarteko zonaldean kokatzen da (30 urtez baino gutxiago dutenen portzentajea). Zabartze tasa gorenak: Atharratze %43,8, Biarritz %38,1, Kanbo %37,1. Gaztetasun tasa gorenak: Lubuso %41, Arberatze %39,7, Baiona %35,9. (Gaindegia, Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa: IO. or.)*

2006az goerotik gauza batzuk aldatu dira. Ipar Euskal Herriko demografian saldo naturala positibo bilakatu da Euskal Herri osoan bezala.

3.3. GAZTEEN INGURUMEN SOZIOKULTURALA

Ipar Euskal Herriak jasan dituen aldaketa demografiko eta sozial handiek eragina dute, gazteen ingurumen soziokulturalean biztanleria osoarenean bezala. Kultur aniztasuna bizkortu da. Frantsesaren bizindarra indartsu da hizkuntza nagusia delako, euskararena ahulago nahiz haren aldeko ahalegin gero eta inportanteagoak egiten diren.

Bestalde industriak aisialdi eta kultura ekoizpenak, hedapen multinazionalaren bidez, Ipar Euskal Herrira ere eramaten ditu. Eta gazteria bere xedepublikoetarik bat da, bistan da, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ekoizpenen kasuan. Frantsesa eta ingelesa dira ekoizpen hauen hizkuntzak.

Mugimendu horren aurrean, euskal adierazpena sustatzen duten aisi eta kultura industriak garatu behar dira, euskal elkarteetan jardueren eta artisten sormenarekin batera. Hezkuntzak lehen mailako rola dauka publiko gazteek lurraldeak eskaintzen duen aberastasun kulturala ezagutu eta goza dezaten eta gero, beren helduaroan, euskara eta euskal kultura prezia, erabil eta jarraikiaraz dezaten. Azpimarratu behar da adin-talde gazteenetan eskolatzeko tasa biziki gora dela: 6-14 urtekoena %99,2 eta 15-17 urtekoena %97,4. Baina gero askoz apaltzen da: 18-24 urtekoena %49,1 eta 25-29 urtekoena %4,5 (Gaindegia, *ibidem*: I6. or.).

I.I. azpiatalean gazteen euskararen ezagutza aipatu dugu laburzki, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006ko emaitzak* baliatuz. Halere, goratzen den

ezagutzaz gain, euskararen erabilera bultzatzeko, gazteen ingurumen linguistikoa biziki garrantzitsua da. Horretarako aisialdien alorra estragikoa da, euskararen lekua zabaltzeko, aldakorra den hizkuntza eta kultura-ingurumen honetan.

Hona orain datu batzuk Ipar Euskal Herriko gazteen hizkuntza-gaitasunaz (3.4.), euskararen erabileraz (3.5.) eta euskarari buruzko iritziez (3.6.).

3.4. HIZKUNTZA-GAITASUNA (HIZKUNTZA 2006)

Hizkuntza gaitasuna neurtuko da jakinez zein den ama-hizkuntza, gaur egun zertan den elebidunen gaitasuna eta zein hizkuntza den errazenik erabilia. 2006ko inkesta soziolinguistikoa gazteen hizkerei ez zaie interesatu. Badakigu erregistro ezberdinak erabilten dituztela, gehiengoak euskara eskolan ikasi edo landu baitu. Beraz euskara batua, erdarakadak eta berdin euskalkiak ere nahasten dituzte.

LEHEN HIZKUNTZA

Euskarari buruzko atxikimendua aztertu nahi denean, garrantzizkoa da ikustea zein diren gaztetxoek lehen hizkuntzak. Alabaina ama-hizkuntza da nortasuna eraikitzen duena eta ondorioz gazteak hizkuntza horri buruz dauka etengabeko atxikimendua eta erabiltzeko erraztasuna. Ama-hizkuntzari buruzko ikerketa honen bidez hizkuntzaren jarraipena neur genezake, oraingo gaitasunarekin alderatuz. Taula honek Ipar Euskal Herriko emaitzak erakusten ditu. Euskara eta frantsesa dira ama-hizkuntza nagusiak, bakoitza bakarrik edo biak elkarrekin. Inkesten arteko konparaketa errazteko, adin taldeak aurkeztuko ditugu erdiguneko sorturtearen bidez: 2006eko inkestan 16-24 urtekoak 1986. urtearen inguruan sortuak dira ($2006 - \frac{16+24}{2}$).

<i>Zein izan zen zure lehen hizkuntza 3 urte bete arte?</i>						
Adina Sorturtea +/-	Orotara	65 + 1933	50-64 1949	35-49 1964	25-34 1977	16-24 1986
Euskara	%22	%33	%27	%19	%12	% 7
Euskara-frantsesa	% 6	% 5	% 5	% 7	% 7	% 7
Euskara nolazbait	%28	%38	%32	%26	%19	%14
Frantsesa eta beste	%72	%62	%68	%74	%81	%86

Iturria: *IV. inkesta soziolinguistikoa, 2006*

Iparraldean ohargarri da euskara gibelera doala ama-hizkuntza bakar bezala eta frantsesak garrantzia hartzen duela. Jatorrizko elebitasuna hein berean dago. Egoera hau laster alda daiteke, familiako elebitasunari buruz, daki-gularik haurrak ama eskolara doazela 2 urte edo 2 urte eta erditan, lehen hizkuntza ez delarik osoki finkatua. Hizkuntza transmisioa familiaren eta eskolaren bidez eginen da. Elebitasunaren pedagogia familian ere sartu behar da.

HIZKUNTZA GAITASUNA ADINAREN ARABERA

Hizkuntza gaitasunaren kurba, hiztun zaharrenetarik hasiz, beherakada luze baten ondotik, doi bat goratu da adin talde gazteenean. Denbora berean frantsesdun elebakarren heina gutiagotzen hasi da.

<i>Nola mintzatzen zara euskaraz?</i>						
Adina Sorturtea +/-	Orotara	65 + 1933	50-64 1949	35-49 1964	25-34 1977	16-24 1986
Ongi, aski ongi	%23	%33	%27	%18	%12	%16
Pixka bat	% 8	% 8	% 6	%10	%10	%10
Elebidun oro	%31	%41	%33	%28	%22	%26
Deus ez	%69	%59	%67	%72	%78	%74

Iturria: *IV. inkesta soziolinguistikoa, 2006*

Ohartzen gara euskararen ezagutza handiena adin-multzo zaharretan dela eta gainbehera harrigarria badela gazteagoetan euskaldunen kopuruak konparatuz. Aldiz elebidun hartzaileen ehunekoa goratuz doa, hiztun zaharretarik gazteenetaraino, %10 16-24 urteko adin taldean. Hain segur ikastetxeetako hizkuntza ikaskuntza eredu ondu da.

Gerla aitzineko belaunaldiak dira euskaldunenak, heren baten heinean. Ondotik euskararen gainbehera harrigarria izan da. Ikusiz adin-multzo bat arte, belaunaldia berritzen dela, gerla aitzineko gurasoen erdiek baizik ez dituzte (oraingo aiton-amonek) beren haurrak euskaldundu: 1933 irian %33 ziren, 1964 irian %18. 1949 irian sortu gurasoek (*baby boom* delakoa) askoz gutiago. %27 euskaldun ziren, beren haurretan %12, 1977 irian sortuak, hemen baita Iparraldeko euskararen zilo beltza.

Emaitza itxaropentsua da 16-24 urtekoen euskalduntasunaren garapena 4 puntu eta erdiz goratu dela antzinagoko adin multzoari konparatuz (%11,6 -> %16,1). Dirudenez orain eskolak herria euskalduntzen du, eskolan herrian baino euskara gehiago baita (29% versus 23%).

Elebidun hartzaileen heina 16-50 urtekoetan da goren, %10 inguru, doi bat apalago 50 urtez gorakoetan %8 inguru. Bitxi dena da adin talde gazteen erdi-euskaldunen ehunekoa pixka bat jautsi dela.

Araberan erdaldunen neurria apalenean da 65 urtez gorakoetan, %59 eta gorenean 25-34 urtekoekin, %78. Adin-multzo gazteenean frantsesdun elebkarren neurria lau punduz jautsi da, %74.

HIZKUNTZA ERRAZENA

Galdea euskara ongi zekiteni egin zeie, gaitasun erlatiboa neurtzeko: *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago?* Erantzunak: *euskaraz; euskaraz berdin frantsesez; frantsesez.*

Erantzunen arabera elebidun eragileen tipologia bat agertzen da:

- euskal elebidunek euskaraz errazago hitz egiten dute;
- elebidun orekatuek berdin hitzegiten dute bi hizkuntzetan;
- erdal elebidunek frantsesez errazago hitz egiten dute.

Kontuan hartzen ditugu bakarrik elebidun eragileak, nolazbait mintzairaren kalitatea neurtzeko.

<i>Zein bizkuntzatan hitz egiten duzu errazenik?</i>						
Adina Sorturtea +/-	Orotara 2006	65 eta + 1933	50-64 1949	35-49 1964	25-34 1976	15-24 1986
Euskaraz	%25	%40	%20	%13	%10	%13
Bietan	%51	%42	%57	%58	%59	%45
Frantsesez	%24	%18	%23	%29	%31	%42

Iturria: *IV. inkesta soziolinguistikoa, 2006*

Ipar Euskal Herrian euskaldunen erdiak elebidun orekatuak dira; euskal elebidunak eta erdal elebidunak neurri berean daude, laurdenaren heinean. Zer agertzen da adin multzoetan? Orotan elebitasun orekatua da nagusi, bereziki 25-34 urtekoetan, kasik %60. Zaharretan da aurkitzen euskarari buruzko erraztasun handiena, %40. Gero erraztasun hau berehala ttipitzen da 20 punduz eta jarraian elebiduna gazteago eta erraztasuna ahulago da. Salbu gazteenetan, non ere hobekuntza bat agertzen baita 3 punduz. %13 euskal elebidun dira.

Elebitasun orekatua adinekoetan gutiago aurkitzen da (%42), askoz gehiago gazteagoetan kasik %60 arte. Gazteen gaitasun erlatiboa ezberdina da adin talde zaharragoari konparatuz: euskal elebidunen ehunekoak goratzen ari delarik 3 punduz (%13), elebidun orekatuen proportzioa ttipitu da 14 punduz (%45) eta erdal elebidunen kopurua goratu 11 punduz (%42). Froga hor da eskolak ez duela familiak bezala euskalduntzen.

3.5. EUSKARAREN ERABILERA (GAZTETXOAK 1999)

Atal honetan aztertuko dugu kolegioko 3. urtean diren gaztetxo euskaldunek non eta nola erabiltzen duten dakiten euskara, eta bereziki pentsatzeko, etxean eta lagunekin.

PENTSATZEKO HIZKUNTZA

Euskara ongi dakiten gaztetxoei galdegin zaie zein hizkuntza erabiltzen duten pentsatzeko. Hona 1999ko galdea. Erantzunak 3 lerrotan bildu ditugu.

Pentsatzeko, zein hizkuntza erabiltzen duzu?

- Euskara nagusiki.

- Bi hizkuntzak berdin.

- Frantsesa nagusiki.

Gainera taulen bigarren zatian, “*biak berdin*» lerroa beste bi lerroetan banatu dugu, erdiz erdi zatiturik, nolazpait neurtzeko zenbat euskara erabiltzen den pentsatzeko, etxean edo lagunartean.

<i>Gaztetxo euskaldunen gogoeta hizkuntza</i>				
	Iparraldea	Nafarroa	EAE	Euskal Herria
Euskara nagusi	%31	%35	%34	%35
Biak berdin	%28	%32	%20	%21
Erdara nagusi	%41	%33	%46	%44
Orotara euskara	%45	%51	%44	%45
Orotara erdara	%55	%49	%56	%55

Iturria : *Etorkizuna aurreikusten 99*

Hiru lurraldeak konparatuz, Nafarroako gaztetxoek dute euskaraz nagusiki pentsatzen eta Autonomia Erkidegokoek nagusiki gaztelaniaz. Iparraldea erdigunean dago hizkuntzen banaketan, pentsaketa hizkuntza %45ean euskara da eta %55ean aldiz frantsesa, Euskal Herri osoaren neurri berean. Oro har erran dezakegu gaztetxo elebidunek bi hizkuntzak baliatzen dituztela gogoetak egiteko, Nafarroan euskara gehiago, beste lurraldeetan gutxiago. Asmatzeko da etxean eta lagunartean neurri berdintsua aurkituko dela.

Beste taula batek erakusten digu euskal elebidunek ia beti euskara erabiltzen dutela pentsatzeko (%83), askoz erdal elebidunek erdara erabiltzen duten baino gehiago (%74).

ETXEKO HIZKUNTZA

Alde batetik ikusi behar da gaztetxoek zein hizkuntza erabiltzen duten etxean familia biltzen zelarik eta bestalde nola hitz egiten zuten kide bakoitzarekin. Galdea hau zen: *Zein hizkuntzatan mintzatzen zara aitarekin, amarekin, anai-arrebekin, aitaxi-amatxiekin?* Erantzunak hiru multzotan bildu ditugu aitzinagoko taulan bezala.

Euskal Herri osoan frantsesa edo gaztelania dira nagusi familietan. Araberan Iparraldeko gaztetxo euskaldunek dute euskara gehiago erabiltzen familian: %46. Aldiz Hegoaldean biziki guti: %26 edo %30. Nola ulert ezberdintasun handi hori? Non ere euskararen aldeko gaitasuna handiago eta han erabilera ahulago!

Egia erran, Iparraldeko jende adinetakoak Hegoaldekoak baino euskaldunago dira adin-multzoen euskaltasuna gogoan izanez. Ondorioz euskara dakiten gaztetxoek, Hegoaldean baino gutiago badira ere, etxean aukera gehiago dute euskaraz hitz egiteko.

Iparraldeari mugatuz, ikus dezagun gaztetxo euskaldunek familian norekin euskaraz mintzatzen diren eta zein neurritan bakoitzarekin.

<i>Gaztetxo euskaldunen hizkuntza familiako solaskideekin, Iparraldean</i>					
	Familia bilkuran	Aitarekin	Amarekin	Haurren artean	Aiton- amonekin
Euskara nagusi	%35	%41	%39	%36	%56
Biak berdin	%22	%16	%12	%17	%10
Erdara nagusi	%43	%42	%49	%47	%34
Orotara euskara	%46	%49	%45	%45	%61
Orotara frantsesa	%54	%51	%55	%55	%39

Iturria: *Etorkizuna aurreikusten* 99

Iparraldean gaztetxoek aitatxi eta amatxiekin dute gehienik euskaraz hitz egiten (%56), eta ainai-arreben artean gutienik (%36). Bestalde amarekin baino gehiago aitarekin. Oro har eta hizkuntza kantifika daiteken neurrian, frantses gehiago erabiltzen dute amarekin eta haurrideen artean (%55), euskara askoz gehiago aiton-amonekin (%61) eta bi hizkuntzak berdintsu aitarekin.

LAGUNARTEKO HIZKUNTZA

Gaztetxoentzat lagunarteko komunikazioa garrantzitsua da, lanean, aisialdean, kiroletan eta beste ekintza askotan. Lau komunikazio sare aztertu zituzten bereziki: ikasgelako lagunekin, eskolako solaskideekin, adiskide multzoan, auzoko gaztetxoaren artean.

Galdea hauxe zen: *Zein hizkuntzatan mintzatzen zara ikasgelako lagunekin; kolegioko lagunekin ikasgelatik kanpo; zure taldeko adiskideekin; auzoko neska-mutilekin?*

Hurrengo taulan lau laburdura erabiliko ditugu: ikasgelan, ikastetxean, adiskideekin, auzoan. Erantzunak bost motakoak dira, etxean erabiltzen diren hizkuntzentzat bezala. Hona emaitza batzuk.

<i>Gaztetxo euskaldunen bizkuntza lagunartean, Iparraldean</i>				
	Ikasgelan	Ikastetxean	Adiskideekin	Auzoan
Euskara nagusi	%36	%25	%14	%10
Biak berdin	%10	%12	%17	%12
Frantsesa nagusi	%53	%54	%65	%72
Orotara euskara	%41	%31	%22	%16
Orotara frantsesa	%59	%69	%78	%84

Iturria : *Etorkizuna aurreikusten* 99

Gaztetxo euskaldunek lagunartean direlarik eta edozein egoeretan, frantsesa nagusiki erabiltzen dute, ikasgelan (%53), ala ikasgelatik kanpo kolegioko ekintzetan (%54), ikastetxetik kanpo adiskideen artean (%65) eta bereziki bere auzoko lagunekin (%72).

Euskara ikasgelan aski ongi erabiltzen bada ere (%41), hain segur euskarazko ikastaldietan, handik kanpo euskarak leku ttipia dauka (%31) eta are ttipiagoa ikastetxetik kanpo (%22) eta auzoko neska mutilekin (%16). Gainbehera hau uler daiteke ikusiz gaztetxo euskaldunen trinkotasuna zein ahula den, gero eta ahulagoa euskarazko ikastaldietarik urruntzean.

3.6. GAZTXOEN IRITZIAK EUSKARARI BURUZ (GAZTETXOAK 1999)

Gaztetxoek herri hizkuntza nola ikusten duten argitu nahiz, euskarari ematen dizkieten ezaugarriak bilatu zituzten. Hona hautatzera eman zizkien ezaugarrien zerrenda.

Euskara da:

*bizkuntza zaila ala erraza,
arrotza ala gutartekoa,
baliogabekoa ala beharrezkoa,
iraganekoa ala etorkizunekoa,
baserrikoa ala hirikoa?*

Ageri da ezaugarri hauek garrantzizkoak direla euskararen etorkizunari begira, alabainan faktore hauek jokoan dira: hizkuntza gaitasuna, nortasun kolektiboa, euskararen erabilera eta gaurkotasuna. Taula honek laburbiltzen du Ipar Euskal Herriko gaztetxoek euskaraz duten ikusmoldea. Bi muturreko erantzunak atxiki ditugu. Erran daiteke eskuineko zerrenda ezkerrekoa baino baikorrago dela euskararen geroari buruz.

Euskararen ezaugarriak Iparraldeko gaztetxoek ustez				
Zaila	%57	Erdiguneko	%17	Erraza
Arrotza	%32	erantzunak.	%34	Gurea
Alferrikakoa	%36		%36	Beharrezkoa
Iragakena	%39		%21	Etorkizuneko
Baserrikoa	%51		%14	Hirikoa

Iturria : *Etorkizuna aurreikusten* 99

Gaztetxoentzat euskara da zaila, gurea, iraganari lotua, baserritarra. Ez dakite zertarako balio duen: %36ek erraiten dute beharrezkoa dela; beste hainbestek baliogabekoa dela eta hirugarren herenak ez du hauturik egiten. Oro har euskarari itxura tradizionala emaiten diote, lehenagoko laborarien hizkuntza. Halere %34k beren hizkuntza dela erraiten dute, euskara zerbait dakitenak %26 direlarik. Erdaldun batzuk ere euskarari buruz hurbiltasun sentimendu zerbait badute.

Eta beste lurraldeetan? Nafarroako gaztetxoentzat euskara zaila da, gurea, beharrezkoa, etorkizunari norabidetua, hiriari baino baserriari lotuagoa. EAeko gaztetxoek ikusmoldea Iparraldekoen kasik alderantzizkoa da. Euskara erraza dela diote, gurea, beharrezkoa, etorkizunari buruzkoa eta hiritarra. Hiru lurraldeetan berdin agertzen den ikusmolde bakarra da euskara gure hizkuntza dela. Nortasun kolektiboaren kontzientzia Euskal Herri osoko gaztetxoetan badelako seinalea.

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO IRITZIAK

Zein diren gaztetxoek iritziak euskarari buruz jakiteko, esaldi batzuk proposatu zaizkie eta beren adostasuna edo adostasun-eza adierazi dute. Esaldiak zerrendatu ditugu adostasun heinaren arabera.

Taula honetan gehiengoak duten erantzunak atxiki ditugu. Molde ezko-reen formulatuak ziren proposamenak forma baikorrean ezarri ditugu adostasuna hobeki ager dadin.

Adostasuna agertzen da bereziki euskara nortasun kolektiboarekin lotzen delarik: kulturarekin (1), euskaldun izatearekin. Gehiengoak ados da euskara jakin behar dela euskaldun izateko (6). Denak ados dira euskara eskolan irakatsi behar dela nahitez (3), baina ikaskuntza hautuzkoa izanez (2). Euskararen erabilerari buruz adostasuna da euskara jakitea ez dela aski, egunero

erabili behar dela (5) eta horretarako toki eta ekintza gehiago behar litzatekela (8).

Oro har, Iparraldeko gaztetxoek euskararen erabilerari eta irakaskuntzari buruz epel agertzen dira: euskarazko tokiak eta ekintzak bai, baina ez gehiegi (%27). Aldiz euskara nortasun kolektiboari lotzen dute hainbesteari- no non ados baitira euskaldunek beren artean euskaraz hitzegin dezaten (7), erdaldun bat edo beste balin bada ere haiekin. Hau da proposamen erra- dikalena. Bestenaz malgutasuna da gazteen pentsamoldearen ezaugarria.

<i>Euskarari buruzko iritzi adostuenak, Iparraldean</i>	
1. Ez dago euskal kulturarik euskararik gabe	Ados %63
2. Euskarak hautuzko ikasgaia izan behar luke	Ados %52
3. Eskolan euskara irakatsi behar da	Ados %48
4. Orok frantsesa dakigu, halere euskara jakin behar da	Ados %48
5. Euskara jakitea ez da aski, egunero erabili behar da	Ados %40
6. Egiazko euskalduna izaiteko, euskara jakin behar da	Ados %38
7. Ongi da euskaldunak beren artean euskaraz mintzatzea, nahiz eta ondoko guztiek ez jakin	Ados %37
8. Euskaraz mintzatzeko toki eta ekintza gehiago izatea gustatuko litzaidake	Ados %27

Iturria : *Etorkizuna aurreikusten 99*

3.7. NORTASUN SENTIMENDUA (EUSKARA 2006)

Nortasun sentimendua aztertzeko bi metodo ezberdin badira;

- edo euskal eta frantses nortasunak konparatuz;
- edo euskal nortasuna bakarrik aipatuz.

NORTASUNEN ARTEKO KONPARAKETA

Nortasunari buruzko inkestan sartu zen “Morenoren galdea”. Luis Morenok, 6 mailako eskala erabili zuen nortasun lehiaren bidez integrazioa neurtzeko Europan, Erresuma Batuan, Espainian. Euskal Herrirari aplikatuz galdea hauxe zen: *Sentitzen zara, - euskal herritar; - euskal herritar frantses baino gehiago; - euskal herritar bezain frantses; - frantses euskal herritar baino gehiago; - frantses; - besterik, ez dakit, erantzunik ez.*

Erantzunen aurkezpena laburbiltzeko hiru nortasun maila erabiltzen ditugu :

- *Gehienik euskal-herritar*
- *Euskal herritar bezain frantses*
- *Gehienik frantses*

Nortasuna hiru paradigmaren arabera deklinatu zen: lurraldea, adina eta hizkuntz gaitasuna. Taulan atxikitzen ditugu bakarrik Iparraldeko erantzunak, 16-19 urtekoenak eta euskara dakitenenak.

Ipar Euskal Herriko bataz-bestekoan gehienik frantses sentitzen direnak gehiengo handian dira eta, araberan, beren burua gehienik euskal-herritartzat daukatenak gutiengo ahulean dira %17. Berdintsu gertatzen da gazteekin, %19 dira gehienik euskal herritar sentitzen direnak. Eta askoz gehiago euskara ongi edo aski ongi dakitenekin, %52. Nortasun bikoitza sentitzen dutenen ehunekoa ere kontuan hartzekoa da: %36 gazteetan eta %40 euskara dakitenetan. Aldiz gehienik frantses sentitzen direnak oso guti dira euskara ongi dakinetan (%6).

<i>Nola sentitzen duzu zure burua?</i>			
Nortasuna	Iparralde	16-29 urte	Elebidun
Gehienik euskal-herritar	%17	%19	%52
Euskal herritar bezain frantses	%34	%36	%40
Gehienik frantses	%46	%44	%06
Ez daki/erantzunik ez	%03	%01	%02

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

EUSKAL NORTASUNA BAKARRIK

Nortasunari dagokiola, orain arte euskaltasuna eta frantsestasuna alderatu ditugu. Orain euskalduntasunaren sentimendua aztertuko dugu konparatuarik egin gabe.

Galdea hau zen: *Euskalduntzat daukazu zure burua?*

Erantzunen hautua: - *Osoki, frango.* - *Erdizka.* - *Doi bat, deus ez.*

<i>Euskalduntzat daukazu zure burua?</i>			
Euskaldun	Iparalde	I6-29 urte	Elebidun
Osoki, frango	%48	%43	%88
Zerbait, erdizka	%15	%22	%10
Doi bat, deus ez	%37	%34	%02
Ez daki/erantzunik ez	%01	%01	%00

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Bi metodoen arteko emaitzak oso ezberdinak dira. Iparraldean gehienik euskal herritar %17 dira. Aldiz osoki edo nahiko euskaldun %48. Zergatik?

Nortasunaren kontzeptu esanahi askotakoa da. Batzuentzat nozio sozio-politikoa da; lehen galdeak herritasuna aztertzen du. Aldiz besteentzat nortasuna nozio linguistikoa eta kulturala da: bigarren galdeak euskalduntasuna neurtzen du. Agertzen dena da adin multzo gazteena jendetza osoaren itxurakoa dela. Aldiz euskara ongi dakitenak hartzen baditugu, ia denek beren burua osoki euskalduntzat daukate.

ZER DA EUSKAL NORTASUNA?

Aitzinetik asmatu definizio bat emateko ordez, inkestak bilatzen du herritarrek nola definitzen duten nortasuna. Bederatzi baldintza proposatuak ziren: Euskal Herrian sortua izatea; euskaraz hitz egitea; arbaso euskaldunak; Euskal Herrian bizi eta lan egin; euskal herritar izan nahia; herriaren zaindari izatea; deitura euskalduna; euskal arte bat praktikatzea edo euskal kiroltzale izatea.

Erantzule bakoitzak bi baldintza hauta zitzaizkeen, baina gero zenbakiak ehunekotan ezarri ditugu, agerraldien maiztasunaren arabera. Adibidez: Iparraldean, aipatu diren 100 baldintzetarik, "Euskal Herrian sortua izatea" 28 aldiz agertu da, "euskaraz hitz egitea" 21 aldiz, eta beste, gehiengotik gutien-gora herritarren batz-bestekoaren arabera.

Emaitzak hobeki ulertzeko gazteen aisialdia aztertzerakoan, lau multzo bereizi ditugu, Ipar Euskal Herria orokorki, I6-29ko adinartea, elebidun eraginkorrak eta beren burua euskal herritar sentitzen dutenak.

<i>Zein dira bi baldintzak bere burua Euskal Herritar sentitzeko?</i>				
Baldintzak	Iparalde	I6-29 urte	Elebidun	Euskal herritar
1. E.H.an sortua	%28	%30	%25	%22
2. Euskaraz mintzo	%21	%19	%27	%22
3. Arbasoak	%16	%15	%14	%12
4. Bizitza eta lana	%13	%12	%13	%14
5. Izan nahia	%07	%10	%10	%12
6. Herri zaindari	%07	%08	%06	%11
- Besterik	%08	%06	%05	%07

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Ipar Euskal Herrian baldintza nagusia sorlekua da, gero euskararen erabilerera eta arbaso euskaldunak. Salbu euskara dakitenentzat, hauentzat hizkuntza da lehen baldintza. Gero herrian bizitzea eta askoz urrunago euskal herritar izan nahia eta militantismo politikoa. Hemen dago Iparraldea eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna: alde batetik nortasunari buruzko atxikimendua, beste aldetik nahizko atxikimendua.

Oraingo antropologia erreferentziatzen hartuz, bi muturretako nortasun kolektibo teorietan gabiltza, primordialismoa eta boluntarismoa.

Alde batetik (zerrendako lehen 3 baldintzak), nortasuna ondare bat da, nor bere nahia baino sakonagokoa, familia handi bateko senideak bagine bezala. Iparraldeko ikusmoldea tradizionalista da.

Beste aldetik (beste 3 baldintzak) nortasuna hautu bat da, sentimendu kolektibo hau onartua eta sustatua delarik helburu politiko batzuentzat edo zer-bait aldarrikatzeko. Hegoaldean herritasuna nahizko engaimendu bat da.

Ohargarri da gazteek zer garrantzia ematen dioten sor-lekuari (%30), beste herritarrek bezain tradizionala agertzen dira. Halere boluntarismo zer-bait aurkitzen dugu beren burua gehienik euskotar sentitzen dutenenetan. Ikusi dugu %51 direla gazteen artean.

3.8. GAZTEAK ETA EUSKAL KULTURA (NORTASUNA 2005)

Euskal kultura ez dugu aitzinetik definitu. Inkestatuek erran behar zuten haientzat zein diren “euskal kulturari lotzen dizkioten osagai nagusiak”. I6 elementuren hautua eman zeie, euskara, dantza, pilota, ohiturak, musika, gastronomia, jaiak, arkitektura, herri kirolak, ikurriña, antzerkia, bertsoak, libu-

ruak, arte ederrak, zinema, eta gainera beste bat hautazeko aukera. Hemen 8 osagai hautatuenak aztertuko ditugu, maiztasunaren ehunekotan, herritar ororekin konparatuz gazteak, euskara dakitenak eta euskotarrago sentitzen direnak.

<i>Zein dira euskal kulturari lotzen dizkiozun osagai nagusial?</i>				
Osagaiak	Iparralde	I6-29 urte	Elebidun	Euskal herritar
1. Euskara	%16	%18	%18	%23
2. Kantua	%14	%08	%17	%12
3. Dantzak	%14	%12	%13	%11
4. Pilota	%12	%11	%11	%10
5. Ohiturak	%10	%10	%09	%08
6. Musika	%07	%06	%06	%06
7. Gastronomia	%07	%07	%05	%04
8. Jaiak	%07	%11	%05	%08
9. Besterik	%13	%15	%16	%18

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Iparraldean orokorki euskal kulturari maizenik lotzen diren osagai nagusiak dira, bataz-bestekoen arabera, euskara, kantua, dantzak, pilota eta ohiturak. Kategoria guztietan euskarak dauka lehentasuna bereziki beren burua gehienik euskal-herritar daukatenetan (%23). Gazteetan ere bai bataz-besteko baino 2 puntu gehiago (%18). Gazteetan beste berezitasun bat agertzen da. Itxuraz kantu ez dute biziki maite (%8), baina festak bai (%11). Altaba ez da festarik kanturik gabe.

Jarraian aipatzen dira musika, gastronomia eta jaiak, maila berdinean. Urrunago monumentuak eta euskal kirolak. Eta zerrenda buruan aurkitzen ditugu hizkuntza erabiltzen duten ekintzak hala nola mitologia, antzerkia, ahozko eta idatzizko literatura.

Dirudi kontraesan bat badagola hautu hauetan. Denentzat euskara lehen hautua da eta gero euskarazko osagaiek arrakasta guti dute, euskara ongi dakitenen artean ere. Ipar Euskal Herriko berezitasuna da kantuari ematen zaion garrantzia, 2. mailan ezarriz, salbu gazteen aldetik (6. maila).

PRAKTIKA KULTURALAK

Bi galdea baziren:

- Azken 3 bilabetetan zein kultura ekintzetan ibili zara?
- Ekintza horietan ehuneko zenbat ziren euskaraz?

Ipar Euskal Herriko erantzunak hurrengo taulan agertzen dira molde berezi batean.

- 1. zutabean, kultura alorrak aipamen maiztasunaren ordenan;
- 2. zutabean, aldi bat bederen aipatu ekintzan parte hartu dutenen ehunekoa;
- 3. zutabean, 16-29 urtekoen parte hartzea alor bakoitzean;
- 4. zutabean, euskaldunen parte hartzea;
- 5. zutabean, euskararen presentzia, gazteen kultura ekintzetan.
- 6. zutabean, euskararen presentzia, euskaldunen kultura ekintzetan.

<i>Azken hiru bilabetetan zein kultura ekintzetan ibili zara?</i>					
<i>Ekintza horietan zenbat ziren euskaraz?</i>					
Osagaiak	Iparralde	16-29 urte	Elebidun	Euskarazko ekintzak 16-29 elebidun	
1. Zinema	%25	%30	%18	%02	%05
2. Kontzertuak	%14	%17	%13	%24	%35
3. Euskal dantza	%12	%10	%16	%55	%68
4. Museoak	%12	%09	%12	%07	%19
5. Monumentuak	%10	%09	%08	%05	%07
6. Pastoralak	%09	%07	%13	%70	%93
7. Antzerkiak	%07	%07	%08	%10	%39
8. Dantza klasikoa	%05	%06	%04	---	---
9. Bertso saioak	%04	%04	%06	%100	%100
10. Mintzaldiak	%02	%02	%02	---	---

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura*, 2006

Logika guti agertzen da euskal kulturari buruzko irudikapenaren eta praktikaren artean. Euskal kultura definitzerakoan, ikusi dugu zer garrantzia ematen zaien euskarari, dantzari eta musikari. Horiek hola, Iparraldean gehienik praktikatzen diren kultura ekintzak dira zinema, kontzertuak, euskal dantza, museotako eta monumentuen ikusketak eta antzerkia.

Gazteek parte hartzen duten ekintza nagusia zinema da. Gero, eta askoz gutiago kontzertuak eta euskal dantza. Maila apalagoan erakusketak eta

antzerkiak. Haien euskarazko ekintzak dira kontzertuak pastorala eta antzerkia, hurrenez hurren %24, %70, %10 euskaraz.

Euskaldunek ere ez diete lehentasun berezirik ematen euskara erabiltzen duten ekintzei. Egia erran, salbu kontzertuetan, pastoraletan eta bertsolaritza, euskararen tokia mendrea da kulturaren alorretan.

3.9. GAZTEAK ETA KIROLAK (NORTASUNA 2005)

Kirolak leku garrantzitsua hartu du gazteen aisialdian. Inkestaren helburu bat da erakustea zein diren Euskal Herritarrek praktikatzen dituzten kirolak eta zein diren jarraitzen dituztenak kirol zelaietan edo hedabideetan.

IPAR EUSKAL HERRIAN PRAKTIKATZEN DIREN KIROLAK

Ehunekoek erakusten dute inkestuetan zenbatek kirola bat edo beste praktikatzen duten, herritarrek orokorrean eta bereziki gazteek. Beti agerpe-
nen maiztasuna neurtzen dugu.

<i>Kirol bat egiten duzu?</i>		
	Iparalde	I6-29 urte
1. Ibilaldiak	%28	%12
2. Txirrindularitza	%10	%08
3. Mendia	%10	%08
4. Pilota	%08	%11
5. Igeriketa	%06	%08
6. Gimnastika	%06	%05
7. Eskia	%05	%08
-- Besterik	%27	%40

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Ipar Euskal Herritarretan, ibilaldiak, txirrindularitza eta mendiak dira kirol erabilienak. Bigarren mailan, igeriketa, gimnastika, eskia eta negu kirolak. Pilota Iparraldean zabaldua da azkoz Hegoaldean baino gehiago. Gauza bitxia da txirrindularitzak daukala arrakasta gehiago Iparraldean, itxuraz Hegoaldeko kirola delarik.

Gazteek gehienik egiten dituzten kirolak ibilaldiak eta pilota dira, gero txirrindularitza, mendia, igeriketa, eskia eta negu kirolak hein berdinean. Errugbia eta futbola ere bai, baina gutiago (%7, %5).

IPAR EUSKAL HERRIAN JARRAITZEN DIREN KIROLAK

Errugbia eta futbola dira kirol ikusgarrienak Ipar Euskal Herrian. Gero pilota, txirrindularitza eta tenisa hein berean. Gutiago lasterketa, eskubaloia, saskibaloia eta boleibola. Jakina Hego Euskal Herrian kirol arrakastatsuen futbola da, errugbia zerrendaren beherealdean dagolarik. Pilotak garrantzi handia dauka jendeen irudikapenean, baina ez da kirol nagusia. Lehentasuna futbolak hartu du Hegoaldean, errugbiak eta futbolak Iparraldean.

<i>Kirol baten jarraitzailea zara?</i>		
	Iparraldea	I6-29 urte
1. Errugbia	%23	%24
2. Futbola	%19	%21
3. Pilota	%09	%05
4. Txirrindularitza	%08	%07
5. Tenisa	%08	%10
6. Eskubaloia...	%05	%08
7. Lasterketa	%05	%05
-- Besterik	%23	%20

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

I6-29 urtekoak oroz gainetik errugbia eta futbolaren jarraitzaileak dira hein berdintsuan. Maila bat beherago tenisa, eskubaloia, saskibaloia eta boleibola. Pilotak eta lasterketak arrakasta ahulagoa dute (%5). Altaba %11 gazte pilotariak dira, pilota beren kirola erabiliena delarik ibilaldien heinean.

3.10. GAZTEAK ELKARTE BIZITZAN (NORTASUNA 2005)

I90Iko legearen arabeko elkarteek egitura malgua daukate. Ezin dute irabazirik sortu baina eragin handia dute gizarteko alor askotan, bai eta nazioartean ere. Elkarteak ez dira enpresak, ez eta ere zerbitzu publikoak. Baina gizarteari ematen diote dinamika berezi bat gogo onezko ekintzak antolatuz, hots «kapital sozial» bat sortuz. Ekarte bizitza biziki aberatsa da Ipar Euskal Herrian: INSEE-ren datuen arabera, 900 elkarte baino gehiago badira, auzo lurraldeetan baino gehiago frangotan.

Nortasunari buruzko inkestan, kapital sozial hori neurtu zen. Galde zehatz bat egin zen elkarteetako parte-hartzeaz: «Aipatuko dizudan elkarte mota bakoitzari buruz, erraidazu kidea zaren, edo guztatuko litzazukeen kide izatea?»

I7 elkarte kategoria ezberdin zerrendatuak ziren helburu hauekin: kirola, kultura, gazteria, politika, auzunea, ingurumena, euskara, gizarte laguntza, lanbidea, erlijioa, familia eta beste.

Bazkidezei buruz erantzun zitekeen:

- Ez eta ez litzaidake gustatuko.
- Ez, baina gustatuko litzaidake.
- Bazkide naiz, parte-harzaile edo arduradun.

Aipatu I7 elkarte motei buruz emaitza zehatzak baditugu paradigma askoren arabera: lurraldeak, eskualdeak, generoa, adina, hizkuntza gaitasuna. Hemen bakarrik aipatuko ditugu I6-29 urtekoek gehienik baliatzen dituzten elkarteak Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herri osoan.

Bazkide zara edo bazkide izan nahi zenuke? (%)								
Elkarteak	Iparraldea		I6-29 urte		Euskal Herria		I6-29 urte	
	Kide	Nahi	Kide	Nahi	Kide	Nahi	Kide	Nahi
Kirol taldeak	10	4	17	9	8	3	9	4
Kultur elkarteak	10	4	12	8	6	3	5	5
Gazteen elkarteak	3	3	8	5	0	1	1	1
Auzo elkarteak	3	3	5	3	1	1	1	1
Alderdi politikoak	2	1	5	1	1	0	1	0
Ingurumen elkarteak	3	4	4	6	1	3	1	4
Elkarte humanitarioak	6	6	3	10	3	4	0	7
Euskaingintza elkarteak	2	3	3	5	0	2	0	2

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Emaitzak ehunekotan dira eta inkestatu bakoitzak elkarte mota bat baino gehiago hauta zezaken. Beraz lehen lerroa holaxet irakurriko da: “Ipar Euskal Herriko %10 biztanle kirol taldekide dira eta %4k kide izan nahi lukete. I6-29 urtekoetan %17 kirol taldekide dira eta %9k kide izan nahi lukete. Euskal Herri osoan...”

I7 elkarte kategorien artean, gazteen aldetik 8 arrakastatsuenak aztertu ditugu. Beste elkarteetako emaitzak oso ahulak ziren, hala guraso elkarteak nola erlijio, ondare edo lanbide elkarteak. Berehala ohargarri da Ipar Euskal Herriko gazteek elkarte bizitza indartsua deramatela herritar guzietan konparatuz. Aipatu 8 elkarteetan, Iparraldeko gazteen emaitzak Euskal Herri osoko gazteen emaitzak baino askoz handiagoak dira, 8 punturainoko ezberdintasunarekin. Ezberdintasuna are handiago agertuko zen bakarrik Hegoaldeko gazte konparatuz.

Gazteentzat bi elkarte mota arrakastatsuenak dira kirolena eta kulturarena. Kirol taldeetako partaidetza handia (%17) esplika daiteke kirolarientzat beharrezkoa delakotz bazkide izatea arrazoi askorengatik: praktikatzeko baimena, aseguruak, ondorioen homologazioa eta beste.

Kulturaren alorrean sartzen dira dantza taldeak, antzerkilariak, musika taldeak, abesbatzak eta berdin pesta batzordeak. %12ren partaidetza biziki handia dela erran daiteke, %7 puntu gehiago Euskal Herri osoko gaztei konparatuz. Euskalgintza taldeek badute beren lerro berezia, arrakasta ttipiagorekin (%3), Hegoaldean %0 delarik! Baina ez da erraz muga zehatz bat ezartzea kultur ekintzen eta euskalgintzaren artean, antzerkia aipatzen delarik, edo literatura edo bertsoarritza.

Beste hiru alorretan partaidetza nahiko ona da: gazteen elkarreak (%8), auzo edo herri elkarreak (%5) eta alderdi edo mugimendu politikoak (%5). Iparraldeko gazteek egiazko engaiamendua erakusten dute beren adineko edo lekuko taldeetan, bai eta ere politika mailan. Euskal Herri osoa hartuz gazteetan %1ek soilik parte-hartzen du eremu hauetan. Mobilizazio eskasaren seinale.

Gai humanitarioak eta ingurumenari buruzkoak sentimentu onen amen-tsetan daude gazteengan: parte-har lezakete %10ek eta %6k hurrenez hurren, egiazko parte-hartzaileak %3 eta %4 direlarik. Euskal Herri osoko gazteengan gauza bera agertzen da: %7k eta %4k engaiatu nahi lukete, baina %0 eta %1 engaiatzen dira.

Gazteen parte-hartzea ñimiñoa da (%1) guraso, lanbide, etxebizitza elkar-teetan, bai eta aisialdi talde batzuetan, hala nola ehizan et arrantzan. Parte hartzerik ez (%0) erlijio eta ondarea elkar-teetan.

Zenbaki hauek parte-hartzaileen edo nahi dutenen ehuneko orokorrak dira, jakinez pertsona batek bi elkarte edo gehiagotan parte har dezakela den-bora berean. Halere zenbakiak idea bat ematen digute egiazko partaidetzaz, parte-hartzeko nahiarekin konparatuz. Maizenik gazteek beren zintzotasuna erakusten dute, egiazko engaiamendua nahikeria baino indartsuago baita. Halere hiru eremutan, euskalgintzan, ingurumenari buruz eta bereziki humanitarismoan, sentimendu ona parte-hartzea baino gorago da. Beraz elkarte bi-zitzaren pedagogia baten beharra ikus daiteke.

Egia erran, elkarte bizitza dinamikoa izateko, ez da beharrezkoa herritar bakoitzak elkarte askotan parte har dezan. Nahikoa da herritar askok parte har dezaten gutienez elkarte batean. Dauzkagun emaitzak elkarte askoren artean sakabanatuak dira. Eta sakabanaketa horrek partaidetza ahularen itxura ematen digu. Itxura aldatzen da emaitzak elkarretaratuz.

EMAITZA ELKARRETARATUAK

Elkarte bizitzari begira, aitzin-galde bat falta zen: “*Elkarte batean edo batzuetan parte hartzen duzu?*”

Bai, parte hartzen dut elkarte batean; bitan; hirutan edo gehiagotan.

Ez, ez dut elkarte batean ere parte hartzen.

Dauzkagun emaitzen azterketa statistikoak informazio hori eman ahal digu. Taula honetan aurkitzen ditugu Ipar Euskal Herriko lau eskualdeetako eta lau adinartetako emaitzak.

<i>Ipar Euskal Herrian: zenbat elkarteko bazkide zara? (%)</i>									
	Eskualdeak					Adinarteak			
	IPAR ALDE	Ipar kosta	Hego kosta	Erdi-gunea	Barne-aldea	16-29 urte	30-45 urte	46-64 urte	65 urte eta +
Bat ere ez	67	64	78	70	54	67	65	68	67
Bat	20	21	17	21	23	16	21	21	23
Bi	7	7	3	6	12	7	7	5	7
Hiru edo +	6	8	2	4	11	9	7	6	3
Kidegoa	%33	%36	%22	%31	%46	%32	%35	%32	%33
Zenbat elkartetan	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Taula honek egiazko partaidetza kontuan hartzen du bakarrik. Parte-hartu nahi luketenak “partaidetzarik ez» lerroan zenbatuak dira. Nabari dena da elkarte bizitzaren bizkortasuna Nafarroa Beherean eta Zuberoan (barne aldean): jendetzaren % 46k parte-hartzen dute gutienez elkarte batean, horietan % 12k bi elkartetan eta % 11k hiru elkarte edo gehiagotan. Partaidetza hobeki ageri da 2 elkarte edo gehiagotan parte-hartzeak biderkatuz. Orotara 80 edo gehiagoko zenbakia ateratzen da. Kopuru bera aurki genezake elkarte mota guztien ehunekoak gehituz.

Bigarren eskualde bizkorrena Baiona Angelu Biarritz aldea da: hiritarren %36k parte-hartzen dute, 60 elkarte mota edo gehiagotan. Harritzen gaitue-na da Lapurdi barneko partaidetza ahula (% 36 parte-hartzaile), are gutiago Hego kostaldean (% 22 parte-hartzaile. Konparaketa hauek ezin ulertuak dira ikusiz askoz elkarte gehiago badirela kostaldean ezinez eta barnealdean. Gertakizun berari ohartuak ginen praktika kulturalak aztertzerakoan. Erran nahi luke eskaera ez dela beti eskaintzaren heinekoa.

Aldiz adinaren parametroak ez du eragin handirik elkarteetako partaide-zari begira. Ez eta ere euskaren ezagutzak: ongi dakitenetan % 29k parte hartzen dute gutienez elkarte batean, zerbait dakitenetan % 33k eta deus ez dakitenetan % 30ek.

LURRALDEEN ARTEKO KONPARAKETA

Hurrengo taulak aurkezten ditu Ipar Euskal Herriko, Nafarroako eta Eusko Autonomia Erkidegoko (EAE) emaitzak. Adinaren parametroaren bi-dez konparaketa bat egin dezakegu hemengo eta hango gazteriaren artean.

<i>Euskal Herrian: zenbat elkarteko bazkide zara? (%)</i>								
	Lurraldeak				Adinarreak			
	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparaldea	16-29 urte	30-45 urte	46-64 urte	65 urte eta +
Bat ere ez	70	73	58	67	79	65	71	66
Bat	22	20	29	20	18	24	20	26
Bi	6	5	9	7	3	7	6	7
Hiru edo +	3	2	3	6	1	5	3	1
Kidegoa	%31	%27	%41	%33	%22	%36	%29	%34
Zenbat	43	36	56	52	27	53	41	43
Elkartetan	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+	edo+

Iturria : *Euskal nortasuna eta kultura, 2006*

Elkarte bizitzari begira, Iparraldeko emaitzak Euskal Herri osokoen hein berekoak dira. Lurraldeen artean, Nafarroak erakusten digu elkarte bizitza indartsuena %41 parte-hartzaileekin gutienez 56 elkarte kategoria ezberdinetan. Dena dela mugaz bestaldean Nafarroa-Behereko eta Zuberoko emaitzak indartsuagoak dira, %46 parte-hartzaileekin gutienez 80 elkarte kategoria ezberdinetan. Supresa EAetik dator biztanleetan %73k ez baitute parte-hartzen elkarteetan. Ba ote da esplikaziorik? Erran dezakegu erakunde autonomikoek elkarte zibilen jarraipena hartu dutela. Puntu baikorra litzateke, haatik frogatu beharrekoa gizarte zerbitzu eremuak banan banan aztertuz.

Beste ohar lazgarria da, Euskal Herri osoan, 16-29 urtekoetan %79k (EAEn %81ek) ez dutela elkarteetan parte-hartzen. Beraz herri osoan gazteetan %22 dira 27 elkarteetan parte hartzen dutenak eta EAEn %19 gazte dira 21 elkartetako bazkideak. Desmobilizazio ezin ulertua!

Ipar Euskal Herrian aldiz %32 gazte bermatzen dira gutienez 44 elkarreetan eta hain segur askoz gehiago Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Iparraldean gazteek beren lekua atxikitzen dute elkarte dinamika honetan, bereziki aisialdean aztertzen ditugun eremuetan adibidez kulturgintzan, kirolean, gazte taldeetan eta herri mugimenduetan.

3.II. GAUR EGUNGO GAZTEEN ARGAZKIA

NOR DIRA 2010EKO GAZTEAK?

Duela bost edo hamar urteko ikerketak balia ditzazkegu. Alabaina, 1999an 13 urte zuten gaztetxoek orain 24 urte dute eta 2005eko adin talde gazteenek orain 21-29 urte. Nolako gazteen argazkia ateratzen da euskal aisialdien ulertzeko interesgarriak diren parametroak erabiliz: lehen hizkuntza, hizkuntza gaitasuna, hizkuntzen erabilera, herri nortasunaren sentimendua? Zein dira gaurko gazteen joerak?

Euskara biziki gazte gutiren ama-hizkuntza da. %14entzat doi doia. Beraz euskara ez da gehiengoaren nortasuna egituratu duen hizkuntza afektiboa. Hortako garrantzia handia luke euskara izan dadin ahal bezainbat esperientzia atsegingarrirei lotuko zeien hizkuntza, adibidez aisialdian. Oraindik euskararen transmisioa auzian dago, gaztetxoek inkestak erakusten duen bezala. Gaztetxo euskaldunei galdegin zein: *“Hemendik urte batzuetara, seme-alabarik bazenu, zuk euskaraz hitz egingo zenieke etxean?”* Erantzuna “bai” %87 Iparraldean, %74 EAEn eta %65 Nafarroan. Galdea hipotetikoa izanikan ere, aldagai hau interesgarria da nolazbait euskara jarraitzeko gogoia adierazten baitu. Gutienik transmititzen den lurraldean dago transmititzeko xederik bizkorrena. Jarrera baikor hau haziko da euskara atseginaren hizkuntza sentituko den neurrian.

Hizkuntza gaitasunaren aldetik, belaunaldi hauekin gelditzen da euskararen aspaldiko gainbehera. Eskolari buruzko hizkuntza politika eraginkorraz baliatu dira. Haien eskola herria baino euskaldunago da. Ondorioz gazteen adin taldea, lehen aldikotz, zaharragoa baino euskaldunago da (%16 versus %11). Halere gazte hauek ere euskaraz baino frantsesez trebeago mintzatzen dira. Euskal elebidunen multzoa 3 punduz goratu den denboran, elebidun orekatuen multzoa 14 punduz ahuldu da eta erdal elebitasuna 11 punduz indartu. Badakigu hitz egiteko erraztasuna faktore erabakigarria dela hizkuntza bat edo bestea hautatzerakoan.

Gazteek non erabiltzen dute euskara? Eskolan eta eskolaren inguruan, erabilera “profesionala» nolazbait. Gero, baina gutiago, familian eta lagunartean, hots gune afektiboetan.

Zein dira gazteen pentsamoldea euskarari buruz? Definizio aski tradizionala ematen diote: hizkuntza zaila da, baina gurea delakotz zaindu behar da. Gehiago laborantzari eta iraganari lotzen diote ezinez eta etorkizuneko bizitza hiritarrari. Ondorioz ez dakite euskara baliagarria den ala ez. Halere gure nortasun kulturalaren zinezko ikurra da. Beharrezkoa da euskara irakastea eskoletan baina haienez hautuzko ikasgai bezala. Ezagutza ez da aski, egun oroz erabili behar da euskaldunen artean, erdaldunak hor badira ere. Gazte zenbaitek euskarazko ekintza gehiago nahi lukete.

Nortasun kolektiboari buruz, bi emaitza oso ezberdin baditugu. Euskaltasuna bakarrik aipatzen delarik anitzek beren burua euskalduntzat daukate: %48 Iparraldean oro har eta %43 gazteengan, beraz hizkuntza gaitasuna baino askoz gehiago. Aldiz euskal eta frantses nortasunak lehian ezartzen direlarik, bien artean inkestatuak hautu bat egin behar duelarik, emaitzak zalantzan daude: gehiago euskal herritar %16, euskotar bezain frantses %24, gehiago frantses %53 Iparraldean oro har. Quebectar soziologoek nazio kulturala eta nazio zibikoa bereizten dituzte. Nazio kulturala ondarean, ohituretan, hezkuntzan, hizkuntzan oinarritua da. Nazio zibikoa sortzen da herritarrek herria eraikitzen dutelako kontzientzia daukatelarik, zerbitzu publikoetan, lurralde antolaketan, bizitza ekonomikoan eta kezka ekologikoan parte hartuz. Nortasun kulturala nahiko argia da, baina herritasunari buruz jendetza bikoitz agertzen da.

Orain arte ez genuen ikerketarik aisialdiari buruz. Baina bai aisiari lotuak diren hiru eremutan, kulturgintzan, hedabideetan eta kirol bizitzan.


Bizitza kulturalari begira, hemen ere “paradoxa» baten aitzinean gara. Oharra Iñaki Martínez de Luna-rena da (Baxok eta beste, 2006, *Euskal nortasuna...* : 148. or.). Alde batetik kulturaren osagai nagusiak definitzerakoan gazteek orokorki eta euskaldunek bereziki euskarari ematen diote lehen lekua. Baina kontsumitzaile bezala zinemari ematen diote lehentasuna, herritar guziek bezala. Altaba zineman euskararen lekua mendrea da (ikusgarrien %3). Halere kultura eragile bezala, kantua, antzerkia eta bertsolaritza gogotik praktikatzeko dituzte.

Kirola aipatzen delarik bereizi behar dira kirola praktika bezala eta kirola ikusgarri bezala. Praktikan gazteek ibilkaldiak maite dituzte bereziki mendian. Ikusle bezala gazteen lehen hautuak errugbia eta futbola dira (praktikan 3. eta 10. mailan direlarik). Pilotak aipamen berezia merezi du. Euskal Herriari kirol enblematikoa da, lehen herri kirola. Ikusle bezala gazteek 3. lerroan daukate, plazetan edo maizago telebistaren aitzinean eta praktikan 4. mailan.

Emaitzak elkartez elkarre aztertuz, iduri luke elkarre bizitzak ahul aire bat baduela. Kontuan hartu behar da elkarre kopurua biziki handia dela. Emaitzak metatuz, Iparraldean dinamika bizkor bat agertzen da bereziki

barne-aldeko eskualdeetan. Balio luke Hego Euskal Herriko, elkarte kopurua eta parte hartzea konparatzea Espainiako beste komunitate autonomoekin : “Gizarte ondasuna (kapital sozial delakoa) neurtu nahi izan dutenek adibidez erakutsi dute EAEn eta Nafarroan zirela lotura asoziatibo indartsuenak” (Mota, 2000). Euskal Herri osoari begiratuz eskualde dinamikoena Zuberoa da, eta Nafarroa mugaz bi aldeetan. Aldiz elkarteek eragin gutiago dute lurralde jendetsuenetan eta nolazbait instituzionalizatuenetan, adibidez kostalde osoan Baionatik Bilboraino.

“Aisialdia, gazteak eta euskara» gogoetagai dugularik, kontuan hartu behar dugu Ipar Euskal Herriko belaunaldi gaztea gero eta euskaldunago dela, euskarari eta herriari atxikia, kulturazale, kirolzale ere bai adinak erakarririk. Haatik gazte hauek euskararen erabiltzaile herabeak dira, doi bat etxean eta lagunartean. Eskolan eta eskola inguruan ere euskaraz mintzo dira, aukera atsegingarriak aurkitzen dituzten neurrian.



Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran
(Baxok Erramun eta beste, 2006, Donostia, Eusko Ikaskuntza).

4. AISIALDIEN EREMUAK

Lehen atalean ohartu gara nola aisialdiaren errealitatea ezberdina eta konplexua den. Aisialdi antolatua eta aisialdi informala (edo autonomoa) bereizten dira. Atal honetan aisialdi antolatuari interesatuko gatzazkio bereziki, kultura eta kirol jardueri, elkarte edo erakunde batek eskaintzen dituenak eta talde batean nagusiki gauzatzen direnak. Halere aisialdi informala ere aztertzen saiatuko gara, hots gazteek arautzen eta kudeatzen dutena helduen kontrolarik gabe.

Aisialdiari buruz sorkuntza eta hezkuntza aitzineko azpiataletan agertu ditugu. Halere, gazteen “kontsumoa” hobetzeko, bestela erranez gazteen euskarazko aisialdien aldeko nahia edo gosea pizteko beste jokabide arrakastatsu eta erabakigarri bat badago: hedapena, bitartekotza edo sustapena. Hiru nozioen artean ezberdintasunik ez dugu eginen hemen. Hedapena Euskal Kultur Erakundearen helburu nagusietan da. 2009ko ekintzen bilanean adibidez “*Euskal artisten hedapena bizkorki sustengatu*” izenburua irakur dezakegu eta lagundu edota programatu dituen euskal artisten zerrenda luze bat badugu, 63 izenekin (19. or.). Bere hedapenarako tresna nagusia webgunea da (www.eke.org), “Euskal kulturaren ataria” deritzona. “*Euskal eta euskarazko ikusgarrien hobeki hedatzeko, Euskal Kultur Erakundeak Iparraldeko sorkuntzen katalogo bat proposatzen dizu*”. 2005ez geroztik dohainikako kultura albistegi elektronikoa bat banatzen dute astero, agendako gertakarien aipamena zabalduz harpidedunei. Ez dakigu zer eragin duen gazteengan.

Gaur egungo egoera ongi ebaluatzeko gisan, beharrezkoa da eragile bakoitzaren jarduera zehaztea. Eragile hauek anitz dira. Azterketaren lehen etapa batean Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) eta elkarten jarduerak bereizi behar dira, elkarte gehienak EEPren politikaren obragileak bilakatuak baitira. Gehienetan aisialdiari lotuak diren jardueren sortzaileak elkarteak zi-

ren, hots euskararen aldeko lan egiten zuten militanteak. Behar gorriak agertzen ziren eta ongi ala gaizki lanari lotu zaizkio esperientziarik izan gabe, eta lana eginez urtez urte ezagutza eta trebetasuna eskuratu dituzte.

Aisialdiko eremuan agertzen diren eragile, proiektu edo jarduera guziak ez dira hemen aurkeztuko. Osotasuna ezinezkoa da, gure ikergaia gazteen, aisialdiaren eta euskararen arteko erlazioei mugatuz ere. Atal honen analisisa EEPren 2007tik 2010erako proiektu deialdietako galdera eta ebazpen dozierretan oinarritzen da, bai eta beste bide batzuez eskuratu ditugun informazio adierazgarrietan (prentsa, eragileen webguneak ...). Azpimarra dezagun EEPk laguntzen dituen proiektuek aisialdiko alorra ez dutela osoki estaltzen, hutsune handiak izan daitezkeela eta, bestalde, eragile batzuen proiektuak baztertuak izan direla, euskararekin lotura eskasez.

2001etik 2004era Obragintza publikoak lagundu zituen proiektuak ere kontuan hartuko ditugu, azken lau urteetako jarduerari lehentasuna emanaz halere. Aisialdi eremu bakoitzean, EEPk lagundu dituen egitasmoak bi taulatan bilduak dira:

- eragile pribatuen taula 2007tik 2010 artean;
- ikastetxeen taula 2008-2009, 209-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan.

Aisialdi eremuetako atal bakoitzean, ikastetxeek aisialdiari buruz antolatu dituzten ekintzak komentatuko ditugu. Egia erran, aztertzen dugun jendetza 13-15 urteko adinartearena da. Hezkuntza denbora ere interesatzen zaigu, eskolan ikasten baita nola euskaraz bizitzen den. Eskolako eta eskola inguruko ekintzak banatu ditugu, hautatu ditugun aisialdi eremuen arabera. Ohiko proiektu deialdia, eragile pribatuentzat asmatua zen eta, beraz, ikastetxe publikoek ezin zuten parte hartu. Horregatik 2008az geroztik, EEPk deialdi berezi bat antolatzen du ikastetxeetako proiektuak bultzatzeko, bereizgorik egin gabe hezkuntza sareen artean.

Ikastetxeetan aurkituko ditugu lehen mailako eskolak (3-II urteko haurerentzat), bigarren mailako kolegioak (II-14 urteko ikasleentzat) eta lizeoak (14-17 urtekoentzat), nola sare publikoan edo giristinoan, hala Seaskaren murgilbide sarean. Askotan antolatzaileak guraso elkarteak dira, *Euskal Haziak* sare giristinoan, *Ikas Bi* edo *Biga Bai* sare publikoan. Seaskan, gurasoek eta irakasleek elkarrekin lan egiteko ohitura daukate.

Ikastetxeen eta eragileen egitasmoen arrakasta ahal den neurrian neurtzeko, lagundu diren proiektuen parte-hartzea, iraupena, euskararen sustapena edo erabilera azaltzen dira. Noski egin ditugun datu zifratuen bildumetan zenbaki-errore batzuk sar litezke. Halere gehienetan fidagarriak direla uste dugu. Gazteen aisialdiko errealitatearen argazki partziala emateko lagungarri dira, hain segur. Diru laguntzen kopuruak bosgarren atalean aipatuko ditugu, aisialdiari buruzko politika publikoak aztertuko ditugularik.

4.I. BILGUNEAK, EGONALDIAK ETA IBILALDIAK

ALOR HONEN GARRANTZIA

Aisialdi antolatuari interesatzen baldin bagatzaio egonaldiak eta ibilaldiak dira denboran zehar agertu zen lehen aisialdi hezitzailea, aspaldiko arte herrikoien ikaskuntzarekin batera (dantza, kantua, antzerkia, eta beste). Ipar Euskal Herrian, aspaldidanik izan dira, hain zuzen, oportetako egonaldiak, kanpaldiak, “koloniak”, frantsesez gehienik. “*Euskaldun xoriak*” ziren eskola giritinoak antolatzen zituen udako egonaldiak, bereziki barnealdeko haur euskaldunentzat. 1950eko hamarkadan abiatu ziren. Harrigarriko lana egin zuten kantu zaharrak eta euskal dantzak zabaltzeko. Gaur egun talde eta elkarte pribatu batzuek euskarazko egonaldiak eskaintzen jarraitzen dute, eta orain erakunde publikoen laguntzarekin (EEP, CAF familia laguntza kutxa (*Caisse d’allocations familiales*)).

Egitura eta jarduera ezberdinak bereiziko ditugu: bilguneak (eskola ordue-tarik kanpoko harrera egiturak), egonaldiak eta trukaketak, kanpaldiak eta ibilaldiak.

ERAGILE PRIBATUAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Basaizea Baigorri, 2009.	Euskarazko aisialdi ekintzak eta egun tematikoak.	14 haur eta gazte, 141 orenez.
Karkaila Zuberoa, 2009.	Kultura ekintzak, ateraldiak. Josekanbudo, perkusio saioak.	25 ibiltari. 18 musikari.
Uda Leku, 2007-2010.	Egonaldiak oportetan. 3 bilgune: Baiona, Biarritz, Hendaia	600 haur urtero, 30.383 haur-egun.


Uda Leku elkartea

Eremu honetan Uda Leku elkartea da Ipar Euskal Herriko euskarazko eragile nagusia. Bilguneak, egonaldiak, ateraldiak, animazioak 3-15 urte adin tarteko haurrentzat antolatzen ditu. 2000. urtetik landa, CAF deitu familientzako diru-laguntzen kutxak ematen duen gurasoen sostengurako sarearen labela dauka (*Réseau Appui Parents*), hau da haurren hartzeko onespen ofiziala.

Orotara hogei bat langile dira. EEPk urtero bere diru-laguntza emendatzen dio, lau urtez 500.000€ hurbil eman dizkiolarik 1.800.000€ko kontua osatzeko.

Hiru bilgune dauzka Uda Lekuk: Baionan, Hendaian eta Miarritzen. As-teazkenetan eta opor guzietan irekiak dira, Eguberriz salbu. 2010ean 550 familia hunkitu ziren, 669 haur, 55 elkarte eta ikastetxe. 2010ean, «euskarazko aisialdia gozatzeko dituzten haur eta nerabeen kopurua %22,4 emendatu da iaiztik. Hamalau egonaldietan 300 haur ibili dira» (Berria, 2010-09-30). Urtez urte haur/egun kopurua emendatu da hiru bilguneetan eta Hendaia-koan bereziki 604tik 2001ean 4.885era iraganez 2010ean.

Hona hiru bilguneetakoak bildurik haur/egunen kopuruaren bilakaera 2001etik 2010era.



Iturria: Uda Lekuren Obizko biltzar nagusia – 2010ko urtea: 4. or.

Zinema hamabostaldia proiektuaren bidez, Uda Lekuk euskaldun gazteei euskarazko filmak ikusteko parada eskaintzen die. 2010ean 3110 haurrek parte-hartu zuten, 2 filma 10 zinemagela ezberdinetan. Ikusi zituzten *Lotte* marrazki biziduna 4-6 urtekoentzat egina eta *Lepel* ipuina 7-11 urtekoentzat.

Egonaldi tematikoak edo lemadunak proposatzen ditu ere: surfa, zaldia, zirkoa, eskia, entzun-ikus. Oro har parte-hartzea egonkorra da 2001etik 2010era. Eskarari erantzuteko, egonaldi eskaintza 15 urtez goragoko gazteei hedatu nahi lieke. 2010ean 18 animazio edota haurren xoko antolatutakoak ditu ere Uda Lekuk, besta egun ezberdinetan: Herri Urrats, Sagarno eguna, Euskal Haziaren besta, ikastola ezberdinen bestak, Festibal Baiona.

Gurasoen nahiak edo beharrak aldatu dira azken urte hauetan eta orain Uda Lekuren eskaintza haurren eta gazteen zainketa zerbitzutat hartzen

dute. “Egonaldien epealdia murrizterat joan da. Aste bat baino gehiagoko egonaldiak joanago eta gutiago antolatzen dira. Burasoen parte hartze ekonomikoa xumea edo mugatua gelditzen da” (2009ko biltzar nagusiaren bilana: 22. or.).

Horrez gain, hizkuntzaren aldetik bilakaera kezagarria da. Uda Lekuko arduradunek diote : “Euskararen ulermena abulduz doala eta erdara gero eta gehiago entzuten dela kezkatu. Aisialdiak ekimenetan euskararen erabilera bultzatzeko tresna berri batzuei buruz gogoetatuko dutela azaldu dute” (Berria, 2010-09-30).

Bestalde, egonaldi eskaintza geografikoa ez dela orekatua ohargarri da. Uda Lekuren hiru bilguneak kostaldean daude; beraz barnealdeko bilgune iraunkorrak beharrezkoak lirateke.

Ikas Bi elkarteak

Ikas Bi elkarteak beste eragile bat izan zen egonaldien eremuan 2006a arte. Ikas Bi irakaskuntza publiko elebidunean haurrak dituzten gurasoen lehen elkarteak da. Donibane Garazi ondoan, 1987an hetsi zen Azkarateko eskola publikoa. Ikas Bik etxea aldatu zuen egonaldi gune bat sortuz Iparraldeko eta Hegoaldeko haurrak hartzen zituen ikasturtean zehar “klase berdeak” eta udako egonaldiak eskainiz. 2007an egonaldi gune hau hetsi zen.

Basaizea elkarteak

Elkarteak “Solas eta Jolas” proiektua eramaten du Baigorriko kantonamenduan aisialdi jarduerak haurrei eta gazteei proposatzeko. “Solas eta Jolas” proiektua, buraso diren kideen galdera batetik sortu da. Aisialdi aktibitate desberdin batzuk proposatu nahi zituzten kantonamenduko haur eta gazteer (6 urtetik 15 urtera), euskaraz eta tokiko edota inguruko aktore batzuekin antolatuak (kirol edo kultur elkarteak, artistak, mendi gidariak...), tokiko abuleziari erantzuteko“ (www.basaizea.com).

Karkaila Xiberoa elkarteak

Elkarteak familien elgarretatze gune bat da, guraso eta haurren arteko harremanak bermatzeko. Frantsesezko eta euskarazko aktibitateak eskaintzen ditu jende helduen artean bai eta ere haurrentzat.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Erakundeak eskolatik kanpoko euskarazko aisialdiak antolatu zituen kontaktuan zituen herriko etxeekin, 2006tik 2008arte. Hastapenean Hendaian bakarrik egin zen, gero Aldude-Banka-Urepele eskualdean, Angelu, Hendaia, Urruñako herrietan bai eta ere Garazi-Baigorriko herri elkargoan.

IRISARRIKO OSPITALEA

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrek 2002an egitura berezi bat sortu zuen ondarea baloratzeko, Irisarrin XVII. mendeko Ospitalea berrituz. Zentro honek ikasturtean zehar ondare-egonaldiak I. eta 2. hezkuntzako ikasleentzat eskaintzen ditu, besteak beste (mediateka, erakusketak, mintzal-diak...). Egiturak 32 ostatzeko leku dauzka.

IKASTETXEETAKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
I8 ikastetxe egonaldi, 2009, 2010.	Irisarri Alduden, Biarritz Zugarramurdi...	326 ikasle, 14 laguntzaile.
2 kirola ibilaldi, 2009.	Errobin kanoez, oinez, trenez. Bardeetan VTT ibilaldia.	226 ikasle beren irakasleekin.
9 kultura pidaia, 2009, 2010.	Kanbo-Donostia-Bilbo-Irun, Garazi-Elizondo-Lakaroz...	273 ikasle, 12 laguntzaile.
12 ikastetxe trukaketa, 2008-2010.	Baiona-Zornotza, Biarritz-Bilbo, Garazi-Bilbo, Hazparne-Beasain...	343 ikasle, 27 laguntzaile

Proiektu hauetan, hiru jarduera mota aurkitzen ditugu: egonaldiak, ibilaldiak eta ikastetxeen arteko trukaketak.

Kolore askotako egonaldiak antolatzen dira ikasturtean zehar: “klase berdeak” baserri guneetan, “klase zuriak” elurretan, “klase urdinak” itsas bazterrean. Hemengo berezitasuna da komunikazioa euskaraz egiten dela. 2009an, Irisarriko eskolierrek Aldudeko Erreka Gorri zentroan zaudelarik, Bankako arrandegia edo Oteiza etxaldea bisitatu zuten. Itsas Argi ikastolako 3 klaseek Zugarramurdi egin zuten 2 eguneko egonaldia. 2010ean 8 ikastetxetako 259 ikaslek egonaldiak egin dituzte 8 toki ezberdinetan Alduden, Baigorri, Arrosan, Hondarribian, Bizkaian eta beste.

Ibilaldiak helburu askotakoak dira, kirola, ingurunearen ezagutza, eta berdin kultura uztartuz. 2009an, Kanboko Errobi kolegioko ikasleek hain zuzen Errobi ibaiari jarraiki ziren trenez, oinez eta kanoez; Manex Erdozaintzi Etxart kolegiokoak Bardeetan ibili direlarik txirrindulaz. Bidaia kulturalak ere ohikoak dira: ikasle garzarrak Elizondon eta Lekarozen 3 egunez, Kanboko ikasleak Donostian, Irunen, Bilbon, Gortitzen. 2010ean 5 ikastetxetako 163 ikaslek ateraldi berdintsuak egin dituzte maizenik Hego Euskal Herrian.

Ikastetxeen arteko trukaketek arrakasta handia dute. Adibidez 2009an, Baionako René Cassin lizeoak, Zornotzako ikastetxe batekin, Biarritzeko Fal kolegioko 16 ikasle Bilboko Luis Briñas kolegiokoekin eta alderantziz, aldi oroz hiru egunez. Eskola eta ikastolen arteko trukaketak maiz gertatzen dira: Donibane Garaziko Mayorga eta Santitxuko Briñas, Kanboko gaztetxoak Bilboko adin berekoekin, Hazparneko Ursuya kolegioa Beasaingo La Salle ikastetxearekin, Biarritzeko ikastola Zestaoko Sastarrain baserri eskolarekin. 2010ean, Ipar Euskal Herriko 5 ikastetxetako 122 ikaslek trukaketetan parte hartu zuten Hegoaldeko 5 ikastetxerekin. Gainera, Errobi kolegio kanboarrak topaketak antolatu zituen inguruko ikastetxe elebidunekin eta 149 ikaslek parte hartu zuten.

Ipar eta Hegoaldearen arteko trukaketak esperientzia baliosak eta atseginak dira: ikasleek beste euskal herrialdeen ezagutza egiten dute, Euskal Herriaren batasuna eta aberastasuna ulertuz. Jende helduek daukaten “muga mentala” ahultzen da gaztetxoengan. Gainera elkarren arteko komunikazio hizkuntza bakarra euskara da, beste aldeko erdara ez baitute ongi ezagutzen. Euskalkien ezberdintasuna jolas moldean gaınditzen dute.

PROPOSAMENAK

Aisialdi eta opor zentro sareak lurralde osora zabaltzea beharrezkoa da eskuduntza duten erakundeekin laguntzarekin eta denbora berean familien gogoa piztea euskarazko aisialdiaren alde.

Ikastetxeetarik kanpoko haur eta gazteen euskarazko harrera eta egonaldiak gero eta alor garrantzitsuagoak dira. Gaur egun gurasoek aisialdi antolatu eta hezitzaileak nahi dituzte beren seme-alabentzat, lanarengatik etxean lehen baino gutiago egoten baitira. Zainketa merke eta hurbilaren bila badoaz. Ez dituzte haurrak eta gazteak bakarrik utzi nahi eta, ahalaz, aisialdia hezitzailea izan dadin nahi dute. Beraz zerbitzu mota horrentzat eskaera hor da.

Egoera kontrastatua da. Alde batetik gero eta haur gehiagok euskara ikasten dute eskolan, bestalde ikastetxetik kanpoko euskarazko aisialdi eskaintza ahula da. Helburua da lehenik eskaintza hori hedatzea, hurbilago izan dadin, eta ezagutaraztea, gurasoek euskarazko aisialdi eskaintza badela ez baitakite.

Baina ageri da lehen oztopoa bilgunetako urruntasuna dela. Erran bezala Uda Lekukoak kostaldean dira eta barnekaldean eskaintza ez da aski egitura-tua. Ondorioz, konpontzeko arazoetarik bat haur eta gazteen garraiatzea izanen da. Uda Leku, Basaizea edota Karkaila elkarteak hedapen horren eragileak izan daitezke, esperientziaren bidez gaitasun praktikoak eskuratu baitituzte. Horretarako eragile hauek indartu beharko dira.

Hain zuzen Hizkuntza Politika Proiektuan lan ardatz zehatzak definituak dira familiei euskarazko aisialdi eta opor zentro sare bat eskaintzeko, horretarako plangintza bat gauzatzeko eskumena duten erakundeekin eta beharrez

egitura berriak asmatzeko. Aisialdia ikastetxeetan hasiko da euskalduntzen, hizkuntza egonaldiak eskainiz, harremanak bultzatuz ikasleen artean zuzenean edo Interneten bidez, euskara plazerrarekin uztartzeko xedearekin (*Hizkuntza Politika*, 48. or.). Ikusi dugu EEPk erronka honi aterabide bat ematen hasia dela Deialdietako proiektuak lagunduz.

Halere oraingo giza- eta finantza-baliabideek eskaintza osoa ezin dute estali eta aldi berean gurasoen eskaera piztu eta bultzatu behar da euskarazko aisialdiari begira. Egoera horren aitzinean, baliabideez gain nahikari publikoa indartu behar da alor estrategiko hau ongi antolatzeko.



Uda Lekuko opor gunea Biarritzen
(2009-06-20, biarritzeuskara.canalblog.com)

4.2. KOMUNIKABIDEAK

Atal honetan euskarazko prentsari, ikus-entzunezko komunikabideei, irrati ala telebista, informazio eta komunikazio teknikei (IKT) interesatuko gatzazkie. Inkestek erakusten dute gazteen zaletasuna irratiak entzuteko, telebistari so egiteko eta Internet erabiltzeko. Telebista erabiltzen dute dibertitzeko, horrekin hezten dira, eta Internet komunikatzeko (*Berria*, 2011-05-01). Gainera askoz jende helduak baino trebeago dira tresna elektronikoak baliatuzeko, ordenagailuak, jokoak ala esku telefonoa. Zer eskaintza dute euskaraz?

Eta zer nolako euskara? « *Ehunekoak ematerakoan zaku berean sartu obi gaituzte euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak; hots datuak errealoagoak (eta euskarazko kateentzat dezentez hobeak) liratekela erreferentzia gisa soilik kate boriek ikusi eta uler ditzaketenenak (hots, euskaldunak) hartuko balira* » (Aitor Zuberogoitia, 2009, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 72. zbk: 33. or.). Ohar hau euskarazko komunikabide guzietara hedatu diezaiekegu, entzulegoa edota irakurlegoa neurtu nahian.

Komunikabideak lau azpieroemutan banatzen ditugu: irrati-gintza, telebista, prentsa, informazio eta komunikazio teknologia berriak (IKT). Aldi oroz zehaztuko ditugu gazteen zaletasunak, euskarazko eskaintza, eragileak. Bururatzearan EEPk lagundu dituen proiektuen taulak, eragile pribatuena eta ikaste-txeena, komentatuko ditugu, gomendio batzuk egin aitzin.

IRRATIGINTZA

Gazteen zaletasuna

Nortasuna 2005 inkestan galde bat egin zen herri osoan, nola erabiltzen ziren euskarazko hedabideak: telebista, irrati, musika diskoak, kazetak eta KDak, aldizkariak eta liburuak. Ipar Euskal Herriko erantzunak ehunekotan emanak dira, 4 maila bereiziz parte hartzea neurtzeko:

- egunero;
- askotan (astean behin ego gehiago);
- noizean behin (hilabetean behin edo gutiago);
- sekulan ez.

Hedabideei buruz hiru parametro hartu ditugu: kopuru orokorra, adina (16-24 urtekoak) eta hizkuntza gaitasuna (elebidunak). Hedabide erabiltzaileen kopurua preziatzeko kontuan hartu behar ditugu euskaraz (aski) ongi mintzatzen direnak %23 dira, pixka bat %8, orotara %31. Gazteetan elebidun eragileak %16 dira, elebidun hartzaileak %10, orotara %26. Ezberdintasun hau nabari da. Euskal irratiaren entzuleak euskara nolazbait dakitenak baino gehiago dira: orokorrean entzuleak %39 dira, elebidun eragileak eta hartzaileak %31 direlarik; gazteen artean %38 entzule dira eta nolazbaiteko elebidunak %26.

<i>Azken biru hilabetetan zenbat aldiz entzun dituzu euskal irratiak?</i>			
Zenbatetan	Iparaldean	I6-29 urte	Elebidun
Egunero	%15	%13	%44
Askotan	%10	%10	%20
Noizean behin	%14	%15	%16
Sekulan ez	%60	%62	%19

Euskara ongi dakitenak irrati entzule jarraikiak dira. Bi henerek euskal irrati bat entzuten dute egun oroz edo gutienez astean aldi bat edo beste. Hauen artean askoz gehiago dira egun oroz irratia entzuten dutenak ezinez eta telebista ikusten dutenak: %44 eta %30 hurrenez hurren. Gazteetan ere eguneroko irrati entzuleak gehiago dira eguneroko telebista ikusleei konparatuz: %13 eta %6 hurrenez hurren. Halere noizean behineko telebistazaleak askoz irratizaleak baino gehiago dira.

Eragileak

Euskal Irratiak deitu federazio batean bilduak dira tokiko irrati hauek: *Antxeta irratia* Hendaian, *Gure Irratia* Uztaritzen, *Irulegiko irratia* Donibane Garazin, *Xiberoko Botza* Maulen. Lau irratiek elkaturik eguneroko programazioaren %80a amankomuna proposatzen dute. Federazioak 31 langile dauzka orotara.

Gaztea irratia, EITB kudeatzaile, herri osora hedatzen da.

France Bleu Pays Basque: egunero 12:07tik 12:30eraino euskarazko emankizunak hedatzen ditu, berri saila, elkarrizketa gomita batekin eta beste. Gazteentzat ez du emankizun berezirik.

Interneteko irratiak: *Radiokultura*, Errobi Promotions elkarteak Hazparnen antolatzen du 2005az geroztik. Aztibegia elkarteak *Infozazpi* irratia Urruñan abiatu zuen 2006an.

Eskaintza

Euskal Irratiak federazioaren helburuetan gazteak ez dira xede-publiko be-reizi gisa agertzen: “Uhinetan mintza daitezke belaunaldi guziak, eragile guziak, izan daitezen elkarte, politika, instituzio edo kultur sailetakoak” ([euskalirratiak.info /federazioa.html](http://euskalirratiak.info/federazioa.html)).

Halere, *Ikusi Makusi* emankizuna aipa dezagun: “Asteazken guziz eguerditan, haur eta gazteak mintzo dira ikastetxean egin duten lan batez, antolatu duten ateraldiaz edo bestaz”. Solasaldiak ongi entzun behar dira, ondotik galderak baitira eta sari batzuk jokoan. Baina lehen hezkuntzako ikastoletako eta

klase elebidunetako haurrak dira erreportai hauen egileak. Ezin dugu erran emankizun hori gazteentzat dela.

Gaztezaparrada.info: Euskal Irratietan astelehen arratseko 8etan Gazte zaparrada irratsaioa hedatzen zen, “gazteek egina gazteentzat bereziki bainan ere entzule zabalari irekia”. Horrez gain atari bat ideki dute sarean. Irratsaioa berriz hasi da astelehenez. “Asteko berriek, elkarrizketek, iritziek, kultur gaiak, gazteen kezkek eta agendak osatuko dute”, Gaztea irratia “ez du(ela) Ipar Euskal Herria kontuan hartzen” erranez. Arratsetan gauerdi arte laguntzaileek musika saioak gazteentzat proposatzen dituzte Euskal Irratietan, bereziki Adi irratsaioan astelehenetik asteazkenera.

France Bleu Pays Basque plaketak dio irrati hau “lehena” dela Euskal Herrian. Baina gazteentzat euskaraz deus ere ez da, ikuskariek erran zuten bezala beren EEPren ebaluaketa txostenean (*Rapport d'évaluation de l'Office public de la langue basque*, 2010-05).

EITBko *Gaztea* irrati interesgarria da gazteei dedikatua baita. Musika modernoa da bere eduki nagusia eta Ipar Euskal Herrian ere entzuten da. Aurkezleak euskaldunak dira, baina musika neurri handi batean anglosaxonia-rra da, gero espainola eta azken lerroan Euskal Herrikoa.

Radiokultura Interneteko irrati elebiduna da. Irratiaren helburua da bi publiko hunkitzea. Alde batetik nork bere lanean edo etxean ordenagailu bidez musika goxoa entzun nahi duena gai mamitsu zerbaitekin, programazioan euskarazko musika delarik estilo guzietan. Bestalde euskara ikasi nahi duenak metodoa deskarga eta erabil dezake Gure Irratiarekin batera. Bi urteko egitaraua da, 29 eta 32 ikastaldirekin. Arrakasta:

- 2009an, 156.000 konekzio egin dira, 17.000 batez beste 34 minutukoak.
- 2010ean, 3.500 soinu-dokumentu eskugarri artxibatu dira, musika bereziki.
- 2010ean, 52 eskolatan euskarazko lekukotasunak bildu dituzte, galdera honi erantzunez: “Zein da zure amets handiena?” EEP proiektuan partaide da.

TELEBISTA

Kultura 2007 inkestak dio: “Ipar Euskal Herriko 4 teleikusle elebidunetarik ia batek denboraren %25 baino gehiago pasatzen du telebista euskaraz ikusten (...) entzuleen erdiak baino gehiagok irrati euskaraz entzuten du” (85. or.).

Gazteen zaletasuna

Nortasuna 2005 inkestan euskal telebistaren eragina aztertu da.

<i>Azken biru bilabetetan zenbat aldiz erabili duzu euskal telebista?</i>			
Zenbatetan	Iparraldea	I6-29 urte	Elebidun
Egunero	%13	% 6	%30
Askotan	%15	%14	%30
Noizean behin	%21	%27	%21
Sekulan ez	%51	%53	%19

Ikusi dugu orokorki euskara nolazbait dakitenak %31 direla, gazteetan %26. Jendetza osoa hartuz, euskal telebisten ikusleak %49 dira, gazteetan %47. Beraz, bi kasuetan euskara dakitenak baino askoz gehiago.

Eragileak

EITBk lau kate dauzka: euskarazko ETBI, gaztelaniazko ETB 2, euskarazko ETB3 haur eta gazteen katea (“*Betizu, Gaztea eta EITB Kultura marken azpiko programazioa jasotzen du eta euskara butsez emititzen du*”), eta ETB Sat euskarazko ETBI eta gaztelaniazko ETB2ren laburpenarekin.

France 3, frantses kate publikoak, astelehenetik ostiral arte 5 edo 6 minutuzko *Euskal Herri Pays Basque* programan erreportai batzuk euskaraz ematen ditu. Deus berezirik gazteentzat.

Aldudarrak bideo elkarteak kudeatzen du *Kanaldude* herri telebista. Honek lan egiten du *TVPI* katearekin.

Eskaintza

Azken lau hamarkadetan telebista aisialdi tresna garrantzitsua bilakatu da, garrantzitsuena ez bada, adin-talde ororentzat, haur, gazte ala adineko. Teknologia berriei esker telebista eskaintza gero eta handiago da gaur egun, baina euskararen lekua ttipia da, Ipar Euskal Herrian bereziki.

Euskal Herrian eragile nagusia Euskal Autonomiako telebista publikoa, *Euskal Telebista* da (EITB). ETBI, 1982ko abenduaren 31an hasi zen probako emisioak egiten eta orain Ipar Euskal Herriko lurralde orotara heltzen da guti gorabehera. Lurreko Telebista Digitalaren deskodatzaila dutenek euskarazko ETB3 kate berria eta ETB Sat jasotzen dituzte ere².

² Ipar Euskal Herrian 2011ko martxoaren 29an itzaldi analogikoa izan zen.

Baina, Hego Euskal Herrian ez bezala, euskarazko katerik ez da Iparraldean. Halere tokiko telebistaren egitasmoa hor dago: *Aldudarrak bideo* elkartearen *Kanaldude* proiektuak ekoizpen batzuk ematen ditu. Bigarren eragilea da Kanalduderen euskarazko emisioak hedatzen dituen *TVPI* katea. Zailtasun handiena da noski telebista-ekoizpenen kostua.

Arrakasta

Euskarazko lehen katearen ikus-entzulegoa zinez mugatua da. *Berria* egunkariaren arabera (2010-10-02 eta 12-02, 2011-07-02), hau da ETB1ko ikusle kuotaren bilakaera 2009tik 2010era EAEn: %3,3 (2009-09), %2,4 (2010-07), %1,8 (2010-09), %2,2 (2010-10) eta 1,3% (2011-06). Gaztelaniazko ETB2koa %12 (2009-11), %9,4 (2010-09). ETB3koa %0,5 zen (2010-10). Halaber Ipar Euskal Herrian ikus-entzulegoa hertsia da. Kirol emanaldiak jarraitzen dira iduriz, pilota bereziki; baina telebista-programa hauk ez dira hain garrantzitsuak hizkuntzaren garapenari begira. Erdaldunek ere jarraik ditzakete, euskara jakin gabe.

ETB1k Ipar Euskal Herriaz *Iparraldearen orena* informazio programa berezia proposatzen du egunero: 7 minutu astelehenetik ostiralera eta igande goizetan asteko emankizunen bilduma oren erdi batez. 2008ko urriaz geroztik, ETB3, EITB-ren beste euskarazko kateak, gazteentzat emetitzen du bereziki. Ez dakigu zer arrakasta duen Ipar Euskal Herrian. Beste zailtasun bat da ETBren programetan erabiltzen den euskara mota. Erran dezagun ahozko euskara batua dela, Zuberoan, adibidez, adineko euskaldun zaharrek errazki ulertzen ez dutena edo batere ez.

Aldudarrak bideo elkarteak 1997an sortu zen eta bi jarduera nagusi ditu: “1. Kanaldude tokiko partaidetzako telebistaren hedapen mugatua Garazi-Baigorriko lurraldean. 2. Web telebista partehartzailea euskaraz, aste guziz erreportaiak, emankizunak herrietan antolatuz” (www.alduarrak-bideo.com). Lehen sailari dagokionez, 2000an lehen telebista hedapen entsegu bat egin zuen 7 egunez, Aldudeko herrian. Baina diru-ahalbide eskasarengatik urte osoko hedapena ezinezkoa izan zen. Bigarren saila da bizkorrena, produktu eta zerbitzuen eskaintza: bideo kazeten eta DVDen ekoizpena, filma produkzioa, web telebista (www.kanaldude.org).

PRENTSA

“Biztanleria elebidunak, frantsesezko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen ditu nagusiki” (*Kultura* 07 inkesta, 44. or.).

Gazteen zaletasuna

Nortasuna 2005 inkestan euskarazko liburuen eta aldizkarien irakurletoa neurtu zen. Konparaketa egin genezake euskarazko idazkiak irakurtzen dutenen eta euskara irakurtzeko gai direnen artean. Orokorrean euskaraz (aski) ongi irakurtzen dakitenak %21 dira, pixka bat %8, orotara %29. Gazteetan %17 eta %10, orotara %27. Aldiz irakurletoa %19a da adin guztietan. Hots ongi edo aski ongi irakurtzen dakiteneen heinekoa.

<i>Azken biru hilabetetan zenbat aldiz irakurri dituzu euskarazko liburu eta aldizkariak?</i>			
Zenbatetan	Iparraldea	16-29 urte	Elebidun
Egunero	% 3	% 5	%10
Askotan	% 5	% 5	%15
Noizean behin	%11	% 9	%23
Sekulan ez	%78	%80	%40

Hizkuntza gaitasunaren arabera, elebidun eraginkorretan %40ek deus ez dute irakurtzen euskaraz. Euskaldunak analfabetoak ote dira beren hizkuntzan, %80 inguru dabiltzalarik euskal entzun-ikusizko hedabideetan?

Eragileak eta eskaintza

Le Journal du Pays Basque, Euskal Herriko kazetak ostegunero argitaratzen zuen *Mintza* euskarazko gehigarria. Baina orain ez da agertzen.

Herria Iparraldeko astekari historikoa da. *Herria*-ren promozio kanpaina EEPk egin zuen gazteengan lau hilabetez saltzaile beten laguntzarekin. Egia da bere gazte irakurletoa ttipi Hipsia dela.

Berria egunkariak euskarazko bi gehigarri argitaratzen ditu ostiralean *Ipar Euskal Herriko Hitza* ororentzat eta larunbatetan *Mantangorri* gehiago haurrentzat ezinez eta “gaztetxoentzat” lehen orrialdean idatzia den bezala.

Kazeta.info, sareko lehen euskarazko egunkaria da, Iparla Baigura Komunikazioa elkarteak sortu zuena 2008an.

Gaztezulo aldizkaria Donostian argitaratu zen 1998an. “Aldizkariak 10.000 aletako tirada du gaur egun. Harpidedunak 6.500 dira” (www.gaztezulo.com). Zenbat ale Ipar Euskal Herrian?

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK (IKT)

Gazteen zaletasuna

Nortasuna 2005 inkestan euskal musikaren euskarrien arrakasta aztertu da.

<i>Azken biru bilabetetan zenbat aldiz entzun dituzu euskal musikazko disko edo kaseteak?</i>			
Zenbatetan	Iparraldean	16-29 urte	Elebidun
Egunero	%10	%12	%23
Askotan	%17	%17	%23
Noizean behin	%27	%24	%31
Sekulan ez	%46	%45	%22

Hizkuntza gaitasuna eta musika entzulegoaren arteko ezberdintasuna beste hedabideetan baino handiagoa da. Musika entzuleak herri osoan %54 dira eta gazteetan %53. Diskoak eta kaseteak entzuten dituztenak, euskara nolaz-bait dakitenak baino %23 gehiago dira orokorrean eta %27 gehiago gazteen artean.

Eskaintza

Gaur egungo gizartea «informazioarena» omen da. Alabaina informazioak, komunikazioak eta sare informatikoen konbergentzia gauzatzen dute, Internet, blogak, telefono mugikorra eta antzeko tresnen bidez. Ipar Euskal Herrian ere bilakaera berdina indarrean da, gizarte-multzo eta adinarte orotan, baina bereziki gazteengan. Gainera, aldaketa teknologikoak pertsona bakoitzari mundu zabaleko komunikazioan sartzeko aukera eskaintzen dio. Ekoizten edo proposatzen diren euskarazko produktu eta zerbitzuentzat parada izan daiteke lurraldetik kanpoko publikoak hunkitzeko.

Sare sozial birtualak

Gazteek sare sozial birtualek eskaintzen dituzten aukera guziak baliatzen dituzte, eta beren jardura nagusietarik bat da. *Kultura 2007* inkestak erakusten digu Ipar Euskal Herrian ere Internet komunikabide nagusi bat bilakatu dela. Herritarren erdiak baino gehiagok erabiltzen du (%58), gehiago Lapurdin (%62), gutiago Nafarroa Beherean (%43) eta Zuberoan (%35). Sarea gazteriaren eremua da: 15-34 urtekoetan %80ek erabiltzen dute Internet, 50 urte inguru dutenetan %53k eta 65 urtez goragoetan %22k.

Ikasketa-maila gorago eta erabilera handiagoa da, baina hizkuntza gaitasunak gauza bitxi bat erakusten digu: elebidunetan erabiltzaileak %38 dira eta elebakarretan %65. Zergatik? Alde batetik euskaldunen adinagatik eta bestalde ez baita euskarazko edukin askorik. Maizenik eskaera eskaintzaren arabe-rakoa da.

Interneten bidez gehienik eraman jarduerak dira musika entzutea (%39), webgune kulturalen kontsulta (%38) eta egunkarien irakurketa (%27). Baina beste praktika asko badira: blogak, gizarte-sareak (MSN, Facebook, Twitter), jokoak...

Bideo-jokoak

Gaur egun, gazteengan, Interneteko sare sozialez gain bideo-jokoak dira aisi-jarduera erabilienak. Etxeko aisialdiak dira eta gazte batzuen aisialdietako zati handiena har dezakete. Bideo-jokoa dibertimendu industria nagusietarik bat bilakatu da mundu mailan. 2010ean adibidez bideo-jokoaren negozio-zifra musikarena gainditu du: musikak 26 miliar euro, bideo-jokoak 58 miliar, zinemak 87 miliar (*Kazeta*, 2010-10-27). Euskarak sarrera bat egin du Interneten, bainan deus guti bideo-jokoen alorrean.

ERAGILE PRIBATUEN EGITASMOAK

Lau multzotan sailka daitezke EEPk lagundu dituen komunikabideak.

Oroz gainera *Euskal Irratiak*, lau tokitako irratian federazioa, lau urtez milioi bat euro baino gehiagoko dirutzarekin, laguntza kontu osoaren bi herentara heltzen dena. Ohargarri da lagunduak izan direla gazteen interes-guneetan sartzen diren emankizunak: ekologia, ikastetxe bizitza, musika, arte ederrak.

Bigarren multzoan bilduak dira Ipar Euskal Herriko hiru Internet irrati, *Radio kultura*, *Aztibegia info 7* eta *Kazeta info*. Bisitak jadanik milaka zenbatzen dira hilabetero, eta ikerketen arabera bisitariak gazteak dira neurri handian.

Hirugarren multzoa tokiko telebistarena da: *Kanaldude* da ekoizlea eta *TVPI* hedatzailea. Bi egiturentzat diru laguntza 232.000€koa da, gastu osoaren laurdena.

Azken multzoan euskarazko bi astekari kokatzen dira, *Euskal Herriko kazetak* argitaratzen zuen *Mintza* gehigarria, eta Bidasoaldeko *Hitza*. *Mintza* gelditu da, baina *Berria* egunkariak astero zabaltzen du *Ipar Euskal Herriko Hitza*. Ez dugu zehazki ezagutzen irakurleko gaztearen heina.

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Euskal Irratiak, 2007 – 2010.	Gazteen gustuko: Petatzu ekologiaz, Borta Zabalik lizeoetaz, Airez aire musikaz, Hinki-hanka arteetaz.	
Radio kultura, 2007 – 2010.	Internet irratia, euskal kurtsoak. Saioak %55 euskaraz.	1.610 bisitari, 4.250 bisita hilabetero.
Aztibegia Info7, 2008 – 2010.	Internet irratia interaktiboa. Gazte musika 22:00-2:00.	1.600 partaide. 1.400 bisita hilabetero.
Kazeta info, 2009, 2010.	Internet egunkaria.	3.600 bisita hilabetero
Aldudarrak Bideo, 2009, 2010.	Kanaldude tokiko telebista. Gazteak ekoizle udan.	Iraupen ekoiztua: 90 oren astean.
TVPI, 2009, 2010.	Kanalduderen hedatzaile. Euskaraz 140 orenetarik 18.	Iparraldearen orena + 5 oren astero.
Hitza Bidasoa, 2009, 2010.	Hendaia, Pausu eta Biriatuko astekaria.	300 ale, 90 igorpen.
Mintza LJPB, 2008 – 2010.	Euskal Herriko Kazetaren gehigarria	8 orrialde. 3.000 harpidedun.

IKASTETXEETAKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
17 ikastetxe, 2008-2010	Euskal irratien ezagutza eta emankizunen ekoizpena.	322 ikasle irratilariekin, 136 oren irratia saio.
2 eskola, 2009, 2010.	Telebista emankizunak: istorio asmaketa eta agerraldia.	73 ikasle, Aldudarrak bideo, Arte eskola.

Irratiak dira gaztetxoentzat euskarazko komunikabide hurbilenak. Irratiekin adiskidetzeko molderik hoberena da irratilariekin lan egitea. 2008an 3 ikastetxetako 30 bat ikaslek euskal irratien ezagutza egin zuten emankizunak prestatuz 36 orenez. 2009an 9 eskola eta 2 lizeoko 243 ikaslek 88 oren irratia

saio ekoiztu zituzten. 2010ean 3 ikastetxetako 50 ikaslek irratigintzan entseguak egin zituzten. Gehienik parte hartu duten irratia dira Uztaritzeko *Gure Irratia* (2 proiektutan) eta oroz gainetik Bidasaldeko *Antxeta Irratia* (8 proiektutan). Irrati honek emankizun berezi bat animatzen du gazteekin eta gazteentzat, *Euskararekin ubinetan*. Ikasle irratilariak gai asko tratatzen dituzte: beren ikastetxeetako gertakariak, gai kulturalak hala nola mitologia, ipuin kontaketa, Ravel musikariaren bizitza eta obra...

Telebistagintzan ere bi entsegu egin ziren. 2009an, *Aldudarrak bideo* elkar-tearekin, Hazparneko Ezkia ikastolak bi agerraldi grabatu ditu istoria asmatetan eta ipuin kontaketan. 56 ikaslek parte hartu dute kontalari baten eta ikus-entzun teknikarien laguntzarekin. 2010ean, Donibane Lohizuneko Urdazuri eskolan, 23 ikaslek teleaio bat antolatu zuten Arte Eskolaren laguntzarekin.

Hiru ikasturtez, hiru saretako, lehen eta bigarren mailako 400 ikaslek euskarazko emankizunak egin dituzte, talde bakoitza bere heinean. Urratsez urrats, irradi entzule eta telebista ikusle argiak bilakatzen ari dira eta batzuk ikus-entzunezko eta komunikazio ofizioetako gogoak har dezakete.

Prensa idatziari buruzko proiektu guti bultzatu da. Bi eskolatan bi klasek ikastetxeko kazeta edo aldizkaria idazten parte hartzen dute. Egia da irakurketa eskola ariketa dela, batzuetan beren adineko aldizkariak erabiliz. Problema nagusi bat da nola ikasleak iraganen diren ikastetxeko ariketetarik atseginetako irakurketa eta idazketara, irakurketaren atseginera.

PROPOSAMENAK

Euskarazko komunikabideen zerbitzua osatuko da oraingo irradi sarea indartuz, Hegoaldeko telebistak Iparraldekoekin uztartuz, haur eta gazteentzat euskarazko ikus-entzunezko jokoak eta euskarri elektronikoak asmatuz edo moldatuz, laguntza publikoa delarik beharrezko baldintza.

Euskarazko komunikabideen sare oso bat eskaintzea, Hizkuntza Politika Proiektuaren erronka nagusi bat da, euskara biziarazteko eta mintzamoldea hobetzeko. Norabide estrategikoak eta lan ardatzak irakurtzean, ohar daiteke EEPk egitarau aberats bat bultzatu nahi duela hedabideak baliatzeko euskararen alde, bereziki belaunaldi gazteetan. Lehen urratsa da dauzkagun komunikabideak indartzea, irratien profesionaltasuna sakonduz, Hegoaldeko telebisten hedapena egokituz, prentsa idatziaren banaketa hobetuz, erdal hedabideetan euskara gehiago sarraraziz.

Beste urratsa da euskarazko eskaintza berri bat sortzea gaurko eskaerei erantzuteko: tokiko telebista hedapen numerikoa baliatuz, teknika berrien erabilera adibidez Internet. Egitarau honen ezaugarria da publikoaren parte hartzea, "haurren eta gazteei lehentasuna emanez": publiko gazteari euskal hedabideak

maitarazteko ekintza berezien antolaketa, gazteek gaztetzat egin emankizunak, ikasleek aldizka idatzi artikulua (*Hizkuntza politika* 2006: 44. or.). 2009ko bilanaren arabera erronka honetan I2 lan ardatz gauzatzen ari dira, baina II ez dira oraindik abiatuak. Jarraipena 2010-2016ko agendan sartzen da urraspide honi segituz: telebista, irratigintza, idatzizko prentsa, Internet bidezko prentsa (*Azterketa* 2009: 89. or.; *Jokabide* 2016: 25. or.).

Ikerketa honen ekarpena da azpimarratzea, gure ustez, zein diren ekintza premiatsuenak eta berehala egingarriak litezkeenak, gazteen aisialdia euskalduntzeko.

- Haur eta gazteei buruzko aldizkariak eta komikiak, baitezpadakoak dira atseginezko irakurketa bultzatzeko.
- Ipar Euskal Herrian dauzkagun euskarazko komunikabideak baliatu eta zaindu behar ditugu eta bereziki Euskal Irratien sarea, *Herria*, *Hitza*, *Kanaldude* eta *Kazeta.info*. 40 bat langile dira orotara eta 400 laguntzaile.
- Diru laguntza publikoaren emendioa beharrezkoa da eta ahalaz hiru edo lau urteko hitzarmenen bidez, geroa segurtatzeko eta euskarazko lanak sortzen duen gainkarga ordaintzeko, itzulpen moldaketa eta beste.
- Hego Euskal Herriko komunikazio ekoizpena Iparraldera ere hedatu behar da, eta bereziki ETBI, *Gaztea* irratia, *Euskadi Irratia*, *Berria*, *Argia*.
- Entzun-ikusizko ekoizpenak eta bideo-jokoen sorkuntzak diru laguntza indartsua eskatzen dute, estatuaren aldetik bai eta ere Euskal Herri osoko baliabideak bilduz.



Kanaldude Herri telebista
(www.aldudarrak-bideo.com/kanaldude)

4.3. LIBURUGINTZA

Prentsaren atalean ikusi dugu euskaldunak ez direla irakurle kartsuak: %40k deus ez dute irakurtzen euskaraz. Halere euskarazko liburu eskaintza hor da, Hegoaldekoa ere, euskalkiak gero eta oztopo ttipiago direlarik euskara batuzkoa handitzen baita. Liburu horien eskuratzea gero eta errazago da, liburudendetan edo Interneten bidez. Hona gaurko egoeraren ikuspegi bat, lehenik eta behin gazteei zuzendu nahi duguna.

IRAKURKETA ETA IDAZKETAREN HEZKUNTZA

Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza eskolako lehentasunetan da. Ondorioz, euskararen irakaskuntzaren garapenarekin batera, bi gaitasun hauek (irakurmena eta idazmena) aitzinatzen dira Ipar Euskal Herrian. Egitasmo ezberdinak sortzen dira. Ikastetxe askotan idazleak gomitatua dira, eta literatura irakurketak egiten dira, hain zuzen irakurtzeko gustua emateko. Oinarrizko galdera da nola ikasleak eskolako irakurketatik atseginezko irakurketara pasatuko diren, euskarazkora bistan da. Halaber idazketarekin.

Hezkuntza nazionalaren aldetik, Kultura heziketaren garapenerako planean sartzen da *Idazleak eskoletan* proiektua. Euskal Idazleen elkartearen ekimezez, 2008an adibidez 9 idazle ibili dira 9 ikastetxe ezberdinetan eskolatik lizeora, 2009an 8 idazle 15 eskola eta ikastolatan.

Hitzaditza euskarazko diktaketa da urtero AEKren, Euskaltzaindiaren eta Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin antolatzen dena jolas moldean, euskara idatziaren aldeko zaletasuna bultzatu nahiz. 2011an 6. edizioa zen. Parte hartzaileak hiru mailatan banatuak dira, euskaldun trebeak, euskara ikasten ari direnak eta 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak. Saritzat liburuak ematen dira. Lehiakideak gazteak dira nagusiki eta probak idazle gazten testuekin egiten dira. 2010ean adibidez, Etxepare ikastegiko bi testu eta Cassin lizeoko beste bi ziren eta 60 bat parte-hartzaile. 2011an 70 bat izan ziren.

Ikastetxeetarik kanpo, irakurketa tailerrak eta animazio kulturalak antolatzen dira mediateketan EKEren bidez, Btz Irakur klubak Miarritzeko mediatekan proposatzen dituenak adibidez. Halaber, idazketa tailerrak baditugu. 2011ko hastapenean adibidez, Har'Eman elkarteak kudeaturik Irisarriko Ospitalean 4 tailer proposatu ziren Itziar Madina idazlearen zuzendaritzapean (*Beste Eguzkia*, 2007, Txalaparta argitaletxea).

SORKUNTZARAKO LAGUNTZA IDAZLE GAZTEEI

Irakaskuntzaz gain, idazketarako gustua bultzatu nahi da. Hau da *Gazteluma* sariaren helburua. Bi urtetarik behin, Baionako Elkar liburudendak Elkar

Fundazioaren eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin, Iparraldeko idazle gazteak euskaraz idaztera lehitzeko asmoz, *Gazteluma* literatur sorkuntzarako burtsa proposatzen du. 3.000 euroko dirutza ematen dio hautatu den eleberraren edo ipuin bildumaren idazleari eta Elkar argitaletxeak haren testua argitaratzen du. 2004tik 2010era 6 edizio izan ziren eta 4 irabazle: Eneko Bidegain (*Anbroxio*), Ramuntxo Etxeberri (*Skyroom*), Nora Arbelbide (*Goizeko zazpiak*) eta Béatrice Urruspil (*Gizaki bakartiak*).

Bestalde, urtero Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten *Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak* banatzen dituzte. «Sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira. Narrazioa eta olerkia sartzen dira. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat» (www.euskaltzaindia.net). Testu hautatuak argitaratuak dira. 2009ko argitalpenean, adibidez, aurkeztu ziren 219 lanetarik 14 testu hautatu ziren, horietan 3 Ipar Euskal Herritik.

IDAZKETA ETA LITERATURA MOTAK

Ipar Euskal Herrian ere gero eta gehiago idazten da euskaraz, eta literatura genero ezberdinetan. Halere balantzea latz izan daiteke, irakurketaren kasuan: «Urtetik urtera irakurleen adina gorantz doa. Gazteak beti *Play Station*arekin edo liburu elektronikoaekin aritzen direla uste dugu, baina gazteek ere irakurtzen dute, galdetu behar duguna da zer irakurtzen duten. (...) *Harry Potter* euskaraz eskaini zenean, adibidez arrakasta izugarria izan zen. Neurri handi batean ez diogu erreparatzen gazteek nahi dutenari, ez dakigu zer nahi duten (...) Dugun produktua ez da interesgarria gazteentzat, eta hori da arazoa» (Jon Irazabal, Durangoko Azokako zuzendaria, *Berria*, 2010-12).

Idazleak eta argitalpenak

70. eta 80. hamarkadetan Gexan Alfaró Lantzirik haur eta gazteentzat idazten zuen: *Eusko artzaina*, *Otsoño eta xuriko*, *Oxpin eta Lapatin*, *Piarres baratzezaina eta bi amerikanoak*, *Itasoko gauza harrigarriak*, besteak beste. Gaur egun gazteentzako idazle berezirik ez da Iparraldean. Dena den, Iparraldeko idazlen hiru liburu aipa ditzagun 2010ean argitaratuak, gazteek irakur ditzaketanak.

- Ur Apalategi, *Fikzioaren izterrak*, 7 ipuin “*serioski irri egiteko narrazioak*” (Susa argitaletxea).
- Pantzo Hirigarai, *Poto* eleberru umorezkoa, polizia-inkesta bat bertsolaritzaren munduan (Maiatz argitaletxea).
- Elena Phagaburu itzultzailearen *Axuri biburria* (Ikas). Jatorrizko izenburua da: “*L’agneau qui ne voulait pas être un mouton*” (Syros argitaletxea). Hamar urtetik goragoko irakurleentzat da.

Ikas euskal pedagogia zerbitzuaren 2010eko beste bost irakurketa liburuak haurrentzat ziren.

Haur eta gaztetxoan aldizkariak

Euskal Herrian entsegu asko egin ziren haur eta gaztetxoan aldizkariak argitaratzeko. Hegoaldean lehenbizikoa *Kili Kili* izan zen 1964ean. Gero Erein argitaletxeak *Ipurbeltz* aldizkaria zabaldu zuen 30 urtez 1977tik 2008arte, 2.500 ale hilabetero.

Iparraldean lehen entseguak *Xirrista* eta *Kometa* izan ziren 1992tik 1998arte. Tolosako Milan argitaletzeko *Toboggan* aldizkariaren itzulpenak ziren. Gero Ikas Bi guraso elkarteak *Nanai* haur aldizkaria bultzatu zuen 1998tik 2004 arte, hau ere *Toboggan* aldizkariari jarraikiz. Bere irakurlekoa 4 eta 8 urte arteko haurrek osatzen zuten. Azkenik, *Pika* aldizkaria, Mauleko Mendizolan elkarteak argitaratu zuen 2000tik 2004arte, 7-12 urteko haurrentzat, Coopelingua elkartearen sarean. Xiberotarrezko bertsiokoak 50 harpidedun bazituen eta nafar-lapurtarrezkoak 250 inguru. Frantziako beste eskualde hizkuntza batzuez agertzen da oraino.

Haur eta gazte euskaldunen ahalezko irakurlekoa emendatzen baldin bada ere, argi da holako aldizkari batek ez duela oraingoz bere lekua aurkitu Euskal Herrian arrazoin ekonomikoengatik. Daukagun haur aldizkari bakarra da *Berria* egunkariaren *Mantangorri* larunbateko gehigarria.

Komikiak

2010ean Euskal Herrian bi euskarazko komiki baizik ez dira ateratu: *Okatxu, begal egiten* (Argia argitaletxea) eta *Teleatoi Kalabaza Haluzinogenoak* (Ikastolen Elkartea). 2009an *Ihes ederra* (Alberdania argitaletxea) izan zen.

«Euskaraz komikiak argitaraztea anekdotaren parekoa da (...) Espainako komikia ere oso merkatu txikia da, merkatu handi bakarra frantses hiztuna eta AEBetako da» dio Dani Fano komikigileak (*Berria*, 2010-II-27). Ondorioz, Ipar Euskal Herrian komikiaren zaletasuna badago, Hego Euskal Herrian ahulagoa delarik. Baina, euskarazko komiki argitaletxerik ez da eta komikien itzulpen guti. Iparraldean euskarazko irakurlekoa ttipia izanez, egiazko euskarazko komiki merkatuak ez dela suposa dezakegu.

Ager dezagun beraz aurtengo *Okatxu, begal egiten* salbuespen bat gisa: marrazkilaria Asisko Urmeneta da, gidoigilea Mattin Irigoien, kolorea Adur Larrera, Argia argitaletxea Kukuxumusu enpresaren laguntzarekin, Euskal Herriko Artzainak elkartearen ideiarekin arabera. Ardi baten bizitzako lehen urtea kontatzen du, Nafarroa Behereko garaztarrez kontatua.

ARGITALPENA ETA HEDAPENA

Problematika

Oro har, gero eta zabalago izanik ere, irakurketa eskaintzak ez du gazteen gan euskarri elektronikoen eta ikus-entzunezkoen duten arrakasta. Baina gaur egun, beste komunikabideak hedatzen eta dibertsifikatzen baldin badira ere, bereziki elektronikoen, liburu euskarri erabilgarri eta baliagarri egoten da. Eta argitaratze-tresna modernoek esker argitalpena gero eta errazago da. Adintalde honen gustuak definitzea zaila delako, gazte-irakurlekoa sortzea edota biziaraztea zaila dela dirudi. Halere euskararen aldeko hizkuntza politiken beharrezko helburu bat da.

Argitaletxeak

Ipar Euskal Herriko argitaletxeak hauexek dira: Elkar, Gatzuzain, Maiatz eta Ikas. Astobelarrak gauza guti zabaltzen du euskaraz. Ikas euskal pedagogia zerbitzuak dokumentu pedagogikoak sortzen edo itzultzen ditu. Baina horietan eleberri edo ipuin batzuk badira, haurrentzat bereziki, haur literatura sailan kokatzen direnak.

Elkar argitaletxea salbu, beste guztiak elkarte argitaletxeak dira eta beren urteko ekoizpena ez da handia, bizpalau liburu batezbeste.

Liburu eta diska azokak

Sarako Euskal Herriko Idazleen Biltzarrean idazleen eta musikarien ekoizpenak aurkezten dira eta saltzen (2011an 18. edizioa). Gazte batzuk etortzen dira, baina ekitaldi horrek adin guzietako euskaltzaleak bilatzen ditu. Hau da maiz entzuten den oharra, gazteenganako eginahal gehiago eraman behar dela, gazteak jinarazteko.

Durangoko azokan ere (2010ean 45. edizioa), Ipar Euskal Herriko argitaletxeek beren ekoizpenak aurkezten dituzte, Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. Orotara 18 euskarazko liburu eta 9 DVD eraman dituzte 2011ko azokarako, hauetan liburu bakar bat ez zen gazteei zuzendua.

Bukatzeko azken erakusketa bat aipa dezagun, 2010eko abenduaren 11an iragan den lehen liburu eta diska azoka Kanbon.

Irakurketa egiturak: liburutegiak eta mediatekak

Iparraldeko liburutegiek eta mediatekek euskarazko ekoizpenen lekua edo saila badute. Handienak Baionakoa eta bereziki Biarritzekoa dira, azken hau 8.000 dokumenturekin. « *Fondoaren zati handi bat 0-5 urte arteko haurrendako bai eta*

ere 8-14 urte arteko gazteendako mota guzietako dokumentuez osatua dago » (www.mediatheque-biarritz.fr). Hemen ere bilatzen den publikoa haurrena da, gazteengana heltzea zailago baita.

IRAKURKETA PUBLIKOA

Euskarazko argitalpena eta irakurketa publikoa Euskararen Erakunde Publikoaren helburuetan daude. Hizkuntza politika proiektuan “Argitalpena” 6. erronka da eta bi “Orientabide estrategikoak” hauexek dira: “Euskarazko argitalpen zabal eta kalitatezko bati buruz” joatea eta “Euskarazko argitalpen eskaintza publiko zabalaren eskuetan” ezartzea (*Hizkuntza politika 2006*, 53. or.). Liburuaren ekonomian ekoizpena, argitalpena eta hedapena sustatzeko egitura bat muntatu da. 2008az geroztik 0-5 urtekoei zuzendua den euskarazko argitalpen eskaintzaren gida bat hedatzen da urtero. Behereko taulan lau urtez alor honetan lagundu diren proiektuak agertzen dira.

2010-2016 epealdirako Jokabide Esparruan, bi egitasmo aipatzen dira: liburuaren ekonomian abiatu den politika jarraitzea eta irakurketa publikorako politika orokorra egituratzea (*Jokabide 2016*, 24. or.). Hemen ez da errepikatzen baina “Haur eta gazteak lehentasun” dira Hizkuntza politika proiektu osoan bezala.

Euskal Kultur Erakundearen helburuetan ere agertzen da irakurketa publikoa.

ERAGILE PRIBATUEN EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Astobelarra, 2007 – 2009.	<i>Gutuna elefantari, Seattle,</i> Wood-stown itzulpenak	50 ale saldu, 400 salgai.
Gatuzain, 2007 – 2010.	Grimm leienden 4 itzulpen. <i>Patxa eta Antimilitarismoa</i> liburua.	2.550 ale orotara. 1000 + 3000 ale.
Hatsa, 2009, 2010.	<i>Hatsaren poesia 2009, 2010.</i> <i>19.mendeko kantu abantziak.</i>	Urtero 102 idazle, 150 haur/gazte.
Mac Delizy, 2007.	<i>Azpikeria</i> komikia gazteei zuzendua.	200 ale.

Zezen Gorri, 2008.	<i>Xirika Kz</i> gazte hilabetekaria.	6 hilabetez.
Libreplume, 2009, 2010.	Gazte liburuen azokak eta animazioak (<i>Lodikroko</i>).	2 azoka. 4 ipuin kondaketa.
Elkar, 2008, 2010.	<i>Euskal Herriko leiendak</i> . Matxin Ibarolaren biografia	1.000 + 750 ale. Animazioak.
Har'Eman, 2010.	Idazketa eta irakurketa tailerrak. Literatura hitzaldiak.	Liburu arratsaldea. 2 kontalarirekin

Astobelarra, Gatuzain eta Elkar hiru argitaletxeek ekoizten dituzten ipuin eta leienden irakurleak nagusiki gazteak dira. Hatsa elkarrekin olerkiak argitaratzen ditu haur eta gazteen partaidetzarekin.

Gazteentzat komikiak eta aldizkariak ekoizteko entsegu berriak ohargarriak dira, behin behinekoak izanikan ere (Mac Delizy, Zezen Gorri).

Hiru egitura lagundu dira irakurketa publikoari buruzko animazioak antolatzeke, Libreplume, Elkar, Har'Eman.

IKASTETXEETAKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
II ikastetxe, 2009, 2010.	Ipuin bilketa, asmaketa, irakurketa eta idazketa. Liburutto eta KD.	243 ikasle, 2 ofiziozko kontalari.
4 ikastetxe, 2008-2010.	Ikastetxeko kazeta animatzen edo beste idazlan bat.	3 eskola-kazeta. 54 idazle 13 orenez.
4 ikastetxe, 2008-2010.	Idazle batzuekin topaketak. Durangoko liburu azokaren bisita.	Idazleak 3 klasetan, 125 ikaslerekin.

Gutienez, 19 ikastetxe inplikatu dira atseginezko irakurketa eta idazketari buruzko formakuntzan. Hiru motako ekintzak lagundu dira.

Ipuinen alorrean, 2009an 6 ikastetxetako 151 ikaslek lan egin zuten eta 2010ean 5 ikastetxetako 92 ikaslek. Alde batetik ipuinak bildu zituzten, irakurri eta batzuetan grabatu. Bestalde istoriak asmatu zituzten eta idatzi. Bi ofiziozko kontalari, euskara teknikari bat, Eleka eta Aldudarrak bideo elkarrekin hor ziren laguntza teknikoak eskaintzeko. Ondorioz liburutto eta kazeta batzuk ekoiztu zituzten.

Beste idazketa entseguak ere egin ziren: 4 ikastetxetan eskolako aldizkaria zabaldu zuten; Uztaritzeko ikastolan 36 ikaslek ormirudi bat marraztu zuten eta araberako liburua asmatu. Gainera beste 4 ikastetxetako 125 ikasle idazleekin bildu ziren, ikasgeletan edo Durangoko azokan.

PROPOSAMEN BAT

Euskarazko irakurketa bultzatzeko haurrentzat bezala gazteentzat ere mota guzietako liburu bilduma bat sortu behar litzateke, erakunde publikoek eta argitaletxeek parte-hartuz.

Nola euskarazko irakurketa bultzatu gazteengan? Nola publiko honentzat eskaintza erakargarria sortu, jakinez helduei buruzko argitalpenak interesa ditzakeela?


Iparraldeko haur eta gaztetxoek aldizkari argitalpenek ez zutela iraun kontuan hartuz, gazteentzat irakurketa liburu bilduma sortzea egitasmo bat izan liteke euskarazko irakurketa bultzatzeko. Haurrentzat egiten den bezala, gazteentzat ere literatura-genero ezberdinak erabil litezke: eleberria, polizia-eleberria, abentura-eleberria, testu dokumentala, ipuina, komikia...

Proiektu honetan kolektibitate publikoek (Kontseilu Nagusiak liburutegi publikoak kudeatzen ditu departamenduan) eta Hezkunde Ministeritzak proiektua beren gain hartuko lukete, EEPk lehen fasean diruz lagunduz eta gero hedapena sustengatuz. Bilduma sortzeko eragileak hauek lirateke: EEP, Ikas euskal pedagogia zerbitzua edota beste argitaletxe bat.

Noski holako proiektuak ez lieke behar guzei erantzunen. Ikastetxeetan, liburutegietan, argitaletxeetan gazteengan irakurzaletasuna eta idazteko gogoia sortzeko egiten dena sustengatzen jarraiki beharko da. Baina gazteen liburu bilduma honek zerbait berri ekarriko luke.



Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak* liburuaren azala
(2010, Susa)



Okatxu komikia
(2010, Asisko Urmeneta, Mattin Irigoien, Adur Larrea,
Kukuxumusu, Argia argitaletxea)

4.4. MUSIKA, KANTUA ETA DANTZA

TESTUINGURUA

Hau da kulturaren eremu zabal-zabala. Euskal Herrian musika, kantua eta dantza arte tradizionalak dira. Herrialde orotan, erran genezake betidanik, arte horien belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indarrean zen. Alor honetan gazteek rol garrantzitsua bazuten, tradizioa ikasteko, biziarazteko eta gero, jende helduak zirelarik, gazteei transmititzeko. Gaur egun egoera honek molde batez irauten du; musika, kantu eta dantza tradizionalak transmititzen dira, baina baldintza ezberdinetan eta noski mundu osoko musiken, kantuen eta dantzen eraginaren erdian.

Musikak eta dantzak arrakasta handia dute gazteengan, molde tradiziona-lean edota modernoagoan. Kantuak ere bai euskara dakitenengan, baina ere erdaldunengan, hitzak ongi ulertu gabe kantatzea posible baita. “*Je ne parle pas basque, mais je chante en basque*” (ez naiz mintzatzen euskaraz baina euskaraz kantatzen dut) entzun daiteke. Badakigu gazteengan bi joera kontraesankorrek badirela: helduen mundutik ateratzea eta ber denboran helduen mundu hau imitatzea. Bigarren joeraren kuadroan erreferente diren modeloak musikaren munduak eskaintzen dizkie, kirolarenak egiten duen bezala. Ondorioz euskal musikak eta kantuak erreferenteak sortu beharko lituzkete, gazteek beren identitate soziala haiei esker euskaraz eraik dezaten. Ildo honetan ikerketa bat egiteko litzateke jakiteko Ipar Euskal Herrian gazteek euskal erreferenterik baduten eta zein.

Erronka nagusia mundu osoko musiken konkurrentzia da, oro har, komunikabide berriei esker gure etxean bat-batean edozein musika eskura baitezakegu orain. Gazteak teknologia berrien bidezko musika kopiazaileak direla jakina da, finantza-baliabide urriengatik lehenik. Beraz euskarazko ekoizpenak bere lekua atxikiko du erakargarria bada. Hona aipamen bat, euskal musikaren egoera laburbiltzen duena: “*Bere musika egokitzen jakin ez duen herriak espazio sozial ugari galdu ditu (...). Euskarazko musikak espazio garrantzitsu irabazi dituen arren gure herri eta bizkuntzarentzat, abalgune eta erronka handiak ditu. (...) daukaguna zera litzateke: merkatu bat, entzuleria bat eta musika ibilbide luze eta zabal bat. (...) Euskarazko musikak urrats bat egin behar du. Jauzi bat rocketik harago. (...) Baina arrisku bat hor dago: gerta liteke euskal entzuleriak beste nonbait bilatzea bere elikagaia —mundu global batean daukan musika eskaintza zabala kontuan hartuta*” (Xabi Strubell, *Berria* 2010-07-29).

Testuinguru honetan hedapenak eta banaketak eragin handia daukate euskal musika eta kantua laguntzeko, ekoizpena hor baita. Beste galdera da oraingo ekoizpen hori gazteentzat egoki eta erakargarri denez ala ez. Euskal rockaren garai arrakastatsua iragan da.

EUSKAL MUSIKA ETA ABESBATZA

Hezkuntza

Euskal musika eta kantu-hezkuntza garatua da euskara irakasten den ikastetxeetan, bai eta ere ikastetxeetarik kanpo. Hona ikuspegi labur bat.

Bere webgunean, adibidez, Euskal Kultur Erakundeak 28 formakuntza elkarteko edo artista zerrendatzen ditu (www.eke.org). Badakigu gehiago direla, multzo batzuk elkarte federazioak baitira. Noski, publikoen artean haurrek eta gazteek publiko garrantzitsua osatzen dute. Beste adibide bat emateko gisan, 2010ean Euskararen Erakunde Publikoak eskoletarik kanpoko bi musika proiektu lagundu ditu eta ikastetxeetan zazpi, euskararen alde indar bat egiten zuten neurrian. Eskoletarik kanpoko proiektuak hauek dira. Bata, Iparralai, Garazi-Baigorriko musika eskolan 328 ikasle dira orotara, 32 kurtso astean: trikititxa eta panderoko kurtsoetan 71 ikasle, euskarazko kantuan 32 ikasle. Bestea, Miarritze eta Ahetzeko Kirikoketa elkarteak, “*Musikaz Blai*” ekimena antolatzen du, hots musika tailerak eskolan edo eskolaz kanpoko orduetan, 25 bat haurrentzat.

Musika sorkuntza eta estiloak

Urtero musika mota ezberdinetako diskak ekoizten dira. Gazteengan sorkuntza laguntzeko hona proiektu berezi bat, Iparraldeko Konpilazioa (www.iparraldekokonpilazioa.org). Proiektu honen xedea disketxerik ez duten Ipar Euskal Herriko musika taldeak laguntzea da. “*Iparraldeko musika eszenaren ezagutaraztea eta garatzea du helburu diska baten bitartez, estudio profesional batean grabatzeko aukera taldeei eskainiz. Taldeen promoziorako tresna bat da ere bai: internet gune bat urteroko aleak eta taldeak aurkeztuz, konpilazioak eskainiak eskualdeko programatzaileei bidaltzeko, afitxak eta flyer-ak kontzertuen aipatzeko, komunikazio plano on bat, etab.*” (EKE, 2009ko *Ekintzen bilana*: 29. or.). 2010ean, 6. ediziorako, zortzi taldek 6. konpilazioa grabatu zuten (punk, rock, folk estiloetan). 500 diska ale hedatu ziren profesionaleengan, komunikabideetan eta sare profesionaletan, talde gazte hauek ezagutarazteko. Lehen ediziotik landa 70 musika zati grabatu ziren, dohainik telekargatzeko eskainiak ziren. Promoziorako kontzertuak ere egin zituzten.

Kantu tradizionalaren alorrean, Euskal Kantu Xapelketa elkarteak lau urtetarik behin kantari helduentzat eta bi urtetarik behin haurrentzat kantu txapelketak antolatzen ditu Euskal Herrian. Horiei esker gaur egun ezagutzen ditugun kantari anitzek beren lehen arrakasta hor eskuratu zuten. Txapelketa horien bidez kantu tradizionalaren memoria atxikitzen da eta talentu berriak ezagutzarazten dira. Adibide bat, 2007ko « *Kate bat eta kitto* » ikusgarria, Lagunarte konpainiarekin prestatua: Iparraldean Haur Kantu Xapelketan, 8-15 urteko 25 haur eta gaztetxoek parte hartu zuten eta kantatu ikusgarri horretan.

Kantari gazteak badira. Euskal kantarien belaunaldiak berrizten dira, emazteengan bereziki: Amaia Riouspeyrous, Kattalin Indaburu, emazte gazte taldeak (Izarrak, Kantiruki, Lauburu, Amaren alabak, Etchegoyhen ahizpak...), Haurrock Taldea osatzen duten 6 eta 13 urte arteko haurrak, eta beste asko. Azken urte hauetan antolatzen diren euskal kantari ezagun bati buruzko kantaldiek arrakasta handia biltzen dute. Halere ohargarri da euskal kantaldi erraldoien garaia iragan dela, Herri Urrats eta Euskal Herria Zuzenean ekitaldiak salbu (ikus 4.8.). Kantaldi horiek musika, kantu sorkuntza eta hedapena bultzatzen zituzten, gazteen artean arrakastatsuak baitziren.

Hitz bat rap estiloaz. Gutxi dira euskarazko rap taldeak, halere gero eta gehiago dira talde eta bakarlariak. « *Hemen rapa ez zegoen oso ongi ikusita, eta euskararentzat arriskutzat hartzen zuten zenbaitek (...)* *Badago rock eszena ikaragarria, folk eszena nabiko handia, baina ez dugu hip hoparen eszenarik oraindik. Ez gaituzte oraindik seriooki hartzen (...)* *Azkar murriztu da euskal rockaren arrakasta, eta rapak butx hori bete dezake* » (Iñigo Astiz, *Berria* egunkaria, 2010-09-14). Ipar Euskal Herrian hiru talde ezagun dira: M.A.K. (3 diska), 2zio (Odei Barroso bertsolaria eta Gorka Rodriguez) eta Ezkiota, Bunuzen, Nafarroa Beherean ("*Leben tragoo*").

Musikaren kontsumoa

Kultura 2006 inkestaren arabera, elebidunetan %23k egunero euskal musika entzuten dute. 16-29 urtekoetarik %12k egunero entzuten dute, askotan %17k eta sekulan ez %45k. Jakinez IV. inkesta soziolinguistikoaren arabera, 16-24 urteko gazteengan 84% erdaldunak direla, erran dezakegu erdaldun gazte anitzek euskal musika entzuten dutela (ikus taula 4.2. azpiatalean).

«*Azken hilabeteetan (2007an) kontzertuetara joan den biztanleria elebidunaren %87 euskal musikako kontzertuetara joan da. Musika erosten dutenen artean, erdiak baino gehiagok euskal musika erosi duela dio*» (*Kultura 2008*: 31 or.). Gazteengan gehiago direla pentsa dezakegu, nahiz beren erosketa-ahalmena helduena baino ttipiago den. Izan ere, gazteak musika kontsumatzaile handiak dira baina orain gero eta errazago da musika grabatzea erostea baino. Kopiatu duten musika beren artean trukutzen dute. Telefono mugikorren bidez, MP3 erreproduzigailuen bidez noiznahi nonnahi musika entzun dezakete. Ordenagailuek ere aukera hori eskaintzen diete, ordaindu gabe. Interten sarean musika irratia libre asko badira.

Eragileak

Musika eta kantu hezkuntza elkarteak anitz dira. Gainera Iparraldeko argitaletxeak hauek dira: Elkar, Agorila, ZTK elkarteak, Laguna Studios (grabazio-estudioa). 2010ean 9 KD ekoiztu dituzte. Errepika eta grabaketa estudioak www.eke.org helbidean atzeman daitezke.

DANTZA HEZKUNTZA

Bere webgunean Euskal Kultur Erakundeak 47 konpainia edo artista zerrendatu ditu eta 23 dantza, formakuntzen atalean (www.eke.org) .

Ikastetxeetan, 2010ean adibidez, EEPk proiektu hauek lagundu ditu:

- Elirale konpainia laguntzarekin, Senpereko eskola publikoan *Dantzatik antzerkira, adierazten naiz*, alegia bat idaztea, antzeztea dantzarekin (22 haur, 2 irakasle);
- Donibane Lohizuneko Urdazubi eskola publikoan *La Fontainen alegiak* dantzan (18 haur, 2 irakasle);
- Donibane Ziburuko ikastolan *Sukaldetik mundura* (23 haur, 2 dantza eta antzerki artista);
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak kudeaturik 6 eskola giristinotan, 190 ikasle, formakuntza 7 astez eta dantza topaketak;
- Kanboko Xalbador kolegioan *Kontrapas, kontradenbora eta kontrastea* dantza ikusgarria (37 gazte, Lagunarte konpainiaren laguntzarekin);
- Baionako Bernat Etxepare Lizeoan 2007an, hip hop eta rap dantza tailerrak antolatu dira (MAK taldearekin), dantzak ondotik *Emazteen fabore* ikusgarrian eman dira (Akitaniako Lizeoetako Ikasleen jaialdian, La Teste de Buch, Gironde).

IKASTETXEETAKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
9 ikastetxe, 2008-2010.	Musika herrikoia (txalaparta), eta kanpokoak. Gorputz espresioa.	398 ikasle. Oren bat astero.
II ikastetxe, 2008-2010.	Kantuak soilik edo antzerkiarekin. Eskolarteko kontzertua, DVD.	352 ikasle. Oren bat astero.
2I ikastetxe, 2008-2010.	Dantza herrikoi eta hip hopa saioak. Dantza antzerkiarekin edo alegiekin.	60I ikasle. Elirale, IDB laguntzaile.

Hiru ikasturtez, 9 ikastetxetan 400 ikaslek herriko eta kanpoko musikak landu dituzte, maizenik beste jarduera bati loturik, dantza, kantua, antzerkia, gorputz espresioa edo mitologia kontaketa.

Epe berean, II ikastetxetan kantua da ikasgai 352 ikaslerentzat, kantua soilik edo beste jarduera batekin uztarturik, hala nola antzerkia, alegia kontaketa edo euskararen ikaskuntzarekin. 2008an, Biarritzeko Fal kolegioan, Brassens, kantari frantsesaren obrak landu ziren, euskarazko antzerki bati txertaturik. 2009an, Garazi aldean, perkuzio kontzertu bat antolatu zuten 4 ikastetxeren artean irrati emankizun moldean.

Dantza erabiltzen da helburu ezberdinekin. 15 eskolaren arteko lehiaketa bat muntatuz IDBren laguntzarekin, adibidez “La Fontaine alegiak” apaintzeko edo dantzatik antzerkira pasatzeko Elirale eta Lagunartea elkarteak animatzaile. maizenik dantza herrikoiak ikasi dira, bai eta ere hip-hop kolegio batean.

Sorkuntza, ikusgarriak eta festibalak

Euskal dantza tradizionala inspirazio iturri bat da oraingo sorkuntzarentzat. Musikaren edo antzerkiaren kasuan bezala, Iparraldeko sortzaile batzuek beren inspirazio artistikoa ohiko dantzetan hartzen dute, haurtzaroan ikasi ondoren. Bestalde euskal dantza tradizionalak transmititzen dira, eskualde bakoitzaren tradizioa errespetatuz.

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) da eragile nagusia, euskal dantza taldeen gehiengoa federatzen baitu (www.idb-idb.com). Euskal ohiko dantzen alorrean formakuntza sorkuntza eta hedapena lantzen ditu. 2009an « *Ebats lauetan* » ikusgarria sortu zuten, helburu hauekin: « *Erakusketarekin euskal dantza karrrikako artea izan dadin, ikusleatarik burbilago, dantzariak eta ikusleak ikusgarri geletarik ateratzeko eta dantzak bere karrrikako jatorria berreskura dezan* IDBk dantzari tradizional ikusgarriak antolatzen ditu, *Dantzari txiki*, *Dantzari eguna* eta *Mutxikoaren eguna*. Elkarretaratze handi horiek ohiko dantzaren jarraipena indartzen dute, mugaz gaindiko harremanak indartuz. Gainera IDBk astero ohiko dantza taldeei klaseak ematen ditu.

Dantza tradizionalaren alorrean, Zuberoa kasu interesgarria da, bereziki hain bizkor den zuberotar dantzaren zalatesuna. Hogeit bat herri dantza talde badira (ia herri orotan), bi batasun ezberdinetan banatuak, *Aintzindariak* gehiengoarekin eta lehena zen *Xiberoko Zohardia*. Maskaradek, pastoralek eta ohiko festibalek dantzarietara parada eskaintzen diete beren trebetasuna erakusteko.

Hona konpainia batzuen azken sorkuntzak:

- Maritzuli dantza konpainia (Biarritz, koreografoa: Claude Iruretagoyena): “*Aurrez aurre*” 2009an;

- Ilargi elkarte: “*Pottoka dantzan*” euskal dantza tradizionalak eta pottoken laguntzarekin egindako koreografia 2009ean;
- Garaztarrak elkarte: “*Libertimendua Donibane Garazin*” 2010ean, Antton Lukuk idatzi dantza-antzerki ikusgarria;
- Kitzikazan/k elkarte: “*Libertimendua Donapaleun*” 2010ean, Mattin Irigoyenek idatzi antzerki-kabalkada;
- Mattin Irigoyenen “*Paisol dantza*” karrika dantza emanaldia 2008an;
- Zarela Zarelako taldeko dantzari tradizional gazteen “*Goazen*”, 2011an;
- Elirale konpainiak haurrentzat ikusgarriak sortzen ditu besteak beste, dantza modernoa eta tradizionala lotuz. Azken sorkuntza, *Ninika* 2011an.
- Ohartzen gara ikusgarri gehienetan arte ezberdinak nahasten direla, dantza, antzerkia, musika, kantua... eta tradizioa baliatzen dela molde batez edo beste.

Dantza festibal bat bada euskal dantzari leku handia emanten diona, *Dantza Hirian* festibala (Hendaia). 2010ean, 5. edizioa zen Donostian, Irunen, Hendaian, Baionan, Ziburu, Azkainen, Erreterian. 35 artista eta 11 konpainia, horietarik 6 Euskal Herrikoak ziren.

« Batekmila Euskal munduak » erakusketa

Euskararen Erakunde Publikoak sortzen dituen erakusketa ibiltarietan « *Batekmila Euskal munduak* » (2007-2010) erakusketa interaktibo aipagarri da. Argazkien, testoen eta bideoen bidez, euskararen eta euskal kulturaren ezagutza eskaintzen du gaurko artista, argazkilari, musikari, filma egile batzuen ikuspegiak baliatuz. “*Euskararen eta euskal kulturaren ezagutzera eta galdezkatzera gonbidatzen*” du (EKE, *Ekintzen bilana 2007*, 13 or.). 14 hiritan erakutsia izan da: Euskal Herrian (Baiona, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea...) baita Frantzia beherean Parisen, Bordelen, Albin... “*Arrakasta gaitza bildu du, batez ere gazteenengandik, bere alde elkarreragilea eta ludikoa dela medio*” erraten digute (www.euskalmunduak.com).

ERAGILE PRIBATUEN EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
IDB, 2007 – 2009.	25 dantza talde, saioak 25 ikastegitan, 2 musika eskola.	600 dantzari gazte, 32 ikusgarri urtean
Atelier Hendaia, 2008, 2009.	Dantza hirian 2008, 2009: ekintzak 6 egunez urtero.	Urtero 680 ikasle, 7.200 ikusle.

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Iparralai Garazi-B. 2007 – 2010.	Astean 34 trikititxa, pandero, kantu kurtso, 178 oren.	328 ikasle, 21 irakasle
Elirale konpainia, 2008.	Dantza tailerrak haur eta helduentzat.	Astean 3 tailer 5-7 urtekoentzat.
Kirikoketa, 2008, 2010.	Musikaz Blai tailerrak 2 eskolatan eta kanpoan.	Urtero 25 ikasle, 59 ekintza.

Nabari da dantza eta musikaren eremuan, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) da egitura nagusia, alabaina dantza elkarte gehienak biltzen ditu, eskola askotan ibiltzen da eta dantza manifestaldi handienak antolatzen (ikus gorago).

Beste elkarte asko badira eskualdeka: *Iparralai* Garazi-Baigorriin, *Atelier* Hendaian, *Kirikoketa* Miarritzen eta Ahetzen, etab. 2010eko diru laguntzak banatzeko EEPk erizpideak aldatu ditu. Euskara hurbilagotik sustatzen dituzten egitasmoek dute lehentasuna. Musika eta dantza ez dira laguntzen, egitasmo kulturalak direlako. Kasu honetan EEPren eta EKEn lankidetzak beharrezkoa da.

PROPOSAMENA

Euskal musika, kantua eta dantza sustatuko dira, baliabide eraginkorrak baitira euskaraz aritzeko atsegina emateko dakiten gazteei eta publiko berri bat euskara erakartzeko.

Hizkuntza Politika Proiektuak, aisialdiaren erronka aztertzen duelarik euskal musika, kantua eta dantza aipatzen ditu. Alabaina lehen norabidea da euskarazko aisialdi egituratuak familiei eskaintzea. Aisialdi zerbitzu erakarriak eta kalitatezkoak antolatzeko opor zentroak, kirolak eta kultura ekintzak beharrezkoak dira “euskaraz aritzea eta plazerra uztartzeko”. Lan ardatz honen helburuetan bi publiko daude: “publiko gaztea” eta “publiko berriak”.

Publiko gazteak euskara erabiliko du gustukoak dituen jarduerak eskaintzen bazaizkio hala nola antzerkia, zinema, kantaldiak eta kontzertuak, dio Proiektuak. Gainera publiko berri batzuk euskarara erakartzeko praktika kulturala baliatuko da “elkarrekin, bereziki euskal kantuan eta dantzari direnekin” “kantuararen eta dantzaren bitartez, elkarte-kideak euskara hurbiltzeko, eta ikasteko gogoaren emateko” (*Hizkuntza Politika 2006*: 49. or.). Alabaina kultura da, bereziki musika, euskaldunen eta erdaldunen arteko lokarri atsegina.

Ikerketa honek erakusten du zer lan garrantzitsua daramaten elkarrekin eta erakundeek euskal musikaren, kantuararen eta dantzaren hedapenean bereziki Euskal Kultur Erakundeak, botere publikoen partaidetzarekin. Tokiko kolek-

tibitateek beren aldetik ikusgarriak eta formakuntza elkarteak laguntzen dituzte eskola orenetarik kanpo. Errepika eta emankizun gelak eskaintzen dituzte ere. Halere iduri luke gehiago egin daitekeela, Euskararen Erakunde Publikoarekin batera euskal publikotik at erdaldun publikora joateko. Bistan da, hor ere, Iparraldeko komunikabideek funtzio erabakigarria dutela.



Iron eta Mainer rock taldea Maulen (2007-06)
(www.myspace.com/ironetamaider/photos)



Dantzari eguna 2010
(www.idb-idb.com)

4.5. ANTZERKIA ETA BERTSOLARITZA

Antzerkia eta bertsolaritza arrakasta handiko jarduerak dira gazteen artean, bigarrena bereziki azken urte hauetan. Bai eta ere antzerki mota tradizionalagoak, hala nola Zuberoako pastorala edo maskaradak, libertimenduak Nafarroa-Beherean, jokalaria edo ikusle bezala. Hezkuntzaren mailan, ikastetxeetan han hemenka aspalditik antzerkiak prestatzen eta ematen ziren antzerki erakasleen laguntzarekin.

ANTZERKIA

Azpiarratu behar da 1970era arte euskarazko antzerki idazleak apezak zirela gehienik, Piarres Larzabal (1915-1988) emankorrena eta ezagunena zelaririk. Haiak gaiak eta antzezteko moldeak finkatzen zituzten. Baina 1970eko hamarkadan, Daniel Landartekin bereziki, gizarte-gaiak, mementoko kezkek sartzen hasi ziren. Geroztik antzezlan anitz idatzi eta jokatu zen. Hona oraingo egoera, gazteek antzerkiarekin dituzten harremanei interesatzen gatzaiela oroitaraziz. Panorama osoa ematea ez da erraza eta ondorioz hortarik gazteei zuzendua dena ateratzea.

Hezkuntza

Hezkuntza mailan, *Euskal Haziak* elkarteak eskola eta kolegio girstinoetan Frantxoa Cousteau Bordaxuri taldeko antzezlearen zuzendaritza-pean antolatzen duen « Euskal antzerki astea » biziki garrantzitsua da: 2008an 28 eskolak, 9 kolegiok eta 2 lizeok parte-hartu zuten; 2009an adibidez, 28 eskola, 8 kolegio, 450 haur orotara, 25 antzerki tauletan Urruñako Itsasmendi gelan. 2011an 8. edizioa zen, 611 haurrek parte-hartu zuten.

Ikastetxeetan landu diren sorkuntzak eskolatik kanpo ere eman izan daitezke. 2006an Mauleko San Frantseseko ikastetxeko ikasleek Junes Casenave-Harigilen *Jesüs* pastorala eman zuten.

Beste adibide bat, Seaskako 40. urteburuan, Xalbador kolegioko ikasleek *Mari bi sos* antzerkia eman zuten 2009an.

Donibane Lohizuneko Donamaria ikastegiko klase elebidunetako gazte-txoek pastoral gisako *Luis XIV erregea* antzezlanak prestatu zuten. 2010ko ekainaren 8an Ravel entzuntzean eskaini zuten.

Garaziko Lizeoko antzerki tailerreko ikasleek urtero euskarazko sorkuntzak ematen dituzte lizeotik kanpo Antton Lukuren zuzendaritza-pean, *Libertimenduak* eta *Kanut* antzezlanak 2006an, *Larzabal mugaz muga* 2007an, *Falestina* 2008an, *Lebenik aitaran* 2009an, *Zeru eta Zuri* 2010ean, *Ur* 2011an.

*Ikastetxeetako egitasmoak**EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak*

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
7 ikastetxe, 2008, 2009.	Antzerki tailerrak eta aurkezpen publikoak. Pastoralak. Liburuttoak.	176 ikasle. Beren irakasleekin.
20 ikastetxe, 2008, 2009.	Antzerkia bilgune guraso, ikasle eta eskola osoarekin. Topaketak.	176 ikasle. Beren irakasleekin.
8 ikastetxe, 2008, 2009.	Hezkuntza antzerkiaren bidez: kantua, mitologia, komunikazioa.	257 ikasle, 30 oren animatzaileekin.
4 ikastetxe, 2008, 2009.	Antzerki ikusketak: Gernika, Amama. Beskoitzeko maskaradak.	227 ikasle. 12 laguntzaile.
7 ikastetxe, 2009.	Bertsogintzan ikasten eta saiatzen. Mitologia asmakizunak. Topaketak.	128 ikasle. 56 praktika oren.

Ikastetxeetako ekimenetan bost helburu aurki ditzazkegu:

7 ikastetxetan antzerki tailerrak antolatatu dituzte talde profesionalen laguntzarekin Hiru Puntu, Versant, Chimères, eta agerraldi publikoak egin.

20 ikastetxetan antzerkia bilgune bat izan da. Baionako Polo ikastola osoa bildu da *Ametsez amets* antzerkiaren inguruan, ikasle, irakasle, guraso eta langile; *Euskal Hazia*, guraso elkarteak eskola, kolegio eta lizeo giristinoak mobilizatu ditu, ikasturtean zehar prestatu antzerkiak, *Antzerki aste berezian* aurkezteko; Zuberoko lizeoan *Euskamerikan* pastoralak muntatu dute Ameriketako artzainez eta Kaliforniako gazte batzuk Sohütara gomiatu dituzte.

8 ikastetxetan antzerkia ikaskuntza tresna bat izan da, euskara erabiltzeko, Brassensen kantuek eta beste ikasteko, gorputz espresioa trebatzeko, komunikazioa, historia edo mitologia lantzeko.

3 ikastetxetan antzerkiak ikusten ibili dira dela *Gernika*, *Amama* edo Beskoitzeko maskarada.

7 ikastetxetan bertsogintza ezagutarazten da, bertsoak lantzen dituzte bertsolari baten laguntzarekin edo euskal mitologia bertsotan ezartzen.

Sorkuntza eta tradizioa

Euskal Kultur Erakundeak antzerki sorkuntzen katalogo bat gaurkotzen du: www.eke.org/sorkuntzak. Gazteendako antzerki berezirik baden ez da

agertzen. Haurrendakoa bai. Hona adibidez, konpainia profesionalen 2009-2010eko sorkuntza batzuk:

- Elirale konpainia: *Otto* 2009 urte batetik sei urtera,
- Théâtre des Chimères elkarte: *Baba, zango horiak* 7 urtetarik gorakoentzat,
- Le Petit Théâtre de Pain elkarte: *Babiloniako Loreak* denentzat,
- Théâtre du Rivage elkarte: *Gau eraginak* euskarazko komedia denentzat,
- Tokia Théâtre elkarte: *Kokolobatsxi* antzezlanaz gaztetxoentzat.

Gazteak antzezgile izanez, Antton Lukuk idatzirik, Hiru Puntu gazte taldeak *Baionan bizi* komedia eman zituen 2007an. Gazteek etxebizitza baten atzemateko dituzten arazoak kontatzen ditu eta jendartearen akatsak.

Halaber Mattin Irigoyenen *Gaztetasunak erabiltzen nau* sorkuntza Kitzikatzan/k talde gazteak hainbat aldiz eman du 2006an. Barnealdeko herri bateko gazte talde baten harat-honatak kontatzen ditu, mutiko eta neskatuen arteko harremanak, etab. 2010ean Mattin Irigoyenek *Jendeen jende* komedia idatzi zuen (Alberdania argitaletxea); Donostia Hiria antzerki saria eskuratu zuen.

Ohiko antzerkiak, Zuberoako pastoralek, Nafarroa-Behereako toberak eta libertimenduek sorkuntza berriak inspira ditzakete. Adibide bat da *Oiberkoren tragedia* ikusgarria, Ahuzkiko mendian emana izan zena 2006an udako gau batean. Pastoralaren moduan baina era zinez ezberdinean, ez ortodoxoan.

Euskal ihauteriek ere gazteak erakartzen dituzte. Parte-hartzaileetarik lehenak dira, maizenik bakarrak. Zuberoako maskaradak adibidez neguko ihauteriak dira. Urtero hogeit bat dantzari eta aktore gaztek sortzen dituzte, urtarriletik maiatz arte igandeetan hamar, hamabost bat herritan emanez. Maskaradek erakusten dute euskal tradizio kulturala gazteengan erakargarria izan daitekeela, bertsojaritza den bezala. Handitzen ari den kezka da Zuberoako herrietan gero eta gazte gutiagok euskara ezagutzen dutela, hola izan zen Santa Graziko 2011ko maskaradarekin. Hor euskararen aldeko politikak erronka bat badu, nahiz eta Zuberoan ere euskararen irakaskuntza goratzen ari den.

Libertimendu ikusgarriak ere aipa ditzagun, Donapaleun emanak, Mattin Irigoyenek zirtzilekin agertokira eramanez. 2011an, 3. edizioa, Kitzikatzank antzerki taldearen, Burgaintzi dantza taldearen eta Amikuzeko ikastolaren partaidetzarekin egin zen. Aspaldiko tradizio herrikoia berpiztu dute 50 bat gazteen parte-hartzearekin. Halaber Donibane Garazin libertimendua egunean (*Libertimendua* ikusgarria Antton Lukuren zuzendaritza-joan pean) eta Santibate, zirtzilena besta, gauean. Lehenagoko besta horiek berpiztu dira eta gazteen afera da. Emazte gazteek horietan parte hartzen dute, gero eta gehiago. *Zanpatzar*-en auziak eta erretzeak gero et arrakasta gehiago eskuratzen dute

(Hazparnen eta Uztaritzen adibidez). Ekiltaldi horietan ere tokiko gazteen rola garrantzitsua da.

Oro har, XXI. mende hastapen honetan iduri luke ohizko antzerkiak eta ihauteriak berpizten ari direla edo bizindar berria hartzen dutela.

Talde amateurrrak

Tradiziotik jiten zaizkigun maskarada, pastoralak, toberak, ihauteriak (Zanpatzarren auzia aparte) eta euskal antzerkia bizi dira barnealdean. Aipa ditzagun 2009-2010eko sorkuntza adibide gisa Leinua konpainiaren *Sakratua*, Lapurdi 1609-2009 elkartearen *Lapurdiko trajedia*. Kostaldean eta Hegoaldean ere antzeztu dira.

Egitasmo batzuek jokalaria gazteak bultzatzen dituzte, hala nola Jostakin elkartearen *Zenbaki eta bizkiak*, *Ondarea* eta *Santsanak* Makean. Bardozoko gaztetxe elkarteak *Gauzak biltzen* ikusgarria Lagunekin taldearekin sortu zuen 2008an.

Oro har, antzerki amateurra da Ipar Euskal Herrian euskal antzerkia mantentzen duena, antzerki profesionalaren ekarpena puntualago delarik eta kostaldean kokatua.

Hedapena

Tokiko kolektibitateek antzerkiaren hedapenean zeregin handia badute, antzerki festibal bat sustatuz, antzerki konpainia baten antzezlanak urteko kultura egitarauan sarraraziz... Hona adibide batzuk festibaletan eman diren antzerkiez. Bistan da beste festibal batzuek ere euskal antzerkiari toki bat ematen diotela.

Mai du Théâtre ekitaldia Hendaian, 2011an 26. edizioa zen, Théâtre des Chimères konpainia eta Hendaiaiko kultura-zerbitzua animatzaile: euskarazko antzerkiak lekua badu baina ez leku nagusia.

Mai en scène festibala Maulen, 2011an 8. edizioa zen, Tokia Théâtre elkar-tea eta Mauleko herriko etxea laguntzaile: antzerki festibala, eskuketa ariketak, arte plastikoak, karrika ikusgarriak eta mota ezberdinetako antzerkiak, erdia euskaraz.

Harri Xuri "Euskarazko antzerkiaren eta karrikako arteen Fabrika", Artzamendi Sindikatuak laguntzen du (ikus 5.4.). Programazioak "euskarazko antzerki konpainiei eta atez kanpoko ikusgarriak sortzen dituzten konpainia profesionalak ematen die lebentia-suna". 2010ko urritik abendua arte, adibidez, Bilboko Kabia – Gaitzerdi teatroren *Euria esan eta euria erortzea*, Le Petit Théâtre de Pain-en *Errautsak* eta Théâtre des Chimères-en *Osaba Viana* proposatu dituzte.

Bestalde Euskal Kultur Erakundeak Azpeitiako Antzerki azokan (Gipuzkoa) parte hartzen du “*besteak beste zubi gehiago antolatzeko bi aldeen artean* [Hego eta Iparraldeak] *antzerkiaren merkatu bat sortzeko eta garatzeko*“ (*Ekintzen bilana 2008*: 24). Ohar hori kultura eta arte-sorkuntza osoari heda diezaiokegu. Mugaz gaindiko lankidetzak beharrezkoa da euskarazko aisialdi eta kultura-eskaintza garatzeko.

Eragile profesional eta amateurren zerrenda

Amestoy Koldo ipuin kondalaria

Bordaxuri taldea (antzerki hezkuntza)

Eleka taldea (ipuin ikusgarri eta tailerrak)

Elirale konpainia (dantza konpainia bereziki)

Errotabehere Xan kontalaria

Hirigaray Pantzo antzerki idazlea

Hiru Punttu taldea (2002tik *Lurra 2008ra Fauxto, Battitta Lau Ttitta 2011an...*)

Irigoien Mattin antzerki idazlea

Kitzikatzank taldea (2006tik, *Gaztetasunak erabiltzen nau, 2010era, Jendeen jende*)

Le Petit Théâtre de Pain elkarteak (*Juglaera, puta eta eroa 2009, Errautsak 2010 Hegoaldeko bi konpainiarekin, Aulki butsa*)

Luku Antton antzerki idazlea

Maite Dugulako elkarteak (antzerki tailerrak, euskara kurtsoak ere)

Mari Bi Sos taldea (*Etxeko lanen indar jokoak, 2008*)

Théâtre des Chimères elkarteak (*Kaukasiar kreazko borobila, Bertolt Brechten obra 2005, Osaba Viana, Anton Tchekhovena 2010; komunikazio osoa elebiduna da*)

Théâtre du Rivage elkarteak (*Eskimal kabiliarra 2010*)

Théâtre du Versant elkarteak (*Diaspora bidaian 2009*)

Tokia Théâtre elkarteak (*Kautera 2005, Debrü ixila 2007*)

BERTSOLARITZA

Bertsularien Lagunak elkarteak da alor horren eragilea Iparraldean. Bi bertso-eskolak eta bertsolari xapelketak kudeatzen ditu. Oro har bertsolaritzak gazteengan gero eta arrakasta gehiago eskuratzen du Euskal Herri osoan. Baserritik hirietara etorri zen, arte garaikide eta modernoa bilakatuz. Alor honetan tradizioa eta modernitatea lotuak dira, euskararen onurarako, bertsolaritzaren eragile beraiengatik.

Irakaskuntza

Ipar Euskal Herrian haurrentzako bertso eskolak 1990an sortu ziren. Zortzi bertso-eskola badira orain: Lapurdin (Baiona, Hendaia, Hazparne, Kanbo eta Lekorne), Nafarroa-Beherean (Donibane-Garazi), Zuberoan (Sohüta). Helduen bertso eskola batzuk ere antolatuta dira, hala nola Urdiñarben eta Izuran.

Ikastoletako ikasleek oraingo bertsolariak eta gerokoak formatzen dituzte. Haientzat euskara hizkuntza naturala da eta baldintza hori beharrezkoa da bertsolari izateko. “*Bertsu eskoletan lan serioa egiten da eta eskolatik landa hamaika ekimen gauzatzen dira urte guziz: Bertsulari Tiki, Bertsu Eskolen Besta, Xapelgoak, Topaketak, Bertsu Udalekua, Bertsulariak Ikastolarat Kanpaina...*” (www.bertsulari.com). 2011an, adibidez, Bertsulari Tiki egunean Izpuran 550 hurrek parte-hartu dute, lehen mailako Ipar Euskla Herriko 17 ikastolararik.

Urtero Baionako Bernat Etxepare Lizeoan *Bertsoz bertso* egitasmoa eramaten da. Bertsolaritzaren historia eta teknikak irakasten dira, bat-batekotasuna ere bai. Halaber *Olerkiz olerki* egitasmoarekin, euskal olerkari baten ibilbidearen ezagutza egiten dute, olerki idazketa bakarka edo taldean lantzen dute.

Bertsulari xapelketak

Hernandorena sariak gazteei bertsotan aritzeko parada eskaintzen die, bertsolari gazteen artean harremanak bizkortuz (*Hernandorena bertsulari gazteen saria*, www.hernandorena.info).

Baina Ipar Euskal Herriak beste berezitasun bat badauka. Bertsolaritzaren tradizioa ez bazen galdu, duela guti sortu diren bertso-eskolei esker berriztapen ohargarri bat ezugatzen du. 2010ean Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nabarreko bigarren Bertsulari Xapelketan zorzi finalistak 21 eta 27 urte artekoak ziren. Nagusitu zen Amets Arzallus hendaiarrak 27 urte zituen, bigarren izan den Odei Barroso urruñarrak 21 urte. Entzulegoa ere gaztea zen, segurki pastoraletakoa baino gazteagoa adibidez. Horrek erakusten du bertsolaritzak garai berri eta aberatsa bizitzen duela Ipar Euskal Herrian.

ERAGILE PRIBATUEN EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Bertsolarien lagunak, 2007 – 2010.	II bertsu eskolak, xapelketak, <i>Hernandorena gazte saria</i>	Urtean 70 oren, 71 ikasle, 9 irakasle.
Maite Dugulako, 2007 – 2010.	Antzerki tailerrak, heldu eta gazte. Antzezipen eta jokoak.	Urtero 32 ikasle 176 tailer-oren .
Traboules Heleta, 2008 – 2010.	Ikusgarrien sorkuntza. Txontxongilo emanaldiak.	8 langile, webgunea, kafe kulturala.
Théâtre Chimères, 2008, 2009.	Lana eta komunikazioa euskaraz.	Irakurketa tailerrak.

Gorago zehaztuak izan dira eragile hauen ezaugarriak eta ekintzak.

GOMENDIOAK

Gazteek gustukoak dituzte antzerkiak eta bertso saioak. Alor honetan ere sormena elkarteetan eta artisten esku da. Erakunde publikoei eskatuko zeizkie formazio zerbitzuak eta baldintza materialak.

Ikusi dugu Hizkuntza Politika Proiektuak garrantzi handia ematen diola antzerkiari orokorrean eta bertsolaritzari bereziki, euskarazko zerbitzuak antolatzerakoan, gazteek gustukoak baitituzte jarduera hauek (*Hizkuntza Politika 2006*: 48.or.).

Ikerketa honek erakusten du euskarazko antzerkiaren alorrean gauza ainitz egiten dela Ipar Euskal Herrian, sorkuntzan, ala hezkuntzan. Sormenaren giltza ez da botere publikoen eskumena. Hauek diruz laguntzen dituzte, antzerki konpainiak. Antzoki eta saio egiteko lekuak (ikus aretoen zerrenda www.eke.org), hots baldintza materialak eskain ditzakete. Ez gehiago.

Baina gure ikergai zehatza gazteak eta antzerkia delarik, hezkuntza artistikoa da giltza. Hezkunde Ministeritzak, irakaskuntza egiturek eta ikastetxetarik kanpoko egitura hezitzaileek beren leku osoa hartu behar dute, ez ekimen pribatuak ordezkatzeko baina bakoitzaren jarduerak uztartzeko, euskarazko antzerkia sustatzeko bidean.

Bere aldetik, bertsolaritzak bere bidea berak egiten du, ikastoletan oinarritzen diren bertso-eskolen animazioa abiapuntua delarik. Gaur egun bertsolaritzaren arte autonomoa dela erran dezakegu, hezkuntza, sorkuntza eta hedapena kudeatzen baititu. Noski, finantza beharra ez da beste arte batzuetan bezain larria (zineman bezala adibidez), halere diru-laguntza publikoak baitezpadakoak dira. Baina hau ez da lehentasun bat alor honetan.



Iparaldeko Bertsularien
Xapelketa 2010: afixa



Buhameak
maskaradetan
(Maule 2007)
argazkia: Iñaki Zugasti

4.6. ARTE PLASTIKOAK

Iparraldeko artistak eta arte plastikoetako eragileak anitz dira: marrazkilariak, ilustratzaileak, grafistak, margolariak, plastikariak, eskultoreak, argazkilariak, bideoegileak, tapizgileak, eta beste (www.eke.org). Baina gure azterketa eremua, gazteak, aisialdiak eta euskara, askoz hertsia da. Printzipioz arte bisualetan hizkuntzak ez du toki handirik. Aldiz hezkuntza artistikoan euskara erabil daiteke, sorkuntza bera bisuala baldin bada ere. Horregatik hezkuntza da aipagai nagusia izanen hemen.

ARTE HEZKUNTZA ETA GERTAKARIAK

Hezkuntzan ari diren artistak eta eragileak zerrenda ditzagun: Aldudarrak Bideo (Arrosa), Har'Eman (Irisarri), Itzal Aktiboa elkarte (Garazi), Uztaro elkarte (Zuberoa), Zaldain elkarte (Hiriburu), Zirrimarra elkarte (Garazi-Baigorri). Haurrak eta gazteak dituzte ikasle, artezaletasuna sortzeko helburuarekin. Orain arte Baiona-Angelu-Biarritzeko arte eskola (*Ecole d'art de l'Agglomération Côte basque – Adour*), Iparraldeko handiena da baina ez zuen euskara kontuan hartzen. Euskal Kultur Erakundearen webgunean agertzen dira arteguneen helbideak eta gertakariak, erakusketak ala festibalak.

ARTE PLASTIKOEN EREMUKO EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Zirrimarra, 2007.	Arte tailerrak Garazin.	40 ikasle (4-14 urte). 16 euskaldun.
Itzal Aktiboa, 2009, 2010.	Arte sorkuntza barnealdean. 6 tailer: 2 eskoletan, 4 kanpoan.	663 ikasle.
4 eskola, 2009.	Maketa erakusketa: Hiri utopikoa. Birziklapen ekologikoa.	57 ikasle (CMI, CM2). Animatzaile I edo 2.
2 ikastola, 2008,2009	Arte eder tailerrak, euskara erabiliz elkarren arteko komunikaziorako.	168 ikasle, 5 irakasle, 2 animatzaile.
Ikastola bat, 2009.	40 metroko paretaren pintaketa. Gaia: euskara oroz gainetik.	64 ikasle. Animatzaile bat.

Eragile pribatuen deialdian bi egitasmo lagundu dira Zirrimarra Garazi-Baiagorri eta Itzal Aktiboa Donibane Garazin. Helburua da arte sorkuntza laguntzea barnealdean, ahal delarik euskara erabiliz. 700 ikasle baino gehiago arte tailerrez baliatu dira, eskoletan edo eskolatik kanpo.

Ikastetxeen deialdian 7 eskolak parte hartu dute 3 motako jardunaldietan.

4 eskolatan *Hiri utopikoa* asmatu dute eta maketa moduan eraiki. Hiri honen ezaugarria da garbia dela ekologiaren aldetik eta hondarkin guztiak berziklatzen direla. Uztaroko animatzaileak ibili dira eskoletan eta 57 CMI eta CM2ko ikaslek parte hartu dute beren irakasleekin, bost astez astean bi orenez. Bururatzean erakusketa bat egin da bideo batekin.

2 ikastolatan arte tailerrak antolatu dituzte, euskaraz komunikatzeko helburuarekin. Parte hartzaileak 94 haur ziren astean oren bat 12 astez ikastola batean eta bestean 74 haur beren 5 irakasleekin eta Xiba elkarteko marrazkilaria eta animatzaile batekin.

Senperekoko ikastolan 64 ikaslek parte hartu dute 40 metroko paretan baten pintaketan *L'Enfance de l'Art* elkarteko animatzaile baten laguntzarekin. Adierazi zuten gaia zen: "Hodei guzien azpitik eta paretan guzien gainetik euskara hegaz".

GOMENDIOA

Elkartek arte plastiko tailerrak eta animazioak eramaten dituzte tokiko aginteen sostenguararekin. Euskararen erabilera ere bultzatu behar da EEPreko laguntza teknikoarekin.

Proposamen zehatz batzuen ordez, gomendio orokor bat egin genezake arte plastikoen eremuan gazteengan euskararen erabilera sustatzeko. Udalek, herri elkargoek ikastetxeetarik kanpoko tailerrak eta animazioak antolatzen dituzten arte elkarteak diruz sostengatzen dituzte. Euskararen Erakunde Publikoaren laguntza teknikoarekin euskararen erabilera bultzatu behar da. Arte plastikoek, arte-kreazioek atsegina ekarten dute, atsegin estetikoa. Hemen ere plazerra euskarari lotzea da erronka, Hizkuntza Politika Proiektuak errepikatzen duen bezala.



Uztaro arte tailerra 2009ko Xiru festibalean (1)
(uztaro.blogspot.com)



Uztaro arte tailerra 2009ko Xiru festibalean (2)
(uztaro.blogspot.com)

4.7. KIROLA ETA ZIRKUA

TESTUINGURUA

Erran daiteke kirola, jarduera antolatu eta hezitzaile gisa, XX. mendeko berrikuntza dela, aisialdia den bezala. Noski Euskal Herrian kirol batzuk lehenago ezagunak ziren, hala nola pilota eta beste herri kirolak. Jarduera fisikoetan desafioak botatzen ziren herri ezberdinetako gizon indartsuen artean, zaletasuna eta diru-apustuak pizten zituzten. Baina orain ezagutzen dugun kirolak beste funtzio batzuk betetzen ditu: aisialdiko denbora-pasa bilakatu da bai eta ere hezkuntza baliabide bat; batzuentzat jarduera profesionala da, besteentzat kontsumorako ekoizkin bat. Ondorioz euskararen aldeko eragileentzat erronka berriak agertzen dira. Oraingo mendebaldeko gizartean, kirola eguneroko lanetik bereizi da, gizarte-esparru propioa bilakatuz, zabal-kuntza handiko gizarte-esparrua ikus-entzunezko komunikabideei esker. Gazteen aisialdian ere kirolak leku handia hartu du praktika antolatuaren moldean ala zaletasun gisa.

Testuinguru hori kontuan hartuz, Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko kirolen gaia azter dezakegu, aipatu genituen hiru ikusmoldeen arabera, kirol hezkuntza, kirol praktika eta kirol kontsumoa, kirolzaletasuna ekoizpenarekin uztartuz. 3. atalean ikusi dugu Ipar Euskal Herriko gazteak neurri handian kirolzale eta kirol praktikatzaile direla. Eragileek, bereziki irakasleek, joera horretaz baliatzen dira aisialdia euskalduntzeko. Kirol modernoetan (itsasbela, surfa, lerra-kirolak, talde-kirolak, mendizaletasuna) eta lehenagoetan (herri kirolak, pilota, zirkua, ibilaldiak) bada zer egin euskararen lekua zabaltzeko.

KIROLA

Jarduera publikoak

Hemen ez dugu kirolaren aldeko politika publiko orokorra aztertuko, gu-re aztergaia gazteen euskarazko kiroltan mugatzen baita. Alor honetan euskararen aldeko politika ez da biziki indartsua orain arte. Alde batetik EEPk ekimen zenbait diruz laguntzen ditu. Bestetik EEPk ekintza batzuk eraman ditu kirolaren alorrean: hitzarmena izenpetu zuen Aviron Bayonnais errubi profesional taldearekin; 2006ko uztailaren 12an, Frantziako Itzuliaren kariatara jarduera puntuala eraman zen IO. etapa Kanbotik abiatu zelarik: animatzaile euskaldun bat, euskarazko liburuxka 30.000 aletan, seinaletika elebiduna. Geroari buruz EEP-k kirol hezkuntza elebiduna ezarri du bere helburuetan.

Tokiko kolektibitateek, itxuraz, gazteentzat ez dute euskararen aldeko politikarik. Diru anitz gastatzen dute azpiegituretarako inbertsioetan eta mantentze-gastuetan: kirolgelak, kirol-zelaiak eta beste. Beraz euskarazko kirola alorrean egiten dena elkarte ekimenen ondorioa da. Oro har Ipar Euskal Herrian gauza guti dago euskaraz, hezkuntzan, kirol praktketan edo kirolen kontsumoan. Hona laburbilduz kirolka atera dezakeguna.

Itsas-bela eta ur kirolak

Lema elkarte itzasbela eskola da, Ziburun eta Hendaian kokatua. Amaiur Alfaro nabigatzaileak 2006an sortu zuen (www.pbe64.com/lema). Ikasturtean eta oporretan frantsesezkoaz gain euskarazko irakaskuntza eta ibilaldiak eskaintzen ditu. Langile bat euskalduna da. 2007tik 2010 arte, EEPk batez beste urtero 10.000 euro eman zizkion, bela eskolan euskara aitzinarazteko.

Bidarraiko Arteka elkarteak ur eta mendi kirolak antolatzen ditu (www.arteka-eh.com/). Euskararen erabilera egituran eta zerbitzuetan sustatzeko EEPk 4.250 euro eman zizkion 2010ean.

Surfa

Kurtsoak euskaraz emaiten dituen surf eskolarik ez da. Baina aipatzeko da *Glisseguna* ekitaldia Seaskak eta partaide batzuek urtero antolatzen dutena Angelun La Barre zabalgunean, Skate parke gunean. Iharduera 2003an sortu zen eta 8. edizioa 2010ean gertatu zen. *Glisseguna* lerra kirolak (surf, skate, roller, etab.) eta euskararen topagunea izan nahi duen gertakaria da. Ekitaldiak animazio ezberdinak proposatzen ditu euskaldun gazteei bai eta ere erdaldunei: lehiaketak, lehen ikaspenak, erakustaldiak, dantza ikuskizunak... Gero eta arrakasta gehiago eskuratzen du *Glissegunak*.

Herri kirolak

Herri kirolak laborantxako lanetarik etorriak dira. Bi mota bereiz daitezke: indar probak (soka-tira, harri, lasto eta ingude altxatzea) eta iraupen probak (arto-buru biltzea, zaku, esne bidoi altxatzea). Xiba elkarteak herri kirolak garatzen ditu, ikastetxeetan bereziki. 2009ko ekainaren 12an, adibidez, 190 ikasle herri kirolatan eta pilotan ari ziren Biarritzen: Donamaria, ikastola, Reptou, Termes-Salins eskoletako lehen mailako ikasle elebidunak Fal kiroldegian. Herriko bestetan ere herri kirol probak antolatzen ditu nahi dutenentzat, adibidez Donapeleuko bestetan. Euskal Haziak gurasoen elkarteak urtero herri kirolen topaketak antolatzen ditu eskola giristinoen ikasleentzat Gaia elkartearen laguntzarekin.

Pilota

Nortasuna 2005 inkestaren arabera pilota da 16-29 urtekoek praktikatzen duten bigarren kirola, ibilaldien ondotik, baina txirrindularitza, igeriketa, gimnastika edo kirol kolektiboak baino lehen. Alabaina pilota da kirol guziz euskalduna edo bederen izan zena. Xiba elkarteak urtero Pilota Topaketak antolatzen ditu ikastoletako ikasleentzat eta Euskal Haziak gurasoen elkarteak ere pilota topaketak “osoki euskaraz” antolatzen ditu, Ikaspilota elkartearekin, eskola giristinoen ikasleentzat. Baina ikastetxeetarik kanpo euskara guti entzuten da, pilota eskoletan edo partidetan.

Komunikabideek pilota partidak hedatzen dituzte, alde batetik Euskal Irratiek, eta ETBik zuzenean, eta bestetik bestalde Kanaldudek, TVPI herri telebistaren bidez emanaldi gibelatuetan. Baina harrigarri da nola Euskal Herriko Pilota Ligak edo Frantziako Euskal Pilota Federazioak ez duten euskararen presentzia gehiago garatzen, partidetan, pilota eskoletan eta klubetan, beren komunikazio euskarrietan. Lehengo denboran euskara pilotaren hizkuntza zen, hizkuntza bakarra eta orain arras guti.

Talde-kirolak eta kirol-afizioa

Zein da Aviron Bayonnais klubeko errubi talde profesionalak eta EEPk izenpetu zuten hitzarmenaren ondorioa? Euskarak leku ttipia du partidetako aurkezpenetan; liburuxka ofizialean egutegia, izenburu batzuk, elkarrizketak euskaraz ere emanak dira; partida hasi baino lehen, euskal kantari batek kanta dezake; parditen adierazpena euskal irratietan egiten da. Jokalarien artean bat edo bi euskaldun izan daiteke eta irratietan mintzatzen dira partidetarik landa. Lehen urrats bat da.

Halere bada asko egiteko oraino, ikusiz zer arrakasta duen errubiak (Aviron Bayonnais eta Biarritz Olympe talde profesionalak, Donibane Lohizuneko eta Mauleko taldeak, etab.), bai eta ere neurri ttipiako batean futbolarak eta eskubaloiak.

Euskarazko emankizunen aldetik, euskal irratiek errubi partida batzuk zuzenean ematen dituzte, futbol eta eskubaloi lehiaketa zenbait ere.

Eragileak

Eragileak hezkuntza alorrean dihardute gehienik: Euskal Haziak (kirol-topaketak), Gaia elkarteak, Ikaspilota elkarteak, Lema elkarteak (belaontzia), Seaska (*Glisseguna*, kirol topaketak), Xiba elkarteak (herri kirolak, pilota), Ikas-Xiberoa (pista jokoak, herri kirolak).

ZIRKUA

Zirkuak eta karrikako arteek gero eta arrakasta gehiago dute eta gazteentzat biziki erakargarriak dira. Euskarazko eskaintza ahula da baina hasiera zerbait bada.

Eragileak, formakuntza eta ikusgarriak

Formakuntzan Oreka taldea (Cie Akrod’Cirque) da eragile nagusia, 1998an Baionan sortu zena, (www.orekazirkoa.free.fr). Tailerrak antolatzen ditu frantsesez eta euskaraz gazteentzat ere; 2010ean hiru kurtsotan 30 bat haur, gazte edo jende heldu euskaldun baziren. 2010an EEPren diru-laguntza askoz emendatu zen 1.000€tik 8.500€ra iraganez.

Kilikolo Zirko konpainia ikastoletan animazio eta formakuntzak ematen ditu. 2003an sortu zen eta Luhusoko Harri Xuri gelan dago. Bere ikusgarri guzietan begi-keinu bat ematen dio euskal kulturari. Azken sorkuntzak dira *Bi* 2009an, *Motx* 2011an.

Karkaila Xiberoa taldeak jarduera batzuk proposatzen ditu Zuberoan.

ERAGILE PRIBATUEN EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Lema Sokoan, 2007 – 2010.	Bela eskola, ikas denboran eta oporretan. Heren bat euskaraz.	Urtean 300 ikasle, 100 zerbitzu.
Oreka Baionan, 2008 – 2010.	Zirku eta klun tailerrak 64 orenez, familiak hartuz beren haurrekin.	Urtean 55 gazte, 12 jende heldu.
Seaska, 2007 - 2010	Glisseguna: surf, roller, beach rugby... Herri Urrats	Kirol topaketak. Familien eguna.
Pil Pil, 2009.	Itsas kirolak. DVD sukaldaritzaz.	
Arteka, 2010	Ur eta mendi kirolak. Abere eta landare behaketak.	Ohizko langile bat, 6 langile udan.

Ikus gorago eragile hauen ezaugarriak.

IKASTETXEETAKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Etxepare lizeoa, 2008.	5 lizeoren arteko joko olimpikoak: 4 Hegoaldeko ikastetxeekin.	40 neska/mutil, 10 irakasle.
34 ikastetxe, 2009, 2010	Herri kirola lehiaketak. Topaketak urte amaieran.	476 jokolari, 7 astez.
15 ikastetxe, 2009, 2010	Pilota osoki euskaraz. Topaketak urte amaieran.	296 ikasle, 7 astez. Ikaspilota elkarte.
Erdozaintzi Kolegioa, 2009.	Kirol jarduera eta trukaketak. Amaieur Alfaro itsaso proiektua.	80 ikasle, Xiba. 91 ikasle, Surfrider.
5 eskola, 2010	Zirku ariketak elkarrekin. ahozko adierazpena.	244 ikasle, Kilikolo, Oreka, Lagunarte elkarteak...

Kirolek arrakasta handia dute ikastetxeetan. Ikasturtean zehar lehiaketak egiten dira euskaraz edozein kiroletan eta urte amaieran topaketa orokorrak.

2008an, joko olimpikoak eraman dira 5 lizeoren artean, Baionako Etxepare lizeoa Hegoaldeko beste 4 lizeorekin. Ikastetxe bakoitzetik 20 neska-mutil jokatu dira, 4 edo 5 jende heldurekin.

2009an, herri kirolen inguruan bi egitasmo nagusi antolatu dira. Kanboko Errobi kolegioak topaketak eta lehiaketak antolatu ditu inguruko ikastetxeetako ikasle elebidunen artean, seigarren klasekoak eta 3. ziklokoak. Orotara 142 ikasle beren II irakasleekin, euskal kiroletaz arduratzen den Xiba elkartearen laguntzarekin. Bestalde, izpiritu berdinean, Euskal Hazia elkartearen ekimenez, 13 eskola giristinok herri kirol lehiaketak antolatu dituzte elkarren artean 7 astez eta topaketa orokor bat egin urte bukaeran: 334 kirolari beren irakasleekin Gaia elkarte laguntzaile. 2010ean, 12 eskola giristinok jarduera berdina antolatu zuten 339 ikaslerekin. Urte berean, Donibane Lohizuneko Ikuskaritzak herri kirola lehiaketa egitasmo bat antolatu zuen eskola publikoetan.

2009an, "Pilota osoki euskaraz" egitasmoa eraman zuten 8 ikastetxek Ikaspilota elkartearen laguntzarekin: lehiaketak 7 astez eta topaketak bururatzean 296 ikasleentzat. 2010ean egitasmo bera antolatu zuten 7 ikastetxek, 110 ikaslek parte hartuz.

Manex Erdozaintzi Etxart Larzabaleko kolegioan kirol jarduera ezberdinak eraman dituzte. Alde batetik Xiba elkartearen laguntzarekin, 80 ikaslek beren 2 irakasleekin MEE kirol elkarte muntatu dute, errugbia

lehiaketak antolatu eta VTT ibiladi bat egin Bardeetan. Bestalde seigarren kurtsoetik hirugarrena arteko 91 ikaslek Itsasoa proiektua antolatu dute Amaiur Alfaro bezalako eta Sufrider Fundazioko itsas-gizonei jarraitzeko urtean zehar eta ikusgarri bat sortzeko.

2010ean, zirku ekitaldiek arrakasta harrigarria ukan zuten, bereziki ahozko adierazpena bultzatzeko. Sei egitasmo gauzatu ziren 4 ikastolatan eta eskola batean. 244 ikaslek parte hartu zuten elkarte ezberdinen laguntzarekin: Kilikolo Zirko, Lagunarte eta Oreka konpainia.

PROPOSAMENAK

Kirolak gero eta toki handiagoa duelarik gizarte-bizitzan, euskaldun kirolari ospetsuak nortasun erreferente bilakatzen dira gazteentzat. EEPren bidez erakunde publikoek eta elkarteek euskararen erabilera susta lezaketek, bereziki kirola arrakastatsuenetan.

Erran bezala kirolak leku gero eta handiago dauka oraingo gizartean, aisialdi gisa, jarduera hezitzaile gisa, kontsumo-ekoizpen gisa, bai eta ere osagarri onean egoteko. Gazteengan ere kirolaren garrantzia handitu da. Euskal musikak egin dezakeen bezala, kirolaren munduak gazteei erreferente diren modeloak eskain diezaieke. Euskal kirolak erreferenteak sortu beharko lituzke haien bidez ere gazteek beren identitate soziala euskaraz eraik dezaten. Pilotak, errubiak, surfak, belaontzi lehiaketak besteak beste rol hau bete lezaketek Ipar Euskal Herrian. Adibidez, Amaiur Alfaro bezalako itsasgizonak, errubilarri eta pilotari batzuk ezagunak dira; beren euskararen aldeko engaiamendua argitan emateko litzateke.

Gauza guti egin dira ikastetxeetarik kanpo euskara baliatzeko kirola praktiketan eta hezkuntzan. Bereziki Euskal Herrian praktikatzen diren kirolak euskaldundu behar dira: pilota, errubia, surfa, belaontzia, mendizaletasuna, eskalada bai eta ere kirolari hurbil diren jarduerak: ibilaldia, kanpaldia. Pilota izan liteke lehen egitasmoetan. Eragileak zein izan litezke? EEP, Euskal Herriko Pilota Liga edo Euskal Pilotaren Frantses Federazioa.

Orain arte euskararen lekua eremu honetan ttipia da, herri kirolean ere. Hor euskararen Erakunde Publikoaren eta tokiko kolektibitateen engaiamendua beharrezkoa da. Batetik, egitura publiko hauek kirol-taldeak diruz laguntzen dituzte, azpiegiturak eskaintzen dizkiete, langile berezituak ere noiztenka. Bestetik, argi da orai kirola euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren lan-eremu bat izan behar dela. Estrategikoa bilakatu da euskararen geroarentzat.

Ondorioz kolektibitate publikoen euskararen aldeko eskakizunak handitu beharko dira. Kirol arrakastatsuenetan has daiteke, errubian eta pilotan adibidez, partaidetzak, hitzarmenak sortuz Euskararen Erakunde Publikoarekin. EEPk Aviron Bayonnais errubi taldearekin izenpetu zuen hitzarmena lehen urrustzat

hartu behar da. EEPk laguntza teknikoa eta finantza-sostengua kirol-elkartei ekarriko lizkieke. Alabaina aisialdian diharduten profesionali, kirolan ala kulturean, behar dituzten gaitasunak eta baliabideak eskaintzea Hizkuntza Politika proiekturen norabide bat da. Jatorrizko formakuntza denboran euskaraz lan egin gogo duten ikasle euskara ikasteko edo hobetzeko aukera emanen zeie, bai eta ere lanerako lagungarri diren baliabideak: “tresna pedagogikoak, hiztegi berezituak, jokoak” (*Hizkuntza Politika 2006*: 51. or.).



Glisseguna 2010eko afixa



Gazte bat joko garbian
(Frantses federazioa: www.ffpelotebasque.com)

4.8. FESTIBALAK ETA BESTAK

TESTUINGURUA

Bestetan eta festibaletan gazteak trumilka dabilta. Gune horietan jarduera libreagoa atzematen dute, jende helduen peko dependentziaz kanpo. Esperientzia propioak beren adinekoekin egiten dituzte, beren gazte-taldearen barnean, molde autonomoan. Gozatzeko eta libertitzeko jarduerak eramaten dituzte lagunartean, musika entzuten, alkoola edaten, batzutan drogak hartzen, adiskide berriak egiten, lehen amodio esperientziak ere. Hots, bestetan printzipioz gune libreagoak direnez gero, lagunekin beren identitate pertsonala eta kolektiboa eraikitzeko eta garatzeko aukera badute, aisialdi antolatu eta heziztaileetan baino gehiago (Martínez García Zesar, 2000: 71. or.).

Euskararen ikuspegitik, euskalgintzako eragileen estrategia da, dauden festibal eta bestetan ahal bezainbat euskal ekintza programetan sartzea. Honek ez du diru gehiago eskatzen baina erabaki guneetan egotea. Eredugarria da Euskal Herria Zuzenean festibalean edo Baionako bestetan egiten dena, bai eta ere beste hiri eta herri batzuetan. Etorkizunean, kezka nagusia izanen da besta eta festibal horietan zein den euskararen lekua.

Azalduko ditugun ekitaldiak ezberdinak dira, baina denetan euskarak lekua badu, neurri handi edo ttipi batean. Dena dela, festibalak eta bestak gazteen gustukoak dira, zuzenki edo zeharka. Sailkapen zehatz bat egitea zaila da eta ez ditugu denak aipatuko. Batzuk euskal kulturari edo euskarari lotuak dira, besteak ez. Batzuk arte bakar bati emanak dira, antzerki festibalak edo musika festibalak adibidez. Bestek arte ezberdinak nahasten dituzte, hala nola ihauterien tradizioari lotua den *Libertimendua*. Bi ekitaldi bereiz genitzake. Euskararen alde lan egiten duten elkarteak sustengatzeko antolatutako dira, gazteen parte-hartze handiarekin: Seaskak antolatzen duen Herri Urrats eta AEKren aldeko Korrika.

EUSKARAREN ALDEKO EKITALDIAK

Herri Urrats (Senperen, Seaska elkarte antolatzaile)

Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzen dituen elkarte da. Herri Urrats urtero ikastolen aldeko besta da; 2011an 28. edizioa zen. Publiko ezberdina biltzen da, euskatzaleak, familiak, gazte-taldeak. Programazioak eta giroak gazte ainitz etorrazten dituzte, musika kontzertuek bereziki, rock edo beste oraingo musika kontzertuek. Ageri da bestaren helburuetan gazteak direla. Bestan euskal artistek lekua badute, leku nagusia hain zuzen. Euskara da bestaren hizkuntza.

Korrika (Euskal Herri osoan, AEK elkarteak antolatzaile)

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak euskarazko gau-eskolak eta ikastaldiak besteak beste helduei ezkaintzen dizkie Euskal Herri osoan. Euskal Herrian zehar bi urtetarik egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da Korrika. 2011an 17. edizioa zen, Trebiñutik Donostiara. Ikitaldiak publiko guztiak, euskaldunak ala erdaldunak, hunki nahi baldin baditu ere oroz gainetik gazteengan arrakasta handia dauka. Giroa atsegingarria da, ez baita kirol-lehiaketa bat. Korrika aitzineko hiru hilabeteetan Korrika Kulturak antolatzen da. Antzerki, musika, zinema, kirol eta joko ikitaldiak eskaintzen dira Euskal Herri guzian. Korrikako musika eta bideoklipa bereziak grabatzen dira.

KULTURA ETA ARTE FESTIBALAK

Errobiko festibala (Itsasun, Ezkandrai elkarteak antolatzaile, Beñat Axiari zuzendari)

15. edizioaren lema zen “*Pesta eta obidurak, kantua biziaren iturri*” (2010-07-22-25). Kantua, dantza (flamenco, tango), musika (jazza, La Réunion uhar-teko maloya) eskaintzen zituen. «Afrique Euskal Herri Iturrien bideetan» zen 2011ko lema. Halere euskarak eta euskal kulturak ez dute lehentasunik festibal honetan.

Euskal Herria Zuzenean festibala (Heletan, 16. edizioa 2011an)

Hau da hain segur gazteentzat festibal arrakastatsua, gazte-talde batek antolatua, 600 gogo onezko laguntzaile, gazteentzako programazio batekin nagusiki. 2010ko edizioan arazo batzuegatik 16.400 sartzeko egin ziren; lehen gaualdia ezabatu zen ekaitzarengatik. Maizenik 20.000 edo 30.000 bat sartzeko badira. 2011an kasik 20.000 izan ziren eta 700 laguntzaile bolondres.

Jarduera batzuk eramaten dituzte euskararen alde. Egitarau plaketa elebiduna da. Hiztegi ttipi bat dauka festibalean euskararen erabilera bultzatzeko. Seinaletika osoa elebiduna da, iragarkiak euskaraz ere egiten dira eta noski programazio artistikoan euskal artistek beren lekua badute urtero. 2011ko ediziorako Lagunarte konpainiari sorkuntza bat galdatu diote antolatzailerik, dantza, antzerkia, kantua, musika, etab. nahasiko dituen. «*Hemengo gazteak, kontsumitzaile hutsak izateko ordez, beste gisa batez integratzeko aukera ematen du horrek. Aktibo bilakaraztekoa (...)* Baina gero, ikusgarria beste leku batzuetara joan daiteke» (Berria, 2011/01/07).

Orain EEPk festibala laguntzen du, batez beste 6.000 €ko dirutzarekin, euskararen erabilera bultzatzeko.

Hartzaro festibala (Uztaritzen, Herri Soinu elkarte eta Errobiko Kaskarrotak antolatzaile). Hartzaro festibalak ihauterietako tradizioa biziartzen du (Zanpantzarren auzia) euskal sorkuntza batzuk eskainiz, ihauteriez gain. 2010ean adibidez bat-bateko bertsolaritza, musika, dantza eta argazkigintza baziren. 2011an 15. edizioa izan da. Parte-hartzaileak anitz dira, hauetan eskoletako eta kolegioko ikasleak.

Musikaren egüna (Urdiñarben, Bil xokoa elkartearenganik)

Zuberoako musika festibal honek hizkuntza eta herri gutxituei leku berezi bat ematen die eztabaiden bidez. 2011an 22. edizioa izan zen.

Xarnegu egüna (Bardozen, Foyer des jeunes antolatzailea)

2011an 7. edizioa izan zen. Gazteentzako euskal musikak bere lekua badu.

Xiru festibala (Gotainen, Abotia elkarte antolatzaile).

Beste musika eta sorkuntza jaialdi bat da Zuberoan. Helburuetarik bat euskal kulturaren eta beste tokietako kulturekin eta arteekin harremanen sortzea da. 2011an 22. edizioa izan zen.

EUSKAL ASTE KULTURALAK ETA EUSKARAREN BESTAK

Ondoko festibalek, ekitaldiek euskarari eta euskal kulturari lehentasuna ematen diete edo bederen leku handia.

Baigorri: *Baigorriko Kultur Astea* (Basaiea elkartearenganik) Nafarroaren Eguna ospatuz bururaten da. Nafarroaren eguna 1978an iragan zen lehen aldikoz eta urte guziz, apirilko azken igandean ospatzen da Baigorri. Egunaldi hau zinez arrakastatsua da denentzat, gazteengan ere bai.

Bidarten: *Euskal kultur bide arteak*. 2011an 5. edizioa izan zen. Bidarteko Herriko Etxeak antolatzen du Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin.

Donibane Lohizunen: *Euskal kultura argitan (Culture basque à l'affiche)*. Donibane Lohizuneko Herriko Etxeak antolatua Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin.

Donapaleun: *Euskararen Eguna* 2010ko maiatzaren 22an ospatu zen lehen aldikoz, Baxe Nafarroa sindikata mistoaren ekimenez.

Hazpainen: *Kultur astea*. Eihartzea kultur etxeak antolatzen du, bi urtetarik. 2010ean, *Hemengo eta bango kulturak*, 8. edizioa zen. Arte mota askotako programazioa.

Hendaian: *Hendaia euskaraz* hilabetea, Hendaia Euskara zerbitzuak antolatutik herriko elkarteekin batera. 2. edizioa 2011ko martxoan.

Kanbon: *Euskal Kultur Astea*. Herriko Etxeko euskara taldeak antolatutik. 2010ean I. edizioa zen.

Maule-Lexarren: *Euskararen egüna*. Xiberoan Euskaraz Bai elkarteak eta Zuberoko euskal elkarteek antolatutik. Lehen edizioa 2011ko ekainaren 25ean izan da.

Miarritzen: *Bi harriz lau xori* kultur astea, “Biarritz Culture” elkarteak antolatzen du urtero Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin. Euskal dantzak, antzerkiak edota musikak badute beren tokia.

BESTA HERRIKOIAK, HERRIKO BESTAK

Herriko bestek ere libertzeko paradak eskaintzen dizkiete gazteei. Proposamenak libre dira eta maiz dohainik, salbu edarien, alkoholaren eta beste drogen kontsumoa. Gazteengan arrakasta handia dute bestek, lagunekin gurasoen mundutik ateratzeko eta askatasuna gozatzeko aukerak baitira. Dantza-tzeko, musika entzuteko, moda eta kontsumo berrien ezagutzeko eta probatzeko ere bai. Denborarekin herriko bestek beren euskalduntasuna maiz galdu zuten; baina azken urte hauetan ahaleginak egiten dira euskara, euskal kultura eta nortasuna berriz sartzeko. Eskaintza zabalagoa eta erakargarriagoa bilakatzen ari da.

Aisialdi mota honi asteburuetakoa ostaturik ostatu ibiltzea lot genezake. Baionako San Andres auzoa famatua da Ipar Euskal Herri osoan. Gazteenak, ostatu zonaldeetan biltzen dira ere alkohola edateko besteak beste, ostatuetan edatea kario izan daitekeelako.

Baionako bestak

Besta hauek dira aipatuena, Ipar Euskal Herriko handienak baitira. Emeki emeki euskarak eta euskal kulturak beren lekua zabaltzen dute, euskal uharte bat sortuz ozeano erdaldun handi honetan: milioi bat jende datoz, kanpotar anitz. Urtero, Euskal Kultur Erakundeak proposaturik, bertsolari batek Baionako besteei hasiera ematen die. Egunero Jacques-Portes plazan, 16:30tik 23 oron arte, *Karrikaldi* ekitaldia antolatzen da, Ibaialde, Leinua eta Baionan Kantuz elkarteak animatzaile: euskal dantzak, kantuak, bertsoak... Euskal musika eta kantuak karriketari hantzen hantzen entzuten dira, programazioan sartuak direlako.

Lapurtarren Biltzarra Uztaritzen

2010ean 31. edizioa iragan zen. Egitaraua euskarari eta euskal kulturari osoki lotua zitzaien: karro ibilaldia, bertsolariak, bazkaria, Kukuxtu txaranga, « Goazen » dantza ikusgarria, eta Mister Saguak, Piarres, Mikel Hats musika taldeak.

Sagardo eguna Baionan (Hiruki elkartearengatik, Baionako gau eskola, ikas-tolak eta Gure Irratia barne. 12. edizioa 2010eko maitzaren 22an iragan zen. Sagardoa dasta daiteke “*giro euskaldun batean*”; kantaldiak, dantzaldiak (mutxi-koak...) badira. 2011an ez da izan.

FESTIBALEN ETA BESTEN EREMUKO EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
E. H. Zuzenean, 2007 – 2010.	3 eguneko festibala. Lema: "euskara ikas eta erabil"	Urtero 20.000 edo 30.000 sartzet.
Euskaldun Gazteria, 2008, 2009.	Formakuntza, animazioa, BAFA, bestak, antzerkia...	Urtero 110 ikusle, 220 bestalier.

Euskal Herria Zuzenean festibalaren garrantzia ikusi dugu. EEPren laguntzaren helburua da festibal erraldoi honek euskara baloratzeko egiten dituen ekintzak bultzatzea.

Euskaldun Gazteria gazteen arteko elkarte bat da, formakuntza duena helburu nagusizat, bereziki BAFA deritzon udako egonaldiari eta haurren harerari buruzko diplomaren prestaketa. Hemen aipatzen dugu bestetako animazio batzuk antolatzen baititu, antzerkiak besteak beste.

EEPk 2010ean lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Larzabal kolegioa	"Karrik'art" animazioa, zirkua, dantza eta beste arteak karriketari erabiliz."	Kili Kolo, dantza modernoa, Afrikako dantzak.
4 ikastetxe	Maskaradak, inauteriak parte hartzaile edo ikusle bezala.	182 ikasle. Herri Soinu elkarte.

Ikastetxe guzietan beren bestak antolatzen dituzte, bertan edo elkarren artean. Gertatzen da ere eskolaz kanpoko bestetan parte hartzen dutela. Adibi-

dez, 2010ean, Ziburuko Piarres Larzabal kolegioak *Karrik'art* euskarazko animazio asmatu zuten arte ezberdinak karrikara ateratzeko: zirkua, hemengo eta Afrikako dantzak...

Urte berean beste lau ikastetxek besta herrikoietan parte hartu zuten: Ursaia Hazparneko kolegioa eta Uztaritzeko ikastola Herri Soinuren inauterietan; Arbonako hiru eskolek inauteriak antolatzen dituzte IDBren laguntzarekin; Argia kolegiokoak Zuberoko maskarada eta inauterietan ibili ziren.

GOMENDIOA

Festibalak eta bestak laguntzen dituzte tokiko agintek. Botere publikoak euskararen alde agertzen denezkero, antolatzaileak engaiatuko dira euskaren presentzia handitzeko EKE eta EEPren bitartez.

Kirolaren alorrean bezala, proposamen zehatz baten ordez gomendio orokor bat egin genezake. Festibalak eta bestak tokiko kolektibitateek diruz laguntzen dituzte. Herriko besteetako gastuak herriko etxeen gain dira, programazioaren finantzaketa, azpiegiturak, udaleko langileen parte-hartzea garbiketara eta zainketara. Beraz normala litzateke euskararen eta euskal kulturaren presentzia segurtara eta emenda dezaten neurri egokiak hartuz.

Festibalen kasuan diru-laguntza iturriak ezberdinarazkoak dira. Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, Departamenduak, Euskal Kultur Erakundeak laguntzen dituzte. Ikusiz gero eta gehiago kolektibitate eta erakunde hauek euskararen alde agertzen direla eta botere publikoak Euskararen Erakunde Publikoaren partaidea direla, beharko lukete argiki euskararen aldeko norabidea hartu. Ere honetan ere Euskararen Erakunde Publikoaren eta tokiko kolektibitateen engaiamendua beharrezkoa da. Egiten dena hobetzeko dela ageri da.



Nafarroaren eguna 2010
(www.eke.org)



Baigorriko Kultur astea 2010
(Basaizea elkarte)

4.9. ZINEMA

3. atalean ikusi dugu gazteentzat eta jende helduentzat zinema dela kultura jarduera nagusia, zinegeletan, telesaiotan, Interneten eta DVDen bidez. Zorigaitzez eremu hau da ahulenetako bat, euskarazko filma eskasez eta hedapena ez delakotz antolatua, Ipar Euskal Herrian bereziki. Lehen oztopoa finantzaketa da segur aski, zinema arteetarik karioena delako. Aldiz, ez da argazkigintzaren kasua.

ERAGILEAK

Ipar Euskal Herrian ekoizle bakarra da Aldudarrak Bideo (Kanaldude elkarte), bideo eta film laburrak sortzen dituen, bi hedatzaile direlarik Garaizikus kultur elkarte eta TVPI telebista-katea. Ikastetxeetan ere jarduera batzuk gauzatzen dira, Uda leku elkartearen eskutik.

EUSKARAZKO ZINEMA ETA HEZKUNTZA

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Biarritzeko Itsas Argi ikastola, 2008.	Euskal zinemaren ikuskera Uda Lekun	Ikastola osoa: 106 ikusle
Biarritzeko Fal kolegioa, 2009, 2010	Animazio film labur baten sorkuntza bere musikarekin. Atabala elkarte.	25 ikasle. 5 laguntzaile.
3 eskola, 2010	Bideo tresnen ezagutza. Film laburraren ekoizpena. Tele-saioa Arte Eskolarekin.	47 ikasle. Aldudarrak bideo.
Uda Leku, 2008 - 2010.	Zinema hamabostaldia urtero, eskoletako haurrentzat.	2.697 ikusle 2010ean.

Uda leku elkarteak *Zine hamabostaldia* hiru eskola sareetako haurrentzat urte oroz antolatzen du (eskola publikoak, katolikoak eta itastolak). Adibidez 4 urtetik II urterako 2.697 haurrek baliatu zuten 2010an.

2009an Biarritzeko Fal kolegioko ikasle elebidunek euskarazko animazio film bat sortu zuten bere musikarekin, *Atabala* elkartearen laguntzarekin. 10 ikaslek parte hartu zuten. 2010ean 15 ikaslek beste film labur bat asmatu zuten eta aurkeztu Royal zinegelan.

Bestalde, 2010ean ere, hiru eskolak zinemari buruzko ikastaroak egin zituzten, Zuraiden bideo tresnak erabiliz, Donaixtiko ikastetxean euskarazko

film labur bat sortuz Aldudarrak bideo elkarteko profesionalekin eta Urda-zuri eskolan tele-saio bat antolatuz Arte Eskolaren laguntzarekin.

EUSKARAZKO FILMEN ALDEKO ANIMAZIOAK ETA HEDAPENA

Kanaldude elkarteak festibal berri bat antolatu du Arrosan, *Festirudi* jaialdia, lehen aldikoz 2010ko urriaren batean eta bian. Ekitaldi honetan, hitzaldiak proposatu zituen “Euskarazko telebista gaur egun” gaiaz eta Aldudarrak Bideo elkarteak lehen bideo lehiaketako sariak banatu. *Kliklap* bideo lehiaketa berri honek bost minutuko film laburren ekoizpena bultzatu nahi du.

2007an Korrikaren kari, «*Kutsidazu bidea*, *Isabel* filma frantsesezko azpitu-luuekin Ipar Euskal Herriko 6 zinema-gela ezberdinetan eman zen. EKEk lagundurik, 9 emanalditan 1.000 ikusle baino gehiagok ikusi zuten (*EKE, Ekintzen bilduma*: 38. or.). Bestalde Baionako Atalante gelak euskal zinemari buruzko animazioak eskaintzen ditu. Adibidez, 2008an euskarazko 7 film laburren gaualdia egin zen, 2009an *Salda badago* euskarazko dokumentala (2001) proposatu zuen. Bere aldetik EITB komunikazio taldeak 30 film euskaraz ikusteko aukera dohainik eman zuen bere webgunean 2010eko abenduaren 15etik 2011. urte osoan (www.eitb.com/kultura/zinema-euskaraz). Hauetarik batzuk ez ziren ordu arte aurkeztu Ipar Euskal Herrian ez eta ere telebistan.

Ipar Euskal Herrian zinema gela sare on bat badago, bereziki kostaldean bai eta ere barnealdean. Kostaldean gela askotako 3 zinema-etxe badira Baionan, Angelun eta Tarnosen. 9 hiritan zinemagelak asteroko programa badute Donapaleun, Donibane-Garazin, Hendaian, Maulen etab. Beste 3 edo 4 udaletan aretoek noizean behin filmak erakusten dituzte. Film banaketa komertzialetaz gain, lurralde barnealdean hiru banatzaile badira, eta hauetarik bat haur eta gazte zineman berezitua da. Ezin dugu euskarazko sare bat sortu. Aterabidea da daukagun sarea erabiltzea euskarazko fimak programatzeko hedatzaileen laguntzarekin «(...) ikus-entzule euskadunengana burbiltzeko euren etxetik gertu dauden aretoetan... ahalegin handiena egin behar dugu gero eta produktu hobeak eta lehiakorragoak egiteko... Elkarlana ezinbestekoa da, datozen urteetan euskaraz filmatutako ekoizpenak izan ditzagun zinema aretoetan... Adierazpen artistikoa eta sortzaile gisa, zinema ezinbestekoa da herri bateko nortasuna eraikitzeko, horri eusteko eta helarazteko» (Joxe Portala, *Berria*, 2010-09-22).

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Garazikus, 2008 – 2010.	Zinema ikusgarriak, 2 antzerki tailer.	200 ikasle, 110 oren.
ZTK Baigorri, 2010.	J.-P. Grasset 10 urte. Filmak: Bat-bi, Hatsa,	Elkartek: Ama, Ravel, Zazpiak Bat.

EUSKARAZKO FILMAK

Euskarazko film ekoizpena urria da. Film luzeak, oro har 10 bat lirateke: *Aupa Etxebeste!* (2005), *Kutsidazu bidea Ixabel* (2006), *Eutsi!* (2007), *Ander* (2009), *Izarren argia* (2010). *Ander* filmak Berlineko nazioarteko festibalean CICAÉ saria eskuratu zuen 2010ean. Aipa dezagun ere « *Zigortzaileak* » (2010), euskal zinemagintzan lehen aldikoz 9 haurreko taldea aktore nagusia zelarik. Film hau publiko gaztearentzat egina zen. 2011an *Arriya* aurkeztua izan da. “*Iparraldeko ikusle goak zailago izango du borrelako aretoetan ikustea -aitortu zuen Jose Maria Lara ekoizleak- oso estatu zentralizatua baita Frantzia*» (*Deia. Noticias de Bizkaia*, 2011-01-04).

Gainera, euskarazko film laburrak, animazio-filmak, bideoak et dokumentalak ekoizten dira, *Nomadak TX* 2006an adibidez. 2001etik 2010era, 23 euskarazko film kontatu dira dokumentalak eta marrazki bizidunak barne.

Iparraldean aipa dezagun 2007ko *Basque Underground Report* (BURP) bideo sorkuntza, MyJok World SLeK eginik. 21 minutako dokumental hau Euskararen Erakunde Publikoaren «*Batekmila Euskal munduak*» erakusketan sartua da. «*Iparraldeko bost pertsonai edota talde hautatu dituzte haien berezitasun, sorkuntzen eta usaien kanpoko ekintzentzat. Modu borren bidez, euskal gazteriaren beste ikuspundu bat eskaintzen dute, klixetarik urrun*», (www.euskalmunduak.com).

PROPOSAMENA

Euskarazko filmak Ipar Euskal Herrian hedatzeko banaketa egitura bat antolatuko da, bitzarmen bat sinatuz oraingo banatzaileen, udalerrien eta EEPren artean eta dagon zinemagela sareaz baliatuz.

Euskarazko zinemaren erronketarik bat da film-ekoizpena, bestea ikusleak biltzea. Garapen Kontseiluak manatu ikerketaren arabera Ipar Euskal Herrian, “*badago dudarik gabe zinegela sare on bat : lurralde osoa estaltzen du, kalitate oneko tresneriarekin, film pertsonalak eta komertzialak ongi orekatuz*” (*Kultura 2007: 15.or.*). Zinemagela sarea baliatu behar dugu euskarazko filmak programetan sartzeko. Hau litzateke proposamena, euskarazko filmak hedatzeko Ipar Euskal

Herrian film banaketa egitura bat sortzea, udaltxe eta EEPrekin. Banatzaileak zinemageletan ohiko frantsesekoez gain euskarazko filmen hedapenari buruz engaiatuko lirateke.



Kutsidazu bidea Ixabel filmaren afixa
(www.eitb.com/kultura/zinema-euskaraz)



Aupa Etxebeste! filmaren afixa
(www.eitb.com/kultura/zinema-euskaraz)

4.10. ONDAREA

Adiera orokorrean ondarea da historian zehar komunitate batek metatzen dituen ondasun material eta immaterialak. Monumentuetarik at, praktika sozialak, ahozko ondarea (erran-zaharrak, ipuinak, bertsoak, kantuak...), ekoizpen artistikoak, teknikak, ezagutzak, etab. ondarean sartzen dira. Beraz kantua edo dantza adibidez, ondarearen ikuspegitik har daitezke. Ohiko kantuak eta dantzak izanen dira.

ONDAREARI BURUZKO BI EGITURA NAGUSI

Ipar Euskal Herrian bi egitura ondarea baloratzeko antolatuak dira, Irisarriko ospitalea eta Abbadiako jauregia Hendaiain.

Irisarriko Ospitalea

Irisarriko Ospitalea XII. mendeko gotorleku bat zen, Santiagoko Bidean eraikia beilarien zerbitzurako. Maltako Ospitale Ordenaren esku zen mendetan zehar. Fraide-soldadoek ostatua eskaintzen zuten bai eta Konpostelako beilariak zaintzen Baionatik Garazirako bidean eta Nafarroako mugetan. Ospitalearen inguruan eraiki ziren etxaldeen Irisarriko herri autonomoa osatu zuten XVI. mendean. Gaur egun 800 biztanleko udalerrria da. 1980an Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak Ospitalea erosi zuen eta 2001ean Ondareari buruzko hezkuntza zentroa antolatu, mediateka, erakusketa, ikasgela eta ostatuarekin. Gaur egun ikastetxeetako ikasleek hiru eguneko egonaldiak eta ibilaldiak egiten dituzte. Ikasgaiak dira Santiagoko Bidea, euskal etxea, pilota, Irisarriko herria, Nafarroako historia. Uztailean Udako Antropologia Unibertsitatea antolatzen da publiko zabalarentzat.

Abbadiako jauregia

Beste erakusgune garrantzitsua Hendaiako Abbadiako jauregia da. XIX. mende erditsuan Eugène Violet Le Duc arkitekto famatuak eraiki zuen neogotiko estiloan, Afrika ekialdeko apaindurekin eta astronomia-behatoki batekin. Alabaina jabea, Abbadiako Antonio (1810-1897), geografia jakitun handi bat zen, besteak beste, Etiopian gaindi ibili zena bai eta ere astronomian aditua. Euskal Jaiak eta Lore Jokoak antolatzen zituen euskal kutura bizkortzeko. Jauregia, bera zuzendari zen Pariseko Zientzien Akademiari utzi zion. Gaur egun etxaldea, Hendaiako udalak kudeatzen du eta publiko zabalari irekia da. Abbadiako Adiskideen elkarteak animazio batzuk antolatzen dituzte: bisitak, kontzertuak, ikerlarien egonaldiak, itsas bazterreko ibilaldiak.

Eskoletako klase asko etortzen dira, itsas bazterra aztertzeko, txori migratzaileak ikusteko, besteak beste. Ikus daiteke ere sagardoi eremu bat, Euskal Herriko fruta-arbola zaharrak biltzen eta biziartzten dituen.

Beste egitura batzuk ere aipatzekoak dira: Iparraldeko Artxiboak, erakustokiak bereziki Euskal Museoa Baionan eta Baxenabarreko erakustokia Donibane Garazin. EKEN sail berezi bat bada ondarearen biltzea eta baloratzea helburu duena, Euskal Ondare Batzorde Iraunkorra, goragoko egituretan parte hartzen duena Akitaniako Ederguneen batzordean eta Departamenduko Baliozko Gauzen Batzordean adibidez.

Aipa dezagun ere 1974tik geroz Lauburu elkarteak eramaten duen memoria-lan garrantzitsua. Gaur egun, « ehortz-arte, ikerketa etnografikoak eta jendarte garaikidearentzat ondareak izan dezakeen esanahiari buruzko gogoeta iraunkorra dira » bere lan-ardatz nagusiak (www.lauburu.fr/eu/activites.php).

ONDAREA ETA GAZTEEN AISIALDIA

Itxuraz ondarea iraganari lotua da, gazteak geroari begira daudelarik. Baina beste ikusmolde batean ondarea da herriaren oroimena. Bakoitzaren nortasuna eta nortasun kolektiboa eraikitzen dira historiari erreferentzia eginez. Arrazoi berarengatik egungo kultura sorkuntza ondareari lotua da, elkarrekin gozatzen dugun ontasuna belaunaldiz belaunaldi aberasten baita. Ondarearen bilketak eta balorazioak ezartzen gaitu kultura transmisioaren eta sorkuntzaren bidekurutzean.

EKEko Euskal Ondare Batzorde Iraunkorrak, adibidez, ahozko lekukotasunak biltzen ditu itsas ondareaz, Mauleko espartin industriaz eta Hazparneko zapatagintzaz. Xiberotar kantuak grabatuak dira eta ororen esku ezarriak datu base baten bidez. *Euskaldunen Argentina* erakusketak zerumuga irekitzen du emigrazioa eta diasporari buruz. Iraganeko bizimoldeak agertzen dira Bankako meategiak biziartziz eta gisulabeak eta latsarriak zaharberrituz.

Bestalde erakunde berak *Hogei'ta* egitaraua eskaintzen die gazteei, eta proiektu deialdi bat irekia da alde batetik euskal nortasunaz jabetzeko eta bestalde adierazpen kultural berriak sortzeko, hots ondarea eta sorkuntza elkarrekin uztartzeko.

ONDAREAREN EREMUKO EGITASMOAK

EEPk 3 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Abbadia adiskideak, 2008 - 2010.	Egitura euskalduntzen. Eskolen bisita eta aisialdia.	6 bisita programa. 7.000 iragarki.
8 ikastetxe: Irisarrin 2008, 2009.	Hiru egunez Irisarriko ospitalean. Gaiak: etxeak, musika, euskara.	7 talde, 182 ikasle. Orotara 22 egun.
9 ikastetxe: ikuska, 2008, 2009.	Erakustoki bisita: Abbadia, Mungia, Zugarramurdi, Baiona, Bilbo.	250 ikasle. 23 animatzaile.
4 ikastetxe: bertan, 2009.	Gogoeta gaiak: makila, Jakue beila, istorio, mitologia, kultura, antzerkia.	90 ikasle, beren irakasleekin.

Ondarearen balorazioak toki handia du ikastetxe batzuen proiektuetan: orotara 16 ekintza eraman dira 19 ikastetxetan.

Irisarriko Ospitalea da gehienik erabili den bilgunea. Gaur egun ikasle askok 2 edo 3 eguneko egonaldiak egiten dituzte erakustokiaz eta ondare tailerrez baliatzeko. 2008an eta 2009an 8 ikastetxek 182 ikasle igorri dituzte. Landu diren gaiak dira Euskal Herriko etxeak eta monumentuak, hizkuntza, musika, dantza, Jakue bidea...

Aipatu ikasturteetan, alde batetik Ziburuko Larzabal kolegioak Abbadia hautatu zuen klase bat euskaran murgiltzeko; bestalde Azkaine, Senpere eta Urruñako eskolak, bai eta ere Xantako kolegioa Abbadian ibili ziren, lehen eta bigarren maila elebidunen arteko lotura egiteko, orotara III ikaslek 2 bidaia egin zituzten.

Ikasleek bisitatu dituzten beste erakustokiak dira Mungiako eta Zugarramurdiko museoa sorginen mitologia ulertzeko, Baionako Euskal Museoa, Bilboko parke mitologikoa. Ikastetxe askotan, tokian berean lantzen dute gure ondare zaharra eta berriagoa. Adibidez "Tartaro, Mari eta Basajaun Errobi ikastolan" sartuz, makilaren historia Garaziko Zitadelan landuz, Mixel Garikoitz kolegioan Jakobe beilariei jarraikiz, Baionako Poloko ikastola euskal mitologian murgilduz. Ekintza guzti hauk euzkaraz eramaten dira, gure hizkuntza baita ondarerik aberatzena.

PROPOSAMENA

Gazteek ondarea balora lezakete EKE eta EEPren arteko lankidetzari esker : batak herriko aberastasunak biltzen ditu, besteak erakustokiak euskalduntzen dituelarik.

Ondarearen eremuan proposamen nagusia da EEP eta EKEren arteko lankidetzeta, euskara baita gure ondare baliosena. Euskal Kultur Erakundearen helburua da ondarea biltzea eta herritarren esku ezartzea. Euskararen erakunde publikoak laguntzak eta baliabideak bana ditzake ondare erakustokiak euskalduntzeko, profesionaleri behar dituzten gaitasunak eta tresnak hornitzeko. Ondarearen eta historiaren ezagutza motibagarri da euskal nortasunaz jabetzeko. Transmisio hau euskaraz egiten delarik nolazbait euskaltasun osoa da jarraikarazten belaunaldi gazteagoei buruz.



Abbadia jauregia
(www.anyresa.com/fr/ws_blob/file/2337)

4.II. AISIALDI ZIENTIFIKOA ETA INGURUMENA

ZIENTZIAK

Gaur egun mendebaldeko gizartean, zientzien eta teknologien lekua gero eta handiagoa da. Gizartearen garapen ekonomiko eta soziala zientzietan eta teknologietan oinarritzen da. Ondorioz zientziaren eta teknologiaren ezagutzaren, kultura zientifikoaren beharra handitzen ari da; zientzia eta teknologiari buruzko jakin-mina errealitate bat da. Ikertzaileen eta herritarren arteko harremanak, hots dibulgazioa, beharrezkoa agertzen da. Aisialdi zientifikoak ezagutza beharra bete dezake, partzialki bederen.

Bestalde gazteak molde orokorrean berrikuntza teknologikoen zaleak dira. Bada hor alor bat lantzeko, Ipar Euskal Herrian guti egin dena, gazteak, zientziak eta euskara uztartuko lituzkeena. Adibidez, Donostiako Miramon Parke Teknologikoan den Zientziaren Kutxagunea bezalakorik ez da. 1856an sortu zen Baionako Historia Naturalaren Museoa berritze lanetan zen eta 2010ean bere ateak berriz ireki ditu. Euskarari leku ttiki bat ematen dio, landareen eta animalien I50 izen euskaraz emanez. Biarritzeko Itsas-museoak arrain eta beste itsas-animalia eta txorien bilduma handia du. Webgune eleaniztunak argibide gutxi batzuk euskaraz ematen ditu (www.museedelamer.com/eu). Aldiz, 2001ko ekainaren 25ean Biarritzen ireki den Oceano Hirian euskara izpirik ez da agertzen. Frantsesa, espainola eta ingelesa dira hizkuntza erabiliak.

INGURUMENA

Zientziak eta teknologiak bezala ingurumen nozioa gero et gehiago aipatzen da. Hezkuntza-programetan sartu da eta ere aisialdi-eskaintzan. Inguru-nearen babesteak eta hobetzeak garapen ekonomikoan eta munduaren oparotasunean eragina dutela onartu da. Garapen iraunkorraren helburuetarik nagusi bat da geroke belaunaldiei beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan ez ematea ingurumena zainduz. Euskarazko aisialdi-eremu berri bat sortzen ari da gazteentzat, Ipar Euskal Herrian oraindik guti garatua dena. Hona ikas-texteetarik kanpo eskaintzaren egoera.

Eragileak

Ikastetxeetat aparte, gazteendako aisialdi zientifikoaren eta ingurumena-ren alorretan euskara erabilten duten eragileak guti dira.

Les Petits débrouillards (haur erneak, Biarritz)

Elkarte honek jarduera zientifikoak haurrentzat antolatzen ditu. 2010ean, EEPk lagundurik, *Zure oskoletik atera* (sors de ta coquille) esperimentazio zientifiko tailerrak muntatu zituen eskoletako 10 gelatan eta aisialdi zentroetako 2 gunetan. Orotara 6 saio programatu ziren. Eta liburuxka pedagogiko bat zabaldu zen.

Abbadiako Jauregia (Hendaia)

Abbadiako Jauregia aipatu dugu ondarearen eremuan. Kultur jardueratarik at, Pariseko Zientzietako Akademiaren esku den erakunde honek zientzia mailan ere lan egiten du. Donostiako Aranzadi elkarteak, EKEren partaide-tzarekin, bi urteetarik erakusketak eta hitzaldiak antolatzen ditu.

Ingurumenaren Aldeko Ekimen Zentro Iraunkorra (*IAEZI*, Hendaia)

Abbadiako eremuan dagoen *IAEZI Euskal Itsasbazterrak* taldeak urtean zehar erakusketak eta animazioak proposatzen ditu publiko zabalari: itsas bazterren bisita gidatuak, lehengo arbola fruitudunak, txori migratzaileen behaketa, naturaren aldeko bolondres lanak, haurrendako ikastaroak.

Atalaia aldizkari elebidun berria plazaratzen du, EEPren laguntzarekin. 2011an Hendaiaiko Herriko Etxeak eta *IAEZI Euskal Itsasbazterrak* taldeak Garapen Iraunkorraren Astea antolatzen dute.

Paul Jovet Baratze Botanikoa (Donibane Lohizune)

Itsasertzeko Paul Jovet Baratze Botanikoa bere eskaintza euskaratzen hasi da: seinalakuntza elebiduna, aurkezpen liburuxka eta webgunea ere bai, euskarazko bisitak publiko zabalarentzat, bereziki ikasleentzat. Multimedia kutxa bat sortu du: 50 minutuko DVD bat bai eta ere euskarri batzuk eskoletan eta aisialdian erabiltzeko 16 urte eta gehiagoko jendentzat. EEPren laguntza erdiesten du.

Surf Rider Foundation (Biarritz)

1990ean sortu zen elkarte honek ozeanoen kutsaduraren aurkako borroka darama, publikoari argibideak emanez eta haurrentzat hezkuntza jarduerak antolatuz. Ingurumenari buruzko euskarri zenbait euskaratzen hasia da: horma-irudiak, posterrak, fixa pedagogikoak eta beste.

ZIENTZIA ETA INGURUMENAREN EREMUKO EGITASMOAK

EEPk 4 urtez lagundu dituen eragile pribatuen proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-bartzea</i>
Alda enpresa, 2007.	Fun science euskaraz. Formazio egonaldiak.	9 asteburu gurasoentzat.
Surf Rider Foundation, 2009, 2010.	Ingurumenaren euskarriak: DVD, afixak, ikas-fitxak...	Multimedia kutxa: 4.000 ale European.
Baratze botanikoa, 2009, 2010.	Itsasbazter ingurumena: bisita eta euskarri elebidunak.	DVD 50 minuto: eskolan, aisialdian.
Les Petits débrouillards, 2010.	Zientzia tailerrak haurrentzat. Liburuxka pedagogikoak.	10 ikasgela. 2 aisialdi-gune.

Alda Uztaritzeko enpresak, *Fun Science* aldizkariaren itzulpena argitaratu zuen 2007an EEPren laguntzarekin. Helburua zen zientzien atseginezko zabalkuntza familiei eskaintzea. Ondorioz 9 asteburu antolatu ziren ikasleen gurasoak formatzeko aisialdi zientifikoaren alorrean.

Gorago aipatu ditugun hiru eragilek EEPren diru laguntzak erdietsi dituzte bereziki euskarri pedagogiko elebidunak banatzeko: Paul Jovet baratze botanikoaren DVD bat, Surf Rider Foundation delakoaren multimedia kutxa euskaratzeko eta Petits débrouillards elkartearen idazki pedagogikoak.

Ikastetxeak

Gero eta animazio gehiago euskaraz antolatzen dira ikastetxeetan zientzia eta ingurumenaren alorretan. Adibidez 2009-2010 ikasturtean EEPk 4 ekintza lagundu zituen. Ondoko ikasturtean 20 egitasmo aukeztu ziren deialdian eta horietarik 9 onartuak izan. Halere oraindik bada zer egin euskara gai zientifikoetan sartzeko, lehenik ikasgeletan eta gero aisialdian.

EEPk 2 urtez lagundu dituen ikastetxeetako proiektuak

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Kolegio bat: zientziak, 2009.	Miramón zientzia-gunerako ateraldia.	55 ikasle. 3 irakasle.
5 ikastetxe: ingurumena, 2009.	Hiri garbia eta birziklapena. Baratzea eta erlezaintza.	89 ikasle.
3 ikastetxe: zientziak, 2010.	Miramón ateraldia. Baratzegintza eskoletan.	108 ikasle. Elkarte bat.
8 egitasmo ingurumenaz, 2010	Itsasbazterra, ura, landaredia. Elirale, Oreka, Lagunarte elkarteak, Irisarriko Ospitalea.	10 ikastetxe, 313 ikasle.

2009-2010 ikasturtean, lagundu den ikastetxe egitasmo zientifiko bakarra zen Piarres Larzabal kolegioko ikasleen ateraldia Miramón zientzia kutxagunerako ateraldia. Bosgarren klaseko 55 ikasleek parte-hartu zuten beren 3 irakasleekin.

Ingurumenaren alorrean bi jardueran eraman dira. Alde batetik Senpereko eskolan eta Urruñako bi eskoletan “Hiri utopikoaren” maketa egin zuten eta erakutsi. Ikasgaia zen hiriaren garbitasuna birziklapenaren bidez. Orotara 39 ikasleek parte-hartu zuten beren irakasleekin eta Uztaro elkarteke 3 animatzaileekin. Bestalde Azkaineko hiru eskoletako 16 ikasle ikuska ibili ziren “Baratzean gaindi”, Elirale konpainia animatzaile eta erlezain baten laguntzarekin.

2010-2011 ikasturtean ere Ziburuko kolegioak bere itzulua egin zuen Miramón Zientzia Kutxagunean. Gainera Itsasuko eskola publikoak eta Ezpeletako eskola giristinoak baratzeak egin zituzten, esperimazioak euskaraz komentatuz, “Les Petits Débrouillards” elkarte animatzaile eta 46 ikasle baratzezain.

Ingurumenaren alorrean 8 egitasmo onartuak izan ziren eta 10 ikastetako 313 ikasleek parte hartu zuten egitura askoren laguntzarekin, Elirale eta Oreka elkarteak, Irisarriko Ospitalea, Abadia jauregia, Euskal Itsasbazterra zentroa (CPIE) eta beste. Landu ziren gai ezberdinak biziki interesgarriak ziren. Bi ikastetxe itsasbazterraz arduratu ziren, Sokoan, Untxin ala Angelun. Bost eskolak ura eta euskara uztartu zituzten, biak zaindu beharreko gauzak baitira. Hiru ikastolak elkarrekin “Hiru Urrats” egin dituzte tokiko landareak ezagutzeko eta ikusteko nola erabiltzen diren sukaldaritzan, medikuntzan eta arte ederrean: 52 ikasle parte-hartzaile, Laffite mintegiak eta Lagunarte konpainia laguntzaile.

PROPOSAMENA

Aisialdi zientifikoa eta ekologikoa gazteei euskaraz eskainiko zeie ikastetxeen barnean, bai eta ere kanpoan, tokiko agintek eragileak sostengatzen dituzten neurrian.

Erran bezala aisialdi zientifikoa eta ekologikoa gauza berria da eta leku gero eta handiagoa hartzen ari da oraingo gizartean. Eragile batzuk badira jadanik Ipar Euskal Herrian, kostaldean kokatuak bereziki. Pardaidetzak uz-tartu behar dira eragile hauen, Hezkunde Ministeritzaren eta lurralde kolektibitateen artean, euskara ez dadin egon zientzien eremutik kanpo. Eragile berriak barnaldean sorraraziz, jarduera zientifikoak eramanen dira ingurune euskaldunago batean.



Itsas armika / *Eryngium maritimum*
(www.jardinbotaniquelittoral-saintjeandeluz.org)

4.12. BEREZKO AISIALDIAK

Hau da alor zinez garrantzitsua, konplexua, laster aldatzen dena eta 2.3. azpiatalean erran dugun bezala aztertzeke zaila dena. Alabaina, hemen ez gara interesatuko helduek gazteentzat antolatzen dituzten aisialdietaz, baina bai gazteek berek antolatzen dituztenetaz. Auto-antolaketa eta auto-kudeaketa dira aisialdi mota horren ezaugarriak. Gune horietan gazteak parte-hartzaile edo jasotzaile izatearen orde, sortzaile dira edo bederen jarduerak hautatzen dituzte. Askatasuna, gozamina, utopia posible bilakatzen dira. «*Arauk jarraitzea ez dute aisialditzat hartzen*» (Berrio-Otxoa et al., 2003, 30. or.) Helduek kontrolatzen dituzten guneetan, «*nolabaiteko kontinuitatea, ez dago hausturarik, urruntzeke eta bereizteko aukerarik*» (*ibid.*, 32. or.).

BEREZKO AISIALDI EZBERDINAK

Lagunarteko aisialdiak

«*Gazte taldeak bere elkar-gune propioa bilatzen edota eraikitzen saiatzen dira*» (*ibid.*, 21. or.). Eta aztertzen dugun aisialdi mota honen ezberdintasuna agertarazteko, jadanik aipatu dugun aisialdi guneen araberrako sailkapena baliagarria da. Hemen «gune birziklatuak» eta «berezko guneak» dira interesatzen zaizkigunak. Aisialdi gune hauetan gazteen pentsamoldea eta kultura garatzen dira: musika, janzkera, orrazkera, teknologia berrien erabilera...

Gune birziklatuak izan daitezke karririk, aterpeak, arkupeak, apartamentu behereko solairuak, batzutan hipermerkatuak. Gune horietan aisialdia deus egitea izan daiteke. Hobeki erranez, gazteen jarduera da elkarrekin egotea eta lagunartean mintzatzea. «*Elkarrekin hitz egitea egoera aspergarriak gainditzeko eta denborapasa aritzeko modua da*» gazteentzat (Hernández, 2005, 94. or.). Egoera hauetan euskara baliatzen ote dute? Noiz, norekin. Azterketa honetan gaia ez dugu ikertu. *Etorkizuna 1999* inkestak erakutsi zuen kolegioko gazteek euskara lagunartean erabilten zutela ikasgelan eta ikastetxean baino gutiago.

Banako aisialdia eta aisialdi birtuala

2.3. azpiatalean erran dugu teknologia berriei esker etxea edo logela aisialdi gune bilakatu direla gaur egun. Ordenagailua eta telefono mugikorrekin munduko nornahirekin harremanetan sar daiteke, denbora errealean. Sare-sozialak harreman gune berriak dira. Lagunak, bazkideak edo bikoitekideak topa daitezke. Musika, filmak eta bestelako dokumentuak truka daitezke, ordaindu gabe. Gazteak teknologia eta aukera horien erabiltzaile trebeak dira. Aisialdi birtualetan Ipar Euskal Herriko gazteek euskara baliatzen duten galdera ere erantzun zehatzik gabe dago orain arte.

Gazteentzat teknologia berriek eskaintzen duten beste aisialdi garrantzitsua da bideo joko elektronikoen erabilera. Kontsola elektronikoen bidez telebistarekin, edo telefonoz nonnahi, noiznahi joko dezakete kiderik gabe. Inkesten arabera, 13-20 urte artekoek joko berri hauekin denbora ainitz iragaiten dute. Halere jokoetan hizkuntzaren presentzia ez da hain handia, ondorioz ez dira beste aisialdi mota batzuk bezain erabakigarriak euskararen erabilerarentzat.

BEREZKO GUNEA

«Berezko gune» ezagunenak eta enblematikoenak gaztetxeak dira (ikus Ipar Euskal Herriko *Hitzaren* dozierra, 2011-02-25eko *Berria* egunkarian). Beste guneak, gazteak elkartzen diren ostatuak eta diskotekak ez ditugu aztertuko. Diskotekak, dantzatzeko, musika entzuteko, jostatzeko, besta egiteko guneak dira, hots, adiskideen artean denbora gozatzeko. Aisialdi merkatuak eskaintzen ditu baina ez dira liburutegiak edo kiroldegiak bezalako gune instituzionalak.

Herriko etxeetako gaztegunek, “*local jeunes*” frantsesez, molde askotakoak dira. Liburutegiak, kiroldegiak baino irekiagoak eta libreagoak izanik ere, begiraleak badira. Ordenagailuak, kontsola elektronikoenak, telebista, beste joko erabilera librean proposatuak dira, baina beti jende heldu baten zaintza-pean. Guk dakigula, gaztegunek horietan euskara ez da erabiltzen Ipar Euskal Herrian, molde antolatuan bederen. Gainera adiskide baten gurasoen etxea izan daiteke aldi baterako besta baten bilgunea. Gune mota bakoitzak ikerketa monografikoa mereziko luke Ipar Euskal Herriko gazteek euskara nola erabiltzen duten aztertzeko.

Gaztetxeak

Patxa izan zen lehen gaztetxea, 1986an Baiona Tipiko etxe okupatu batean. 2011an Iparraldeko gaztetxeak 14 ziren (ikus ondoko mapa): Azkaine (Kilikia), Biarritz (Mizanbu), Donaixti-Ibarre (Bota), Donapaleu (Aldaka), Donibane Lohizune-Ziburu, Ezpeleta (Ziripot), Hazparne (Tattola), Hendaia (Bazen garaia), Itsasu (Goxoki), Luhuso, Makea (Txir-Txor), Sara, Senpere, Uztaritze (Hitz open)...

Lehen arazoa lokal baten eskuratzea da. Herriko etxeak gunea eskaintzen baldin badu, baldintzak jartzen ditu gehienik segurtasunari buruz, oztopo direnak gazteen ustez. Gazte batzuek, libre izateko, lokala alokatzen dute, baina dirua behar da horretarako.

Beste arazoa da beraz diru sarrera segurtatzea, jarduerak antolatzeko gai izateko. Autokudeaketa da gazteen helburua. Kontzertuak maizenik, hitzal-

diak, eztabaidak, trukaketak beste gaztetxeekin antolatzen dira besteak beste eta jarduera hauetan euskarak bere lekua badu, gazte euskaldunetan gaztetxeek arrakasta baitute. Gunerik gabeko “asanbladak” ere badira. 2011an 7 ziren (ikus mapa). Asanblada horietan ere aipatu ditugun jarduerak antolatzen dituzte, baina leku priorik izan gabe.

GOMENDIOA

Berezko aisialdian eta gaztetxeetan erabiltzen diren euskarrien euskalduntzea lan-ildo eraginkorra litzateke, erakunde pribatuen eta publikoen arteko lanikidetzaz eskatzen duena.

Berezko aisialdia printzipioz gazteek berek antolatzen dute, helduen zainztatik kanpo. Beraz gomendioa litzateke aisialdi mota hau ahalbidetzea eta ahal den neurrian alor honetan erabiltzen diren euskarriak euskaraz ezartzea: joko elektronikoak, telefono mugikorren elkarrizketa-kuadroa, sare sozial euskarriak... Gazteak informazio eta komunikazio teknologietan murgiltzen dira eta erdarak neurri handi batean monopolia du eremu honetan. Merkatu-ekonomian gaudelarik, euskarazko eskaintza urria indartu behar litzateke erakunde pribatu eta publikoen arteko hitzarmenen bitartez.

Hemen ere, EEPk diru eta teknika laguntza ekar liezaieke. Alabaina 2006ko Hizkuntza Politika Proiektuko « Aisialdia » lan ardatzaren puntu bat hau da: «*Haur eta gazte zuzenduak diren aterbeen sare bat muntatu, euskarazko egonaldia baldintza egokietan segurtatzeko gisan*» (47. or.).

Gaztetxeen kasuan egiazko eskaera baldin bada herriko etxeek laguntza lezaketek, arrisku orotako asurantzaz eskatuz adibidez. Baina, oro har, jarduera pribatuen alorrean baikaude, tokiko kolektibitateen jarrera borondate ona izan liteke oroz gainerik, ez besterik.

↓ Ipar Euskal Herriko gaztetxeak



Ipar Euskal Herriko gaztetxeak eta asanbladak 2011an (Ipar-Euskal Herriko Hitza - Berria)

5. POLITIKA PUBLIKOAK

Euskal aisialdiaren protohistoria ez da oraindik idatzia. Alta gerla ondoko lehen hamarkadetan Ipar Euskal Herriko gazteriaren mobilizazio dinamiko bat gertatu zen, bereziki parroketako patronatuen (*patronages*) bitartez. Fama-tuenak hiritarrak ziren, Angeluko *Les Genets* (*isatsak*), Baionako *Les Croisés* (*gurutzadunak*), Hiriburuko *Les Joyeux* (*alaiak*), Hazparneko *Les jeunes Basques* (*euskaldun gazteak*)... Herri barnealdean *Euskaldun Xoriak* elkarteak biltzen zituen haurrak eta gaztetxoak oporretako egonaldietan. Jarduera ikusgarrienak ziren kirolak, txarrangak (*klikak*), abesbatzak, dantza multzoak, antzerki taldeak eta urtero antolatzen ziren lehiaketa erraldoiak. Dinamika guzi honen helburua zen gazteria zaintzea elizaren babesean. Hizkuntzari buruzko kezkarik ez zen: barnealdeko parte-hartzaile guziak euskaldunak ziren eta hiritar gehienak erdaldunak. Diglosia funtzional hau normalizat hartua zen. Uste gabeko gertakaria izan zen euskal kulturgintzak herri nortasunaren kontzientzia indartu zuela. Ondorioz denbora haietako militanteak, gaurko euskaltzale eta abertzaleen arbaso zuzenak dira.

5.1. HIZKUNTZA POLITIKAREN HASTAPENAK

Euskalgintza modernoa bizkortu zen Deixonne legeak (1951) ekarri zituen ahalbide xumeak baliatuz irakaskuntza munduan: Ikas elkarteak, ikastolak, gau eskolak, irakasle ibiltariak, ikasgela elebidunak. Eskolen inguruan et guraso elkarteak eraginez ekimen asko burutu ziren. Hizkuntzaren beste alorretan bezala, euskal elkarteak et militanteak izan ziren euskarazko aisialdiko problematika eskuetan hartu zutenak. Harrera eta egonaldiak euskaraz haur eta gazteei eskaintzen dituen Uda Leku elkarteak 1983an sortu zen adibidez.

1980ean bertso eskolak kudeatzen eta bertsolari txapelketak antolatzen dituen Bertsularien Lagunak elkarteak.

Beren aldetik, tokiko kolektibitateek, udalek bereziki, kultura eta kirol eskaintza garatzen zuten, baina erdaraz. Botere publikoek euskal elkarteen proiektuak diruz laguntzen zituzten, maizenik irizpide argirik gabe.

Gauzak sakonean aldatu ziren Euskal Herri 2010 prospektibaren ondotik lurralde garapena abiatu zelarik; gizarte zibila eta gizarte politikoa uztartu ziren “governantza hitzartua” eramateko. 1995ean Garapen Kontseiluak hizkuntza antolaketaren kontzeptu berria bere gain hartu zuen, euskararen aldeko programa koherente bat proposatuz eta “Euskal Herriaren hizkuntza euskara da” aldarrikatuz. Hautetsien Kontseiluak onartu zituen gomendatu puntuak, adibidez euskal irakaskuntza aitzinaraztea haurrentzat eta jende helduentzat, hedabideetan euskararen erabilera sustatzea, bizitza publikoan euskararen lekua zabaltzea. Aisialdia hunkitua zen bakarrik molde inplizituan.

Urrats bat aitzinera egin zen 2001-2006ko Euskal Herriaren Hitzarmen Bereziarekin. Kontratu politiko honek, Estatuarekin eztabaidatu 79 neurri finkatzen zituen eta 10 kapitulutan sailkatzen: kultura, ingurumena, laborantza, industria, hirigintza besteak beste. Lehen kapitulua zen “hizkuntza politika”, esaera hau lehen aldikotz agertzen baitzen idazki ofizial batean. Hizkuntza politikaren kapituluan 10 ekintza hautatu ziren, berez onargarriak zirelako finantza kontratuz gauzatzeko: irakaskuntza, Euskaltzaindiaren egitarauak eta beste. Hirugarren jarduera aisialdiari buruzkoa zen, “eskola inguruko euskarazko ekintzen sostengatzea”. Uda Leku, Bertsularien lagunak, Euskal Haziak eta Ikas Bi guraso elkarteak lagundu ziren. Gainera beste hiru ekintza baziren aisialdiari lotu zitezkenak: euskal irratien elkarlana, Euskal Telebistaren harrera lurralde osoan eta euskararen hedapena Internet sarean.

Hitzarmen honen indargunea zen hizkuntza politika lurraldearen garapen osoari lotzen zuela, kulturarekin edota ekonomiarekin batera. Aurrekontu zehatz bat kontratuz segurtatua zen bost urterentzat, gero finantza problema batzuk agertu baziren ere bidenabar. Sail honen ahulgunea zen hitzarmen hau kudeatzen zuen Obragintza Publikoak ez zuela politika propiorik aisialdiari buruz ez eta ere beste alorretan eta bere ardura nagusia zela diru laguntzak elkarteei banatzea. Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin egoera hau errotik aldatu da.

5.2. EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (EEP)

Euskararen Erakunde Publikoa 2004ko abenduan sortu zen, Frantziako botere publikoen engaiamendua euskararen aldeko egiazko politika publiko

batean gauzatuz. Estatu, Akitaniako Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal kulturaren aldeko udalerrien sindikata EEPren partaide nagusiak dira. Euskalgintzako eragileak ere bai, Aholku Batzordean bildurik. 2006an Hizkuntza politika proiektua aurkeztu dute. «*Hiztun osoak belburu, haur eta gazteak lehenetsun*», proiektuaren azpituluak proiektuaren helburu nagusia eta lehenetsun adierazten ditu euskara garapenaren dinamikan ezartzeko.

Horretarako 12 erronka nagusi zehaztuak dira, hiru zatitan banaturik:

- hizkuntzaren jarraipenerako, familia bidezko transmisioa, lehen hautzaroa eta irakaskuntza;
- hizkuntzaren erabilera komunikabideetan, aisialdian, argitalpenean, hots bizitza sozialean;
- zeharkako erronkek beste guztiak baldintzatzen dituzte, helduen euskalduntzeak, hizkuntzaren kalitateak, ikerkuntzak eta motibazioak.

Proiektu hau ez da utopia bat, baina bai ekintzarako “ibilbide orria”. Erronka bakoitzean estrategiaren norabideak definituak dira bilatzen den eskaintzari buruz eta baliabideak (“gaitasunak eta tresnak”) eragileen eskutian emateko. Gero norabide bakoitzak eskatzen dituen lan ardatzak zerrendatuak dira.

«AISIALDIA» ERRONKAREN HELBURUAK ETA 2009KO EBALUAKETA

Politika proiektu honetako bosgarren erronka aisialdia da euskara eta gozamina uztartzeko xedearekin. Estrategiak bi norabide hartzen ditu. Alde batetik euskarazko aisialdi erakargarriaren eskaintza familientzat, eta bestalde profesionalen formazioa eta tresnatzea euskaraz lan egin dezaten (*Hizkuntza politika 2006*: 47. or.).

Hona euskarazko aisialdiaren eskaintza zabaltzeko lan ardatz batzuk:

- aisialdi zerbitzuak eskudunekin egituratzea, bertsolari eskolak, opor zentroak, kirol praktikak, kultura jarduerak, gazteen parte-hartzea sustengatzeko egitarauak, antzerki, zinema ala kantaldiak;
- euskara irakasten duten eskola eta profesionalekin ikasleek gustukoak dituzten jarduerak sustatuko dira kirola, ateraldiak, kazetaritza, Internet bidezko harremanak...
- euskarazko aisialdirako beharrezkoak diren tresnak sortuko dira, liburuak, jokoak, Interneteko eskaintza eukaldunduak, blog, txat, joko ala filmak.

Profesionalen formazioari buruzko estrategian ere lan asko aurreikusten da:

- beharren arabera hizkuntza formazio orokorra, jarraikia edo berezitua kirolan, kulturean, aisialdian;

- euskaraz dibertitzeko tresnen eta egituren antolaketa, aterpe sarea egonaldientzat, ludoteka egokituak, joko eta liburu mailegu ibiltaria;
- profesionalen elkarguneak sortuko dira esperientziak trukatzeko, konpetentziak eta lantresnak partekatuzeko, ekintza berriak asmatzeko (*Hizkuntza politika 2006*: 49. or.).

Bi helburu hauek elkar osatzen dute, ezin baita kalitatezko aisialdirik eskaini profesionalak formatu gabe. Baina EEPk ez ditu bi ildoak denbora berean eraman: «*Orain arte, aisialdiko eremua guti landu du EEPk (...). Bere ekintza euskarazko aisialdiaren alorrean denbora osoz edo zati batean dibarduten eragileen sostenguan mugatzen da gaur egun*» (*Azterketa 2009*: 104. or.).

Bigarren ohar garrantzitsua da aisialdiko profesionalentzat lagungarri diren tresnak eta formazioak sortu behar direla. Euskarako aisialdia “*egituratuko da egiazko lan bat bideratuko delarik eragileen laguntzan*” (*ibidem*, 105. or.). Lanardatzen bilan taulak jarduera gehienak ez direla abiatu erakusten du (*ibidem*, 102.-103. or.). Hona zergatik: «*Aisialdiaren alorreko politika antolatze kotan giza baliabideak ezarri behar dira. Hor dago ere finantza abalen problema, euskarazko aisialdi orokor baten eskaintza garatzeko eta egituratzeko*» (*ibidem*, 105. or.).

Halere, 5. erronkatik at beste erronka batzutan aisialdiari lotuak diren ekintza zenbait eraman ditu EEPk, 4. atalean azaldu dugun bezala. Irakaskuntzaren alorrean (3. erronka), 2008an EEPk Proiektu Deialdi berezia sortu zuen ikastetxeentzat. Helburua zen ikastetxeetan ikas denboraz kanpo aisialdietako alorrean euskara erabiltzearen aldeko proiektuak sostengatzea. 4. erronkan “Hedabideak” dira eta helburua da “publiko gazteari hedabideak ezagutarazteko eta maitarazteko ekintza bereziak” antolatzea besteak beste. 6. erronka «Argitalpena» da. EEPk euskarazko liburuaren sorkuntza, promozioa eta salmenta sustatzen ditu, bai eta ere euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa eskola barnen edo kanpoan. Euskararen tokia bizi sozialean 8. erronka da “euskararen presentzia garatzea haur eta gazteak bereziki hunkitzen dituzten jarduera alorretan” lan ardatzarekin. Azken erronka “Motibapena” da. Lehen lan ardatza da “motibapena piztu eta (indartuko da), euskarazko zerbitzu eskaintza esku-ragarri eta erakargarri bat antolatuz». Bistan da, hemen ere, haurrak eta gazteak lehen lerroan direla. Ondorioz, aisialdiaren kasuan ere, erronken arteko zeharkakotasuna agertzen zaigu.

EEPK LAGUNTZEN DITUEN ERAGILEAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2007an hitzarmen bat izenpetu zuten. «*2007ko otsailaren 7an sinatu den hitzarmen-markoaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak euskararen gaineko bizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzara garatzeko eta erakunde*

mailako barreman iraunkorrak ezartzeko bideak finkatu dituzte, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz» (www.mintzaira.fr). Hitzarmen-marko horretan lankidetzeta-fondo bat eraiki zuten, eta urtero euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten Iparraldeko erakunde pribatuentzat diru-laguntzak eskatzeko deialdi bat egiten dute. 2010ean adibidez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 470.000 € ezarri ditu fondoan, Euskararen Erakunde Publikoak 1.130.000 €. Hau da laugarren atalean agertu duguna, lagundu diren eragileak eremuka aurkeztuz.

2009z geroztik eragile horietan zortzi eragile nagusi bereizi ditu EEPk: AEK jende helduei euskara irakasten duen koordinaketa, Bertsularien Lagunak, Euskal Irratiak, Euskal Hazia eta Ikas Bi ikasle gurasoen elkarteak, Ikas euskal pedagogia zerbitzua, Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzen dituen elkarteak eta Uda Leku. Zortzi egitura hauek finantza-fondo horren %70 eskuratzen dute. Euskaltzaindia aparte da eta hitzarmen berezi baten markoan lagundua da (140.000 euro 2010ean). Ikusi dugun bezala, Bertsularien Lagunak, Euskal Irratiak, Seaska, Uda Leku elkarteek era batez edo bestez aisialdietako eremuan eragiten dute.

2008-2009 ikasturtean EEPk deliberatu du eskola eremutik kanpo ikastetxeek euskararen erabilpena bultzatzeko zituzten ekimenak laguntzea. Jardueretan ikastetxeetik kanpoko jarduerak (*activités extra-scolaires*) eta ikastetxean ikastorduetarik kanpoko jarduerak (*activités péri-scolaires*) bereziak dira. Adibidez ikastetxeen arteko trukaketak, ahozkotasunaren sustatzeko kultura tailerrak edo kirol topaketak, etab. 2008-2009rako 40.000 euroko fondoarekin 49 proiektu lagundu ziren (%78), 29.648 euro baliatuz. Proiektuen %60a egonaldiak eta ikusgarriak ziren. 2009-2010 ikasturtean fondoa 60.000 eurokoa zen eta 64.961 euro baliatu ziren 119 proiektuentzat. Beraz Ikastetxeen Proiektu Deialdia gero eta arrakastatsuago da. Proiektu kulturalak onartuak dira ikastetxeen kasuan, aldiz ez eragile pribatuengan. Hauek Euskal Kultur Erakundearengana bideratu dira.

JARDUEREN LAGUNTZEKO IRIZPIDEAK

Ikusi dugu hizkuntza jardueren eremuan bi proiektu deialdi ezberdin baidirela, bata eragile pribatuentzat eta bestea ikastetxeentzat. Deialdi bakoitzak baditu bere baldintzak eta dirua emateko irizpide bereziak.

Eragile pribatuen deialdian, bidezko hartzaileak dira euskararen erabilera sustatzeko ekimenak eramaten dituzten eragile pribatuak. Ondorioz ezin dira hartzaile izan egitura kulturalak, ikastetxeak, merkataritza enpresak kapitalaren gehiengo botere publikoaren esku bada. Aldiz lagungarri dira Hizkuntza politika proiektuaren eta Euskara biziberritzeko plan nagusiaren helburuetan eta lan-ildoetan sartzten diren ekimenak. Baldintza ekonomikoa %30en autofinantziazioa da.

Lau irizpide badira diru-laguntza neurtzeko: eskatzailearen esperientzia eta garrantzi estrategikoa beste eragileen artean (%40); hizkuntza politikarako norabideen eta egitasmoaren arteko koherentzia (%30); proiektuaren eragingarritasuna finkatu helburuei begira (%20); eta egitasmu edukiaren eta formazio egitarauaren arteko egokitasuna bai eta ere autofinantzazioa (%10). Argitalpen proiektuek badituzte irizpide bereziak kontuan hartuz ekimenaren eragingarritasuna, liburuaren merkatua eta ekoizpenaren kalitate pedagogikoa.

Ikastetxeen deialdian, hartzaile egokiak dira lehen eta bigarren mailako ikastetxeak ordezkatzen dituzten egiturak: eskoletako kooperatibak, kolegio eta lizeotako administrazioak, ikastetxe katolikoetako gestio organismoak (OGEC, Organisme de gestion de l'enseignement catholique), Seaska elkarteak edota tokiko guraso elkarteak. Ondorioz ezin dira hartzaile izan tokiko agintek, merkataritza egiturak, ikastetxez kanpoko elkarteak, guraso elkartearen federazioak. Egitasmoa hautagarri izateko baldintzak dira ikastetxea dela eskatzailea, aurtengo ikasturterako eta %30en autofinantzazioa segurtatuz. Ez dira hautagarri inbertsio eta administraritza gastuak ez eta ere ikas-materialaren finantzaketa.

Hiru irizpide badira diru-laguntza neurtzeko: egitasmoak euskararekin duen lotura; egitasmoaren egokitasuna eta kalitate pedagogikoa; egitasmoak ikaskuntzaren osagarri izan behar du, gehi gorago aipatu baldintzak. Proiektuak hiru lerrotan sailkatuak dira betetzen dituzten irizpideen eta baldintzen arabera. Adibidez 2008-2009an lehen lerrokoek eskatu diruan %70 erdietsi zuten, bigarren lerrokoek %50 eta hirugarren lerrokoek %25. Baina proportzio hau alda daiteke urte batetik bestera egitasmu kopuruaren arabera, aurrekontua mugatua delakotz.

Ondorioz bi deialdien kasuetan, gertatzen dena da proiektu batzuk baztertuak direla eskatzailea ez delarik bidezko hartzaile bat. Beste batzuk laguntzarik gabe gelditzen dira erizpideak eta baldintzak ez baitituzte betetzen. Baina gehiengo handian egitasmoak lagunduak dira betetzen dituzten irizpideen neurrian. Adibidez, 2007ko eragile pribatuen deialdian, 84 proiektuetarik 51 lagundu ziren (%61), 32k ez zuten laguntzarik erdietsi (%38) eta proiektu bakar bat baztertu zuten eskatzailea eragile publikoa zelakotz. 2009an, ikastetxe deialdian 67 proiektuetarik 50 lagundu ziren (%75). Proiektu horietarik batzuk, lagunduak ez izanik ere, gauza daitezke. EEPko jarduera-eremutik kanpo bizi dira beraz.

Zailtasunak agertzen dira deialdiaren hastapenean eta bukaeran. Hastapenean erizpideak aplikatzerakoan ez da erraz neurtzea egitasmu baten adieragingarritasuna, kalitate pedagogikoa edo dozierraren zehaztasuna. Aldi bat gertatu da urte batez onartua zen dozier bat beste urte batean baztertua izatea. Bukaeran diru laguntza banatzerakoan zer egin proiektua ez delarik osoki bete? Oro har iduritzen zaigu diru-laguntza banaketa hauek seriositasun

handiz egiten direla eta eragileen kartsutasunari esker diru gutiz ekimen anitz eramaten dituztela. Noski aisaldirako aurrekontua emendatzeko litzateke.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN DIRU-LAGUNTZAK

Taula honek biltzen ditu 2007tik 2010 arteko diru laguntzak aisialdiaren eremuka banaturik.

Aisialdi eremuak	2007	2008	2009	2010	Laguntza/ gastuak €
I. Egonaldiak	106.814/ 389.812	123.214/ 465.109	142.384/ 533.379	139.800/ 408.862	512.212/ 1.797.162
2. Komunikabideak	275.000/ 427.011	298.840/ 441.527	442.643/ 1.422.287	464.000/ 1.414.421	1.480.483/ 3.705.246
3. Liburugintza	3.274/ 38.106	21.542/ 48.316	22.915/ 33.067	24.845/ 44.639	72.576/ 164.128
4. Musika, dantza	20.000/ 136.465	40.929/ 341.307	25.243/ 185.604	17.000/ 63.953	103.172/ 727.329
5. Antzerkia, bertsu	48.300/ 108.725	78.155/ 182.922	65.838/ 154.943	53.250/ 123.500	245.543/ 570.090
6. Arte plastikoak	1.000/ 9.391	1.228/ 2.800	5.216/ 17.698	3.450/ 12.180.	10.894/ 42.069
7. Kirola, zirkua	19.302/ 58.307	23.516/ 87.794	34.436/ 191.740	20.300/ 222.118	97.554/ 559.959
8. Festibalak, bestak	5.000/ 42.413	9.600/ 36.140	16.000/ 29.627	8.500/ 74.000.	39.100/ 182.180
9. Zinema	—	4.580/ 3.230	5.820/ 9.109.	8.250/ 14.413	18.650/ 26.752
10. Ondarea	—	12.089/ 84.467	23.528/ 101.601	8.500/ 88.120	44.117/ 274.188
II. Zientzia, ingurumena	16.350/ 18.873	—	9.737/ 183.010	20.750/ 204.074	46.837/ 405.957
Orotara laguntzak eta gastuak (euroz)	495.040/ 1.229.103	613.693/ 1.693.612	793.760/ 2.862.065	768.645/ 2.670.280	2.671.138/ 8.455.060

Aisialdiko eremu guziak kontuan hartuz, 2007tik 2010era, Euskararen Erakunde Publikoak 2.671.138 euroko diru-laguntzak eman dizkie ari diren eragileei. Lagundu diren proiektuen kontu osoen kopurua 8.455.060 eurokoa zen.

Beraz EEPren laguntza %32koa da. Noski zifra-errore batzuk sar litezke. Halere, agertzen diren zenbakiak errealitatearen argazki aski fidagarria ematen dituztela uste dugu.

Hona zehaztasun zenbait eremuz eremu:

1. Egonaldi eta ibilaldietako eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %28,5koa da.
2. Komunikabideen eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %40koa da.
3. Liburugintzaren eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %44koa da. Komunikabideei konparatuz, liburugintzan diru-kopuruak 20 aldiz ttipiagoak dira, EEPren laguntzen eta eragileen aurrekontuen arabera. Baina proportzionalki EEPk liburugintza gehiago laguntzen du komunikabideak baino, are gehiago egonaldi eta ibilaldietako eremua baino.
4. Musika, kantua eta dantzaren eremuetan EEPren laguntza kostu osoaren %14koa da. Laguntza proportzionalki ahula da.
5. EEPren laguntza kostu osoaren %43koa da. Eremu honek laguntza proportzionalki handiena ardiesten du zinemaren ondotik.
6. Arte plastikoaren eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %27koa da. Eremu honetako zenbaki ahulek erran nahi lukete eragileek euskararen sustapena eta erabilera ez dutela anitz lantzen.
7. Kirola eta zirkuaren eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %17koa da. Ehuneko honen arabera EEPk ez ditu anitz laguntzen eremu honetako eragileak, hau baita proportzio apalena.
8. Festibal eta besteen eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %21koa da.
9. Zinemaren eremuan EEPren laguntza beraz kostu osoaren %70ekoa da. Eremu hau da proportzionalki EEPk gehienik laguntzen duena. Bistan da euskarazko filma ekoipen proiekturik balitz aurrekonduak askoz handiagoak liratekela. Orain arte euskarazko zinemaren eremuan gauza guti dugu Ipar Euskal Herrian.
10. Ondarearen eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %16koa da. Laguntza hau proportzionalki ahulenetarik bat da. Erran dezakegu ere ondareari lotua den aisialdia ez dela batere garatua Ipar Euskal Herrian.

II. Aisialdi zientifikoaren eta ingurumenaren eremuan EEPren laguntza kostu osoaren %II,5dekoa da. Laguntza hau proportzionalki ahulena da, baina Surf Rider Fondation elkartearen aurrekontua ez da bakarrik euskararen bultzatzeko.

EEPREN 2011-2016KO NORABIDE BERRIAK

2009an egin zen ebaluaketan printzipio garrantzitsu hau onartu zen: *“Ezagutzaren garapena beharrezkoa da baina ez da aski. Hizkuntzaren erabilera baitezpadakoa da (...). Hizkuntza politika batek eraginkorra izatekotan, aldi berean eragina (erakutsi) behar du transmisioan eta erabileran”* (Jokabide 2016, II.-12. or.). Ondorioz EEPren esku-hartzearen indartzea deliberatu da euskararen erabileraren eremuetan, aisialdian besteak beste, “progresiboki eta koherenteki”. Aisialdia lau azpi-eremutan sailkatua da: «*Egunazko aisialdirako zentroak, kirol hezkuntza, arte et kultura hezkuntza, zerbitzu kontsumoa*» (ibidem, 20. or.). Aisialdiaren definizioa guk eman duguna baino hertsia goa da hemen, hezkuntzari lotua baita.

Hauek dira aisialdian EEPk irekiko dituen lan-ildo berriak, lau azpi-eremuetako kronologian: 2011-2013 urteetan aisialdiko harrera-gune kolektiboak (aisaldi guneak eta egonaldiak), kultura eta arte hezkuntza, 2014-2016 urteetan kirol heziketa eta zerbitzuen kontsumo. Uste dugu liburu honetan eramaten dugun ikerketak EEP lagunduko duela, hautatu dituen lau azpi-eremuetan bere politika zehazteko eta hobetzeko. Proposamenak edo gomendioak egiteko unean 2006tik 2010erako lehen entseguen eta jardueren irakaspenak baliatu ditugu.

PIRINIO ATLANTIKOETAKO IKUSKARITZA AKADEMIKOA

Bordelen dagoen Kultura Gaietako Eskualde Zuzendaritzarekin batera, Paueko Inspektzio Akademikoak euskarazko hezkuntza artistikoa eta formakuntza lagun ditzake, kultura heziketaren garapenerako departamenduko Planaren barnean. Proiektu batzuk bidean dira, hala nola 2. hezkuntzan kirol hezkuntza euskaraz. Baina oro har Inspektzio Akademikoaren eskumen-eremua haur eta gazteen ikastorduetan kokatzen da eta ez ikastetxeetarik kanpoko aisaldietan.

5.3. EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Euskal Kultur Erakundea (EKE) 1990ean sortu zen kultur gintzako eragileak eta botere publikoa elkarlanean ezartzeko helburuarekin. Urte berean antolatu zen Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko Sindikatua.

Administratzaileak dira alde batetik Estatua, Eskualdea, Departamendua eta Herriarteko Sindikatuaren ordezkariak eta bestalde kultura elkarten ordezkariak, alde batetik diru emaileak, eta bestetik kultura eragileak. Oreka segurtazeko, denen artean lau “pertsona kalifikatu” hautatzen dituzte, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaltzaindiaren ordezkariak barne. Helburua da elkarrekin adostasunean gauzatzea zuzendariak urtero kulturgingintzan ari direnekin definitzen duen egitaraua. Bazkideak 135 elkar-te dira eta 146 udalerri. Talde profesionala bederatzi arduradunetz osatua da gaur egun (2011).

“ELGARREKIN BILAKA”

Lau edo bost urtero erakundeak gogoetaldi zabalak antolatzen ditu nahi duten ororekin, ikusteko zein diren herritarren eskakizunak euskal kulturari buruz. Azken gogoetaldia “Euskal Herria 2020” prospektibaren barnean egin zen *Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka* izenburuarekin. Gazteen euskarazko aisialdia ez da berenaz EK Eren helburuetan. Halere txostenak finkatzen dituen helburuetan lan-ildo asko aisialdiari lotuak dira, bereziki publiko berriak aipu direlarik. Erakundearen helburuak lau hitzetan laburbil daitezke: formazioa, sorkuntza, hedapena eta bitartekaritza. Ikus dezagun haur eta gazteak nola kokatzen diren egitasmo orokorrean.

1. Formazioa da ahozko ondarea eta euskal kulturaren transmisioa. Garrantzi handia dauka haurrek eta gazteek euskal kultura ikasteko eta esperimentatzeko ekintzak antolatzea “*bai eskoletan, bai eta ere liburutegiak, mediatekak eta toki publikoak bezalako guneetan, aisialdi zentroak abantzi gabe*” (12. or.). Kultura heziketa etengabeko ibilbidea da, belaunaldien arteko transmisioa baita.
2. Kultura sorkuntzaren sustatzea ere erakundearen funtzio nagusi bat da. Elkarre amateurrak eta artista profesionalak eta bereziki artista gazteak lagunduak dira beren ibilbideari jarraitzen.
3. Hedapena molde atseginean egiten da festibalen bidez: Hartzaro, Xiru, Euskal Herria Zuzenean, Bi harriz lau xori, Errobiko festibala, Antzerki topaketak, Kantu txapelketa, Musikaren eguna, Dilin dalan, Txontxongilo egunak... Web ataria (www.eke.org), zabalkunderako premiazko tresna da osatzen duten eduki aberatsei esker: agenda, albistegia, artisten zerrenda, txosten bereziak, aretoen, sorkuntzen eta festibalen gida eguneratuak. Atarian eragileek beren web orrialdeak ireki eta kudea ditzakete. Ohargarri da atariaren kontsulatzaileen hizkuntza erabaliena frantsesa dela (%46), gero gaztelania (%30), ingelesa (%6).

Elebidunek edo euskara (%4) edo hizkuntza ezberdinak (%14k) erabilten dituzte.

4. Bitartekaritzaren funtzioak gero eta leku handiagoa hartzen du eta EKE ezartzen obragintza publikoaren eta hiru obralaritza ezberdinen bidekurutzean. Iparraldeko hiztegian, jarduera baten hastapenean erabakien denbora da eta baliabideen hornikuntza, *obragintza*, eta gero erabakien gauzatzea baliabideak erabiliz *obralaritza* da. Hona EKEren lau eginbide nagusiak.

- Obragintza publikoa: EKE erreferentea bilakatu da kultura programa publikoak erabakitzean eta finantzatzean, Estatuko ministeritzen esku diren erakundeetan, hain zuzen euskal kulturari emateko hartze duen lekua. Mintzakideak dira Eskualdeko kultura ordezkariak (DRAC), Eszena Nazionala, Eskualdeko Kontserbatorioa, Akademia Ikuskaritza, EEP eta beste.
- Obralaritza kolektibitateekin: EKEk lankidetzan iraunkorra darama egitasmoak gauzatzeko tokiko aginte askorekin udalerriri, departamentu, Eusko Jaurlaritzari...
- Obralaritza egituratzailea EKEk berak segurtatzen du bereziki *Batekmila* erakusketa interaktiboekin edo *Hogei'ta* bezalako jarduera biltzailearen bidez.
- Obralaritza eragileekin: EKEren jatorrizko helburua da kultura elkarrekin eta artista profesionalen egitasmoak sustengatzea eta laguntzea aipatu helburuak bilatuz, formazioa, sorkuntza eta hedapena.

GAZTEAK EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN EGITARAUAN

2011ko egitaraua adibidetzat hartuz, ikusiko dugu gazteek beren tokia badutela EKEren jarduera askotan eta bereziki *Hogei'ta* izeneko hiru urteko egitasmoan.

Euskal Kultur Erakundearen 2011ko egitaraua

<i>Eragilea</i>	<i>Jarduera</i>	<i>Parte-hartzea</i>
Obragintza publikoa	Egitura publikoekin harremanak jarraitzea, arduradunaz gain, erakunde osoaren lana da.	8 harreman abiatuak.
Obralaritza elkargoekin	Lankidetzak finkatuak dira mugaz bi aldeetako udalerriekin, bai eta ere Euskal Herritik kanpo	Hegoaldekoekin 10 ekintza.
Obralaritza egituratzailea	“Kantuketan eta Batekmila erakusketak oraindik dabilta. Egitasmo berria “Hogeita””.	Urte askotako arrakasta.
Obralaritza eragileak laguntzeko	Transmisioa, kultura eta ondare heziketa: dantzak, kantuak, itsasoa, oihanak, Zuberoa. Sorkuntza antzerkian, kantuan, dantzan. “Diskografia, “Gazte luma”, artista egonaldiak.” Hedapena kultura-guneetan, festibaletan, mundu zabalean, ikusgarri, liburu, arteentzat.	12 ekintza, 13 elkarterekin. 29 ekintza, 14 elkarterekin 39 ekintza, 41 elkarterekin.

Gazteen aisialdia ez da baitezpada EKEren helburuetan. Halere kulturgingintzaren lau sailetan badira egitasmo anitz gazteen bizitza aberats dezaketanak.

- Egitura publikoak aipatuz, Euskal Kultura 2007-2013 txostenak bere gain hartzen du Frantziako Hezkunde eta Kultura ministeritzek elkarrekin finkatu zuten helburua: «*Heziketa artistikoak eta kulturalak haurren eta gazteen formakuntza intelektuala eta sentsiblea laguntzen du... Norberaren nortasuna egiten laguntzen du eta funtsezko zeregina dauka bakoitzaren kultura nortasunaren erai-kuntzan*» (12. or.). Erreferentzia ezin hobea, euskal kultura ikastetxeetan sartzeko Akademia Ikuskaritzarekin negoziatuz.
- Tokiko aginteekin antolatzen diren egitasmoetan ere gauza asko bada gazteentzat. 2011an, hamar udalerrri engaiatua dira Iparraldean. Adibidez euskal kultura Baionako bestetan, gaurko musiken astea Angelun, euskal rocka eta *Kantuketan* barne, *Euskal Kultura argitan* animazioak urte osoan Donibane Lohizunen, liburu aurkezpenak, ipuin irakurketak, idazleen bisitak mediateketan Biarritzen, Donapaleun, Hazparnen, Kanbon. Gainera EKEk lotura bat ezarri nahi du mugaz gainetik gazteen artean. Alabaina *Iparraldea XXI* 18 minutuko DVDaren helburua da Iparraldeko aberastasun kulturak Hegoaldeko gazteei aurkezteko.

- Kultura elkarteetan lagunduak diren egitasmoetan haur eta gazte asko inplikatuak dira. Kultura transmisioa haur eta gazteei buruz egiten da, adibidez Jazz in college, adierazpen artistiko ezberdinen tailerrak, animazio kulturalak Zuberoako ikasleentzat.

Sorkuntza mailan badago haur abesbatza baten sortzeko xedea, *Ixtorio Mixtorio* dantza ikusgarria, *Euskal Herria Zuzenean* prestatzeko gazteen asmakizunak, *Haur Kantu Xapelketa*, *Gazteluma* idazle gazteak sustatzeko...

Hedapenari begira, web atarian berritasun bat bada: kultura eskaintza erakargarriagoa izanen da gazteentzat agenda kulturala telefono mugikorren bidez hartzen ahalko baitute. Etorkizunean gertakarien geolokalizazioa posible izanen da, erabiltzaileari, hurbil den ikusgarri batera heltzeko bidea erakutsiko zaio.

- Betidanik EKEk antolatzen zituen egitasmo eraikitzaileek, nola *Kantuketan* hala *Batekmila*, arrakasta handia zuten gazteen artean, euskarri modernoari eta interaktiboari esker. Aurtengo egitasmo berria, *Hogei'ta*, gazteentzat asmatua da.

Diru laguntzak

Zuzendariak urte oroz egitasmoen egitaraua eta aitzin-kontua aurkezten die administratzailei lehenik eta gero biltzar nagusian. Hona adibidez 2011rako finkatuak diren gastuak eta diru iturriak.

Euskal Kultur Erakundearen 2011ko aitzinkontua (€)

Funtzioa	Ingeniaritza	Egitasmoak	OROTARA
Obragintza publikoa	59.648	6.000	65.648
Obralaritza tokiko aginteekin	114.657	96.000	210.657
Obralaritza egituratzailea	65.018	25.000	90.018
Laguntza elkarteentzat	26.899	226.600	253.499
Bitartekaritza, info teknologia	27.702	7.750	35.452
Orotara egitasmoak	293.924	361.350	655.274
Administrarritza	Funtzionamendua 216.030	Amortizazioa 69.000	285.030
OROTARA			940.304

Diru banaketaren zati handiena (%70) egitamoak gauzatzeko erabili da. Administrazioaren funtzionamendu eta amortizazio gastuak %30ean mugatzen dira.

Diru-iturriak: botere publikoa Jaurlaritza barne 646.000 €, bazkideak 143.800 € eta erakundearen mozkinak 150.504 €.

“Hogei’ta”

2006an Garapen Kontseiluak “Gazteen Langunea” (*Chantier jeunes*) ireki zuen, Ipar Euskal Herriko gazteriarren argazkia ateratzeko eta ikusteko nola parte-har dezaken lurralde antolaketan. Agertu zen gazteak lurraldeari eta herri kulturari atxikiak zirela. Gogoeta honetarik jalgi zen *Hogei’ta* egitasmoa. EKEren zuzendariak norabideak aurkeztu zituen: “*Bereziki gazteentzat zuzendua izanen den ekintza labela berri bat bideratuko dugu 2011ko urtean: Hogei’ta izenekoa. Nabi genituzke gazteak lagundu, kultura egitasmoen aktore izan daitezen, ekintza berritzaileak bidean ezarriz. Ezinbestekoa da kultura esperimentazioak egitea, irudimena lehenestea, emaitza artistikoak ondoriotzat utziz*» (Pantxoia Etxegoin: *Gaztea.euskonews*, 2010, 172. zenbakia).

Egitasmo hau bi publiko ezberdinei eskainia da: 8-15 urteko haur eta gaztetxoekin euskal nortasun kulturalaren transmisioa egiten da, aldiz 16 eta goragoko gazteek kultura sorkuntza esperimentatu dute, hain maite dituzten arte bisualetan eta hain trebeki erabiltzen dituzten teknologia berriekin. Ororentzat euskara da osagai nagusia, nola ekintza denboran hala publikoari aurkezterakoan. Hastapenean gazteei zuzentzen zaie egitasmo artistikoen deialdia, adibidez bideogintzan, argazkilaritzan eta grafismoan. Ekainaren lehenean izendatu dira, lagunduko diren bi proiektu hoberenak sorkuntzatik aurkezpeneraino. Irizpideak dira urraspidearen berritasuna eta euskararen erabilera.

Ekintzak eta animazioak molde askotakoak dira. 2011ko otsaileko oporretan *Soinu paisaiak* lehiaketa egin da Biarritzeko eta Donostiako 18 gaztetxoaren artean. Talde bakoitzak irudiak eta soinuak bildu ditu Cristina Eneko parkean, Biarritzeko itsas bazterrean edo Itsasuko mendietan. Elkarretaratu dira beren lanak konparatzeko publiko zabalari aurkeztu aitzin. Soinu muntaketak eta argazkiak bildu dira publikoari erakusteko Biarritzeko mediateka, Audiolab eta Cristina Enea zentroaren laguntzarekin.

Irudimena deitu lehiaketak ere arrakasta handia ukan du. Hau Euskal kultur erakundeak bultzatu du, Bilboko Azkue Fundazioarekin batera. Dozena bat argazki ezberdin proposatuak zitzaizkielarik, 25 urtez goitikako edo petikako gazteek behar zuten, Interneten bitartez, edo argazki berri bat asmatu, edo idazlan labur bat egin, euskaraz. Orotara, 130 bat proposamen eginak izan dira, sormen literario eta grafikoan, gehienak interesgarriak emaitza aldetik.

Hain zuzen, idazleek ere badute beren lekua programa honetan, besteak beste urtero *Hitzaditza* izeneko diktaketa publikoaren bidez (ikus 4.3. azpitela). Aurten lizeotako ikasleek asmatu dute ariketarako idazkia, itsasoaren inguruko gai bat landuz. Idazlan hoberenak argitaratzea da helburua.

Bestalde, idazle gazte batek egonaldi bat egin du Hendaiaiko Abbadia gazteluan 2011ko azaroan. Erronka zen jauregia eta itsas bazterra molde berri batez biziaraztea, gazteluko sekretuak asmatzen dituen fizkiozko lan bat idatziz gazteentzat. Ikastetxe batzuetako ikasleak bildu dira idazlearekin. Idazlearen ipuina eta ikasleen idazlan hoberenak argitaratuko dira.

Artistak eta elkarteak gomituak dira lan egitera *Hogei'ta* labelaren itzalean. Izan ere Garaziko Itzal Aktibo elkarteak Gazte Sorkuntza Garaikidearen 2000 euroko saria eskaintzen du, 36 urte baino gazteagoko artista hoberenari. Lehiaketan daude eskulturak, marrazkiak, argazkiak edota bideoak. Elkartearen zeregina da haur eta gazteen arte sorkuntza sustatzea.

Egitasmoa bururatzean erakusketa multimedia ibiltari bat muntatuko da, artista gazteen lanak aurkezteko herriz herri, bereziki sarituak diren artelan bisualak. Harreman interaktiboak eta animazioak sustatuko dira erakusketa kolektiboaren eremuan.

Hogei'ta egitasmoak parte-hartze dinamikoa piztu du bere inguruan kultura elkarteetan, bai eta ere erakunde publikoetan: Eskualdeko Kontserbatorioa, Garapen Kontseilua, Eszena Nazionala, Abbadia Euskal Itsasbazterra zentroa, Azkue Fundazioa, Biarritzeko goi-mailako Audiobisual eskola, Baionako Arte eskola, Biarritzeko Baleta besteak beste harreman zuzenean sartu dira publiko gaztearekin. Jakinez *Hogei'ta* programa berria dela eta bederen hiru urte iraunen duela, beste batzuk ere juntatuko dira, egitasmo amankomunak eramateko xedearekin.

5.4. TOKIKO KOLEKTIBITATEAK

Duela guti arte, tokiko kolektibitateak euskal elkarten proiektuen diruztatzaile ziren oroz gainetik, baina emeki-emeki horietarik batzuk euskararen aldeko politika eta aisialdi politika garatzen hasi dira. Aipatzeko dira noski herriko etxeek dituzten ekitaldi-, zinema-, kontzertu-, kirol-gelak, kirol-zelaiak, etab., aisialdi guneak baitira. Bai eta ere antolatzen dituzten ikastetxetarik kanpoko hezkuntza-aisialdiak. Euskara zailtasunez zailtasun gune eta jarduera horietan sartzen saiatzen da 4. atalean ikusi dugun bezala. Atal horretan erran duguna ez da hemen errepikatuko.

Herriek, herri elkargoek, eta hiriek gazteen euskarazko aisialdien alde egiten dutena azaldu baino lehen, barnealdeko herrien eta kostaldeko hirien arteko desoreka azpimarratzekoa da, nahiz biztanleriaz, nahiz ahalbideetaz.

Halere, ohar honek ez du erran nahi barnealdea basamortua dela, elkarteek eta herriek biziara nahi baitute euskara aztertzen dugun alorrean ere.

BARNEALDEKO PROGRAMAZIO EGITURAK ETA ELKARTEAK

Urtean zehar egitura edo elkarte batzuek euskal kultura programazioa antolatzen dute, alor ezberdinak lagunduz: sorkuntza, artista egonaldiak, animazioak, ekitaldiak eta ikusgarri hedapena. Jardueretan noski batzuk badi-ra gazteenezat. Egitura edo elkarte nagusiak hauek dira: Garazikus elkarte (Donibane Garazi), Hebentik elkarte (Maule), Haize Berri kultur etxea (Izura), Eihartzea elkarte (Hazparne), Traboules elkarte (Heleta), Espace Culturel Oxocelhaya elkarte (Isturitze), Harri Xuri kultur gela (Luhuso), etab. Gehienetan barnealdeko herriek, ttipienek bederen, ez dute euskal kulturaren eta aisialdiaren aldeko egiazko politikarik. Halere, tokiko elkarteek beren egitasmoak gauzatzen dituzte, kolektibitateen laguntzarekin.

KOSTALDEKO HIRIETAKO POLITIKA KULTURALAK

Kostaldean, hiri handienek beren kultura politika propioa garatzen dute orain, hala nola Miarritzen, Baionan, Hendaian, Angelun edo Donibane Lohizunen. Hortan euskal kulturak lekua izan dezake, toki nagusia ez izanik ere. Euskal kultur asteak dira ekitaldi garrantzitsuenak, euskal elkarteek sorturik eta antolaturik eta udalek laguntzen dituztenak. Gazteentzako kontzertuak eta bestak ere azpimarratzekoak dira. Alor ezberdinetan euskara teknikariek elkarteei eta hiriei beren laguntza teknikoak ekartzen diezaizkiete. Gainera oroitaraz dezagun euskarazko aisialdiak Baionan, Hendaian eta Miarritze antolatzen direla haur eta gazteentzat Uda Lekuren bilguneetan.

Hona orain bana-banan kolektibitate horiek gazteentzat daramaten euskal eta euskarazko aisialdi politika. Hemen ere ez gara xehetasunetan sartuko, osotasuna ezinezko baita.

KONTSEILU OROKORRA

EEPren partaideetarik bat izanez gain, Kontseilu Orokorrak bere eskumen alorrean politika propioa darama. Kultura eta hezkuntzaren alorrean, hona bi egitura berri haur edo gazteekin eta euskararekin zerbait ikusteko dutenak.

Irisarriko Ondare Hezkuntzarako Zentroa (Ospitalea)

Egitura garrantzitsu hau 4.I. eta 4.IO. azpiataletan aurkeztua da. Haur eta gazteei euskal ondare heziketa euskarri eta baldintzak ezin hobeak eskaintzen dizkie, euskaraz ere.

Euskal Herriko Artxibo Zentroa

Egitura hau 2010eko ekainaren 14ean ireki zen. Mementoko ez du euskarazko politika berizirik gazteentzat. Halere, ikasleei proposatzen dizkieten bi oreneko atelierrak euskaraz izan daitezke. 2010ean EKEk prestatu duen «Eleketa - Amikuztarrak mintzo» erakusketaren inguruan euskarazko animazio batzuk izan dira bai eta ere euskarazko ipuinak 6-II urtekoentzat.

HERRI ELKARGOAK

Euskara teknikariak

Euskararen Erakunde Publikoarekin batera Ipar Euskal Herriko herri elkargoek euskara teknikariak kontratatu dituzte, bakoitzak soldata erdia ordainduz. 2010ean zortzi ziren: Baionako (2007), Biarritzeko (2007) eta Hendaiaiko herriko etxeetan, Garazi-Baigorri, Idoldi Oztibarre eta Amikuze hiru herri elkargoentzat bat (2007), Errobi Herri Elkargoan (2007), Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoan (2006), Xiberoko Herri Elkargoan (2006, lanpostu erdia) eta Hazparneko Lurralde Herri elkargoan (2009).

EEPren eta herri elkargoen edo hirien arteko hitzarmenen bi helburuak hauek dira: “Euskararen erabilpena sustatu Herriko Etxeetan eta horretan jarduteko nahikeria duten udalak lagundu - Euskararen lekua garatu Herri Elkargoetan edo herrietan animazio eta sentiberatze ekimenak antolatuz” (www.mintzaira.fr). EEPren politikak gazteen euskarazko aisialdiak gero eta gehiago kontuan hartuko dituen neurrian, pentsa dezakegu herri elkargoen hizkuntza politikak gauza bera eginen duela.

Hona adibide bat Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoan gertatu dena: *Lamiluma* proiektua, euskara teknikariak bultzatua EEPren laguntzarekin. Sara, Hendaia, Urruña, Ainhoa eta Senpereko eskola lebidunetan eta ikastoletan, Fernando Morillo gazte literaturako idazle profesionalak eta Jon Zabaleta ilustratzaileak tailerrak animatu dituzte 2008-2009ko ikasturtean zehar. Ondotik, ikasleek sortu dituzten ipuinak CD-Rom batean bilduak eta argitaratuak izan dira.

Artzamendi Sindikatua

Bost herrik osatzen dute sindikatu hau: Kanbo, Ezpeleta, Itsasu, Luhuso, Zuraide. Daramaten politika kulturala eredugarri izan daiteke. Luhusoko Harri Xuri kultura gelako animazioa beren gain hartu dute euskal elkarte kultural batzuen pardaizetaren bidez. “*Harri Xuri «Euskarazko antzerkiaren eta karrikako arteen Fabrika»* proiektua 2009an sortu da (ikus 4.5. ere). Luhusoko kultura gelan Le Petit Théâtre de Pain konpainiak, Kirikolo Zirko konpainiak eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak beren bizilekua badute. Hiru egitura hauek urteroko animazioa eta programazioa antolatzen dituzte. Tarifa apalak proposatuz, gazteak, bereziki bikote gazteak, egitarauaren xede-publikoak dira.

BAIONAKO HIRIA

Ikerketa honetan zehar Baionan euskaraz egiten diren animazioak, bestak eta beste ekintzak, aipatu dira. Euskal elkarteen ekimenen ondorioak dira nagusiki, hiriko laguntzarekin antolatuak badira ere.

Hizkuntza politikaz

2007z gero Baionako udalak euskara teknikari bat dauka. Hiriak 2010eko martxoaren 4an Euskararen Erakunde Publikoarekin duen partaidetza hitzarmena berritu zuen beste hiru urterentzat.

Hiri barneko mediatekak euskarazko animazio zonbait antolatzen ditu gazteria gunean, irakurketa edo ipuin tailerrak besteak beste. Baina ohartzen gara, adibidez, udaleko webgune ofiziala frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz dela (www.bayonne.fr). Euskaraz ez. Zergatik? Okzitanieraz (gaskoiaz) ere izan beharko baita? Ez da arazoa. Teknikoki webgune bosteledun baten antolatzea egingarri da. Ipar Euskal Herriko hiri nagusiak, hiri administratiboak eredugarri izan behar luke. Halere 2009z geroz webgune horrek «Baionako hiriko euskarari zuzendu gunea» leiho bat dauka (www.euskara.bayonne.fr). Baionan urtean zehar proposatzen diren euskarazko edo euskal kulturari buruzko animazioak aurkezten ditu.

Euskal Museoa eta Baionako historiarena

Euskal Museoa Euskal Herriko erakustoki etnografikorik handiena da. Gai nagusiak dira euskal nortasuna, euskal gizartearen bizimolde eta ohiturak, eta Baionako portua azken mendeetan. «Argitu» heziketa zerbitzuak tailer, animazio eta tresna pedagogikoak eskaintzen ditu, batzuk euskaraz.

BIARRITZEKO HIRIA

Euskararen aldeko politika alorrean Biarritzeko udala da hain segur udal aitzinatuenetarik bat. Euskal elkarteak sustengatzeaz gain hiriak darama bere hizkuntza politika propioa.

Euskara Bulegoa

2007z gero Biarritzeko hiriak euskara teknikari bat dauka. Dokumentu ezberdinak ekoizten ditu: *Zer diozu?* euskararen hilabetekari elebiduna, *Hiztegi tipia* deitu plaketa, hondakinen eta garapen iraunkorraren lexikoa eskaintzen du. Ez da haurrei bakarrik zuzendua. Udalak euskarari buruzko webgune bat ireki du, *Euskararen bloga* deitzen dena (biarritzeuskara.canalblog.com).

Beste esperientzia berri hau aipa dezagun. 2009z geroz Biarritzeko eskola elebidunetan eta ikastolan bide-prebentzioa euskaraz egiten da, udaletxeak antolaturik.

Euskararen Herri Batzordea

Zazpi udal hautetsik eta 23 elkarte ordezkari osatzen dute batzorde hau. Hemen ere bi lan-ardatz nagusitan balaunaldi gazteak baditugu.

Mediateka

Euskal liburu eta musika fundoa 4.3. azpiatalean aipatu da. Mediatekak animazioak ere proposatzen ditu, hilabete oroz euskarari edo euskal kulturari lotu den gai bat hartuz EKErekin batera.

Atabal aretoa

Egitura honek musika-kontzertuak gazteentzat proposatzen ditu eta euskal musika modernoak bere lekua badu. Partaidetza batzuk AEK eta Udako Euskal Unibertsitatearekin eramaten ditu euskara baliaitzeko.

Bi Harriz Lau Xori festibala

Euskal eta munduko kulturak gurutzatzen dituen urteroko kultura astea da. 2011ko martxoaren 22-26an adibidez, euskal dantza, antzerkia (Théâtre des Chimères-en *Osaba Viana* eta haurrentzat *Baba Zango Horiak*) edota musika (Sorkun talde eta euskal rockaz film bat) eskaini ziren.

HENDAIAKO HIRIA

Hizkuntza politikaz

Hendaiako udala da Ipar Euskal Herrian euskara teknikari bat hartu zuen lehena, EEPk lanpostu horiek sortu baino lehen. “*Hendaiako Herriko Etxeak elebitasun orekatu baten aldeko politika dinamikoa eramaten du, sentsibilitate ezberdinak errespetatuz*“ erraten digu udalak (www.hendaye.com). Herriko webgunea elebiduna da, frantsesez eta euskaraz. Herriko kontseiluan Udal Euskara Batzordea dago. Udal Euskara Batzordeak «Hendaia euskaraz» euskararen hilabetea antolatzen du. Horrez gain, euskara zerbitzuak eta hiriko eragile ezberdinek hilabetero euskara eta euskal kulturari lotu hitzorduak proposatzen dituzte.

Euskararen hilabetea

2010eko lehen edizioaren gaia «Euskara herriko zerbitzuetan» izan zen. 2011ko martxoan bigarrena izan zen, «Euskara karrikan, Hendaiako elkar-teen bitartez» lemarekin. Antzerkia (*Iduzkilorre*, Lapurdi 1609-2009 elkarte), kontatzailea (Xan Errotabehere), euskarazko tailerra Antxeta irrastian, Abba-diako jauregiaren bisita euskaraz, kantaldia, ibilaldia izan ziren.

BESTE HERRIAK

Duela urte batzuk, arestian aipatu ditugun hiriak baino ttipiagoak izanik ere, Azkaineko, Ezpeletako, Sarako udalek euskararen aldeko politika bat daramate. Haurrak eta gazteak lehentasunetan dira.

Beste herrietan ere aztertzen dugun alorrean euskal jarduerak, bestak edo kontzertuak egin daitezke 4. atalean zehar aurkeztu den bezala. Halere, iduri du borondate politikoa ahulago dela, mementoko bederen.



Euskal Herriko Artxibo Zentroa - Baiona
(www.cg.64.fr)

Les atouts du bilinguisme
basque-français à l'école

Pourquoi le bilinguisme précoce en français et en basque ? La maîtrise des autres langues ? Quels développements cognitifs chez les bilingues ? Pour répondre à ces questions, la Ville de Biarritz et l'Office public de la langue basque organisent des "ateliers linguistiques de l'enseignement bilingue basque-français".

maizta
17-20 mai
Biarritz

Elebitasunaren onurak eskolan

Biarritze Hiria eta Euskararen Erakunde Publikoak "euskara-frantsesa irakaskuntza elebidunaren hizkuntza tailerrak Biarritzen" antolatzen dituzte.

Infos / Argibideak : Bureau municipal de la langue basque - Euskarara bulegoa 05 59 41 59 97
Écoles / Eskolak : Alsaco Thermes-Salins, Michellet Paul-Bert, Reptou, Ikastola, Sainte-Marie

Biarritzeko hiriko elebitasunaren
aldeko kanpaina
(biarritzeuskara.canalblog.com)

6. IKERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak ikerketa bat manatu zuen 2007an gaurko euskal kulturgintzaz. Oinarrian kontraste bat badago. Alde batetik herritarrek beren jatorrizko kulturaz berriz jabetu nahi dute, euskara ikasiz, ohizko jarduerak berpiztuz, dantza, kantua bertsolaritza eta gertakari jendetsuetan parte-hartuz, bestetan edota kiroletan. Bestalde euskaltasuna folklore bilakatzen ari da, turismoa akulatzeke edo tokiko ekoizpenak saltzeko. Euskara galtzen ari delarik hemengo gasna da “euskaraz mintzatzen” publizitateak dionaz. Altaba, 2020ko prospektibaren arabera euskaltasuna gizarte bizikidetzaren iturri izan liteke: kultura aniztasuna onartuko litzateke, eta kontrasteak gaindituko lirateke iragana eta etorkizunaren artean, ondarea eta sorkuntzaren artean, berezitasuna eta unibertsaltasunaren artean (*Kultura 2006*: 69. or.).

Herritar gazteak ere biziberritze honetan murgilduak dira. Publiko aldatokorra osatzen dute; informazio eta komunikazioaren teknologia berriak maite dituzte baina denbora berean elkarrekin dabilta, baina maiz aitzineko belaunaldien gustuen aurka agertuz. Teknologikotasuna eta pribatutasuna dira oraingo aisialdien bi ezaugarri nagusiak, bereziki gazteen kasuan. Beste ezaugarri bat da aisialdiaren garrantzi gero eta handiagoa gure mendebaldeko gizartean.

Gure helburua da gazteek euskara erabil dezaten, ikasi dutenek bederen eta besteak euskarara erakarri nahi ditugu. Nola gazteak hurbilarazi euskarazko aisialdietara, euskal kultura ekoizpenetara? Nola egin euskal sorkuntzan parte-har dezaten, garai batean euskal rockarekin izan zen bezala? Hots nola egin euskal produktuak eta zerbitzuak erakargarriak izan daitezen publiko berrientzat?

6.1. INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

ELKARTEEN DINAMIKA

Elkarteen dinamika lehen indargunea da aisialdiaren alorrean. Oroitaraz dezagun aztertzen ditugun alor ezberdinetan euskal eskaintzaren iturburua elkarteena, euskal militanteena dela, ezagutza publikoa berri dela eta ez beti osoa. Eskaintza hau euskal lurraldeari lotua zaio, bai eta ere nortasunari, bizimoduari. Baserri ingurunean, elkarte sektorea biziki aktiboa da tradizio kulturari jarraikiz, herriko bestetan, kultura eta kirol elkarteetan, ikaste-txeetako animazioetan, arrapizten diren tradizioko manifestaldi kulturaletan. Eta dinamika honetan gazteria maiz lehen lerroan da. Elkarteen eta artisten formakuntza eta sorkuntza lana onartua da, aspaldidanik EKEren aldetik, gero eta gehiago botere publikoenganik. EEPko egitasmo deialdiak eragile pribatuei eta ikastetxeei zuzenduak direnez, mugimendu honen froga argia da. Dena dela euskal kultura gero eta gehiago kontuan hartua da kostaldeko hirietan ere (*Kultura 2006*: 68. or.).

Aipatu txostenak bi ahulezia azpimarratzen ditu. Bata litzateke ezkaintza, nahiz aisialdiarena, nahiz kulturula eta artistikoa, amateurren gain oinarritzen dela Ipar Euskal Herrian, bereziki barnealdean, profesionalizatze prozesua bidean bada ere. Bi adibide Zuberoako maskarada (*ibidem*: 8. or.) eta Nafarroa Behereko libertimenduak. Ohartzen gara halere “amateur” ezaugarria behar-beharrezkoa dela gaur egun euskal sorkuntza eta hedapena biziartzeko. Beste ahulezia da euskal kultura gero eta erdaldunago agertzen dela (*ibidem*: 89. or.).

AISIALDIARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOA

Beste indargune nagusia da orain euskarazko aisialdiari buruzko politika publiko proiektua badela. Estatua, Eskualdea, Departamendua eta Udalarateko Sindikatua engaiatu dira aisialdian euskararen erabilpena sustatzeko “hizkuntza eta gozamina uztartuz” (*Hizkuntza politika 2006*: 47. or.). Lehenago politika eragileen sostenguan mugatzen zen, baina orain bi norabide estrategiko definitu dira, eskaintza erakargarria lurrade osoan zabaltzea eta profesionalen formazioa. Jarraian lan-ildo asko zerrendatu dira beharrezkoak diren baliabideak erdiesteko, ekintzak, gaitasunak eta tresnak. Euskararen Erakunde Publikoa bere langileekin eta hizkuntza teknikarien sarearekin egitasmoa aitzinarazten du.

Gainera euskal kulturgintzaren garapena ere bultzatua da Euskal Kultur Erakundearen bidez: ekintza egituratzaileak eramaten ditu, kultura elkarteak

laguntzen eta kulturaren obragintza publikoan ere herriaren beharrak adierazten. Ikusi dugu kulturak zein eragin handia duen gazteen aisialdia euskalduntzeko. Horiek hola ez gaitezen euforian aira, eginak ez diren lan-lerroak askoz eginak direnak baino gehiago dira. Halere orain badugu erreferentziatzko "ibilbide orria", etapa oroz ikusteko noraino helduak garen eta zein baliabide bildu behar diren lasterrago ibiltzeko.

HEDAPENA

Beste indargune bat da kulturgintza, zinema eta irakurketa sareek lurralde osoa molde eraginkorrean estaltzen dutela (*Kultura 2006*: 19., 35. or). Irrati, kirol ekipamendu eta oro har elkarte eta erakunde sareentzat gauza bera erran daiteke. Dena dela zertan da euskarazko aisialdiaren hedapena? Zein neurritan baliatzen ditu aipatu sare horiek?

Orain arte ikastetxetik kanpoko eta ikastetxe orduz kanpoko eskaintza hedatu da Ipar Euskal Herrian. Aisialdi hezitzaile antolatuen eskalduntzea izan da helburu nagusia. Baina zein den oraingo aisialdiaren bilakaera ikusiz, komunikazio teknologia berrien eskaintza eta erabilpena, gazteen hizkuntza politikaren xede-alorrak izan behar dira ahal den neurrian.

2006an hedapena bizkortzeko Euskal Kultur Erakundeak proposatzen zuen "*Euskal kultura programazio zabalago batzuetan sartzeari proposatu (lurralde eszenak, ikusgarri antolaketak, jaialdiak, besta komiteak...*" (*Kultura 2013*: 17. or.). Zerrenda hau zabal dezagun emendatuz kultura elkarteak eta kirol klubak (Aviron Bayonnais eta Biarritz Olymque klubekin urraspidea hasia da), auzotegi etxeak, udaletxeetako zerbitzu kulturalak. Hauetarik batzuk abiatuak dira jadanik, Biarritzek bere euskara zerbitzua dauka adibidez.

Arestian, euskal elkarteek promozio hori egiten dutela ikusi dugu, beren ekitaldi eta festibalak sortuz. Baina botere publikoen eta lurralde kolektibitateen bidez, finantzatzaile gisa, kultura «ofizialean» ari diren erakundeek euskal kultura eta euskarazko aisia bultzatu behar lituzkete, ekonomiaren, aisiaren eta euskal kulturaren munduak hurbilduz.

6.2. PROPOSAMEN ETA GOMENDIO BEREZIAK

Aisialdiaren eremu bakoitzean proposamenak edo gomendioak egin ziren. Hona hemen 12 proposamenen laburpenak.

- I. Aisialdi eta opor zentro sarea lurralde osora zabaltzea beharrezkoa da eskuduntza duten erakundeen laguntzarekin eta denbora berean familien gogoia piztea euskarazko aisialdiaren alde.

2. Euskarazko komunikabideen zerbitzua osatuko da oraingo irrati sarea indartuz, Hegoaldeko telebistak Iparraldekoekin uztartuz, haur eta gazteentzat euskarazko ikus-entzunezko jokoak eta euskarri elektronikokoak asmatuz edo moldatuz, laguntza publikoa delarik beharrezko baldintza.
3. Euskarazko irakurketa bultzatzeko haurrentzat bezala gazteentzat ere mota guzietako liburu bilduma bat sortu behar litzateke, erakunde publikoek eta argitaletxeek edota Ikas pedagogia zerbitzuak parte-hartuz.
4. Euskal musika, kantua eta dantza sustatuko behar dira, baliabide eraginkorrak baitira euskaraz aritzeko atsegina emateko dakiten gazteei eta publiko berri bat euskara erakartzeko.
5. Gazteek gustukoak dituzte antzerkiak eta bertso saioak. Alor honetan ere sormena elkarteen eta artisten esku da. Erakunde publikoei eskatuko zeizkie formazio zerbitzuak eta baldintza materialak.
6. Elkarrekin arte plastiko tailerrak eta animazioak eramaten dituzte tokiko aginteen sostenguekin. Euskararen erabilera ere bultzatu lezakete EEPren laguntza teknikoarekin.
7. Kirolak gero eta toki handiagoa duelarik gizarte-bizitzan, euskaldun kirolari ospetsuak nortasun erreferente bilakatzen dira gazteentzat. EEPren bidez erakunde publikoek eta elkarrekin euskararen erabilera sustatu lezakete, bereziki kirola arrakastatsuenetan.
8. Festibalak eta bestak laguntzen dituzte tokiko agintek. Botere publikoa euskararen alde agertzen denezkero, antolatzaileak engaiatuko dira euskararen presentzia handitzeko EKE eta EEPren bitartez.
9. Euskarazko filmak Ipar Euskal Herrian hedatzeko banaketa egitura bat antolatuko da, hitzarmen bat sinatuz oraingo banatzaileen, udalerrien eta EEPren artean eta dagon zinemagela sareaz baliatuz.
10. Gazteek ondarea balora lezakete, eragileak sustatzen badira EKE eta EEPren arteko lankidetzari esker: bataz herriko aberastasunak biltzen ditu, besteak erakustokiak euskalduntzen dituelarik.
11. Aisialdi zientifikoa eta ekologikoa gazteei euskaraz eskainiko zeie ikastetxeen barnean, bai eta ere kanpoan tokiko agintek eragileak sostengatzen dituzten neurrian.
12. Berezko aisialdian eta gaztetxeetan erabiltzen diren euskarrien euskalduntzea lan-ildo eraginkorra litzateke, erakunde pribatuak eta publikoak arteko lankidetzak eskatzen duena.

6.3. PROPOSAMEN OROKORRAK

Kontuan hartuz aztertu ditugun indarguneak eta ahuleziak, aisialdiaren eremuak zeharkatzen dituzten proposamen batzuk egiten ditugu.

Gazteria, elkarteak edota kirola eskuduntzan daukaten tokiko elkargoek beren gain har dezatela euskarari tokia ematea, aisialdi eremuetan, hizkuntza teknikarien bitartez.

Hizkuntza politika bi gertakari nagusiz baliatu behar luke: alde batetik tokiko elkargoen erreformak eskuduntza orokorra emanen die herri elkargoei eta besteak beste gazteria eta kultura mailan; bestalde Euskararen Erakunde Publikoak, partaidetzan hiriekin eta herri elkargoekin hizkuntza teknikarian sarea hedatzen du Ipar Euskal Herri osoan. Bi aldaketa nagusi hauek sinergian uztartuz euskarak aitzinamendu handia egin lezake, bereziki aisialdi eremuetan.

Neurri batean zaila da gazteen aisialdia eragitea, partzialki pribatua denez, ohiko egituretarik kanpo egiten baita. Egituratzen ari den hezkuntza artistikoan, egiazko politika publiko bat bultzatzeko litzateke ohizko euskal musika, dantza eta kantuararen irakaskuntzan, Ikuskaritza akademikoaren eta Kontseilu orokorraren artean.

Hizkuntza politika publikoak lagun ditzatela aisialdiak euskalduntzen dibarduten eragileak eta molde berezian eragin handia duten egiturak: Uda Leku, euskal hedabideak, kirol elkarteak, festibalak.

Aisialdiaren alorrean, etorkizunari buruz, Euskararen Erakunde Publikoaren lehen helburua da egitura eraginkorrek indartzea : Uda Leku, Karkaila eta Basaizea bezalako elkarteak bai eta ere beste batzuk adibidez gaztetxeak. Diru laguntzaz gain, “labelizazio dispositiboa” ere erabil daiteke. Labelizazioaren bidez, egiturak sailkatzen dira, irakaskuntzako ereduak bezala: euskarazko egiturak, egitura kolektiboki elebidunak, egitura pertsonalki elebidunak. Sailkapen hau egin da gurasoek jakinean hautu bat egin dezaten haurtzaindegien artean. Aholku Batzordean proposamena egin zen jokamolde berdina aplikatzeko beste egitura batzuk ere kalifikatzeko, euskararen erabilera kontuan hartuz.

Aisialdia euskalduntzeko, laguntza eraginkorra hartze dute gazteengan arrakasta handia duten baliabideek, bereziki zinemak eta joko elektronikoek.

Erakundeen egitarauan sartu behar dira eta indartu orain arte guti landu diren bi eremu: zinema, euskarri eta joko elektronikoak. Harrigarriko arrakasta dute haur eta gaztetxoaren artean. Baina eskaintza ahula da euskaraz. Beraz filma eta joko argitalpena bultzatu behar da, sorkuntza edo bederen itzulpena lagunduz.

Informazioa eta komunikazioa molde askotan zabaldu behar da, euskarazko kultura eta aisialdia eskaintzeko.

Informazio asko egiten da erakundeen eta elkarten web atarien bitartez. Laster bide beretik eta telefono mugikorrek erabiliz harreman interaktiboak lotuko dira Ipar Euskal Herrian ere.

Beste molde bat litzateke aldizkari berezi bat argitaratzea. Jarraibide argigarria badugu. *Cultzine.com* frantsesezko hilabetekaria dohainik hedatzen da Euskal Herrian, Biarnoan eta Hego Landetan. Gazteentzat biziki erakarria da bere gaiak oraingo musikak, kulturak, joerak, kontzertuen datak direlaokoz besteak beste. Gazteek saltegietan, kontzertu aretoetan aurki dezakete. Gauza batzuk euskaraz idatziak dira, zinez guti. Adibidez 2010ko irailan, 129. zenbakian, *Glisseguna*, *Dantza Hirian* eta AEKren sartze kanpaina aipatu ziren, baina 2010ko azaroko eta abenduko zenbakietan deus ez. Holako aldizkari bat hilabete oroz euskarazko eskaintza aurkeztuko lukeena biziki baliagarri litzateke gazteentzat. Mugaz gaineko harremanak indartuz, Euskal Herri osoko gazteentzat kultura eta aisialdi eskaintza eskuragarri izan liteke.

Euskarazko ekoizpen kulturalaren kontsumoa sustatuko da, eskaintza eginez euskaldunei bai eta ere publiko berriei.

EKEren helburua da «euskal kulturaren ezagutzeko tresna moderno eta ludikoak sortzea (...) bereziki eskolan euskal kulturari buruz deusik egiten ez duten baurrentzat» (*Kultura 2013*: 13. or.). Gazteen euskal kultura eta aisialdi kontsumoa bultzatzeko, ekonomia eta kulturaren munduak uztartuko dira, euskarazko merkatua frantsesezkoa baino ttipiagoa dela jakinez. Publiko erdalduna ez da baztertzea. “Bitartekaritza lan berezia egin behar da publiko berriei buruz, bereziki hirietan bizi diren erdalduei buruz” (*ibidem*: 25. or.). Ildo honetan BABko eta kostaldeko gazteria erdalduna xede-publiko berezia da. Seaskak antolatzen duen *Glisseguna* ereduazko jarduera da, euskara eta lerratze kirolak uztartzen baititu Angelun.

Aisialdiaren eremuan nabari da euskalgintza eta kulturagintza uztartzen direla eta Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Kultur Erakundearen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela.

1990az geroztik Euskal Kultur Erakundeak “dena” egiten zuen. 2005ean Euskararen Erakunde Publikoa sortu zelarik kulturagintza eta euskalgintza bereizi ziren, eta ororen buru, baliabide publikoak hirukoiztu zirelarik. Beraz euskara irabazle atera zen. Baina bi erakundearen arteko lankidetzaren ez da nabari, bien artean hitzarmen bat ezenpetu bada ere. Alabaina jarduera askotan kultura eta hizkuntza lotuak dira. Argitalpenean elkarlan bat egiten da. Beste alorretan ere baliabideen metaketak eraginkortasuna bizkor lezake.

Mugaz gaineko lankidetzak indartu behar da nola molde formalean hala molde informalean. EEPk eta EKEk hitzarmen iraunkor ofizialak izenpetu dituzte Eusko Jaurlaritzarekin eta harremanak biziki eraginkorrak agertzen dira. Gainera beste hitzarmen batzuk noizean behin eraikitzen dira udalerrri edo erakunde batzuekin. Ikastetxeek ikasle euskaldunen arteko trukaketak egiten dituzten bezala, mugaz gaineko harremanak emendatu behar dira aisialdi eremu guzietan. Bertsolaritzaren kasuan gertatzen dena, kirolaren, dantzaren edo Interneten alorrean egin daiteke.

6.4. AZKEN HITZA

Gure ibilbidea bururatzen da. Zertan da euskarazko aisialdia Ipar Euskal Herriko gazteentzat? Ohartu gara alor honen azterketa zein zaila zen, gazteek sortzen dituzten esparru informalak, mundu birtualak hunki-ezinak baitzaizkigu era batez. Halere, aisialdi antolatuek, aisialdi hezitzaileak leku handia hartzen dute gazte gehiengoaren agendan. Aisialdi hezitzaileak dira bereziki guk aztertu ditugunak.

Gaur egungo bizitzan gero eta aizina gehiago badugu. Egunean 8 orenez lan egiten dugu edo ikasten, 8 orenez lo egiten, 8 orenez aizina daukagu jateko edateko edo beste gozamenentzat. Astean guti gorabehera 35/40 orenez lan egin ondoren, egun argiz 70/75 orenez aizina dugu nahi duguna egiteko. Bizitza osoan 20 urtez ikasten dugu, 40 urtez lan egiten eta 30 urteren erretreta goaita genezake. Berenaz denbora librea nolazbait bete behar den denbora da.

Aisialdiak du aizina betetzen. Eta zer egiten da denbora pasa? Badira aisialdi antolatuak eta libreak. Alde batetik pidaia, komunikabideak, liburuak, musika, antzerkia, artetegintza, kirola, zinema; eta bestalde lan lasaia, aste buruko baratzegegintza, arrantza eta ehiza, onddo edo gerezi bilketa... Baina maizenik aisialdia industria bat bilakatu da: kirol lehiaketa eraldioak, txirringintza itzuli oro, opor mota guztiak, ondartzak, mendia, negu kirolak, ur kirolak, beilak, joko elektronikoak, fimen, musikaren, ikus-entzunezko ezkoipena... Orogen buru, denbora pasa libreana ere kontsumo merkatuan sartu da, agian herriko ekoizpenak erosteko.

Horiek hola nor dira hemengo gazteak? Gazteek gero eta euskara gehiago ikasten dute, eskolan etxean baino gehiago. Euskara maite dute baina ez dute biziki erabiltzen eskolatik kanpo salbu kultura ekintzetan eta mugaz gaineko harremanetan. Euskal nortasuna adierazten dute bereziki bestetan eta manifestaldietan. Kirolzale dira telebistaren aitzinean, bai eta ere kirol praktikatzaile mendi, plaza, zelaietan eta itsas bazterretan. Gurasoak baino trebeago dira informazio eta komunikazio teknologia berrietan.

Jende helduek zer nahi dute gazteentzat? Guraso aburuz aisialdia ere formazio eta hezkuntza denbora bat da nolazbait eskolari eta euskarari lotua. Egitasmo antolatua eta zainduak bilatzen dituzte segurtasuna lehenetsiz. Kalitatezko jarduerak nahi dituzte beren seme-alabentzat, sorkuntza sustatzeko eta ahalaz gaitasun berezi bat bizkortzeko, kirolan, musikan ala kulturgingintzan, nork bere gustuaren arabera. Dena dela psikologo famatu batek dionaz, gurasoek haurrei utzi behar diete “aspertzeko denbora”, “ahate ttipi itsusia” beltxarga eder bat bilaka dadin (Cerulek, 2001).

Eta gazteek zer nahi dute berentzat? Oro har Euskal Herriko gazteak ez dira malerus aisialdi antolatuetan, sorkuntza eta irudimena bermatzen diren neurrian. Halere beren bizitza asmatu nahi dute elkarrekin edo bakarka, jende helduen mundutik ihes egiteko. Aterabide asko dituzte, beren arteko denbora-pasa eta kontsumoak edo nork bere joko elektronikoa eta sare birtualak. Horiek hola maizenik oreka bat atxikitzen dute, ihesaldiak bai, baina etxetik alde egiteko presarik gabe, mendian edo Interneten ibiltari eta denbora berean “etxezilo”.

Ororen buru, zahar ala gazte orok isilean aldarikatzen dugu farniente eskubidea, alferraldi gozoa. Zertarako? Beste bizitza bat asmatzeko, daukaguna baino ederrago eta atseginago edo ilunago eta dramatikoago. Edo berdin daukagun munduaren ederraz eta atseginaz gozatzeko. Hots irudimenaren bidez errealitatik plazerrera iragaiteko.

Aurkeztu ditugun 20 proposamenak 2 gomendiotan bil daitezke. Alde batetik eragile guziak lauzka daitezela euskal aisialdia eraikitzeko, botere publikoa, elkarteak, erakundeak eta lamda herritarrak. Molde berezian, EEP eta EKE eragile guzien bilgune direlako, ekarlan zabala antola dezatela, aisialdi, kultura eta hizkuntza politika eramateko. Bestalde, eta denbora berean, gazte guziak mobiliza daitezela mugaz gainetik, nahi duten bezala, Eskual Herri atseginago bat asmatzeko.

Ikerketa honen ondotik zein da gure sentimentua? Noiz nola. Batzuetan sentimentu ilunean gaude ikusiz aisialdi guzia dela ekoizpen, kontsumo eta merkatu. Eta testuinguru sozio-ekonomiko berri honetan euskarak duen leku ttipia. Halere noizean behin ikusmoldea argiago da eta filosofoak bezala pentsatzen dugu aisialdiak ezartzen gaituela zibilizazio berri baten atarian (Dumazelier, 1962). Oro har, persona bakoitzarentzat lan denboraren laburpena eta azinaren luzapena ez ote da askatasunaren seinale? Ez ote dio jendeei ematen jendetasuna eraikitzeko aukera? Hola balitz bakoitzak bere nortasun pertsonala eta gizarteak identitate kolektiboa eraikitzeko aizina balukete. Gure itxaropena da Euskal Herriko gazteriarentzat aisialdia bere euskaltasuna egituratzeko parada dela, behar-beharrezkoa bilakatzen ari baita euskararen jarraipena segurtatzeko.

BIBLIOGRAFIA

- Amonarritz Kike, Olariaga Anton, Urmeneta Asisko, 2003, *SMS: Segapotoen Mezu Sekretuak*, Zazpiak Batman Kolektiboa, Donostia, Ikastolen elkarteak.
- Baxok Erramun, 2008, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*, 2006ko inkesta soziolinguistikoa, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*.
- Baxok Erramun eta beste, 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Berrio-Otxoa Kontxesi, Hernández Jone Miren, Martínez Zesar, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*, Soziologiako Euskal Koadernoak, 13, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- Biarritzeko hiria, 2009-2010, *Zer diozu? Euskararen aldizkaria* – Bulletin de la langue basque, www.biarritzeuskara.canalblog.com.
- Cerulnick Boris, 2001, *Les vilains petits canards*, Paris, Editions Odile Jacob.
- Dumazelier, Joffre, 1962, *Vers une civilisation des loisirs?* Paris, Seuil.
- Etat – Région Aquitaine – Département des Pyrénées-Atlantiques – Conseil des Élus du Pays basque, 2000, *Convention spécifique Pays Basque 2001-2006 [Euskal Herriko Hitzarmen berezia 2001-2006]*, 2000-12-22an izenpetua, polikopia, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/conv-spedec01.pdf>.
- Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua, 2007 maiatza, *Pays Basque 2020 Etat des lieux sur la culture (Euskal Herri 2020, Kulturaren egoera-azterketa Lurraldea 2006)*, www.arcad64.net/pdf/Etat-lieux-culturePB-0507.pdf.
- Euskal Kultur Erakundea, 2001, *Etorkizuna aurreikusten 1999: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara Iparraldeko egoera*, Euskal Kultur Erakundea.
- _____, 2006-10-21, *Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka* – *Culture basque 2007-2013 Devenir ensemble*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.
- _____, 2007, *Ekintzen bilduma* – *Bilan d'activités 2006*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.

- _____, 2008, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités 2007*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.
- _____, 2009, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités 2008*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.
- _____, 2010, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités 2009*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.
- _____, 2010, *Gazteak euskal kulturaren berritzaile – Les jeunes réinventent la culture basque*, www.hogeita.com.
- _____, 2011, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités 2010*, Euskal Kultur Erakundea, www.eke.org.
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2006ko abendua, *Hizkuntza politika proiektua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lebentasun»*, elebiduna, www.mintzaira.fr.
- _____, 2007, *Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileei zuzendua den proiektu deialdiaren ebazpena*.
- _____, 2008, *Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileei zuzendua den proiektu deialdiaren ebazpena*.
- _____, 2009, *Euskararen alorrean dibarduten Ipar Euskal Herriko eragileei zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren ebazpena*.
- _____, 2009, *2008-2009 ikasturteko Ikastetxeen Proiektu Deialdia - Erabakiak*.
- _____, 2009 urria, *État des lieux provisoire de l'action menée par l'Office Public de la Langue Basque*, www.mintzaira.fr.
- _____, 2009 abendua, *Cadre opérationnel provisoire 2010-2016 pour la politique publique linguistique*, www.mintzaira.fr.
- _____, 2010, *Euskararen alorrean dibarduten Ipar Euskal Herriko eragileei zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren ebazpena*.
- _____, 2010, *Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren 2010. urteko araudia*.
- _____, 2010, *2009-2010 ikasturteko Ikastetxeen Proiektu Deialdia - Erabakiak*.
- _____, 2010, «Argitalpen atala» 2010. urteko araudia.
- _____, 2010, urria, *2010-2016 urteetako hizkuntza politikaren Jokabide Esparrua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lebentasun»* .
- _____, 2011, *2010-2011 ikasturteko Ikastetxeen Proiektu Deialdia - Erabakiak*.
- Eusko Jaurlaritza, 2008, *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Kontseilua, Euskal Kultur Erakundea, 2008, *Kultura Obiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- _____, 2008, *Kultura Obiturak Praktikak eta Kontsumoa Ipar Euskal Herria 2007-2008*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

- Gaindegia, 2009, abendua-décembre, *Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa / Portrait démographique et social du Pays Basque Nord*, www.gaindegia.org/files/IparEuskalHerrikoArgazkia.pdf
- Hernández Jone Miren, 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, bizkuntzak eta identitateen adierazpenak*, Soziologiako Euskal Koadernoak, 16, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- _____, 2010, «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur» hitzaldia, «Gazteak, aisialdia eta euskara», XV. Jagon jardunaldiak, 2010/11/19, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Ipsos Media, 2007 urria, *Komunikabideen erabilpenaren azterketa: Telebista eta irratia - Enquête de fréquentation des médias: Télévision et radio*, 2007, Euskararen Erakunde Publikoa, www.mintzaira.fr.
- Lurralde, 2006, *Chantier jeunes / Pays Basque 2020, Photographie de la jeunesse du Pays Basque*, Conseil de développement, Conseil des Elus du Pays Basque www.lurralde.net.
- Martínez García Zesar, Hernández García Jone Miren, Berrio-Otxoa de Angiozar Kontxesi, 2000, Aisialdiaren definizioa eta bilakaera, *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*, Gipuzkoako Foru Aldundia, http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/PDFeus/I_ATALA.pdf.
- Martínez de Luna Iñaki eta Berri-Otxoa Kontxesi [zuzend.], 2000, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Kultur Erakunde.
- Ministère de la Culture et de la Communication, de l'Éducation Nationale, de l'Intérieur, 2010, *Rapport d'évaluation de l'Office public de la langue basque*, http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/OPLB_rapport_evaluation_defin._juillet_2010.pdf.
- Mota F., Subirats J., 2000, «El quinto elemento: el capital social de las Comunidades Autónomas. Su impacto sobre el funcionamiento del sistema político autonómico», *Revista española de ciencia política*, nº I(2).
- Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa, Topagunea, 2009, *Gazteen bizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*, Soziolinguistika Klusterra, <http://www.soziolinguistika.org/gazteak>.
- Prentsa: *Berria* egunkaria, *Herria* astekaria, *Le Journal du Pays Basque* Euskal Herriko kazeta, egunkaria...
- Webguneak: www.eke.org (EKE), www.mintzaira.fr (EEP), euskal elkartenak.

ARGAZKIAK

Iparraldeko Bertsularien Xapelketa Gabadin 2010-10-23 (xilaba.net)
Euskal Herria Zuzenean festibala 2009
Hitzaditzarako kanpaina
Hitzaditza diktaketa 2009: afixa
Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2006, Baxok eta beste, Eusko Ikaskuntza)
Uda Lekuko opor gunea Biarritzen (2009-06-20, biarritzeuskara.canalblog.com)
Kanaldude Herri telebista (www.aldudarrak-bideo.com/kanaldude)
Ur Apalategiren Fikzioaren izterrak liburuaren azala (2010, Susa)
Okatxu komikia (2010, Asisko Urmeneta, Mattin Irigoien, Adur Larrea, Kukuxumusu, Argia argitaletxea)
Iron eta Maider rock taldea Maulen (2007/06, www.myspace.com/ironeta-maider)
Dantzari eguna 2010 (www.idb-idb.com)
Iparraldeko Bertsularien Xapelketa 2010: afixa
Buhameak maskaradetan (Maule 2007 - argazkia: Iñaki Zugasti)
Uztaro arte tailerra 2009ko Xiru festibalean (1) (uztaro.blogspot.com)
Uztaro arte tailerra 2009ko Xiru festibalean (2) (uztaro.blogspot.com)
Glisseguna 2010: afixa (Seaska)
Gazte bat joko garbian (Frantses federazioa: www.ffpelotebasque.com)
Nafarroaren eguna 2010 (www.eke.org)

Baigorriko Kultur astea 2010 (Basaizea elkarte)

Kutsidazu bidea Ixabel filma (www.eitb.com/kultura/zinema-euskaraz)

Aupa Etxebeste! filma (www.eitb.com/kultura/zinema-euskaraz)

Abbadia jauregia (www.anyresa.com/fr/ws_blob/file/2337)

Itsas armika / *Eryngium maritimum*

(www.jardinbotaniquelittoral-saintjeandeluz.org)

Ipar Euskal Herriko gaztetxeak eta asanbladak 2011an (Ipar Euskal Herriko Hitza-Berria)

Euskal Herriko Artxibo Zentroa – Baiona (www.cg.64.fr)

Biarritz hiriko elebitasunaren aldeko kanpaina

(biarritzeuskara.canalblog.com)

ERANSKINAK

I. ERAGILE BATZUEN ERREFERENTZIAK

Basaizea elkarte - Basaizea Kultur Batasuna

Bixentainia 64 430 Baigorri Tel.: 05 59 37 46 77 www.basaizea.com
basaizea@gmail.com

Bertsularien Lagunak

Larralde etxea 64310 Senpere Tel.: 05 59 54 15 04 www.bertsozale.com

Elkar argitaletxea Baiona

Arsenal plaza 64100 Baiona Tel.: 0(033)5 59 59 35 14 baiona@elkar.com

Euskal Irratiak (euskalirradiak.info)

Antxeta irratia (Hendaia, www.antxetairratia.com)

Gure Irratia (Uztaritze, www.gureirratia.eu)

Irulegiko irratia (Donibane Garazi, www.irulegikoirratia.com)

Xiberoko Botza (Maule, www.xiberokobotza.org)

Euskal Herria Zuzenean festibala

4, Francis Jammes karrika 64240 Hazparne Tel.: 05 59 70 20 08
www.ehz-festibala.com

Euskal Kultur Erakundea

Lota jauregia - PK 6 - 64480 Uztaritze Tel.: 0(033)5 59 93 25 25
www.eke.org

Euskararen Erakunde Publikoa

Platanoen etorbidea, 2 - 64100 Baiona Tel.: 0(033)5 59 31 18 34
eep-oplbumintzaira.fr www.mintzaira.fr

Ikas euskal pedagogia zerbitzua

Lota jauregia 64 480 Uztaritze - Tel: 0(033)5 59 93 24 80 88
www.ikas.org info@ikas.org

Infozazpi

Aztibegia elkarte - Zone artisanale 8, Martinzaharrenea 64 122 Urruña -
www.info7.com

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra

Harri Xuri gela 64 250 Luhuso idb-idb@sfr.fr www.idb-idb.com

Kanaldude Herri telebista

Herriko plaza 64780 Arrosa Tel.: 0(033)5 59 49 16 27 www.aldudarrak-
bideo.com www.kanaldude.tv kanaldude@gmail.com

Kontseilu orokorra: Irisarriko Ospitalea

Irisarri 64 780 Tel.: 0(033)5 59 37 97 20 www.ospitalea.cg64.fr ospi-
talea@cg64.fr

Kazeta.info

15, Jai Alai etorbidea 64220 Donibane Garazi.
Tel: 0(033) 5 59 37 55 36 harremanak@kazeta.info www.kazeta.info

Seaska

10 André Emlinger plaza 64 100 Baiona seaska@ikastola.net www.seaska.net

Théâtre des Chimères

75, avenue du Maréchal Juin 64200 Biarritz 05 59 41 18 19
www.theatre-des-chimeres.com

TVPI

Rue Contresta, 64210 Bidarte. Tel.: 0(033)5 59 31 28
15_end_of_the_skype_highlightingmel@tvpfi.fr

Uda Leku elkarte

7, Jouandin etorbidea 64100 Baiona Tel.: 0(033)5 59 55 01 25. Webgunerik
ez.

2. EEPren HIZKUNTZA POLITIKA PROIEKTUA, 2006

“Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lebertasun”

2. EUSKARAZ BIZI (aisialdia 40. or.)

...Gaur egungo egoeran, belaunaldi gazteentzat, euskararen erabilera eskolako jardueretara soilik mugatua izanik, batzuetan gauza bortxagarritzat hartzen dute. Denbora libreari lotuak zaizkion aisialdiko aktibitateek (kirola, kultura, multimedia...) gero eta garrantzi handiagoa dute gaurko bizimoduen antolaketa eta egituraketan, bizitzan, batez ere gazteenetan. Aisialdia funtsezko eremua bilakatzen da beraz beraien hizkuntza-bizitzan besteak beste. Bestalde, jarduera mota hau plazerrari lotua zaion heinean, motibazioarengan zuzenki eragiten du. Hizkuntza-politika proiektuak hizkuntzaren erabilpena eta transmisioaren garatzea helburutzat finkatzen baditu, erabilpena motibazioak zuzenki baldintzatzen duela kontuan harturik, argi gelditzen da erronka honi buru egin behar diola: **hizkuntza eta plazerra uztartuz hizkuntzaren erabilpena aisialdi-jardueretan sustatzeari hain zuzen ere...**

5/ AISIALDIA (47.-52. or.)

ERONKA NAGUSIA

Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozame-
na uztartu

NORABIDE ESTRATEGIKOAK

**I/ Familiei eman, lurralde osoan, euskarazko aisialdi eskaintza erakar-
garria eta kalitatezkoa hautatzeko aukera:**

- I.1. Euskarazko aisialdi zerbitzu antolatuen eskaintza garatu eta egituratu.
- I.2. Euskarazko aisialdirako tresna eta materialaren eskaintza zabal eta kalitatezko bati buruz joan, beharrezkoak diren egokitzeak eta sortzeak antolatuz.

**2/ Profesionalei eman euskaraz lan egiteko behar dituzten tresnak eta
gaitasunak:**

- 2.1. Aisialdiko profesionalen hizkuntza formakuntza beharrei erantzun.
- 2.2. Profesionalek euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresna eta baliabideak sortu eta zabaldu.

2.3. Euskaraz ari diren aisialdiko profesionalen elkargunea sortu.

LAN ARDATZAK

**I/ Familiei eman, lurralde osoan, euskarazko aisialdi eskaintza erakar-
garria eta kalitatezkoa hautatzeko aukera.**

I.I. Euskarazko aisialdi zerbitzu antolatuen eskaintza garatu eta egitu- ratu:

- ✓ Bertsolari eskolen sarea sustengatu eta azkartu, lurralde osoan eskuragarri jarritz.
- ✓ Aisialdi eta opor zentroyen sare bat egituratu:
 - Eskumena duten egiturekin partaidetzan, eskaintzaren karta definitu, lurralde osoan euskarazko aisialdi eskaintza eskuragarri jar lezakeena.
 - Eskaintzaren garatze eta egituratze plangintza definitu eta obratu, gaurko egituretan euskarazko eskaintza garatuz, bai eta ere eskaintza berri bat sortuz.
- ✓ Kirola euskaraz egiteko aukerak garatu:
 - Eskumena duten egitura eta erakundeekin partaidetzan, euskarazko kirol praktika eskaintzaren garatze plangintza definitu eta obratu, dau- den egituretan beretan edo eskaintza berri bat sortuz, haur eta gazteek gehienik praktikatzen dituzten kiroleetatik hasiz.
- ✓ Kultura alorrean, euskarazko eskaintza garatu, haur eta gazteak bereziki gogoan hartuz:
 - Eskumena duten egiturekin partaidetzan, euskarazko kultura jarduera eskaintza egituratu, haur eta gazte gehien biltzen dituzten egituretatik hasiz, eta belaunaldi gazteek gustukoena dituzten jardueri lehentasuna emanaz.
 - Euskarazko programazio kulturala antolatu, eskumena duten egiturekin partaidetzan, publiko gazteei zuzendu eskaintza berezia proposatuz (antzerki, zinema, bertso saio, pailazo ala txontxongilo ikuskizun, kan- taldi eta kontzertu...).
 - Euskarazko filmak lurralde osoan banatzeko sistema eraginkorra defi- nitu eta obratu.
 - Euskarazko sorkuntzan haur eta gazteen partehartzea bultzatu.
 - Praktika kulturala baliatu publiko berri batzuen euskarara erakartzeko eta euskararen ikastera eramateko: elkarrekin (bereziki euskal kantuan eta dantzari direnekin) lan egin, kantua eta dantzaren bitartez, elkarre- kideak euskarara hurbiltzeko, eta ikasteko gogoaren emateko.

- ✓ Euskarazko irakaskuntza proposatzen duten ikastetxeak, ikasleentzat antolatzen dituzten euskarazko jarduerak eta aisiak aberasten eta garatzen lagundu.
- ✓ Ikasleak bereziki erakartzen dituzten sail eta gaiak lehenetsi, euskaraz aritzea eta plazerra uztartzeko gisan : antzerkigintza, bertsolaritza, kazetalaritza, kirola, ateraldiak, ikastetxeen arteko zuzeneko zein Internet bidezko harremanak...
- ✓ Irakaskuntzako profesionalekin partaidetzan, euskarazko egonaldi eskaintza bat antolatu euskarazko irakaskuntzan dauden ikasleentzat, hizkuntza mailaren hobetzeko helburuarekin:
 - Hizkuntza egonaldiak proposatuz, bai eskola denboran, bai eskola denboratik kanpo.
 - Hizkuntza ingurumen ludikoan baliatzea helburutzat hartuz, euskara eta plazerra lotzeko gisan.
 - Jarduerak ikasleen gustuen eta interesen arabera hautatuz.
 - Ingurumen euskaldunak lehenetsiz, euskara eguneroko bizitzari lotzeko gisan.
 Ikastetxe, sare eta lurralde ezberdinen arteko harremanak bultzatuz.
- ✓ Ludoketetan, euskarazko jardueren antolatzea bultzatu, tokiko erakundeekin, euskarazko eskaintzan berezituak diren liburutegi-mediatekeekin eta elkarteekin partaidetzan:
 - Liburutegietan beretan, euskarazko zerbitzu bat antolatuz.
 - Gune berezitu berriak sortuz.
 - Zerbitzu ibilkari bat sortuz, euskarazko josteten eta aisiaren inguruan antolatua.

I.2. Euskarazko aisialdirako tresna eta materialaren eskaintza zabal eta kalitatezko bati buruz joan, beharrezkoak diren egokitzeak eta sortzeak antolatuz:

- ✓ Euskarazko argitalpen eskaintza oso bati buruz joan, eta publikoaren eskuetan ezarri (ikus 6/ *Argitalpena*).
- ✓ Euskarazko aisialdirako joko eta materialaren eskaintza egokitu, aberastu eta zabaldu:
 - Gaurko eskaintzaren azterketa kualitatibotik abiatuz, beharrezkoak diren egokipenen eta sorkuntzen plangintza definitu eta obratu.
 - Hedapena antolatu, prezio onargarrian:
 - Euskarazko eskaintzan berezitu saltegien eta liburutegien sareetaz baliatuz.
 - Zerbitzu ibilkaria sortuz, euskarazko eskaintza guzia (liburu, joko, kd-rom, ikasmateriala...) publikoarengana hurbiltzeko.

- Haur eta gazteekin lan egiten duten egiturei eta profesionali zuzendu prestaketa zerbitzu bat plantan jarritz (lehen haurtzaroko egitura eta profesionalentzat, aisialdi eta opor zentroentzat, ikastetxeentzat...).
- ✓ Interneteko euskarazko eskaintza garatu, bereziki haur eta gazteei zuzendua zaiena:
 - Haur eta gazteen Interneteko praktiken eta gustuen ezagutzatik abiatuz, gaurko eskaintza kontuan hartuz.
 - Eremu ezberdinak kontuan hartuz: edukiak, guneak, tresnak...
 - Publiko gazteen parte hartzea bultzatuz maila guzietan, sortzekoak ditezkeen edukien eta produktuen definizioan, sorkuntza prozesuaren baitan: blog, txat, forum, jokoak, filmak, marrazki bizidunak, ikasmateriala...

2/ Profesionaleri eman euskaraz lan egiteko behar dituzten tresnak eta gaitasunak.

2.1. Aisialdiko profesionalen hizkuntza formakuntza beharrei erantzun:

- ✓ Dauden profesionalen hizkuntza formakuntza lagundu:
 - Eremuz eremu (kirola, kultura, aisialdia), beharrak bildu.
 - Egiturekin eta helduen euskalduntzeaz arduratzen diren eragileekin partaidetzan, beharrei erantzuteko formakuntza egokituak antolatu, formakuntza jarraikiaz baliatuz, helburu eta interes berdinak dauzkaten pertsonen arteko formakuntza taldeak sortzea sustengatuz, metodoak eta ikasmaterialak taldeen beharrei egokituz.
- ✓ Eremuz eremu (kirola, kultura, aisialdia), jatorrizko formakuntzaz arduratzen diren ikas-zentroekin, hizkuntza formakuntza antolatu, euskaraz lan egitea gogo duten ikasleek jatorrizko formakuntzan berean hizkuntza gaitasunen erdiesteko parada ukan dezaten.
- ✓ Aisialdi eta opor zentroentzat, ikastetxeentzat, herrientzat... euskaraz lan egiteko gai eta prest litezkeen animatzaile beharrei erantzun, besteak beste kirol, kultura eta aisialdi egiturekin partaidetzan, nahikundeak duten langileen formakuntza plangintza plantan jarritz.
- ✓ Mugaz bi alderdietako diplomaren baliokidetasunari buruz joan, euskaraz aritzeko gai diren profesionalak bi aldeetan lana egin ahal izateko gisan.
- ✓ Taldeen harrerako aterbe zentroen arduradunekin partaidetzan, zentroetan euskararen ikasteko edo hobetzeko nahikaria duten langileen hizkuntza formakuntza bultzatu eta antolatu.

2.2. Profesionalek euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresna eta baliabideak sortu eta zabaldu:

- ✓ Haur eta gazteei zuzenduak diren aterbeen sare bat muntatu, euskarazko egonaldiak baldintza egokietan segurtatzeko gisan:
 - Urte osoan baliatuak ez diren lurraldeko egoitza egokien jabe eta kudeatzaileekin, hizkuntza egonaldiak zentro horietan antolatzearen egingarritasuna aztertuz (ikastetxeak, opor zentroak, ostatuak...).
 - Egonaldiak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan antolatzeko paradaz baliatuz.
 - Ingurumen euskaldunak lehenetsiz, ikasleentzat euskara bizitzeko hizkuntza izateko gisan, eta ez eskolako bakarrik.
 - Haur eta gazteentzat aisialdi jarduera eskaintza interesgarria daukaten eskualdeak hautatuz.
- ✓ Tresnak profesionalen eskura jarri:
 - Eremuz eremu beharren itzulia egin, egitura eta profesionalekin partaidetzan (tresna pedagogikoak, hiztegi berezituak, jokoak)...
 - Gaurko eskaintzatik abiatuz, beharrezkoak diren egokitze eta sortzeak begiztatu eta obratu.
 - Profesionalei zabalduak zaizkien tresnen baliatzeko eta euskaraz lan egiten trebatzeko formakuntza saio bereziak antolatu.

2.3. Euskaraz ari diren aisialdiko profesionalen elkargunea sortu:

- ✓ Elkargunearen nondik norakoak profesionalen beharren arabera antolatu: elgar trukatzeko, esperientzia eta konpetentzien partekatzea, euskaraz ari diren profesionalak elkar trebatzen laguntzea, lan tresnetaz elkarren artean gogoetatzea, familiei zuzendu euskarazko jarduerak partaidetzan asmatzea eta muntatzea...

ERRAMUN BAXOK ET JEAN-BAPTISTE COYOS

LES JEUNES, LES LOISIRS ET LA
LANGUE BASQUE
EN PAYS BASQUE NORD

TABLE DES MATIERES

Abréviations	185
Avant-propos: <i>L'avenir de la langue basque: les jeunes.</i> <i>Andres Urrutia, Président de l'Académie de la langue basque</i>	187
Remerciements	189
I. La problématique : les jeunes, les loisirs et la langue basque ..	191
I.1. Contexte et objectifs de la recherche	191
I.2. Loisir et loisirs : définitions	194
I.3. Les différents domaines de loisirs	195
I.4. Trois approches : éducation, création, consommation ..	197
2. Le corpus et la méthodologie	201
2.1. Les sources d'information	201
2.2. La méthodologie	205
2.3. Les limites du corpus et de la méthodologie	206
3. La jeunesse en Pays Basque Nord	213
3.1. Les jeunes dans cette recherche	213
3.2. Les jeunes dans la population du Pays Basque Nord ..	214
3.3. L'environnement socioculturel des jeunes	215
3.4. La compétence linguistique	216
3.5. L'utilisation de la langue basque	219
3.6. Les opinions concernant la langue basque	223
3.7. Le sentiment identitaire	225
3.8. Les jeunes et la culture basque	228

3.9. Les jeunes et les sports	230
3.I0. Les jeunes et la vie associative	232
3.II. La photographie des jeunes d'aujourd'hui	237
4. Les domaines des loisirs	241
4.1. Les centres d'accueil, les séjours et les randonnées	243
4.2. Les médias	250
4.3. Les livres	262
4.4. La musique, le chant et la danse	271
4.5. Le théâtre et l'improvisation poétique	280
4.6. Les arts plastiques	289
4.7. Le sport et le cirque	292
4.8. Les festivals et les fêtes	300
4.9. Le cinéma	308
4.I0. Le patrimoine	313
4.II. Les loisirs scientifiques et l'environnement	317
4.I2. Les loisirs autogérés	322
5. Les politiques publiques	327
5.1. Les débuts de la politique linguistique	327
5.2. L'Office public de la langue basque	329
5.3. L'Institut culturel basque	336
5.4. Les Collectivités locales	343
6. Principaux résultats de la recherche	351
6.1. Points forts et faiblesses	352
6.2. Propositions et recommandations spécifiques	354
6.3. Préconisations générales	355
6.4. Un dernier mot	357
7. Bibliographie	361
8. Photographies	365
9. Annexes	367
9.1. Références de quelques opérateurs	367
9.2. OPLB, 2006, <i>Projet de politique linguistique</i> : 5. Loisirs	369

ABREVIATIONS

Les abréviations suivantes sont utilisées dans ce livre, principalement pour désigner les institutions et pour faire référence aux différentes enquêtes.

Adolescents 1999: *Regard sur l'avenir : les adolescents du Pays Basque et la langue basque*.

Cadre 2016: *Cadre opérationnel 2011-2016 pour la politique publique linguistique*, OPLB, octobre 2010.

Culture 2006 : *Pays Basque 2020, État des lieux sur la culture*, Lurralde 2006.

Culture 2008 : *Habitudes, pratiques et consommation culturelles 2007-2008*.

Culture 2013 : *Culture basque 2007-2013, devenir ensemble*, ICB.

Enquête 2006 : *IVème enquête sociolinguistique*, Gouvernement Basque.

État des lieux 2009: *État des lieux provisoire de l'action menée par l'Office public de la langue basque*, septembre 2009.

ICB : Institut culturel basque.

Identité 2005 : *Identité et culture basques au début du XXIème siècle*.

INSEE: Institut national de la statistique et des études économiques.

OPLB : Office public de la langue basque.

Politique linguistique 2006 : *Projet de politique linguistique*, OPLB.

SIADeco: Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario.

Situation 2006 : *La situation de la langue basque en Pays Basque Nord*, E. Bachoc.

AVANT-PROPOS

L'avenir de la langue basque : les jeunes

Nous tous qui nous inquiétons de l'avenir de la langue basque nous savons que celui-ci, dans une grande mesure du moins, se trouve entre les mains des jeunes générations. En effet, le futur d'une langue réside dans les jeunes, dans la mesure où celle-ci continue à vivre sur leurs lèvres. *Zabar hitzak, zubur hitzak* (Paroles d'anciens, paroles de sages), dit-on traditionnellement chez nous, avec raison. Ainsi, ceux qui sont plus avancés en âge ont dans leurs paroles le charme de ceux qui ont écouté et ont appris.

Les jeunes, par contre, sont maîtres dans l'instantanéité. Dynamiques, innovateurs... iconoclastes dans beaucoup de domaines, y compris la langue. Finalement, ils se meuvent très facilement dans tout ce qui a trait à la mode et à la nouveauté.

Voilà donc la matière du livre que nous proposent les bascophiles et académiciens basques Erramun Baxok et Battittu Coyos. Au fond, ils ont donné la parole aux jeunes, écouté, réuni et analysé leurs opinions et nous les présentent, afin que nous qui nous soucions de la langue basque, mais les autres aussi, sachions où nous en sommes à l'heure actuelle dans cette affaire.

La transmission de la langue de génération en génération fait partie des questions essentielles. Le basque serait perdu dit-on dans la bouche des jeunes. Des enquêtes très explicites ont déjà été menées en Pays Basque Nord au sujet des jeunes, sur la place de la langue basque dans leurs loisirs, jusqu'où, pour quoi et dans quels contextes ils l'utilisent.

Mener de tels travaux demande, c'est évident, un soutien solide et vigoureux. C'est ce que, parmi d'autres, l'Office public de la langue basque a fourni ces dernières années. Dans cette entreprise, il a l'Académie de la langue basque comme compagnon et partenaire et ce livre-ci en est la preuve on ne peut plus évidente.

Mais le mérite, cependant, en revient d'abord aux auteurs, car ce sont eux qui ont étudié ces données, les ont classées et présentées de façon pertinente, lorsqu'ils ont étudié du point de vue de la langue basque les loisirs, composante importante de la vie des jeunes.

C'est un monde que le lecteur découvrira, un monde significatif, qui donne la possibilité et l'occasion de comprendre les hauts et les bas de notre langue. La conclusion elle, clairement, met en évidence les solutions pour renforcer l'usage de la langue dans les loisirs.

Une telle recherche entre parfaitement dans les tâches de l'Académie de la langue basque et de la commission Sustapen (soutien) de son département JAGON (veiller). C'est comme cela que la commission l'a compris lorsqu'une première version de ce travail avait été présentée en novembre 2010 à Bilbao lors du colloque intitulé "Gazteak, aisialdia eta euskara" (Les jeunes, les loisirs et la langue basque). Ce qui alors était une simple contribution est devenu un livre conséquent et remarquable de la collection JAGON de l'Académie.

Il ne s'agit pas du premier livre de ce duo. Et je pense que ce ne sera pas le dernier. Nous ferons notre possible à l'avenir également, pour que leurs travaux aient un écho, au Pays Basque Sud comme au Pays Basque Nord, dans tout le Pays Basque, grâce à notre Académie.

Pour cela ils ont choisi comme outils le basque et le français, restituant ainsi par cette dualité un reflet de la société. De cette manière, la bibliographie s'est enrichie des deux langues, et par là-même le contenu et le poids de la collection.

Mes félicitations et remerciements aux auteurs et à l'Office public de la langue basque, pour avoir facilité la publication de ce travail. Continuons sur le même chemin, car il y a encore de quoi questionner et approfondir.

Andres Urrutia
Président de l'Académie de la langue basque
Euskaltzainburua

REMERCIEMENTS

Nous voulons exprimer nos remerciements les plus chaleureux à ceux qui nous ont aidés et notamment

à Andres Iñigo, président du département Jagon de l'Académie basque,

à Ttitto Aguerre et Maider Bergouignan, chargés de mission à l'Office public de la langue basque.



Iparraldeko Bertsulari Xapelketa à Gabat 23-10-2010
(xilaba.net)

I. LA PROBLEMATIQUE : LES JEUNES, LES LOISIRS ET LA LANGUE BASQUE

I.1. CONTEXTE ET OBJECTIFS DE LA RECHERCHE

Le présent travail correspond au thème choisi en 2010 par l'Académie de la langue basque, Euskaltzaindia, pour la XV^{ème} journée *Jagon* (veille) intitulée « *Les jeunes, les loisirs et la langue basque* ». Cette recherche fait partie de l'accord de coopération que signent chaque année l'Académie basque et l'Office public de la langue basque (OPLB). Son cadre de réalisation est la commission *Sustapen* (promotion) du département *Jagon* de l'Académie basque.

L'objectif principal de la recherche est d'étudier quels sont aujourd'hui chez les jeunes du Pays Basque Nord les loisirs qui ont un lien avec la langue ou la culture basques. Il s'agit avant tout d'une recherche à caractère descriptif, sans objectif théorique. Les relations entre les jeunes, les loisirs et la langue tel est l'objet de cette étude, une étude complexe. Nous nous intéresserons particulièrement aux activités, comment, avec qui et où elles se réalisent.

Le temps de loisir est grand dans la vie d'un jeune d'aujourd'hui. En moyenne, il y a 180 jours de classe par an, que se soit en France (24 heures par semaine à l'école, de 30 à 40 heures au lycée) ou en Espagne. En conséquence, en ce début de XXI^{ème} siècle, ce temps de loisir est devenu un facteur stratégique pour la langue basque. Aujourd'hui, en ce qui concerne cette génération, les relations de proximité, les réseaux sociaux et les attitudes face à la mode influencent beaucoup le comportement linguistique. Sans oublier l'influence de l'offre en matière de médias de communication, en matière aussi de produits et services de loisir¹.

¹ Voir une analyse des facteurs qui influencent le langage des jeunes dans *Gazteen bizkuntza erabileran...*, Soziolinguistika Klusterra, 2009.

Nous analyserons quelle est, aujourd'hui, l'offre de loisirs en langue basque pour les jeunes du Pays Basque Nord. Pour cela nous essaierons de faire un état des lieux à la fois vaste et précis. C'est ce que l'on proposera au chapitre 4, sans prétendre à l'exhaustivité. On présentera les activités des opérateurs privés et publics dans les différents domaines des loisirs. En même temps nous nous intéresserons à l'offre culturelle et artistique, car la culture est en lien étroit avec l'offre en matière de loisirs.

